1. SARRERA: AZKEN BRONTZE AROKO ETA BURDIN AROKO IKERKETEN HELBURUAK ETA METODOLOGIA EUSKAL HERRIKO ATLANTIKOKO ISURIALDEAN.

Azken Brontzeari eta Burdin Aroari buruzko ikerketa programa bat jarri genuen abian orain dela hogei urte, Gipuzkoako lurraldea harturik oinarri. Programa haren arabera aztarnategietan bertan lan egingo zen, katekin eginiko prospekzio programa sistematiko baten bidez eta indusketa arkeologikoen bidez, eta orobat lan egingo zen laborategian.

Aire zabaleko eta haitzuloetako habitat berriak aurkitzeko asmoz antolaturiko katen bidezko miaketa sistematikoen bidez hainbat haitzulo ikertu genituen Gipuzkoan, 1981 eta 1982 urteetan, A. Armendariz eta J.A. Mujikaren laguntzarekin. Ikerketa haien emaitzak 1982ko Gipuzkoako Karta Arkeologikoan eman ziren argitara. Bizitoki berriak bilatzeko hiru ekinaldi antolatu ziren lehenik, C. Olaetxearen eskutik. Lehenengo ekinaldia 1987an eta 1988an eraman zen aurrera, Murumendi-Intxur ingurunean eta Deba Garaiaren hegoaldean; Murugain bizitokia (Arrasate-Aretxabaleta-Aramaio) aurkitu genuen, eta kata egin genuen bertan. Bigarren ekinaldia 1988 eta 1989. urteetan egin zen, Urola ibarrean, eta ez zen emaitza positiborik lortu. Hirugarren ekinaldia, berriz, 1989 eta 1990. urteetan, Deba Behean eta Deba Garaiaren iparraldean egin zen. Ekinaldi haren emaitza izan zen Moru bizitokiaren aurkikuntza (Elgoibar), eta material arkeologikoa aurkitu zen bertan egindako kata batean. 1989an, eta lankide batek ohartarazi gintuelarik, Buruntza bizitokia (Anoeta) aurkitu genuen. Azkenik, 1992an, Murumendi (Beasain) eta Basagain (Anoeta) esparruen existentzia berretsi zen, bi katetan, eta 1995ean, bizitokien miaketa egiteko ekinaldi berriak antolatu zirelarik, Munoaundi (Azpeitia-Azkoitia) bizitokia aurkitu zen.

Megalitoei dagokionez, J. Blot, L. Millán eta L. del Barriok, nagusiki, harrespil berrien bila 1970 eta 1998 bitartean aurrera eramandako ekinaldi sistematikoekin batera, prospekzio sail bat egin dugu guk gure aldetik, eta horrez gainera aurkikuntza guztiak berraztertu ditugu, hemen aurkezten den katalogo orokor honetan ager zitezen.

Egitasmo orokorraren baitan funtsezkoak izan dira, halaber, **indusketa arkeologikoak**. Zenbait harrespil multzo induskatu ditugu, adibidez Mulisko Gaina (1983-1985), eta zenbait monolito –Supitaitz (1982) esaterako–; zista –besteak beste Onyi (1987)–; eta bizitoki, adibidez Intxur (1985-1993) edo Basagain (1994-1998, artean amaitzeke) ere ikertu ditugu. Era berean zundaketak eta katak egin ditugu Murugain (1988), Buruntza (1989) eta Moru (1991) bizitokietan. Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Arkeologia Sailaren eskutik, Buruntza (1992-1996) bizitokia induskatu du C. Olaetxeak, egitasmo beraren baitan, eta zundaketa zabalak egiten hasi ziren 1998. urtean Munoaundikoan, S. San Joseren zuzendaritzapean.

Lan hauen eta beste batzuen emaitzek osatu zuten 1982an argitara emandako lehenengo Karta Arkeologikoa, zeinetan biltzen baita historiaurreko era guztietako aztarnategien berri, baina gerora beharrezkoa ikusi genuen megalitoen karta bat osatzea (1990ean eman zen argitara) eta haitzuloen beste bat ere prestatzea (1995ean kaleratu zen hau); horiez gainera, aurki kaleratuko da Gipuzkoan ezagutzen diren aire zabaleko aztarnategi eta han-hemenkako aurkikuntza guztien berri biltzen duen argitalpen bat ere.

Ikerketek aurrera egin ahala, ordea, ikerketaren muga geografikoak zabaltzea eta Euskal Herriko Atlantikoko isurialde guztia ikertzea erabaki genuen, esparru horretan guztian antzeko egoera zela ohartu baikinen. Hortaz, lan honetan agertuko dira Gipuzkoako ikerlanen emaitzarekin batera, baita Araba Atlantiarreko, Bizkaiko, Lapurdiko, Nafarroa Atlantiarreko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako aztarnategietan egindako prospekzio lanak eta indusketak, alde batera utzirik, betiere, amaitu gabe dauden ikerketak eta argitaratu gabe dauden informazioak, ikertzaile bakoitzaren eskumenekoak baitira horiek.

Aztarnategiko bertako ikerketak osatzeko **katalogazio eta ikerketa** lan handia egin da 1983-1998 bitartean Pirinioetako mendikate nagusietan azterturiko 413 harrespil multzotako 1.104 harrespilei buruz. Harrespilen gertaeraren kohesioaz jabeturik, bestalde, era honetako aztarnategien eremu geografikoa zabaldu genuen, Biarno, Huesca eta Pirinio Garaietara, gaur egun ezagutzen diren harrespil guztiak batera aztertzearren.

Laborategiko lanari dagokionez, prospekzioetan zein indusketetan bildutako informazioetatik eta materialetatik abiatuta egin dira lanak laborategietan, aldi berean, eta diziplina anitzeko adituez osaturiko taldeak osatu dira ikerketa bakoitzerako.

Aipatu diren lan horiek hasi aurretiko egoera zela-eta, zaila gertatzen zen Azken Brontze-Burdin Aroaz mintzatzea, salbu eta lan jakin batzuen kasuan, informaziorik apenas ematen zuten lan batzuen kasuan hain zuzen. Honela deskribatu zuen A. Llanosek (1978) Bizkaiko eta Gipuzkoako egoera: "... ikerketa gutxi egin dira aro horiei buruz. Intxurreko (Gipuzkoa) eta Nabarnizko (Bizkaia) kastroen indusketak alde batera utzita, ezin esan daiteke beste inongo aztarnategirik induskatu denik, garai haietako materialak aurkitu diren haitzulo batzuetako goi estratuak ez badira. Azterketa hau egiteko eskura ditugun materialak halabeharrez aurkituak dira, inongo kontrolik gabe topatuak eta, kasu askotan, aurkikuntzaren ondorengo kontrolik ere izan ez dutenak". Guri dagokigunez, erantsi nahi dugu Maruelezan zein Intxurren 1944. urtean eta 1957-1959 bitartean egindako lanetan ez zela inongo material arkeologikorik bildu.

Harrespilei dagokienez, A. Llanosen beraren iritzian, ez da haien kronologiari eta erabilerari buruzko emaitza zehatzik eskuratu, eta ustez soilik esan daiteke kultura zaharragoetako abeltzaintza ekonomiaren tankerako ekonomia bat zuten artzain taldeen hilobiak zirela.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurretan, bizitoki gotortuen inguruko hainbat lan egin zituen F. Gaudeulek 1970eko hamarraldian, eta 1980tik aurrera eman zituen aditzera lan haietako gehienen emaitzak.

Azken urteotan egindako lanek, eta lan horietan oinarriturik argitalpen honetan biltzen diren hileta munduari buruzko xehetasunek, interes bereziko ekarpen sail bat egin dute:

- Bigarren mila urtekoko azken mendeetan eta aro aldaketa aurreko milurtean zehar bertan finkatu diren herrien oinarri izan den eta ezaugarri komun jakin batzuk dituen eremu geografiko baten definizioa.

- Bizitokien (herri, haitzulo eta gune bakartu) eta hilobien (harrespil eta zista) kokalekuari antzemateko helburuz egindako prospekzio ekinaldiak programatzea eta burutzea.

- Bizitoki eta hilobi aztarnategi ezagunen katalogazio sistematikoa, orotara 1.186.

- Tipologia desberdinetako aztarnategietako indusketa lanak eta zundaketak eta katak, zeinari esker finkatu ahal izan baitira estratigrafiak aztarnategi horietako batzuetan (Intxur, Basagain eta Buruntza), eta inguru honetako lehenengo tipologiak finkatzeko baliagarri izan diren material litikoak, zeramikoak eta metalikoak, nagusiki, biltzea. Osagai berria da aire zabaleko bizitokietako egituren definizioa, eta datazio absolutu ugari eskuratu dira halaber.

- Diziplina anitzetako ikerketak, induskatuta dauden aztarnategiei buruz (Supitaitz, Mulisko Gaina eta Onyi) eta induskatzen ari direnei buruz (Intxur eta Basagain).

- Bizimoduari eta hileta erituei eta moldeei buruzko lehenengo iritzi eta uste orokorren aurkezpena.

Baina ikerketa prozesuan zehar hainbat zailtasun eta eragozpen ere aurkitu dira, ondoren aipatzen diren hauek nagusiki:

- Lan honetan ikertzen den eremurako oinarri teoriko kronologiko-kulturalik eza.

- Gida gisa erabiltzeko moduko “fosilen” urritasuna edo gabezia.

- Indusketa eta estratigrafia falta, leku askitan halakorik osatu ez izana.

- Hemen agertzen diren egoera kulturalez bestelako ereduak aplikatzeko zailtasuna, eta horren ondorioz, lanean bildutako datu berriak oinarri harturik ereduak osatu beharra; Euskal Herriko Historiaurrearen eta Protohistoriaren ezagueran hutsune nabarmena bete ahal izan da haien kronologia absolutua, ekipamenduaren ezaugarriak eta kulturaren sekuentzia orokorra osatu izanari esker.

Era berean, komenigarria ikusten dugu hitzaurre honetan metodologiari buruzko zenbait zehaztapen egitea:

- Katalogoen osaerari eta aztarnategien kokatze kartografikoari dagokionez:

1.- Aztarnategien antolamendua. Aztarnategiak katalogatzeko orduan lurralde historikoka banatu dira, mendebaldetik hasi eta ekialderanzko ordenan. Lurralde bakoitzaren baitan ordena alfabetikoa hartu da oinarri, bestalde, aztarnategiak non dauden errazago aurkitu ahal izateko.

2.- Katalogoko fitxen antolamendua eta edukia. Ondoko irizpide hauen arabera antolatu da aztarnategi bakoitzari dagokion informazioa:

Aztarnategiaren izena.- Aztarnategiaren izen osoa agertzen da.

Kokalekua.- Labur-labur adierazten da kokalekuaren, udalerriaren eta UTM koordenatuen berri.

Deskribapena.- Gaur egungo egoeraren berri ematen da, zehaztasun gehiagoz ala gutxiagoz, kasu bakoitzean eskuratu ahal izan den informazioaren arabera.

Historia.- Leku bakoitza nork eta noiz aurkitua den esaten da, eta baita gune bakoitzean egindako lanen berri ere, adibidez indusketarik, zundaketarik, katarik edo suntsiketarik gertatu den.

Indusketa.- Indusketa egin den kasuetan lan horien bitartez bilduriko datu esanguratsuenak agertzen dira eta baita estratigrafia eta aurkituriko egiturei buruzkoak ere.

Materialak.- Aztarnategi bakoitzeko inbentarioan jasotako material guztien berri ematen da, salbu eta lanen arduradunek lanak amaitu gabe dituzten kasuetan.

Kultura sekuentzia.- Aztarnategia denboran kokatzen da eta kokatze horren eta, halakorik balego, datazio absolutuen berri ematen da.

Bibliografia.- Aztarnategi bakoitzari dagozkion aipamen bibliografiko guztiak biltzen dira.

3.- Kokatze mapen eskala desberdintasuna. Aztarnategiak kokatzeko ez da beti mapa bera erabili, aztarnategia zein lurralde historikotan dagoen. Izan ere, ikerketa honen oinarri den eremua administrazio desberdinen eskumenean dagoela-eta, 1:25.000 eskalako mapak erabili dira Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa, Biarno eta Pirinio Garaietako aztarnategiak kokatzeko, 1:50.000 eskalakoak Araba eta Huescako aztarnategien kasuan eta bietarakoak, azkenik, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako aztarnategien kasuan.

Batzuetan (Gipuzkoako aztarnategi guztietan) eskura genuen 1:5.000 eskalaren araberako kokatze mapa ere, baina atal honetan ahalik eta berdintasun handiena lortzearren, 1:25.000 eta 1:50.000 eskaletara eraman dira. Lan hori bera egin da Nafarroako aztarnategien kasuan, hasieran 1:10.000 eskalako mapetan kokatuak baitziren.

- Harrespilen ikerketari dagokionez:

Hilobi aztarnategi hauen ikerketa aro aldaketa aurreko lehen mila urtekoa osorik hartzen zuen eta habitatak garrantzi handiko lekua hartzen zuen beste ikerketa zabalago baten baitan egina da, baina nabarmendu beharra dago Euskal Herriko Atlantikoko isurialdeko eta inguru horretako Pirinioetako eremuetako hileta gertaera berez dela interesgarria. Horrexegatik erabaki dugu habitatari buruzko ikerketatik bereizi eta atal honi dagozkion azken ikerketak eta ondorioak argitalpen berezi batean plazaratzea.

2. INGURUNE FISIKOA

2.1.- Sarrera.

Euskal Herriko Kantauriko isurialdea, zeina hartu baitzen lan hau egiteko ikergune, mendebaldeko Pirinioak izeneko batasun geologikoaren parte da.

Ikuspegi geologikotik begiratuta eremu aski konplexua da, historia geologiko luze eta zail batean zehar sorturiko azaleko hainbat gertaerak ezaugarritua (L. Martinez Torres, 1997).

Pirinioetako katea Creus Lurmuturrean sortu eta Bidasoaraino iristen den 415 km-ko mendikatea da.

Kate horren erdialdean nabarmentzen dira altitude gorenak, 3.300 m-tik gorako guneekin (Aneto 3.404 m, Posets 3.375 m, Monte Perdido 3.335 m eta Vignemale 3.298 m). Handik Mediterraneo eta Atlantiko aldeetara gero eta altuera txikiagoa du kateak, itsas mailaz behera jaisteraino.

Erdialdean dago, halaber, harri masarik handiena ere, 150 km ingurukoa; muturretan, berriz, erdialdean baino estuagoa da. Hain zuzen ere, masa eta altitude txikiagoa izate horri esker (2.000 m-tik beherako garaiera du mendebaldean), igarobide natural errazagoa gertatu da Europako kontinentearen eta Iberiako penintsularen artean.

Funtsean, hegoaldetik material mesozoiko eta hirugarren arokoez inguratuta dagoen "Ardatz" deritzon ardatz paleozoiko batez osatuak dira Pirinioak.

1. irud. Pirinioen banaketa, eta koadroan, Ekialdeko Pirinioen eta Euskal-kantauriar arroaren kokagunea. (L.Martinez-Torres, 1977).

2.2.- Mendebaldeko Pirinioak. Erliebearen antolaketa.

Eremu geologiko honek Bizkaia, Araba iparraldea, Gipuzkoa, Nafarroa iparraldea, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherea hartzen ditu bere baitan.

Pirinioetako alderdi hau mendigune hertziniar sail batez dago osatua; mendigune horiek osatzen dute, beren estalki mesozoikoarekin batera, mendialdearen mendebaldeko muturra.

Itxurari begiratuta, arku baten itxura du, iparraldera begira duela alderdi ahurra. P. Feuillée eta P. Ratek Euskal Arkua izena eman zioten arku horri 1971n.

Arkuaren ekialdeko adarra Lapurdi, Aldude, Kintoa eta Bortzirietako mendigune paleozoikoek osatua da, eta estalki Paleozoikoa du.

Mendebaldeko erdian, berriz, sustratu paleozoikorako egokitzea antzematen zaien toles egiturako sail mesozoikoak eta hirugarren arokoak daude.

Material paleozoiko horiek bi orogenia jasan dituzte, hertziniarra eta alpinoa, eta batzuek zenbait deformazio aldi ere izan dituzte bi orogenia horietako lehenengoan.

Eremu honetan lau atal nagusi bereizten dira.

-Ipar Pirinioaldea.
-Ardatzaldea.
-Hego Pirinioaldea.
-Euskal-kantauriar arroa-Euskal Mendiak.

G. Viersek dioenez (1973), egiturazko erliebeen batasunari erreparatzen bazaio, mendebaldeko Pirinioak Oria ibarrean amaitzen dira, Paleozoikoko azken mendiguneekin, edo Santander eta Bilbo artean, "Euskal Arkua" amaitzen den gunean.

2.2.1.- Ipar Pirinioaldea.

Ardatzetik iparraldera. Iparralderanzko egituretan antolaturik dauden harri posthertziniar alpinoez osatua da nagusiki. Iparraldeko muga ez da ikusten, Akitaniako plataformaren material post-alpinoen azpian baitago.

Eremu honen morfologia askotarikoa da. Pirinioetako failaren iparraldera, zerrenda estu batean, Ipar Pirinioaldeko kateak daude, ekialdetik mendebaldera, handitik txikirako garaierekin, eta material mesozoikoz eta zenozoikoz osatuak, Basabürüan (Orhi 2.021 m), Arbailetan (1.282 m) eta Arbeloako Croisant delakoan zehar.

Basabürüako mendigunea da mendebaldeko Pirinioetako gunerik garaiena. Pirinioetako Ipar eta Hego isurialdeak Larra eta Orhi mendiguneen bidez elkarri lotzen dizkion mendigune hau "kanoietako kareharri" deritzenez osaturiko estalki mesozoikoaren gainean dago eratua, Senosienseko suharrizko kareharrien, eskistoen eta flychen gainean.

Mendigune honen ezaugarririk nabarmenena kareharrizko erliebea da, karst ikusgarri bat, lapiaz eta dolina eremu zabalak eta 1.400 m-rainoko sakonerako eta 150 km-ko galeriekiko endokarst bat ageri dira bertan.

Santa-Grazin, laugarren aroko glaziarren eraginak moldatua da kareharrizko erliebea; glaziarrak urtzean sorturiko ur jarioek eta Larrako mendigunetik husturiko urek zulaturiko kanoi sakonek zeharkatzen dute eremu hura.

Kate hauen iparraldera eta Aturri ibaiaren ertzeraino, mendi magal piriniar bat dago, flyscharen gainean eraturiko mendi lepoek ezaugarrituriko paisaia leun eta bihurgunetsua duena, 400 m-tik beherako garaierarekin.

Topografia leuneko eremu honetan bertan alubioi zabaldi handiko ibaiak daude, eta egitura geologikoak elkarzutean ebakitzen dituzten Pirinioetako H-I-rako ibaien ura jasotzen dutenak.

2.2.2.- Ardatzaldea.

Azalera agertzen diren materialak metamorfikoak dira nagusiki, kasu bakar batean bakarrik kristalinoak (Aiako harriak).

Mendebaldeko Pirinioetako ardatza osatzen duten azaleratze paleozoikoak mendigune bakartuak dira. Honako hauek dira azpimarratzekoak:

- Bortziriak
- Aldude-Kintoa
- Lapurdi
- Iguntze
- Mendibeltza

Mendigune hauen erliebea beren litologia eta egitura geologiko anitzen arabera moldatua da. Ez dira oso mendi garaiak (1.300 m-tik behera) baina malda handia dute eta ibar ahokatuak eta Behe Triasikoko azaleratzeei eta barra kuartzitikoei loturiko gailur azaleratu batzuk.

Erliebean gailur biribildu leunak eta meandro itxurako ibar estu sakonak dira nagusi, oro har.

Hegalak uniformeak eta erregularrak dira, maila aldaketa nabarmenik gabe gailurren eta ibar hondoen artean; mendigune hertziniarren inguruan agertu ohi diren hareharrizko materialez osaturiko goruneak dira gailurren eta ibar hondoen arteko eten bakarrak.

Mendiguneetako materialak Ordobizikokoak (Kintoa) eta Permiko eta Behe Triasikokoak dira.

2.2.3.- Hego Pirinioaldea.

Ardatzaldearen hegoaldean IE-HM norabideko azaleko gertaera garrantzitsu bat ageri da, Iruñeko Faila deitua. Faila horrek garbi-garbi bereizten ditu Euskal-kantauriar arroa (Euskal Mendiak) eta Hego Pirinioaldea osatzen dituzten lurrak.

Hego Pirinioaldeko barnealdeko mendilerroek osatzen dute orogenia Alpinoak eraldatu eta lekualdatu duen Pirinioetako katearen estalki sedimentarioa, altitude handiko mendiguneak eratuz (Auñamendi 2.507 m).

Pirinioetako Ardatza inguratzen dute mendikate hauek eta lotura diskordantea dute harekin.

Erliebea litologiak eta tektonikak egituratua da, kareharria eta zohikatzezko atalak dira nagusi, eta Basabürüarekin bat egiten du parte batean, Anielarra mendigunearen bidez.

Goi Kretazeoko kareharri garbien azaleratzeek plataforma eskegi bat itxuratu dute, Belagoa eta Santa-Grazi ibarren gainean: gune horretan karst izugarri bat ageri da. Larrako mendiguneak adierazten du, bestalde, euskal mendietako laugarren aroko izotzaldiaren hedadura handiena. Paquiza (2.112 m), Hiru Errege Mahaia (2.428 m) eta Auñamendi (2.507 m) mendien gailurren inguruan izotzezko domo handi bat eratu zen, eta hartatik zenbait mihi dibergente abiatzen dira Belagoa, Laskain, eta Santa-Graziko ibarretara. (Mª.J. Gonzalez, 1976).

Alde hau osatzen duten mendikateak dira Arrigorrieta, Orhi, Irati, Larra eta Urkulu-Ontzanzurüeta.

2.2.4.- Euskal Mendiak.

Iruñeko failaren mendebaldera dago Euskal-kantauriar arroa, zeinetan nabarmentzen baitira ondoko hiru atal hauek, L. Martinez Torresen arabera (1997):

- Euskal Arkua.
- Santander aldeko blokea.
- Araba aldeko blokea.

Santander aldeko blokeak arroaren mendebaldearen, eta beraz Pirinioetako katearen, amaiera adierazten du.

Atal honen mugak, berriz, hauek dira: Iruñea, ekialdean; Kantauriko mendikatearen eremu mugikorra, hegoaldean, Ebroko isurialdean eta, beraz, gure ikergunetik kanpo; eta Asturiar mendigune Paleozoikoak eta haren eraginpeko eremuak, mendebaldean (F. Ugarte, 1994).

Bortzirietako mendigunearekiko muga, Euskal Arkuaren ekialdeko muturrean, Leitzako faila deritzonak egiten du; garrantzi handiko “marmolezko mantu” bat da, garrantzi handikoa tektonikaren aldetik, haren bidez batzen baitzaizkie elkarri Europako eta Iberiako plakak (L. Martinez Torres, 1997).

Ikuspuntu fisiografiko eta geomorfologikotik begiratuta, multzo hau eskualdez eskualdekako zenbait atalez osatua da:

1.- Euskal-kantauriar alderdia (Euskal Mendiak), Euskal Arkuarekin loturik.

2.- Ebroren arro hidrografikoei dagokien alderdia, azterketa honetatik kanpo geldituko dena.

Euskal-kantauriar arro hidrografikoek osatzen dute alderdi horietan lehenengoa, hasi Bidasoatik eta Zierbeneko Barbadun ibaira, eta Ipar Pirinioaldeko isurialdeko ibaiek, Errobiraino (P. Lamare, 1936), zeinak baitute iturburua Euskal Arkuko mendi zerrendetan.

Erliebeak 1.500 m eskaseko altitudea du (Autza 1.306 m, Saioa 1.418 m, Aralar 1.427 m, Aizkorri 1.548 m eta Gorbeia 1.457 m).

Alderdi honetan arroak oso txikiak dira (1.000 km²-tik behera), Ibaizabal-Nerbioi ibaiaren kasuan izan ezik (1.764 km²). Luzetarako profila uhar motakoa da, %2-3ko malda orokorrarekin.

Ibarraren profil morfologikoek "V" itxura dute, eta ibar hondoko alubioi lautada txikia, goi eta erdiko ibarretan.

Ez dago korrelaziorik talweg nagusiaren luzetarako profilaren eta arroa mugatzen duten ibaiarteen erliebearen artean; ibarren profila malkartsua izan daiteke, baita kostaldetik hurbileko ibarretan ere.

Kantauri-Mediterraneo arroen muga egiten duen lerroa kostaldetik 35-40 km-ra dago, eta datu horrek eta zerrendaren altitudeak (Aizkorri 1.548 m) aditzera ematen dutenez, Kantauriko isurialdeko ibaiak indar handiz jaisten dira, uharka.

Euskal Mendietako Kantauriko isurialdeko atal estrukturalak Euskal Arkua delakoan txertaturik daude.

Euskal Arku hori da eremu honetan estalkiaren tektonikak duen adierazpena; Paleozoikoa du oinarria eta Keuper maila du abiapuntuko maila.

IE-HM norabideaz hasi, gero E-M-ra aldatu eta HE-IM norabidean amaitzen diren megaegitura sail batez osatua da.

Horien artean bereizten dira:

- Monoklinal Litorala, Eozenoko hareharriz osatua da eta Bidasoatik Zumairaino (Jaizkibel, Ulia, Mendizorrotz) Iparreranzko makurdura aldapatsuko erliebea du.

- Bizkaiko Ipar Antiklinala (Tolosa-Lekeitio Zerrenda Mugikorra), Mundaka-Gernika zabaltze-ertz diapirikoa osatzen duten hainbat erliebe estruktural sinklinalekin –Uzturre eta Ernio–, mendiguneekin –Izarraitz-Arno– eta alde antiklinalarekin.

- Ardatzeko sinklinala (Bizkaiko sinklinala). Bortzirietako eta Aldudeko bi mendigune hertziniarrak bereizten dituen Elizondo-Leitza sakonunea, zeinetan baitago txertatuta "marmolezko geruza", hartzen du batetik, eta mendebaldera, berriz, Bizkaiko sinklinala.

Egitura honetan, material mesozoikoen artean basaltoak agertzen dira azalean, eta malda handiko erliebe bereziak eta ibar ahokatuekikoak sortzen dira. Gehien nabarmentzen diren gailurrak Elosua, Irukurutzeta, Urko eta Oiz dira, eta kostalderako altitude txikienak, berriz, Butroe ibaiaren arroan daude (Bizkargi 563 m, Berriaga 366 m eta Unbe 301 m).

Drainatze sistemak ortogonalki zeharkatzen du talwegak azaleratze basaltikoak zeharkatzen dituenean (Urretxu-Azpeitia, Soraluze eta Eibar), Urola eta Deba ibaietan, ibar oso malkartsuko profileko morfologia duen egitura hau.

Ibaizabal ibaiak, atal honen ertzean, eta Butroe ibaiak, IM-eko muturrean, egitura geologikoarekin konkordantzian lotzen den ahokadura bat dute.

- Bizkaiko antiklinala. Kanpoaldeko arku antiklinala. Hau da multzo osoko zabalena, eta aurretik deskribaturiko egiturak inguratzen ditu, hegoaldetik. Aldudetik ekialderantz luzatzen da, Somorrostroraino, eta bere baitan hartzen ditu Aralar, Aizkorri, Udala, Arangio, Anboto, Aramotz, Eskubaratz eta Gorbeiako mendiguneak; bertan daude atal honetako altitude gorenak, eta Kantauri eta Ebro aldeko isurialdeen arteko banalerroa eratzen du.

Toles hau, bihurdura nabarmenagoari egokitu beharrez, hautsi egiten da, eta haustura horrekin zenbait elementu estruktural eratzen ditu, adibidez, Aralar, Aizkorri eta Gorbeia mendilerroak, eta oro har, aurretik aipaturiko mendiguneak.

Material mesozoiko Jurasikoez eta, batez ere, Kretazikoez osatua da, eta bereziki nabarmentzen dira bertan kareharri urgoniarrak. Material horiek dira, hain zuzen ere, inguruneko erliebearekin kontraste bizia eratzen duten eta altimetrian alde nabarmena eragiten duten erliebe nagusien eragileak. Azpimarratzekoa da haien gainean gertaturiko karstifikazio nabaria.

Hona hemen F. Ugartek Euskal-kantauriar Mendiez idatzitako lerro batzuen aipamena (1994): "Azpimarratzekoa da euskal mendien multzoaren paisaia geomorfologikoa bi eragileren, hau da egitura geologikoaren eta drainatze sistemaren, arteko elkar eraginaren ondorioz sorturiko hiru eremuren bidez defini daitekeela.

a.- Mendi ertainetako paisaia Paleozoikoan txertaturiko Euskal Pirinioetako mendiak eta ibarrak.

b.- Estalki mesozoikoaren gainean Euskal Arku Tolestuan txertatuta dauden arro hidrografikoak, zeinak baitute norabide diskordantea egitura geologikoari buruz (Oria, Urola, Deba, Lea, Artibai eta Bizkaiko M), I-H norabide nagusiko uhar ibarrak eta iturburutik itsasorainoko profil morfologiko malkartsua.

c.- Aurreko inguruneko arro hidrografikoak, egitura geologikoari buruz ortoklinalak: Ibaizabal eta Butroe, ibar forma zabalagoekin, uhar leunagoekin".

2.3.- Egitura hidrografikoa.

Euskal Herriko eremuan bi arro bereizten dira, kantauriarra eta mediterranearra.

Kantauriko isurialdeak, ikerketa honek oinarri duen eremuak alegia, 8.400 km²-ko hedadura du, eta uren banalerrotik kostaldera 35-40 km-ko tartea du, lerro zuzenean; tolesdura ardatzei buruz zeharka isurtzen dira ibaiak, Ibaizabal eta Butroe izan ezik, zeinak baitira ardatz estrukturalen paralelo.

Ibai horiek uhar ibaiak dira, iturburua 1.500-1.300 m-tan izaki, 50-70 km-ko tartean jaisten baitira itsas mailaraino eta iturburutik kostaldera 35-40 km inguruko tartea soilik egiten baitute, lerro zuzenean.

Isurialde honetako ibaiak Aralar, Aizkorri, Anboto eta Gorbeia mendiguneekin Bizkaiko Antiklinala (uren banalerroa) zehazten duen gailur zerrendaren iparraldean jaiotzen dira.

Mendebaldeko muga, Karrantza eta Ordunteko mendiek markatua, da mendebaldeneko arroaren sorburua, Ibaizabal-Nerbioiren Kadagua ibaiadarraren arroaren sorburua alegia. Ekialdean mendebaldeko Pirinioetako iparraldean isurtzen diren ibaiak daude, Errobi, Urdazuri eta Bidasoa ibaien arroak.

Ibaien luzetarako profilean hiru alderdi nabarmen bereizten dira:

- Iturburua, %7-10etik gorako batez besteko maldarekin, eta 200 m-tik gorako ibar hondoko altitudearekin.

- Tarteko ibilgua, %2,5 eta 7-ko batez besteko maldarekin, leku batzuetan %0,2-1eko malda duela.

- Behe arroa, %2,5etik beherako batez besteko maldekin, leku batzuetan %0,2tik beherako malda duela.

Profila ez da erregularra arroen inongo puntutan, sustratuaren aldaera litologikoen araberako gorabeherak ditu. Era berean, egitura geologikoak baldintzatzen du ibarren morfologia eta haranen zabaltasuna; horrela, goi arroan zabalera handia dute ibar eta haran batzuek (Oñatiko ibarra) eta erdiko eta behe arroetan estuagoak dira beste batzuk (Deba ibaia Bergara-Eibar-Mendaron).

Strahlerren sailkapenaren arabera, ibai sarea dentsitate ertainekoa da, eta landare estalki bikaineko topografia elementu indibidualez hornitua. Kareharri pitzatu ugari daude lurralde horretan, eta horren ondorioz azaleko zirkulazioa oso urria da, egitura hidrografikoa zabarra da gune horietan eta, aldiz, finagoa da sarea marga eta buztin gisako material irazgaitzetan urraturiko arroetan.

Higadurarentzat material egokiak daude, adibidez, basaltoak edo hareharriak, eta horren ondorioz ibarretan ebaketa malkartsuak eta hegaletan malda nabarmenak eratzen dira.

Sarearen hierarkizazioaren arabera, bilakaerak 6 eta 7 ordenak harrapatzen ditu ibai nagusietan, egitura ertain-apal bati dagokion 2 eta 4 arteko drainatze dentsitateko indizearekin (km^2-ko ibilgu kopurua), landare estalki sarriko eskualde eta irazkortasun handiko alderdietan txertaturik.

Emarien erregimena, bestalde, klimatologiaren araberakoa eta beren oinarrizko emaria eta agortze kurba mugatzen duten lurpeko akuiferoen araberakoa da. Neguan eta udaberrian izaten dira emari handienak, M eta IM-ko jarioko gorabehera atlantikoen eraginez, euri ugari egiten baitu. Urteko gutxieneko emaria, berriz, abuztu-irailean izaten da, urteko agorraldi nagusian.

Prezipitazio erregimena 1.300 mm/urteko, mendebaldeko muturrean, eta 3.000 mm/urteko, ekialdeko mendiguneetako gune garaienetan, bitartekoa da. Euri egunen kopurua urteko 150etik gorakoa da, 190 ingurukoa Pirinioetako Ardatzeko eta Ipar Pirinioaldeko mendilerroetan, eta horri esker ez da gertatzen agorraldirik eta ez da nabarmentzen hezetasun defizita, uztaila eta abuztuan eta 600 m-tik beherako altueretan izan ezik, mendialdeetan ez baita hezetasun defizitik antzematen.

Ibaiek, oro har eta arroa txikia dutenez (<1.000 km^2), ez dute emari handia izaten, eta urteko hilabete gehienetan zailtasun handirik gabe zeharka daitezke alderdik alde.

Bestalde, eta malda handia dutenez, uharra nabarmentzen da, kontzentrazio denbora oso laburrekin (9-14 ordu ibai ahoetan), eta horrenbestez, oso arriskutsuak dira, batbateko euriteak gertatzen direnean duten portaeragatik edo prezipitazio askoko garaia eta beren kontzentrazio denbora bat etortzen direnean. Eragile hori are arriskutsuagoa da oin biribila duten arroetan, Ibaizabal-Nerbioiren kasuan esaterako, oin luzaxka (Oria) dutenetan baino, garai horietako emari gorenak denbora laburragoan kontzentratzen direlako eta aukera handiagoa dagoelako prezipitazio intentsitate gorena eta ibaiaren kontzentrazio denbora batera gertatzeko.

Historian zehar hainbat uholde handi gertatu dira eragile horien ondorioz eta aipamen ugari jaso dira errota, burdinola eta zubien hondamenei buruzkoak; arrazoi horregatik zen, halaber, ez ohiko joera herriak ibai ertzetan finkatzea.

Gailurretan elurra pilatzean sortu ohi den neguko agorraldia 2.000 m-tik gorako altueretan soilik gertatzen da, eta hortaz, gertaera horrek ez du apenas eraginik Pirinioetako mendebaldeko ibaietan.

G. Viersek dioenez (1973) 1.500 m-tik gorako prezipitazioen erdia elur prezipitazioa den arren, etengabe urtzen ari da elurra (mendi goienetan izan ezik) föehn efektuaren eta fronte epelen ondorioz, eta horregatik ez da elurrik pilatzen eta neguko agorraldirik izaten.

Egitura hidrografikoaren laburpen gisa, esan daiteke I-H dela arro gehienen norabidea, hori baita egitura geologiko nagusien ibilbide anaklinala, salbu eta Ibaizabal eta Butroe ibaien kasuan, Bizkaian, eta Bidasoaren kasuan; eta orobat esan daiteke horrela gertatzeak eragin handia duela ibarren ezaugarri geomorfologikoetan.

Ibai sarea sustratu geologiko azaleratuaren ahultasunaren araberakoa da, eta horren adibide dira:

- Oiartzun eta Oria ibaien ahoetako failak eta hausturak.

- Trinkotasun desberdineko materialen arteko lotura, Oria Behean esaterako.

- Material hauskorren azaleratzea (buztina eta igeltsua duten diapiroak), adibidez Orian, Tolosa eta Andoain artean.

Bestalde, bistakoa da goi ibarreko erliebeak direla garaienak, baina kostaldeko alderdietan ere badira erliebe nabarmenak (Izarraitz, Arno, Ernio, Aiako Harriak, Oiz, Larrun, etab.), eta horren eraginez uhar motakoak izaten dira albo adarrak eta malkartsua ibarren morfologia, baita behe arroen inguruetan ere.

2.4.- Klima.

Egurats zirkulazioa, Europa guztian bezala, Westerlies-en jarioaren eraginpean dago, eta horrek sortzen ditu eguraldi desberdinak. Klima sailkapena, Köppen sistemaren arabera, Cfb ozeaniko epel motakoa da, urtaro lehorrik gabea eta negu epel eta uda freskoekikoa.

Mendi eremu zabala edukitzeak ñabardura bat eransten dio eguraldi mota horri, hain zuzen ere 600 m-tik gorako altitudeetan tenperatura hotzagoak izatea (-0,5ºC gradientea altueran, gutxi gorabehera), izotzaldi gehiago izatea, euri eta elur prezipitazioak ugariagoak izatea, eta elurrak denbora gehiagoz irautea urtu gabe.

Orokorrean, neguak epel hezeak dira, urtaro horretan zehar behin baino gehiagotan ageri izaten dira gailurrak elurrik gabe eta landaredia oso sarria da, prezipitazio ugari izaten denez.

Neguan izaten da prezipitazio gehien, eta bigarren goren maila udaberrian harrapatzen da (abendua: Hendaia 205 mm, Igeldo 164 mm, Sondika 159 mm, Arantzazu 209 mm).

Ez dago urtaro lehorrik; batez besteko 10 euri egun baino gehiago izaten da hilabetean eta urteko 160-190 egunetan izaten dira prezipitazioak.

Euri kopuruak, orotara, 1.200 mm-tik gorakoak izaten dira, askoz ere ugariagoak zenbat eta ekialderago (Igeldo 1.600 mm, Hendaia 1.813 mm, Santesteban 1.953 mm eta Elduain 2.000 mm).

Mendialdeetan ugariagoak dira prezipitazioak (Zastegi, Gorbeian, 980 m-tan, 1.790 mm; Arantzazu, 748 m-tan, 1.760 mm), eta Basabürüan harrapatzen ditu goreneko balioak, 1.500 m-tan, urteko 3.000 mm-ko prezipitazio maila hain zuzen ere.

Tenperaturak leunak dira behe ibarretan, mendi oinetan, non izaten baita elur gutxi (9 egun Santestebanen, 2 egun Igeldon) eta izozte gutxi, eta izozterik gabeko aldia martxotik azarora.

Atlantiko aldeko Euskal Herriko klimaren leuntasuna erakusteko, datu aipagarria da hilabeterik hotzeneko tenperaturak (urtarrilekoak) eta Mediterraneoko kostaldean dagoen Rosellóngoak berdinak izatea, nahiz eta gure ikerketa oinarritzen den lurraldean ez duen eguzkiak hainbeste jotzen. Hilabeterik hotzeneko batez besteko tenperatura 7,2 ºC-koa da Igeldon.

Martxotik azarora, eta föehn efektuaren ondorioz, askotan izaten dira gehieneko tenperaturak 20 ºC-tik gorakoak.

3. IKERKETEN HISTORIA

Azken Brontze-Burdin Aroko hileta munduari buruz Euskal Herriko Atlantikoko isurialdean egin diren ikerketa arkeologikoak kronologikoki ordenatu ondoren eta geroago azalduko dugun irizpideen arabera aldika sailkatu ditugularik, iraganaldiaren ikerketarako zaletasuna eta interesa XVI. mendetik gaur egun arte areagotuz joan dela ohartu gara.

Atal honetan aipatuko ditugun landa lanek, bai prospekzioek nola indusketek, bizkortasun handia hartu dute urtek aurrera egin ahala, mende honetatik aurrera batez ere, eta horren erakusgarri dira, besteak beste txosten, ikerlan eta laburpenak.

Jarduera horien guztien sailkapenari dagokionez, sistema bat aukeratu dugu gaur egun arte erabili diren sailkapen ugarien artean, I. Barandiaranek (1988) Euskal Paleolitikoaren laburbilduman erabilitakoa hain zuzen ere, zeinaren arabera bereizten baitira bost aldi desberdin.

Lehenengo aldia gure Historiaurrearen hastapenari dagokio, eta lehen berrietatik 1916. urtean T. de Aranzadi, J.M. de Barandiaran eta E. Egurenen taldea osatu bitarteko aurkikuntzen berri biltzen du bere baitan.

Bigarrena, sendotze aldia deritzona, aurrekoaren amaieratik 1936ra, gerra hasierara, iristen da.

Hirugarren aldia, trantsiziokoa deitua, 1936-1953 bitarteko aldia da, eta lan esanguratsu handiak egiteko garai arras zaila izana du ezaugarri nagusia.

Laugarren aldia, edo gure ikerketen jarraipenarena, 1953an hasi eta 1970ean amaitzen da, hau da J.M. de Barandiaranen inguruan ikertalde berriak sortzen hasi ziren garaitsuan.

Bosgarren eta azken aldia, berriz, 1970etik gure egunetara iristen da, eta bere ezaugarrien artean azpimarratzekoa da aurretik sorturiko taldeen sendotzea eta haien inguruan talde berriak sortu izana.

3.1.- Euskal Historiaurrearen hastapenak

Garai honi buruzko lehenengo informazioak 1710ean jasoak dira. F. Ondarraren arabera (1975a), bazegoen Otxondo-Gorospilen Luruko-Atekak harrespilak existitzen ziren berri. Hain zuzen ere, Baztan eta Amaiurko mugarriak ikuskatzerakoan eta Luruko-Zokoaren –14. mugarria– eta Luruko-Gañaren –15. mugarria– egoera zehazterakoan, "Lurucoatecac" izeneko parajean 16. mugarria aurkitu zutela esaten da, "harrizko zirkulu baten alboan, aipatutako azkenetik arkabuz tiro bateko distantzian". Otsondotik Gorramendira zihoan errepidearen ezkerretara ageri zen multzo honi, Luruko-Atekak izenaz gainera, "Ohoinchuloeta" edo "Oinchuloeta" izena eman zitzaion 1784an "beste izen baten ordez", agiriak dioenez; 1845ean "Oinchilueta" izena ageri da, eta ez da beste izena aipatzen.

1784an, Nafarroan lehen aldiz aipatu ziren, F. Ondarraren arabera, Artxubieta N eta S monolitoak, Alkurruntz mendian azaleratutako lehen harrien gain-gainean dagoen zabalgunean, egile hark dioen bezala: "ez 1654ko mugarritzean, zeina izan baitzen nire aburuz bi komunitate horien artean egindako lehena, ez 1710eko mugarri gunearen ikerketan ez zen gune honetan inongo mugarririk aipatzen. Lehenengo aipamena 1784an egin zen, berriro ere mugarri gunea aztertu eta mugarri gehiago erantsiz osatu zenean hain zuzen ere. Data horretan esaten denez, Alkorruntz (sic -ko-, eta -ku- aldiz, ikusi ditudan gainerako dokumentuetan) gaineko harkaitz malkartsuetan eta beheragoko beste batzuetan 'beste mugarri Artifizial bat aurkitu da, letra eta marraduna, zabalgune horrek osatzen duen larrean jarria'. Apur bat lehenago esaten denez, Artxuteta da zabalgune horren izena. Aipamen berak dioenez, mugarriak ikuskatu aurretik 'Maisu hargin' batek aldatuta zeuden mugarri batzuk, oso txikiak zirelako, mugarri gehiago jarri zituen eta handiago idatzi zizkien B eta M letrak paraje publikoenei. Itxura guztien arabera data horretan hasi zen buruan letra eta mugarri batetik besterako korrespondentzia lerroa zuen mugarri gisa erabiltzen. Olabideako erreteneko artzain batek esan zidan paraje horri Artxubieta esaten zitzaiola orain". (F. Ondarra, 1975).

1894an Ata izeneko monolitoa aurkitu zuten J. Iturralde eta Suitek, Atako ibarrean, Aralar mendilerroaren Nafarroako alderdian.

Handik urtebetera, 1895ean, azaroaren 16an, ikertzaile hark berak indusketa arkeologikoa egin zuen monumentu honen inguruan, eta harriak hiru metroko garaiera iritsi zituenean bertan behera utzi zituen lan haiek. Lanak amaitu ondoren ateratako ondorioen arabera, ez zen mugarri bat, hasieran uste izan zen bezala, zutarri bat baizik, "aipagarria inondik ere, gutxi baitira honek bezala idazkunen bat edo zeinuak dituena grabaturik".

1909an, martxoaren 25 eta 28an, P.M. de Soralucek Oianleku N, Arritxulangaña, Errenga eta Egiar multzoetako zenbait harrespil aurkitu zituen Oiartzundik hurbil, Gipuzkoako lurraldean.

1912an, berriz, P.M. de Soralucek hiru urte lehenago aurkituriko Egiar harrespil multzoko monumentu batean indusketa arkeologikoa egin zuten P.M. de Soralucek berak eta T. de Aranzadik. Oiartzungo gipuzkoar megalitotegian bertan Errenga Zelaya izendatu zuen gune bat bisitatu zuen irailean T. de Aranzadik; hamar harrespil erregistratu zituen han, eta Arritxulangañakoak ere bisitatu zituelarik, beste hiru monumentu aipatzen ditu han.

1914an Nafarroa Behereko Okabe harrespil multzoaren (Lekunberriko udalerria) lehen deskribapena egin zuen R. Gombaultek eta multzo honen lehen indusketa egin zuen, bi monumentutan, baina 1935 arte ez zen eman indusketa haren berri.

1915ean Errenga multzoko harrespiletako bat bisitatu eta induskatu zuen T. de Aranzadik eta urte hartan bertan argitaratu ziren emaitzak.

3.2.- Euskal Historiaurrearen sendotze aldia (1916-1936).

Behin T. de Aranzadi, J.M. de Barandiaran eta E. Egurenen taldea osatu zelarik, hainbat lan egiten hasi ziren Aralarren Gipuzkoa aldeko partean. 1917an, abuztuaren 21ean zehazki, indusketa lanak egin ziren Jentillarri trikuharriaren ganberan. Egun hartan bertan Jentillarriko monolitora jo zuten hiru ikertzaileek, eta lehenengo lurra iraulita, suharri bat aurkitu zuten, beste materialik ez. Urte hartako abuztuaren 23an Supitaitz monolitoa induskatu zuten, Uiduitik hurbil.

1919an Zorrotzarri monolitoa aurkitu zuen J.M. Barandiaranek Aizkorriko mendilerroan, eta hurrengo urtean, Nafarroan, harrespil bat topatu zuen Lerate megalitotegian, Lekaroz gainean.

1923an, ikertzaile hark berak hogeita bost harrespil aurkitu zituen Nafarroan eta Gipuzkoan, besteak beste Arriurdiñeta Occidental eta Oriental multzoak, Arriurdiñeta Erdiko bi harrespil eta Errekalkoko zortzi; era berean, La Tejeria izeneko gunetik eramanak bide ziren bi monolitoak, gaur egun desagertuak, bisitatu zituen Xabierko Gazteluko lorategian, uztailaren 23an.

1926an J.M. de Barandiaranek Lekendiko Gaina aztarnategi megalitikoa aurkitu zuen, eta Soldaduharriak izenekoa ere bai, T. de Aranzadirekin batera azken hau, Nafarroan biak.

1928an J.M. Sansineneak Ezkainko Lepoa, Olegi ekialde eta Olegi Mendebal harrespil multzoak aurkitu zituen Nafarroan.

Azkenik, 1935ean, Hondarribiko udalerriko Jaizkibel I harrespilen berri eman zuen J.M. de Barandiaranek.

3.3.- Euskal Historiaurrearen trantsizio aldia (1936-1953).

Urte zailak ekarri zituen gerrak, eta gerraren ondorioz bertan behera gelditu ziren hainbat ekinaldi arkeologiko, baina lehen esan bezala, garrantzi handiko indusketa lanak jarri ziren abian 1942an Azken Brontze-Burdin Aroko aztarnategi nagusietan, Euskal Herriko Mediterraneoko isurialdean bada ere.

1936an aipagarria da Nafarroan, eta J.M. Sansineneak argitara eman zuenez (1950), Sansineneak berak J.M. de Barandiaranekin Olegi-Elazmuño ingurura egindako bisitaldia, Ezkurrako udalerrian, zeinetan ezagutu baitzuten “Irun-Arri” zutarri gisa eta orobat hainbat harrespil, eta egin baitzituzten indusketak monolitoaren oinarrian eta harrespil zentro zenbaitetan, emaitza negatibokoak, itxuraz. Urte hartan bertan, Lapurdiko lurraldean, Urtzuiako Lepoa multzoa aurkitu zuen J.M. de Barandiaranek eta Pittare multzoko lau harrespil ediren zituzten P. Dop eta H. Dopek.

1937an J.M. de Barandiaranek Erregelu, Mendizabale eta Orgeletegi multzoak aurkitu zituen, Nafarroa Beherean.

1938an, Barandiaranek berak, harrespil bat aurkitu zuen Arlutxetan, Lapurdin.

1940an, Gorostiarria multzoko zortzi harrespil identifikatu zituen P. Dopek.

1941ean Airagarri izeneko harrespil berri bat aurkitu zuen J.M. de Barandiaranek eta beste bat topatu zuen Ezurreta multzoan.

1943an, Ipar Euskal Herrian, Artzamendi eta Iuskadi mendietako prospekzio lanak egiten jarraitu zuen J.M. de Barandiaranek; Mendittipiko sei harrespil aurkitu zituen eta baita Iuskadi eta Meatzeko Lepoa multzoak eta Arlutxetako bi harrespil ere.

1945ean azpimarratzekoa da Elortako sei harrespilen aurkikuntza, Nafarroan, J.M. Sansinenearen eskutik. J.M. de Barandiaranek, bestalde, Askonobi eta Behorlegi multzoak aurkitu zituen, Nafarroa Beherean.

1946an Gipuzkoako eta Gipuzkoatik hurbileko Nafarroako harrespilen prospekzio lanei hasiera eman zien L. Peña Basurtok. 1960an amaitu zituen lan haiek, gaur egun suebaki baten eraikuntzaren ondorioz hondatuta dauden Abade Kurutzeko harrespilak aurkitu ondoren. Unamene multzoko zenbait harrespil ere aurkitu zituen. Gipuzkoako Onyi-Mandoegi megalitotegian daude bi aztarnategiok.

1947an J.M. de Barandiaranek, Ipar Euskal Herrian, Okaben hamahiru harrespil eta ustezko beste lau aurkitu zituela jakinarazi zuen; harrespil haien berri lehendik ere emana zuen M. René Gombaultek 1914an. J.M. de Barandiaranek 1947ko bisitaldi hari buruz “Ikuska” aldizkarian esan zuenez (1950) M. Duperierrek eginak zituen zenbait kata harrespil haietan eta zeramika zati batzuk aurkitu ere aurkitu zituen, 1950ean Miarritzeko Musée de la Mer-en ikusgai jarriak.

1948an Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian aurkikuntza megalitiko gehiago egin ziren. Gipuzkoari dagokionez, L. Peña Santiagok lau harrespil aurkitu zituen Munerre multzokoak, eta orobat aurkitu zituen Basate eta Oianleku Sur harrespilak, Oiartzungo megalitotegian guztiak ere. Baztan eta Alduden, Eihartzeko-Kaskoa monolitora bisitaldia egin zuen J.M. de Barandiaranek maiatzean eta Zahokora azaroan, eta Beardegiko Gaña, Lindus eta Nekaitz harrespil multzo nafarrak eta Elorrietako zortzi harrespil aurkitu zituen. Nafarroa Beherean, Argaiko Harria multzoa, Hortz-Zorrotzeko

bat, Untxide eta Zaho topatu zituen ikertzaile hark berak.

1949an B. Taracenak indusketa egin zuen Arriurdiñeta harrespil multzoan; bien bitartean, Goizamendi, Ibaineta ekialde, Mairuilarrieta eta Zotaleta Ipar multzo nafarrak aurkitu zituen J.M. de Barandiaranek. E. Zudairek, bestalde, Errolanekoa aurkitu zuen.

1950ean, Gipuzkoan, Aizkorri mendilerroko Zorrotzarri monolitoa Peru-Saroi aterpeko bi leiho txikiren leihoburu moduan erabili eta hondatuta gelditu zelarik, erabili gabe gelditu zen puska zutik jarri zen, ordu arte etzanda egondako gunean bertan. J.M. de Barandiaranek Arriluxe multzoa aurkitu zuen Nafarroa Beherean.

1951n, megalitoei dagokienez betiere, Nafarroako Añonako Lepoa harrespil multzoaren –zortzi monumentu– berri eman zion J. Eloseguik L. Peña Basurtori. Era berean, Elutxo Harria multzoa eta Gerasunko Atakako bost harrespil aurkitu zituen L. Peña Basurtok. Gipuzkoan, eta L. Peñaren beraren eskutik, Elurzulo harrespil tumuluduna aurkitu zen urtarrilean eta orobat aurkitu ziren Tximistako Egia multzoko 1 eta 2 harrespilak, Eteneta Iekoak, Eteneta IIko 1 eta 4 harrespilak, Onyi-Mandoegi megalitotegikoak guztiak, eta Elutxo Arriako harrespila.

1952an harrespil berri gehiago aurkitu zituen J.M. de Barandiaranek: Mandale, Lapurdin; Horzako bost, Iratisoro Erdi eta Iratisoro Ipar, Nafarroa Beherean; eta Hartsudurra, Zuberoan. L. Peña Basurtok ere bat aurkitu zuen Ainonako Gainan eta sei Ainhonako Lepoan; J. Eloseguik, azkenik, Balsa Fría multzoa aurkitu zuen.

3.4.- Euskal Historiaurrearen jarraipena (1953-1970).

J.M. de Barandiaranen inguruan sorturiko talde berrien lanari eta garai hartan gure Historiaurrearen ikerketa sustatzea helburu zuten erakundeek harturiko garrantziari esker, aurrerapen handiak egin ziren prospekzio zein indusketen alorrean.

Horrela 1953an, J.M. de Barandiaranek "El hombre Prehistórico en el País Vasco" obra argitaratu zuen Buenos Airesen, beste hainbat daturen artean Okabe multzoko hamazazpi harrespilaren berri bilduta. Haren prospekzioen emaitza da, orobat, Irati Soro Hegoren aurkikuntza, Irati mendian. L. Peña Basurtok, bere aldetik, Illarbiteko Soroa multzoa aurkitu zuen Nafarroan.

1954an, Nafarroan, Altsoroi multzoko bi harrespil aurkitu zituen J. Eloseguik, eta Amargungo Zeharra multzoa, P. Otegui eta J.M. Salaverriarekin batera.

1955ean, Nafarroako lurretan, T. Lopez Sellések Xantxoten Harria aurkitu zuen, Urepel-Ibañeta alderdian. Gipuzkoan, urte hartan bertan, ekainean, hondatuta gelditu ziren 1935ean J.M. de Barandiaranek aurkituriko Jaizkibel Ieko harrespilak, Turismoko Paradorea eraikitzeko lanen eraginez.

1956an, eta J.M. de Barandiaranen prospekzio etengabeei esker, Arhanolatzeko harrespil topatu zen, Larraineko udalerrian. J. Eloseguik, berriz, Axpageta Ipar I multzoko harrespil bat aurkitu zuen Nafarroan, Azpegiko Lepoko zortzi eta Pagolletako Gaineko bat. Gipuzkoan, Mulisko Gainako harrespil baten lekuko nabarmenetako bat aurkitu zuen J.M. Hernandezek, Hernani eta Urnietako udalerrien artean.

Aurkikuntza berriei dagokienez, 1957an T. Lopez Sellések Luurzuko Lepoa multzoa eta Urlegiko Lepoko hiru harrespil aurkitu zituen eta J.M. de Barandiaranek Lesaka inguruan egindako aurkikuntza berriak ezagutarazi zituen. Era berean, Agiña III multzoa aurkitu zuen J.M. Sansineneak eta T. Atauri, J.M. de Barandiaran eta M. Labordek topatu zituzten Agiña II eta IV. Ipar Euskal Herrian, Hezkuntza Ministerioaren Direction de l'Architecture (Fouilles et Antiquités) sailaren aginduz, Mendittipiko harrespilak induskatu zituen J.M. de Barandiaranek, Bidarrai eta Itsasuko lurretan.

1958an aurkikuntza megalitiko ugari egin ziren Nafarroan. Horrela, T. Lopez Sellések Irumugeta multzoko lau harrespil aurkitu zituen Saioa-Loiketa alderdian, L. Peña Basurtok bi harrespil Agiña Ien eta I. Atauri, J.M. de Barandiaran eta M. Labordek beste lau Agiña II multzoan eta bat Agiña IVn. Ipar Euskal Herrian, eta ildo beretik, J.M. de Barandiaranek Hezelekua harrespil aurkitu zuen abuztuan, Urdiñarreko udalerrian, Commission Supérieure des Monuments Historiques erakundearen eskariz Zuberoara egindako bisitaldi batean, eta bost harrespil aurkitu zituen Horza multzoan, Baigura mendiaren hegoaldeko mendi-adarrean.

Mundu megalitikoan nabarmentzekoa da, hainbat urteko lanen ondoren, L. Peña Basurtok "Reconstitución y catalogación de los "cromlechs" existentes en Guipúzcoa y sus zonas fronterizas con Navarra" obra argitara eman izana 1960an; lan horretan Nafarroako zenbait harrespilen berri ematen da, ordu arte Gipuzkoan aurkituriko guztiei buruzkoarekin gainera. Era berean, Iruñarriko monolitoaren deskribapena ere agertzen da.

1961ean Idopil harrespilaren eta bi dolmenen aurkikuntzaren berri eman zion J. Eloseguik T. de Aranzadiri martxoan. Era berean, T. Lopez Sellések berretsi egin zuen zazpi harrespil zeudela Azpegiko lepotik Idopilerako bidean, "Itinerarios montañeros de Navarra" lanean agertu zen bezala. Idopilgo zelaian beste bi harrespil ere bazirela jakinarazi zuen T. Lopez Sellések berak.

1962an, Nafarroan, harrespil berriak ezagutarazi zituen J. Eloseguik, ordu arte argitaratu gabe zeuden beste monumentu batzuekin batera. J.M. de Barandiaranek, Iparraldeko monumentu megalitikoen aipamena eginez, 1936an ezagutzen ziren hamasei harrespilen aldean orotara berrogeita hamar harrespil zeudela esan zuen urte hartan.

1964an, Mugarriaundiko monolitoa aurkitu zuen B. Gandiagak Gipuzkoan (Oñati-Donemiliaga).

1966an, eta Nafarroako lurraldean, T. Lopez Sellések Bagordiko monolitoa, Adi'ko Soroako sei harrespil, Azkenazko Lepoan bat, Gartzagako Lepoan bat eta Gorospilgo Lepoan beste bat aurkitu zituen, Lerate, Urepel-Ibañeta eta Saioa-Loiketa megalitotegietan kokatuak guztiak.

1967an, Egiar harrespil multzoan indusketak egin zituen J. Altunak, baina ez zuen material arkeologikorik eskuratu. Bien bitartean, J.M. Eloseguik harrespil berriak aipatzen ditu Gipuzkoan. Ipar Euskal Herrian, T. Lopez Sellések Arnoztegiko harrespil topatu zuen Nafarroa Beherean, eta Cl. Chauchat eta P. Boucherrek Millagatekoa, Zuberoan.

1968an, Iparraldeko lurretan, monumentu megalitiko aurkitu berrien zerrenda bat eta haietako batzuetan egindako indusketa lan partzialen emaitzak eman zituen argitara Cl. Chauchatek, P. Boucherrekin; horien artean zeuden Zeinegiko bost harrespilak, Ilharreko Ordokikoa eta Millagateko biak. J. Blotek prospekzio kanpaina berriak hasi zituen urte hartan, monumentu megalitiko berriak aurkitzeko, eta horrela aurkitu zituen Apatesaro ekialde eta Iraunabako Erreka Hego harrespilak.

1969an, eta J. Blotek Ipar Euskal Herrian egindako prospekzio lanen ondorioz, monumentu megalitiko berriak aurkitu ziren Okabe mendian, hogeita seiko saila osatzeraino, eta beste bi topatu ziren Pittareko multzoan.

3.5.- Euskal Historiaurrearen gaur egungo garaia (1970etik gaur arte).

Gure Historiaurrearen garai honek baditu zenbait ezaugarri aipagarri. Lehen aipatu bezala, J.M. de Barandiaranen inguruan osaturiko taldeen sendotze edo hazkundea eta haien inguruko talde berrien sorrera; horiek dira ezaugarri nagusiak, lanen espezializazioarekin eta prospekzio eta indusketa teknika berrien erabilerarekin batera. Aurreramendu horiei esker garrantzi handiko ekarpenak egin ahal izan ziren alor guztietan. Eta, horren erakusgarri, aurreko orrialdeetan azaltzen aritu garen landa lanen zerrenda osatzen jarraituko dugu atal honetan ere.

Horrela, bada, 1970ean, Ipar Euskal Herrian 1968an hasitako prospekzio sistematikoko lanei jarraipena emanez, Gastenbakarreko monolitoa aurkitu zuen J. Blotek, Larrun menditik hurbil. Harrespilei dagokienez, Lapurdin Iguzki I, II eta Sualar multzoak aurkitu zituen Meatzeko Lepoa induskatzen ari zela. Nafarroa Beherean bost harrespil topatu zituen Errozaten, bat Hortz-Zorrotzen, beste bat Horzan, bi Iparlan eta Jatsagunen, eta Zuberoako lurretan, berriz, Lapatinegaine, Lepo Xipia, Meatze, Murkhuillako Lepoa, Organbideska, Pelusaine, Ugatze eta Xardeka.

1971n, Nafarroan, Baztango eta inguruetako mendietara egindako irteeretan F. Ondarrak Egurtegiko bi harrespil aurkitu zituen, eta J. Blotek Iropile Sur eta Istauz multzoak eta Mehatzeko hiru monumentu. Ipar Euskal Herrian, ikertzaile hark berak Zuhamendi IIIko tumulua topatu zuen eta handik lau urtera induskatu zuen. Bestalde, 1968an eta 1969an egin zituen prospekzioen ondorioz monumentu megalitikoen zerrenda luzea eman zuen argitara Baionako "Bulletin du Musée Basque" buletinean: Atharri, Bixustia, La Plana eta Onega multzoak, Lapurdin; Aintziaga, Apatesaro Hegoko hiru, Apatesaro Ipar, Arthe, Artheko Tontorra, Artxilondo Ipar eta Hego, Artxilondo Mendebal, Axixtoi, Bilgotza, Etxaateko Bizkarra, Etxaateko Lepoa, Gahalarbe, Garralda, Harluze, Hasketa, Hegieder, Hegieder Ipar, Iraubazter, Irauko Lepoa, Iropile Ipar, Leizar-Atheka, Mataria, Munhogain, Oihanbeltz Hego, Oihanbeltz Ipar, Sohandi, Turaorko Bizkarra, Turaorko Egia, Turaorko Lepoa, Urdanarre, Urdiakoharria I eta II, Zurzai Hego eta Zurzai Ipar, Nafarroa Beherean; eta Zuberoan, azkenik, Bagurdineta multzoak eta Ilharreko Ordokiko bat topatu zituen.

1972an, F. Ondarrak Amabirjinei-Arpea, Gorramakil Mendebal eta Gorramendi harrespil multzoak eta Argorrietako harrespil bat, sei Maistrugainen eta bat Urlegiko Bizkarran aurkitu zituen, Nafarroan, eta J. Altunak hiru harrespil induskatu zituen Egiar multzoan, Oiartzungo udalerrian. Bestalde, J. Blotek Lapurdiko eta Nafarroa Behereko megalito berri askoren berri eman zuen Baionako "Bulletin du Musée Basque" buletinean, horietako batzuk aurreko urteetan aurkituak. Zuberoan Uthunarria eta Zera multzoak aurkitu zituen. Bestalde, Atekaleungo monolitoa aurkitu zuen Larrun mendiaren iparraldeko hegalean. Azkenik, lanak egin zituen Artzamendiko monolitoaren inguruan, Mehatzeko lepoan.

1973an aztarnategi berriak aurkitu ziren Nafarroako leku desberdinetan egindako prospekzio lanetan. T. Lopez Sellések, esaterako, zenbait urtetan zehar eta megalitotegi desberdinetan aurkituriko harrespil sail bat ezagutarazi zuen; azpimarratzekoak dira, besteak beste, Azaldegiko-Lepoa eta Katillegiko Lepoa Hego multzoen aurkikuntza eta Bagordiko monolitoaren inguruko datuak. Urte hartan bertan, Artxubieta Ipar eta Hego monolitoak, Lerate, Argibelgo-Lepoa eta Luurzu topatu zituen F. Ondarrak, eta orobat Abartango Zelaia, Katillegiko Lepoa Ipar eta Argintzu ekialde harrespilak, lau harrespil Argintzuko-Lepoan, bi Soalarren, Larrakagaina, Mailarreta eta Zotaletako Kaskoa Hego, lau Irumugeta multzoan eta hiru Iparlan, hurrengo urteetan ezagutzera eman ziren aurkikuntza horiek guztiak. Bien bitartean, Ipar Euskal Herrian, Cl. Chauchatek indusketak egin zituen Lapurdin, Meatzeko Lepoa multzoan, eta J. Blotek Arguibele eta Urdanarre Hego monolitoak identifikatu zituen, eta orobat Cabañas de Urkulu harrespil multzoa eta Sohandiko bost harrespil, Nafarroa Beherean, eta Ahargo, Zuberoan; J. Altunak, bere aldetik, Iparla I monolitoa aurkitu zuen.

1974an, datu berriak eman zituen F. Ondarrak Baztan inguruari buruz; oraingoan Soalar, Burga eta Saroiko-Bixkerreko monolitoen berri eman zuen, eta baita Gartzagako Lepoko harrespil batena, Otarra-Bizkarrarena, Ernazabalgo Soroko batena eta Buurdiko Lepoarena ere. J. Altunak Soroluxeko bi harrespil berriren aurkikuntza aipatu zuen, Orbaitzetan. J. Blotek, bestalde, Mehatzeko zirkuluetako bat aurkitu zuen. 1974an bertan, Ipar Euskal Herrian, J. Blotek larrialdiko indusketa bat egin zuen Ugatzeko harrespil tumuludunean, zeina gelditu baitzen hondatuta urte hartan bertan, pista baten eraikuntza zela eta. Lan horiek 1975ean jarraitu zituen. Era berean, ikertzaile hark berak Baigura eta Iparla II monolitoak eta Zaho Hegoa harrespil multzoa aurkitu zituen.

1975ean, Nafarroako lurretan, T. Lopez Sellések harrespil bat aurkitu zuen Ernazabalgo Soroan eta baita Urdintzeko monolitoa ere; aldi berean, Nafarroako zenbait alderdi desberdinetan kokaturiko hainbat harrespil argitaratu zituen F. Ondarrak "Príncipe de Viana" aldizkarian, eta baita zenbait monumentu megalitiko ere, adibidez, Burgakoa, eta T. Lopez Sellésekin batera, Oialegiko Lepokoa eta Gorospilgo Lepoa multzoko bi harrespil. E. Vallespík, bestalde, Nafarroan ordu arte historiaurreari buruz egindako ikerketen laburpen bat osatu zuen eta "Príncipe de Viana" aldizkarian argitaratu. Ipar Euskal Herrian, J. Blotek salbamendu indusketak egin zituen Bixustia eta Zuhamendi IIIko tumuluetan, eta datu berriak eman zituen Euskal Herriko monolito esanguratsu zenbaiti buruz.

1976an, Nafarroan, F. Ondarrak berriro agertu zuen aurreko urteetan egindako prospekzioetan aurkituriko harrespilen berri. A. Leibarrek, berriz, Exkaxpeko harrespilak, Bidangoko Gaina, Pagolleta I eta Baraxar Pagoxar aurkitu zituen, Goizueta-Artikutza-Aranaz megalitotegia. J. Blotek aurkitu zituen Axpageta Ipar I multzoko harrespil bat, Axpageta Ipar II, Axpageta Hegoko zazpi, Azpegi Ipar, Azpegiko Lepoko hiru, Minako Lepoa eta Soroluxeko bost. Urte hartan bertan, 1976an, J. Blotek, Errozateko harrespiletan eta Zuhamendi Ieko tumuluan indusketa lanen ekinaldi berri bat eraman zuen aurrera Ipar Euskal Herrian, eta handik urtebetera eman zituen argitara lan haien memoriak. Abuztuan Okabe 6 harrespil induskatu zuen, aurretik hondatua zegoena, 1968an jakitera eman zuenez. Hala ere, hondamen larriagoak gertatu ziren 1976an. Gipuzkoan, bi harrespil tangente induskatu zituzten J. Altuna eta P. Aresok Oianleku Iparren, Oiartzungo udalerrian, eta prospekzio lanekin aurkikuntza berriak egin ziren: L. Millánek harrespil berriak aurkitu zituen Mulisko Gaina multzo megalitikoan (Hernani-Urnieta) eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Espeleologia Saileko kideek Igaratza II harrespil ediren zuten, Aralar Erdian.

1977an, Betarteko monolitoa aurkitu zuen F. Ondarrak Nafarroan, eta J. Blotek Meatze V harrespil tumuluduna induskatu zuen. Aldi berean, Lapurdin, Pittareko 1. harrespila induskatu zuen J. Blotek.

1978an, Nafarroako lurretan, F. Ondarra eta J.L. Arruabarrenak bi harrespil aurkitu zituzten Gurrutxe-Meeka multzoan, Urepel-Ibañeta alderdian. J. Blotek, berriz, datuak eman zituen Ipar Euskal Herrian Garaziko portuetako "Erromatar bidea"ren inguruan egindako aurkikuntza berriei buruz, adibidez Honttotik Lepederrerako ardatzean eta inguru hartan egindakoak eta Arnoztegi, Organbide eta Azpegiko lepoetakoak. Aipatzen dituen monumentuen artean daude, besteak beste, Urdanarre Ipar eta Hego harrespilak, Jatsagune, Sohandi (bost berri), Negusaro (tumulu-harrespila), Sorholuze, Minakolepoa, Iropil, Axpageta Mendebal, Axpageta Ipar I; Axpageta Ipar II, Axpageta Hego, Azpegi Ipar eta Azpegi ekialde. Bestalde, abuztuan indusketak egin zituen Jatsaguneko "harrizko zirkuluan" (salbamenduzko indusketa) Arnegiko udalerrian. F. Gaudeulek, bere aldetik, Beheitako Erreka multzoa aurkitu zuen, Lapurdin, J. Blotek urte hartan bertan larrialdiko ekinaldi batean induskatua. Gipuzkoan, J. Altuna eta K. Mariezkurrenak Eteneta I multzoko harrespiletako baten lekuko nagusietako bat aurkitu zuten (Onyi-Mandoegi), lurrean etzanda zegoena. L. Millán eta L. del Barriok, berriz, monumentu berriak topatu zituzten Mulisko Gaina multzo megalitikoan, eta haiek aurkitu zuten, orobat, Arleor multzoa (lau harrespil), urte hartako ekainean, eta Tximistako Egia multzoko 3, 4, 5 eta 6 harrespilak, irailean, eta Eteneta IIko 2 eta 3 harrespilak, urrian.

1979an hainbat lanetan egin ziren ekarpenak. Horrela, Gipuzkoan esaterako, berriki aurkituriko harrespilen erreferentzia egin zuen L. del Barriok. J.M. Hernandez eta L.P. Peña Santiagok, bestalde, Ezioko Soroa multzoko 1 eta 2 harrespilak aurkitu zituzten, Onyi-Mandoegi megalitotegian. Bizkaiari dagokionez, J. Gorrochateguik Santander ekialdeko eta Bizkaia mendebaldeko monolitoei buruzko datuak argitaratu zituen "Kobie" aldizkarian, Ilso de Perutxote-ri buruzkoak besteak beste. J. Blotek, urte hartan bertan, Zuberoa inguruko prospekzio sistematikoei esker ezaguturiko monumentu megalitiko berrien erreferentzia egin zuen. Era berean, Eihartzeko Lepoko monolitoa aipatu zuen Alduden, 1949an J.M. de Barandiaranek esan zuenez mende hasieran bertan zegoen "pilotasoroan" sakeko harri gisa erabiltzen zutena artzainek.

1980an, harrespil berri gehiago aurkitu ziren Nafarroan. Horrela, J.M. Larrañagak hondakin berriak aurkitu zituen Adiko Soroa megalitotegian eta J. Blotek Zagua multzoa aurkitu zuen. Gipuzkoan ere egin ziren prospekzio lanak urte hartan, eta hainbat monumentu topatu ziren, esaterako Mugarriluzeko monolitoa, L.P. Peña Santiagoren eskutik, eta Mugarriaundikoa, B. Gandiagak aurkitua 1964an baina P. Irizarrek ezagutarazi zuena Oñatiko "Aranzazu" aldizkarian. Elgea-Artia megalitotegian daude bi monumentu horiek. Maiatzean Onyi zista aurkitu zuen J. Gutierrezek Onyi-Mandoegi mendikatean, eta hilabete hartan Jaizkibel II harrespil multzoa aurkitu zuten A. Armendariz eta J.A. Mujikak, Hondarribiko udalerrian. Urte berean lubaki bat zulatu zuten Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek Mugarriaundiko monolitotik hurbil, eta

blokea aterata zegoela ohartu ziren, baina ez zuten inongo material arkeologikorik aurkitu. J. Blotek Ipar Euskal Herriko hamabi monolitori buruzko datuak eman zituen "Kobie" aldizkarian eta Sohaundi multzoko hiru harrespil induskatu zituen Nafarroa Beherean.

1981ean, Nafarroan, E. García, J.A. García eta F. Ubiernak Urdola multzoko lau harrespil aurkitu zituzten, Leiza Larrea (Leitza) megalitotegian. Gipuzkoan, berriz, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek hainbat aurkikuntza egin zituzten prospekzio lanetan: Unameneko 2 harrespila; Ezioko Tontorra multzoa, bost harrespilek osatua; Ezioko Soroako 3 harrespila eta Munerreko 5a, eta Kauso I eta Kauso IIkoak. Lehenengoak Onyi-Mandoegi megalitotegian daude kokatuta, eta azken hiruak Oiartzungoan. J.Mª García eta J. Lekuonak, bestalde, Arritxurrieta harrespila aurkitu zuten maiatzean, Oiartzungo megalitotegian. Ipar Euskal Herrian, Nafarroa Beherean, bi harrespil induskatu zituen J. Blotek Apatesaro Hegon eta bat Apatesaro Iparren.



1. argazkia. Mulisko Gaineko multzoaren indusketa lanak 1986an.

1982an, eta F. Ondarraren eskutik, Nafarroako Saroiko-Bixker eta Betarteko monolitoen eta Gurutxe-Meekako harrespilaren berri zabaldu zen; Baztanen daude guztiak. L. Millánek, berriz, ondoko aurkikuntza hauek egin zituen: Gorramakil ekialdeko harrespilak, Azkenazko-Lepoko bi, Abartango bat, Ermitako Lepoa, Errekalkoko hamar, Sagardegi, Meatzuko bat eta Soalarko beste bat, eta Gorospilgo monolitoa. Urte berean F. Ondarrak, U. Perez de Villareal eta L. Millánekin batera, Uztanborroko harrespiletako bat aurkitu zuen Urepel-Ibañeta alderdian. Gipuzkoan, X. Peñalverrek Supitaitzeko monolitoa induskatu zuen maiatza, ekaina eta irailean, Aralarko mendilerroan. Prospekzio lanei esker zenbait monolito ere aurkitu ziren, eta J. Altuna, K. Mariezkurrena, A. Armendariz, L. del Barrio, Tx. Ugalde eta X. Peñalverrek ordu arte Gipuzkoako lurretan ezagutzen ziren aztarnategi guztien berri biltzen duen Gipuzkoako Karta Arkeologikoa osatu zuten.

1983an, F. Ondarrak Nafarroan egindako prospekzio lanen ondorioz Goizemezko-Lepoko monolitoa aurkitu zen Erratzu-Alduide alderdian, eta orobat aurkitu ziren Luurzu Hego I eta II harrespilak, Uztanborroko bi harrespil, Ernazabalgo Soroko bat eta Gurutze Meaka Ipar, Urepel-Ibañeta alderdian, Olariaga eta Gorospilgo Lepoko harrespil bat, Abartan-Saioa alderdian, eta Andeberri eta Ermitako-Lepoko monolitoak, Saioa-Loiketa alderdian. P. Arresek Arbilleta multzoa aurkitu zuen eta L. Millánek Iraskardi. L. Millán, F. Ondarra, P. Arrese eta A. Lizarraldek Agatunko Lepoa topatu zuten. L. Millán eta P. Arresek Lanotegibekoa multzoa. Ikertzaile horiek beroriek, F. Ondarrarekin batera, Pilotasoro multzoa eta Irumugeta multzoko harrespil bat aurkitu zituzten. Azkenik, I. Arbelaitz, L. del Barrio, J.A. García eta P. Lopezek Lepakaestua multzoaren aurkikuntza egin zuten. Gipuzkoan, X. Peñalverrek Mulisko Gaina multzo megalitikoko (Hernani-Urnieta) lehenengo indusketa ekinaldiari hasiera eman zion. Aurkikuntza berriei dagokienez, Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek hiru harrespil topatu zituzten Oiartzungo megalitotegian eta X. Peñalverrek monumentu berriak aipatzen ditu Euskal Herriko menhirren ikerketari buruzko argitalpenean. Ipar Euskal Herrian, J. Blotek Zaho II tumulu-harrespila induskatu zuen abuztuan eta Mehatze Veko indusketa lanen emaitzak ezagutarazi zituen (Banka). Era berean, Altxanga multzoa aurkitu zuen Lapurdin ikertzaile hark berak, L. Millán eta X. Peñalverrekin batera.

1984an X. Peñalverrek bigarren indusketa ekinaldia burutu zuen Mulisko Gainan, Gipuzkoan, eta lurralde horretako harrespilen ikerketa amaitu zuen; ikerketa horren katalogoan aurkikuntza berriak agertzen dira. Bizkaian, azpimarratzekoa da Bizkaiko Karta Arkeologikoaren bigarren atalaren argitalpena, azaleko materialei buruzkoa, J. Gorrochategui eta M.J. Yarrituk prestatua. Nafarroan, bestalde, monumentu megalitiko berriak aurkitzeko asmoz egindako prospekzio lanetan hainbat harrespil topatu ziren. I. Arbelaitz, L. del Barrio, Tx. Ugalde eta A. Urizek ondoko hauek aurkitu zituzten: Gatzarrieta I eta II, Izu, Izurrizti I bederatzi harrespil eta Izurrizti II; I. Arbelaitz, L. del Barrio eta Tx. Ugaldek Beltzuntzakoak eta Ibintzako bi; L. del Barrio eta Tx. Ugaldek Loizateko Sorokoak; L. del Barrio eta A. Urizek Burnaiztietako Lepokoa; I. Arbelaitz, L. del Barrio eta L. Millánek zazpi harrespil berri, Agiña I multzo ordurako ezagunean; L. Millán, F. Ondarra eta A. Lizarraldek hiru harrespil, Urlegiko Lepoa multzoan; L. Millánek bat, Ainonako Gainan, beste bat Ainonako Lepoan, sei Arriurdiñeta Erdin, bi Arriurdiñeta Ekialdea, Gaztanbide, bi Pagolletako Gainan eta Zotaleta Erdi; L. Millán eta F. Ondarrak Altsoroiko bat, Beraskuain, Egurtegiko bat, Ernazabalgo Soroko bat, Ibaineta Mendebaleko bi, Maistrugain Mendebal eta Telletxeko Bizkarra; eta I. Gazteluk, azkenik, Bardoiza multzoa. Bestalde, X. Peñalverrek Nafarroako harrespilen ikerketa amaitu zuen, eta ikerketa haren katalogoan bildu zituen ordu arte ezagutzen ziren monumentu guztiak. Lapurdin, L. Millánek bost harrespil aurkitu zituen Ezurreta multzokoak, eta Nafarroa Beherean, berriz, Sohaundiko monumentuetako bat induskatu zuen J. Blotek.

1985ean, Gipuzkoan, aurrera jarraitu zuen Mulisko Gainaren indusketak (III. ekinaldia). Nafarroa Beherean, Apatesaro ekialdeko harrespila induskatu zuen J. Blotek. Urte hartan zehar zenbait prospekzio lan ere egin ziren, aurkikuntza berrien iturri izan zirenak: Nafarroan, J. Tellabidek, Altuetako Lepoa, Arriurdiñeta, Gaztarrozko Bizkarra eta Urrizti multzoak; L. Millánek Ansestegiko Lepoa, Biamendiko Lepoa, Burdimotx Bizkarra, Elorregiko Lepoa, Gorosti, Iguzki Hego multzoak eta Irumugeta multzoko bat; L. del Barrio eta P. Lopezek Auntzbizkar multzoko hiru harrespil; L. del Barrio eta A. Urizek, Enobieta Txikia, eta L. Millán eta J.J. Ochoak, Irumugeta multzoko bat; Gipuzkoan, Aitzazate I eta Medizorrotz I harrespilak topatu ziren Igeldoko megalitotegian; Bizkaian, azkenik, Sastegiko monolitoa eman zen ezagutzera, Gatxarrieta mendiaren hegoaldeko magalean dagoena.

1986an, Gipuzkoan, X. Peñalverrek Mulisko Gaina multzo megalitikoa eraberritzeko lanak hasi zituen, 1985ean azken indusketa ekinaldia egin zelarik. Nafarroan, harrespil multzo berriak aipatu zituzten zenbait prospekzioren egileek: L.M. Martinez Torresek Biamendiko Lepoa aztarnategia aurkitu zuen; J. Argomanizek Deskargako Arrieta eta Unalbide; azken horrek, L. del Barriorekin batera, Eneko Elorrita I eta II; L. del Barrio eta Tx. Ugaldek, Iraingo Ataka; J. Argomaniz eta V. Hernandorenak, Lizarrozko Soroa, eta azkenik, L. Millán eta A. Lizarraldek, Olegiko Lepoa. Ipar Euskal Herrian, Zuberoako lurraldean, harrespil bat induskatu zuen J. Blotek Millagaten.

1987an X. Peñalverrek, Gipuzkoan, eta larrialdiko prozedurari jarraituz, Onyi zistaren indusketari hasiera eman zion, Urnietako udalerrian. Araban, eta A. Llanosen zuzendaritzapean; lurralde hartako Karta Arkeologikoa argitaratu zen, aire zabaleko zein haitzuloetako aztarnategiak eta aztarnategi megalitoak agertzen dira bertan, Atlantikoko isurialdekoak horien artean. Nafarroan, J.J. Ochoak Deskantsuko Bizkarra multzoa aurkitu zuen urte hartan, eta Argibel multzoko harrespil bat, Meatseko Bizkarrako hiru eta Luurzu Hego IIIkoa, L. Millánekin batera. J. Blotek beste harrespil bat induskatu zuen Millagate multzoan, Zuberoan.

1988. urtean azpimarratzekoa da Ezioko Tontorra multzoko harrespil baten suntsipena, Hernaniko udalerrian, pista baten eraikuntzaren ondorioz. Bestalde, aurkikuntzak ere izan dira: monolito bat Aralar Erdian (Irazustako Lepoa) eta harrespil bat Ezioko Soroa multzoan, Onyi-Mandoegi megalitotegian. Nafarroan, L. Millánek Arratakako Iturriko harrespilak eta Argorrieta multzoko bat aurkitu zituen, eta J.J. Ochoarekin batera, hiru harrespil Abartan multzokoak, Meatseko Bizkarreko bat, Urlegiko Bizkarreko bat eta Urlegiko Lepoko beste bat. L. del Barrio, I. Gaztelu, L. Millán, J.J. Ochoa eta F. Ondarrak, bestalde, harrespil sail bat aurkitu zuten Maistrugain eta Maistrugain ekialde multzoetan. Lapurdin, I. Gazteluk Atekaleun multzoaren aurkikuntza egin zuen, eta Zuberoan, berriz, Erroimendiko aurkitu zuten L. Millán eta J.J. Ochoak.

2. argazkia. Mulisko Gainaren inguruan pagoak birlandatzen, indusketa lanen ondoren.

1989an, Nafarroan, L. Millánek Arriurdiñeta Oriental multzoko harrespiletako bat aurkitu zuen, eta monumentu sail bat ere bai Argintzuko-Lepoa, Auntzbizkar, Azkenazko Lepoa, Azpegiko Lepoa, Beltzuntzako Harria, Elorrieta, Ernazabalgo Soroa, Gerasunko Ataka, Ibaineta Mendebal eta Izurrizti I multzoetan, J.J. Ochoarekin batera. Bi ikertzaileok, L. del Barriorekin, Gerasunko Ataka multzoko zirkuluetako bat aurkitu zuten eta Ibintzako bi. Urte horretan bertan, Etene eta Otsoarrisko Zelaia multzoak aurkitu zituen F. Ondarrak. Ipar Euskal Herrian, berriz, J. Blotek indusketa lanak egin zituen Urdanarre Sud 1 harrespilean eta aldi berean eman zituen argitara Zaho II harrespil tumuludunean egindako indusketen emaitzak, Nafarroa Beherean egindako lanak biak. Bien bitartean, Lapurdin, L. Millánek harrespil bat topatu zuen Gorostiarrian, Albintze aurkitu zuen, Zuberoan, eta Hauzai, J.J. Ochoarekin batera, Nafarroa Beherean.

1990ean Nafarroan, L. Millánek Arriurdiñetako Lepoko harrespilak eta Meatzuko bat aurkitu zituen; A. Lizarralderekin batera topatu zuen Aizalegikoa eta J.J. Ochoarekin, berriz, Ibintza multzoko bat. Ipar Euskal Herrian, Nafarroa Beherean, Apatesaro VI tumulua induskatu zuen J. Blotek eta Lapurdin, Urtzuia multzoa aurkitu zuten L. Millán eta J.J. Ochoak.

1991n, Nafarroa Beherean, Urdanarre Nort 1 tumulua induskatu zuen J. Blotek.

1992an, Nafarroan, L. Millánek Etsain harrespil multzoa aurkitu zuen eta J.J. Ochoarekin batera Anusbizkar eta Unalbideko Gaina izenekoak.

1994an, Ipar Euskal Herrian, salbamenduzko indusketa bat egin zuen J. Blotek Meatse 12 harrespilean, Lapurdiko lurraldean, eta argitara eman zituen Nafarroa Beherean Hegieder 7. harrespilean egindako salbamenduzko indusketaren emaitzak.

Biarno, Pirinio Garaiak eta Huescako lurretan –lurralde horietaraino hedatu baitugu hileta munduari buruzko gure

ikerketa, harrespilen gaia bere osotasunean lantzearren– hileta monumentuen hondakinen inguruko ikerketa lan sail bat egin da, eta lan horiei esker hiru lurralde haietako 122 multzori buruzko informazioa eskuratu ahal izan dugu; multzo horietako batzuk induskatuta daude.

1935eko udan, Almagro Basch irakasleak Guarrinza ibarra (Huesca) ikertu zuen eta ikerketa hartan megalito sail bat topatu zuen, harrespil batzuk besteak beste. Ikertzaile hark berak induskatu egin zituen monumentu horietako batzuk, eta 1944an eman zituen argitara bere ondorioak.

1951 eta 1952 bitartean, Beltrán irakasleak prospekzio sail bat eraman zuen aurrera, Huescan hau ere, Oza, Guarrinza, Puerto del Palo, Barranco Barcal, Collado de Acher, La Roya eta Aguas Tuertasen, eta lan horien ondorioz hamabost monumentu multzori buruzko erreferentzia berriak sortu dira, zenbait harrespili buruzkoak besteak beste (Las Foyas de Añarón, Aguas Tuertas eta Barranco Barcal); aztarnategi horietako hiru induskatu dira, eta 1954an eman zen indusketa haien emaitzaren berri.

1972an, T. Andrések miaketa egin zuen Guarrinza aldean, irailean, eta hamabi multzo sailkatu zituen, horietako zenbait ez Almagro Baschek eta ez Beltránek katalogatu gabeak, eta alde batera utzita haiek katalogatutako beste zenbait, zalantzazkoak zirelako edo aurkitu ezin izan zirelako.

1973 eta 1974 bitartean, ikertzaile hark berak, baina I. Barandiaran eta beste lankide batzuekin batera, harrespil horietako batzuk induskatu zituen, adibidez, 2 multzoko 1, 3 eta 13 harrespilak, Cuartel de Carabineroskoa edo 6 multzoko harrespila.

1980an, Biarnon, Cl. Blanc eta G. Marsanek prospekzio sistematikoko lanak hasi zituzten, Haut Ossaun, historiaurreko eta protohistoriako aztarnak bilatzearren.

1982 eta 1984 artean, egile haiek harrespilen aztarnak aurkitu zituzten Aneou-Peyreget, Cabane de Senescau eta Plat de la Gradilleren (Biarno).

1984 eta 1985. urteetan ikertzaile horiek beroriek Ayous aintziren inguruan aritu ziren lanean, eta Lac Gentauko harrespila eta Col d'Ayousko harrespil tumuluduna (Biarno) aurkitu zituzten, besteak beste.

1985ean, J. Blotek Cauterets ibarrean (Pirinio Garaiak) egindako aurkikuntza batzuen berri eman zuen, lehenagotik egin zituen prospekzio lanen emaitza gisa. 11 harrespila eta 4 tumulu-harrespila ziren, ondoko hauek besteak beste: Lutour 1 eta 2 harrespilak, l'Affron, Arratille 1 eta 2, Pe det Malh 1 eta 2 eta harrespil tumuludunen sailean, Pla de la Gole 1 eta 2, Ilheou eta Arratille. Urte hartan bertan Bious-Oumettes harrespila induskatu zuen Cl. Blanc-ek, Biarnoko lurraldean.

1986ko udan L. Millánek miaketak egin zituen Huescan, eta beste zenbait aurkikuntzaz gainera topatu zituen Canal Roya, Barranco de los Campos de Troya, Pocetas de la Cambra, Barranco de Lordeci, Ibón de Tramacastilla eta Rumeñe harrespilak. Aurkikuntza haien datuak 1993an eman zituen argitara, T. Andrésekin lankidetzan.

1987 eta 1988. urteetan, Aragón-Subordán goi arroan miaketak egin zituen F.J. Navarrok, megalito berrien bila. Lan horien emaitza izan zen monumentu sail baten aurkikuntza, besteak beste Barranco Barcal, Las Foyas de Santa María E eta Las Foyas de Santa María NW harrespilena.

1987. urtetik aurrera, Haute Vallée d'Ossaun miaketak egin zituzten Cl. Blanc eta zenbait lankidek, eta hala aurkitu ziren Magnabait, Col Lavigne eta Cabane de Cujalate harrespilak, Biarnoko lurretan guztiak.

1988an, T. Andrések parekotasunak finkatu zituen Huescan aurretik aurkituak ziren zenbait monumenturen artean (Almagro eta Beltrán), eta zenbakitze eguneratua finkatu zuen haientzat.

1989an, Cl. Blanc-ek argitara eman zituen Plateau du Benoun, Houndas kaperatik hurbil, egindako prospekzio lanak, zeinetan identifikatu baitzituen zenbait harrespil.

1991n, A. Berdoy, Cl. Blanc eta J.-M. Escude-Quilletek Cabane de Féas harrespila topatu zuten.

3. argazkia. Espiauko mendialdearen miaketa, 1993an, L. Millánen eskutik.

1992an, T. Andrések 1973 eta 1974. urteetan Huescan aurrera eramandako indusketa lanen bigarren atalaren berri eman zuen, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11 eta 12 multzoei buruzkoaren berri alegia, eta lan haietan aurkituriko egituren eta materialen marrazkiak ere argitaratu zituen.

1994 eta 1997. urteen artean, L. Millánek prospekzio lan sail bat egin zuen Huesca eta Biarnon, eta lan haien emaitza dira ondoren aipatzen eta lan honetarako katalogo orokorraren eranskin batean biltzen diren aurkikuntzak: Huescako lurraldean Otal eta Larri aztarnategiak aur-

kitu zituen 1994an; 1995ean Collado de Astún, Rumeñe II (Sur), La Bocona I (Este) eta La Bocona II (Oeste); 1996an, Las Truchas I, II eta III eta Gabedallos, eta 1997an, azkenik, Cascada Gorgutes, Aguas Tuertas Sur eta Aguas Tuertas Norte (Barranco Cue).

Biarnori dagokionez, prospekzio egile berak ondoko harrespila hauek aurkitu zituen 1996an: Gabedaille Este, Astu, Mauhourat, Cabane Sacaze, Lalagüe, Regata Sénescau I Norte, Regata Sénescau II Sur eta Cabaña Vieja de Sénescau.

4.- HILETA GERTAERA

Euskal Herriko Atlantikoko isurialdeak hartzen duen lur eremuaren baitan ez da gaur egun arte ezagutzen, ez argi eta garbi behintzat, Kristo aurreko lehen milurteari dagokion harrespila (tumuludun zein tumulugabe) edo tumulua beste ehorzketa modurik.

Monumentu horiek Pirinioetan eta Pirinio inguruan daude zabaldurik, eta oso eremu definitua mugatzen duten lerroen barnean agertu dira guztiak.

Hobi, zista edo atabako-zelaietako nekropolietako ehorzketarik ez da, gaur egun arte, ikerketa gai den eremuan aurkitu, gero eta ezagunagoak badira ere Euskal Herriaren Mediterraneo aldeko isurialdean eta mugako inguruetan.

"Pirinioetako harrespila" esaten zaion egiturak ez du, hala eta guztiz ere, Euskal Herriaren Atlantikoko isurialdeko hainbat ingurutako hileta gertaeren zalantza argitzen, hartzen duen espazio eremu mugatuagatik hain zuzen ere.

Hala, ez dugu inondik inora ezagutzen nolakoak izan ziren Azken Brontze Aroko eta Burdin Aroko ehorzketa moduak ez Bizkaia osoan ezta Gipuzkoako parte handi batean eta Nafarroako Atlantikoko isurialdean ere, mendebaldetik Leizaran ibaiak, eta Nafarroako eremuan, Pirinio mendiekiko elkarzut den marra batek adierazten duten mugetatik kanpo. Muga horiez haraindi monumentu gutxi aurkitu dira era horretakoak, eta hortaz, aurkikuntza horiek ez dute, oraingoz, hileta gertaerari buruzko argibide erabatekorik eskaintzen.

Pirinioen iparraldeko isurialdeari, Lapurdiri, Zuberoari eta Nafarroa Behereari dagokionez, arazoak aurrekoen oso antzekoak dira, izan ere, ez baita adierazi den motako ehorzketa modurik ezagutzen, eta daudenak Pirinioetan edo inguruan daude guztiak.

Hala ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako eremu horietan –ehorzketa aztarna ezagunik gabeak–, informazio ugari dago gure aroko lehen milurteko gizaki taldeen bizimoduari buruz, lurralde horietan hainbat ikerkuntza kanpaina egin baitira, era sistematikoan, bizitokiak aurkitzeko helburuarekin, eta behin aurkitu direnean indusketa lan ugari egin baitira. Eta hain zuzen ere, harrespil motako hilobirik ez dagoenez gero, uste osoa dugu beste era bateko ehorzketa moduak zituztela lurraldearen alderdi horretan barruti gotortu haietako biztanleek.

Harrespilik ez dagoen guneetan ehorzketa guneei buruzko informaziorik batere ez egotearen zergatia azaltzeko bi arrazoi egon daitezke. Batetik, aztarnategi ez megalitiko horiek bilatzeko lanak ez dira orain dela aspaldi hasi, eta bestetik, lur azalean begiratu hutsarekin ikusten ez diren aztarnen miaketa egiteko lurrak berak zailtasun handiak jartzen ditu.

Hala ere, Bizkaiko bi bizitoki ezagunekin (Berreaga eta Marueleza) lotura duten hainbat aztarna aurkitu dira, baina indusketa lanik egin ez denez gero, Berreagako nekropoliari dagokionez, eta Gastiburuko egitura tumuludunei buruzko azterketak oraindik amaitu ez direnez gero, oraindik ezin atera daiteke ondorio sendorik.

Ondorioei eskaintzen zaien atalaren barruan zabalago azalduko bada ere gai hori, gogoetaren bat edo beste egin nahi genuke guk hemen, labur-labur.

Zista edo harkutxa motako egiturak, tumulu gutxi-asko handi batez estaliak egon ala ez, Euskal Herriaren hegoaldeko isurialdeko aztarnategietan daude dokumentatuta, Carasta (Araba) adibidez, eta kronologiari dagokionez, erromatarren garaiaren barruan sartzen badira ere, azterketek aditzera ematen dute protohistoriakoak direla jatorriz.

Bestalde, aipatu diren Bizkaiko bi aztarnategietako aurkikuntzak (Berreaga eta Gastiburu) era horretakoak izan daitezke, eztabaidagarria bada ere; hala eta guztiz ere, gai hori zehaztasun handiagoz definitu ahal izateko ezinbestekoa ikusten da landa lan azterketa sakonagoa egitea. Ildo horretatik beretik, Bizkaian ezagutzen diren hilarrietako batzuk aipatu beharko lirateke.

Gaur egun, Gipuzkoako herrialdean induskatu diren edo induskatzeko dauden hiru bizitokien inguruan edonolako hileta aztarnategi bilatzeko lan sistematikoak egiten ari dira (Buruntza, Basagain eta Intxur), gune horietan hainbat kata eginez eta baita aldian-aldian egin diren berrikuste lanen bidez ere.

Hala, egoera horren aurrean garrantzi handiko arazo bat sortzen zaigu, alegia, hedadura txikiko lurralde batean, bi ehorzketa modu desberdin edo gehiago daudela zehaztasunez defini daitekeen inguru geografiko garbi batean.

Ondorengo orrialdeetan gaur egun arte ezagutzen diren eta lehen aipatu bezala Atlantiar aldeko Euskal Herriko lurraldearen parte bat besterik hartzen ez duten ehorzketen inguruko lekukoak aipatuko ditugu, megalito erakoak beti ere.

Dena dela, fenomeno horren inguruko ikerketekin aurrera egin ahala, monumentu mota horien artean dagoen kohesioa egiaztatu ahal izan dugu, bai tipologiari dagokionez, bai geografiari dagokionez ere. Hori dela eta, lan honetarako definitu den eremua zabaldu egin da harrespil motako ehorzketen kasuan (tumuludunak ala tumulugabeak), eta Pirinioetan barrena hedatu dugu gertaera hori bera egiaztatu ahal izan dugun eremu guztia hartzeraino. Hala, ustea dugu gertaera hau bere osotasunean hartu denez gero, lortu diren datuak balio handiagoa dutela azterketa honen azkeneko atalean aipatuko diren ondorioetara iristeko.

Tumuluen fenomenoari dagokionez, berriz, gai horrek hainbat arazo sortzen ditu gaur egun.

Alde batetik, hileta monumentu mota horrek Atlantiko aldeko Euskal Herriko eremua osorik hartzen badu ere, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan egin diren indusketa lanek, alegia harrespilak nagusi diren eremutik kanpo egin direnek, gure

aroko lehenengo milurtearen aurreko ehorzketa tumuludun batzuk dokumentatu dituzte. Antzeko zerbait gertatzen ari da harrespilak nagusi diren eremuan induskatzen ari diren batzuekin ere, nahiz eta eremu horretan nolabaiteko aldiberekotasuna gerta daitekeen bi monumentu moten artean.

Beste alde batetik, induskatu diren tumuluen proportzioa oso txikia da monumentu horien ugaritasuna kontuan hartuz gero, Pirinioen inguruan batez ere.

Horregatik guztiagatik, hemen aurkezten den katalogo honetan ez dira aztarnategi horiek kontuan hartzen, induskaturik dagoen gure aroaren aurreko lehen milurteko bat izan ezik. Hala eta guztiz ere, orrialde hauetan biltzen diren harrespil tumuludun edo tumulugabeen barruan J. Blotek eta beste ikertzaile batzuek tumulutzat hartzen dituzten zenbait monumentu katalogatzen dira aldi berean, eta gure iritzirako, beren peristalitoa nabarmena denez gero, ez dute inongo desberdintasunik harrespilen sailean sartu izan ohi diren beste harrespil tumuludunekin.

• Harrespilak.

Pirinioetako mendilerroan eta mendilerroaren inguruan aurkitu diren harriz osatutako zirkulu ugariak hainbat eta hainbat ikertzaileren ikerketagai izan dira XX. mendearen hasieraz geroztik. Interes horren ondorio izan dira aztarnategi horietan aurrera eraman diren katalogazio eta lan ugariak.

Dena dela, eta tipologiari dagokionez oso ondo definituta dagoen gertaera bada ere, hainbat arazo izan dira izendapena dela-eta. Hala, herritarrengan erroturik daude, besteak beste, "baratza", "jentilbaratza" edo "mairubaratza" eta antzeko hitzak, eta horiez gainera, "Pirinioetako harri zirkulua" edo "harrespila" esapideak ere erabili izan dira. 1915. urtean, T. de Aranzadik "cromlech" hitza erabili zuen, aztarna horiez gaztelaniaz ari zenean, eta mairu-baratza hitza euskaraz ari zenean.

Geroago, T. Andrés (1978), J.I. Vegas (1988) eta J. Blotek (1995) "harrespila" hitza alde batera uztea proposatu dute, eta horren ordez, "harri zirkulua" edo "baratza" esapidea erabiltzea. Gaur egun Pirinio inguruetako artzainek "Baratza" izenaz izendatzen dituzte, hain zuzen ere, egitura horiek.

Nolanahi ere, monumentu zirkularrak dira, neurri ertaineko harri sail batek mugatuak, goi lurretan egon ohi dira eta ehorzketa helburu zutela eraiki bide zituzten.

Askotariko tipologia dute, tumuludunak ala tumulugabeak bereizten dira, baina zenbaitetan tumuluen edo trikuharrien gune berean egoten dira; bakarka eraikitzen dira batzuetan eta beste batzuetan, berriz, multzoak osatzen dituztela.

Inguruko harriez (hareharrizko lauzak, karekizko edo granitozko blokeak, etab.) baliatuta eraiki zituzten eraikin horiek, eta bertan gorde ohi zituzten, hainbat eratara, gizaki baten ehorzketaren hondarrak, egituraren erdialdean gehienetan.

Arestian aipatu bezala, monumentu mota hori ondorengo orrialdeetan aztertuko dugu sakonki, hori baita Euskal Herriaren Atlantikoko isurialdeko eremuaren eta Azken Brontzearen eta Burdin Aroaren barruan gaur egun dugun ehorzketen lekuko garbi bakarra.

• Tumuluak.

Tumuluaren gertaera askotan landu da euskal historiaurrean eta baita inguruko lurraldeetan egin diren hainbat ikerketetan ere, eta horren erakusgarri da gai horren inguruan dagoen bibliografia zabala.

Azken hamabost urteetan aztarnategi megalitiko guztiak barnean hartuko lituzketen Arkeologia Kartak osatzeko Gipuzkoako herrialdean egin diren lanen barruan, hainbat egilek azaldu izan duten arazoak, hau da monumentu mota hau definitzeko arazoak, bere horretan dirau oraindik.

Aztarnategian ganberaren aztarna garbirik ez dagoenean, edo aztarnategiaren erdialdean ganberaren egitura hustu ahal izan zuen krater bat dagoenean, ez da erraz konpon litekeen arazoa tumulu baten eta trikuharri baten arteko bereizketa egitea. Horrexegatik guztiagatik, erabaki zen trikuharri esatea egitura mota horren berezko ezaugarri guztiak izanik ganberaren lauzaren baten arrastoak zituzten monumentu guztiei, eta tumulu esatea, zuhurtasunez betiere, ganbera egitura hori zutela ezin egiaztatu zen –izan ez delako begien bistakoa edo sakonune bat duelako erdialdean– eraikin guztiei.

Monumentu mota horiek guztiak F. Galileak (1980) katalogatu ditu Euskal Herri osoari dagokionez, eta hirurehundik gora bildu ditu; horietatik gutxi batzuk besterik ez dira induskatu.

Euskal Herriko Atlantikoko isurialdeari dagokionez, azken urteetan hainbat lan egin dira monumentu horietako batzuetan. Hala, Gipuzkoan, J.A. Mugika eta A. Armendarizek Trikuaizti I eta IIko tumuluetan egin dituzte indusketa lanak.

Bi aztarnategi horiek guri dagokigun aldia baino askoz lehenagokoak dira, eta dolmenaren motako egiturak izan zitezkeen, bai behintzat Trikuaizti I-ari dagokionean eta J. A. Mugikak esandakoaren arabera.

Aurretik, 1963an, J. Altunak, J. M. Apellaniz eta P. Rodriguez de Ondarra Arrolamendi I, II eta III tumuluetan aritu ziren lanean, Gipuzkoan horiek ere, eta 1964an argitaratu zituzten lan horien emaitzak. Material arkeologikorik eskaini ez badute ere, eta datazio absoluturik ez badago ere, J. Altunak et aliik (1982) Brontze Aroaren barruan sailkatu zituzten.

Bizkaian ez da indusketa lanik egin era horretako aztarnategietan.

Gure lanaren aztergai diren gainerako herrialdeetan, J. Blot izan da aztarnategi horietako batzuetan indusketa lanak egin dituen bakarra.

Dena dela, eta Azken Brontze-Burdin Aroaren ikerketari dagokionez, lehen aipatu bezala, tumuluen gertaera, oraingoz behintzat, ez dator guztiz bat aldi horrekin, kronologiaren ikuspegitik.

Izan ere, Gipuzkoan induskatu diren mota horretako aztarnategi batek berak ere ez du aldi horri dagokion datarik eman; eta hori bera gertatzen da Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurretan egin diren indusketa lanekin, salbuespen bakarrarekin. Hona hemen aztarnategi horietako datazio absolutuetako batzuk:

- Trikuaizti I (I-14099)	5.300±140 B.P.
- Irau 4 (Gif 7892)	3.850±90 B.P.
- Urdanarre N.1 (Gif 9144)	2.990±50B.P.(ehorztea)
- Bizkarzu (Gif 4183)	1.100±90 B.P.
- Ahiga (Gif 5022)	1.000±80 B.P.
- Urdanarre N.1 (Gif 9030)	520±60 B.P.

Gure ikerketa eremutik kanpo, hurbileko beste tumulu batzuek gure aroaren aurreko data hauek eman dituzte:

- Artix II (Biarno)	K.a. 2.220±80
- Lescar TII (Biarno)	K.a. 2.000±70
- Lescar VI (Biarno)	K.a. 1.890±80
- Boueilh BB II (Biarno)	K.a. 1.770±120
- Sauvagnon II (Biarno)	K.a. 1.670±80
- Pau I (Biarno)	K.a. 700±140
- Urkibi (Entzia)	K.a. 395±95
- Pau-Lous IV (Biarno)	K.a. 150±70
- Burandi (Entzia)	K.o. 390±80

Datu horietan ikus daitekeenez, Euskal Herrian dauden guztiak, Urdanarre N.1eko ehorzketa bat izan ezik, hemen aztertu den aldiaren aurrekoak dira, edo ondorengoak bestela. Inguruko lurraldeetan, berriz, gure aroaren aurreko lehenengo milurtearen barruan dauden hiru monumentu daude (bi Biarnon eta bat Entzian), nahiz eta egitura horietako batzuk Pirinioetako goi lurretan dauden tumuluen antzik ez duten ia.

Aipatutako aztarnategiez gainera, Araban induskatu dira Okina, Sendadiano eta Las Campas tumuluak, baina eta bertan aurkitutako materialak Kalkolitikokoak edo Brontze Araoaren hasierakoak dira.

Pirinioetako zenbait eremutan tumuluak eta harrespilak gune berdinetan agertu izana ez zaigu iruditzen arrazoi nahikoa bi aztarnategi mota horiek aldi kronologiko berean sartzeko, ez behintzat gai horren inguruan datu berriak emango diguten indusketa berrien emaitzarik jasotzen ez dugun bitartean. Bestalde, eremu horietako zenbait tumulu trikuharriekin batera agertzen dira, baino hori ere ez da oinarri nahikoa biak garai bereko gertaerak direnik esateko.

Hala eta guztiz ere, ez dugu uste gai honen ikerketari ateak itxi behar zaizkionik puntu horri dagokionez, aldiz, oso komenigarria iruditzen zaigu aurrera jarraitzea tumuluetako indusketa lanekin, batez ere, mendialdeko eremuetan, harrespilekin batera egoten baitira tumuluak horietan eta multzo beraren osagai baitira, batzuetan. Azterketa horiek argitasun handia emango ligukete hemen aztertzen ari garen garaiari dagokionez, eta baita historiaurreko ehorzketa megalitikoek historiako aldietan bizirik jarraitu dutela gaur egun baino argitasun handiagoz azaltzeko, azken urteetako zenbait emaitzak agertzen hasi diren bidean aurrera eginez.

Ildo horretatik, J. Blot eta Ch. Raballadek (1995), eta esku artean zenbait datazio dituztela, jakinarazi dute Erdi Aroaren parte batean bizirik jarraitu zuela hildakoak harrespiletan edo tumuluetan ehorzteko ohiturak. C14 bidezko zenbait dataziotan eta zenbait industria aztarnetan oinarrituta, erritu horiek indarrean iraun dutenaren hipotesiaren alde egiten dute bi ikertzaileok. Gertaera hori bat etorriko litzateke, haien iritziz, bere hizkuntza propioarekin eta kristautze berankorrarekin mendeetan zehar Pirinioetako eremu jakin batean bizi izan den herri multzo baten antzinatasunarekin eta bizimodu tradiziozkoari eustearekin.

4.1.- Aztarnategien inbentarioa

Euskal Herriko eremuan 291 harrespil multzo katalogatu dira guztira, eta Huesca, Biarno eta Pirinio Garaietan, berriz, 122 multzo.

Bestalde, katalogazio honetan tumulu bakar bat sartu da.

Bildu diren harrespil multzoak era honetara banatzen dira herrialdez herrialde:

Euskal herria:

Bizkaia	5	multzo.
Gipuzkoa	32	“
Nafarroa	150	“
Lapurdi	20	“
Nafarroa Beherea	65	“
Zuberoa	19	“

Euskal Herriaren ekialdeko Pirinioetako lurraldeak:

Huesca	40 multzo
Biarno	73 multzo
Pirinio Garaiak	9 multzo

Pirinioetako 413 harrespil multzoek guztira 1.104 harrespil dituzte, eta horietatik 851 Euskal Herrian daude eta 253, berriz, bertatik ekialdera, era honetara banatuta:

Euskal Herria:

Bizkaia	7	harrespila.
Gipuzkoa	130	“
Nafarroa	460	“
Lapurdi	58	“
Nafarroa Beherea	166	“
Zuberoa	30	“

Euskal Herritik ekialdera dauden Pirinioetako lurraldeak:

Huesca	90	harrespila.
Biarno	147	“
Pirinio Garaiak	16	“

Katalogatu den tumulu bakarra, azkenik, Lapurdiko herrialdeari dagokio, Euskal Herrian dago beraz.

4.1.1. HARRESPILAK

BIZKAIA

1.- BIROLEO
2.- KANPAZAULO
3.- KORLETA
4.- PERUTXOTE
5.- SORBITZUAG

GIPUZKOA

6.- ABADE KURUTZ
7.- AITZAZATE I
8.- ALTXISTA (ANTXISTA)
9.- ARLEORKO ZABALA
10.- ARRITXULANGAINA
11.- ARRITXURRIETA
12.- BASATE
13.- BEASKIN I
14.- EGIAR
15.- ELORRITAKO GAÑA (ELORRIETAKO GAINA)
16.- ELURZULO (LEIAKO ELURTZULOA)
17.- ERRENGA
18.- ETENETA I (ETENETAKO LEPOA)
19.- ETENETA II (ETENETAKO BIZKARRA)
20.- ETZELA
21.- ETZELA MENDEBAL
22.- ETZELAKO ARRITXURIAK
23.- EZIOKO SOROA
24.- EZIOKO TONTORRA
25.- IGARATZA II
26.- JAIZKIBEL I (ISKULIN)
27.- JAIZKIBEL II (JAIZKIBEL)
28.- KAUSO I (KAUSOKO LEPOA)
29.- KAUSO II (KAUSOKO GAINA)
30.- MENDIZORROTZ I
31.- MULISKO GAINA
32.- MUNERRE
33.- OIANLEKU HEGO
34.- OIANLEKU IPAR
35.- TXIMISTAKO EGIA
36.- UNAMENE
37.- URKULLU TXIKI EGIA

NAFARROA

38.- ABARTAN (IZKOA)
39.- ABARTANGO-ZELAIA
40.- ADIKO SOROA
41.- AGATUNKO LEPOA
42.- AGIÑA I (AGINA IPAR)
43.- AGIÑA II (AGINA ERDI)
44.- AGIÑA III (AGINA HEGO)
45.- AGIÑA IV (AGINA SOROA)
46.- AINONAKO GAINA (URGARATAKO GAINA)
47.- AINONAKO LEPOA (URGARATAKO LEPOA)
48.- AIZALEGI
49.- ALTSOROI
50.- ALTUETAKO LEPOA
51.- AMABIRJINEI-ARPEA
52.- AMARGUNGO ZEHARRA
53.- ANSESTEGIKO LEPOA
54.- ANUSBIZKAR
55.- ARBILLETA
56.- ARGIBEL
57.- ARGINTZU EKIALDE
58.- ARGINTZUKO-LEPOA
59.- ARGORRIETA
60.- ARRATAKAKO ITURRI
61.- ARRIURDIÑETA
62.- ARRIURDIÑETA ERDI (EZKITURRITAKO GAINA)
63.- ARRIURDIÑETA OCCIDENTAL (URKAMENDI HEGO)
64.- ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU SORO)
65.- ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU TXABALA)
66.- ARRIURDIÑETA ORIENTAL (URKAMENDI IPAR)
67.- ARRIURDIÑETAKO LEPOA
68.- AUNTZBIZKAR
69.- AXPAGETA IPAR I (IDOPILKO SOROA)
70.- AXPAGETA IPAR II (AXPAGETA)
71.- AXPAGETA HEGO (ARRATAKA)
72.- AZALDEGIKO-LEPOA
73.- AZKENAZKO-LEPOA
74.- AZPEGI IPAR
75.- AZPEGIKO LEPOA
76.- BALSA FRIA
77.- BARAXAR PAGOXAR
78.- BARDOIZA
79.- BEARDEGIKO GAINA
80.- BELTZUNTZA
81.- BELTZUNTZAKO HARRIA
82.- BERASKUAIN
83.- BIAMENDIKO LEPOA
84.- BIDAKORRIKO LEPOA
85.- BIDANGOKO GAINA
86.- BURDIMOTX BIZKARRA
87.- BURGA
88.- BURNAIZTIETAKO LEPOA
89.- BUURDIKO-LEPOA
90.- DESKANTSUKO BIZKARRA
91.- DESKARGAKO ARRIETA
92.- EGURTEGI

93.- ELORREGIKO LEPOA
94.- ELORRIETA
95.- ELUTXO HARRIA (BIDANGOKO ZABALA)
96.- ENEKO ELORRITA I (ENEKO ELORRIETA EGIA)
97.- ENEKO ELORRITA II (ENEKO ELORRIETA LEPOA)
98.- ENOBIETA TXIKIA
99.- ERMITAKO-LEPOA
100.- ERNAZABALGO SOROA
101.- ERREKALKO (ERREKALEKU)
102.- ERROLAN
103.- ETENE
104.- ETSAIN
105.- EXKAXPE
106.- EZKAIN´KO LEPOA
107.- GARTZAGAKO-LEPOA
108.- GATZARRIETA I
109.- GATZARRIETA II
110.- GAZTANBIDE
111.- GAZTARROZKO BIZKARRA
112.- GERASUNKO ATAKA
113.- GOIZAMENDI (MEATZETAKO KASKOA)
114.- GOROSPILGO-LEPOA
115.- GOROSTI
116.- GOROSTI BIZKAR
117.- GORRAMAKIL EKIALDE
118.- GORRAMAKIL MENDEBAL
119.- GORRAMENDI
120.- GURUTXE-MEAKA
121.- GURUTXE-MEAKA IPAR
122.- IBAÑETA EKIALDE
123.- IBAÑETA MENDEBAL
124.- IBINTZA
125.- IGUZKI HEGO
126.- ILLARBITEKO SOROA (ARRAMALETA)
127.- IRAINGO ATAKA
128.- IRASKARDI
129.- IRAURTZA
130.- IROPILE SUR (IDOPILKO LEPOA)
131.- IRUMUGETA
132.- ISTAUZ
133.- IZU (IZUKO GAINA)
134.- IZURRIZTI I (IZURRIZTIKO EGIA)
135.- IZURRIZTI II (IZURRIZTIKO LEPOA)
136.- KATILLEGIKO-LEPOA HEGO
137.- KATILLEGIKO-LEPOA IPAR
138.- LANOTEGIBEKOA
139.- LARRAKAGAINA
140.- LEKENDIKO GAINA
141.- LEPAKAESTUA
142.- LERATE (LEGATE)
143.- LINDUS
144.- LIZARROZKO SOROA
145.- LOITZATEKO SOROA
146.- LURUKO-ATEKAK
147.- LUURZU HEGO I
148.- LUURZU HEGO II
149.- LUURZU HEGO III
150.- LUURZUKO LEPOA
151.- MAILARRETA (MAIRUILARRIETA HEGO)
152.- MAIRUILARRIETA
153.- MAISTRUGAIN
154.- MAISTRUGAIN EKIALDE
155.- MAISTRUGAIN MENDEBAL
156.- MEATSEKO BIZKARRA
157.- MEATZU
158.- MEHATZE
159.- MINAKO LEPOA
160.- NEKAITZ
161.- OIALEGIKO LEPOA
162.- OLARIAGA
163.- OLEGI EKIALDE
164.- OLEGI MENDEBAL
165.- OLEGIKO LEPOA
166.- OTARRA-BIZKARRA
167.- OTSOARRISKO ZELAIA
168.- PAGOLLETA I (PAGOLLETAKO ZELAIA)
169.- PAGOLLETAKO GAINA
170.- PILOTASORO
171.- SAGARDEGI
172.- SOALAR
173.- SOLDADUHARRIAK (ATALOSTI)
174.- SOROLUXE
175.- TELLETXEKO BIZKARRA
176.- UNALBIDE
177.- UNALBIDEKO GAINA
178.- URDOLA
179.- URLEGIKO BIZKARRA
180.- URLEGIKO LEPOA
181.- URRIZTI
182.- UZTANBORRO
183.- XANTXOTEN HARRIA
184.- ZAGUA
185.- ZOTALETA ERDI
186.- ZOTALETA IPAR
187.- ZOTALETAKO-KASKOA HEGO

LAPURDI

188.- AIRAGARRI
189.- ALTXANGA
190.- ARLUXETA
191.- ATEKALEUN
192.- ATHARRI
193.- BEHEITAKO-ERREKA
194.- BIXUSTIA
195.- EZURRETA
196.- GOROSTIARRIA
197.- IGUZKI I-II (IGUZKI MENDEBAL)
198.- IUSKADI (IGUZKI IPAR)
199.- LA PLANA
200.- MANDALE
201.- MEATZEKO LEPOA

202.- MENDITTIPI (ZELAIAKO BIZKAR)
203.- ONEGA
204.- PITTARE
205.- SUALAR
206.- URTZUIA
207.- URTZUIAKO LEPOA (URSUBEHERE)

NAFARROA BEHEREA

208.- AINTZIAGA
209.- APATESARO HEGO
210.- APATESARO EKIALDE
211.- APATESARO IPAR
212.- ARGAIKO-HARRIA
213.- ARNOZTEGI
214.- ARRILUXE
215.- ARTHE
216.- ARTHEKO TONTORRA
217.- ARTXILONDO IPAR ETA HEGO
218.- ARTXILONDO MENDEBAL
219.- ASKONOBI
220.- AXIXTOI
221.- BEHORLEGI
222.- BILGOTZA
223.- CABAÑAS DE URKULU
224.- ERREGELU
225.- ERROZATE
226.- ETXAATEKO BIZKARRA
227.- ETXAATEKO LEPOA
228.- GAHALARBE
229.- GARRALDA
230.- GURUTZEKO IPARLA
231.- HARLUZE
232.- HASKETA
233.- HAUZAI
234.- HEGIEDER
235.- HEGIEDER IPAR
236.- HORTZ-ZORROTZ
237.- HORZA
238.- ILARRITA (OKABE)
239.- IPARLA
240.- IRATI-SORO HEGO
241.- IRATI-SORO ERDI
242.- IRATI-SORO IPAR
243.- IRAUBAZTER
244.- IRAUKO LEPOA
245.- IRAUNABAKO ERREKA HEGO
246.- IRAUNABAKO ERREKA IPAR
247.- IROPILE IPAR (IDOPIL IPAR)
248.- ITSASEGI
249.- JATSAGUNE
250.- LAURIÑA
251.- LEIZAR-ATHEKA
252.- MATARIA
253.- MENDIZABALE
254.- MUNHOGAIN
255.- NEGUSARO
256.- OIHANBELTZ HEGO
257.- OIHANBELTZ IPAR
258.- ORGELETEGI
259.- SOHANDI
260.- TURAORKO BIZKARRA
261.- TURAORKO EGIA
262.- TURAORKO LEPOA
263.- UNTXIDE
264.- URDANARRE
265.- URDANARRE IPAR
266.- URDIAKOHARRIA I
267.- URDIAKOHARRIA II
268.- ZAHO
269.- ZAHO HEGOA
270.- ZEINEGI
271.- ZURZAI HEGO
272.- ZURZAI IPAR

ZUBEROA

273.- AHARGO
274.- ALBINZE
275.- ARHANOLATZE
276.- BAGURDINETA
277.- ERROIMENDI
278.- HARTSUDURRA (ESKALIERRA)
279.- HEZELEKUA
280.- ILHARREKO ORDOKIA
281.- LAPATIÑEGAÑE
282.- LEPO XIPIA (ESKALEAK)
283.- MEATZE
284.- MILLAGATE
285.- MURKHUILLAKO LEPOA
286.- ORGANBIDESKA
287.- PELUSAINE
288.- UGATZE
289.- UTHUNARRIA
290.- XARDEKA
291.- ZERA

HUESCA

292.- AGUAS TUERTAS
293.- BARRANCO BARCAL ALTO
294.- BARRANCO BARCAL MEDIO
295.- BARRANCO BARCAL (REFUGIO)
296.- BARRANCO DE BLANCAS (IZAS)
297.- BARRANCO DE IP
298.- BARRANCO DE LOS CAMPOS DE TROYA
299.- BARRANCO DEL ARROYO
300.- BARRANCO EL CAMPANIL
301.- BARRANCO MAYO BLANCO
302.- BUNKER
303.- CAMPO LARGO ESTE
304.- CAMPO LARGO PUENTE
305.- CASA DE LA MINA
306.- CIRCO CANAL ROYA
307.- CORRAL (CASA DE LA MINA ALTO)
308.- CUARTEL DE CARABINEROS
309.- CULIVILLAS

310.- EL PUENTE
311.- EL SALERO I (NORTE)
312.- EL SALERO II (SUR)
313.- FORAU DE LA LLANA ESTE
314.- FORAU DE LA LLANA OESTE
315.- FOYAS DE AÑARON NORTE
316.- FOYAS DE AÑARON SUR
317.- FOYAS DE SANTA MARIA ESTE
318.- FOYAS DE SANTA MARIA OESTE
319.- IBON DE TRAMACASTILLA
320.- ISERIAS (IZAS)
321.- LA RIBERA
322.- LA RINCONADA (CANAL ROYA)
323.- LAS FITAS NORTE
324.- LAS FITAS SUR
325.- LORDECI NORTE
326.- LORDECI SUR
327.- PIE BARRANCO BARCAL (LA ROYA)
328.- POZETAS DE LA CAMBRA
329.- PUENTE DE LOS TRONCOS
330.- REMUÑE
331.- TXIPETA NORTE

BIARNO

332.- ACCAÜS
333.- ANSABÈRE ALTO
334.- ANSABÈRE BAJO
335.- ARLET (CAILLAOUS)
336.- ARLET ESTE
337.- ARLET OESTE
338.- ARRI
339.- ARRI I (BANASSE)
340.- ARRI NORTE (CABAÑA DE LERBE)
341.- BAIGT-DE SESCOUE
342.- BIOUS OUMETTES
343.- BISCACOU (NAPATCH)
344.- CABANE DE CUJALATE
345.- CABANE DE SÉNESCAU
346.- CABANES DE MAGNABAITG
347.- CABANES LA GLÈRE
348.- CANTAL ESCURETETS ESTE
349.- CHARACOU
350.- CHARACOU II
351.- COL D'ARAN
352.- COL D'ASTUN
353.- COL D'AYOUS
354.- COL DE GOUETSOULE
355.- COL DE L'IOU
356.- COL DE MAGNABAIGT
357.- COL DE SOUPERET
358.- COL D'ISEYE
359.- COL LAVIGNE
360.- COURAÜS DE HONDAS
361.- GABEDAILLE I
362.- GABEDAILLE II
363.- GABEDAILLE III-IV
364.- HOUNDAS
365.- IBON D'ASTANES
366.- ISEYE
367.- LAC D'ANGLUS
368.- LA COUD
369.- LAC GENTAU
370.- LAC ROUMASSOT
371.- LA GLÈRE DE POMBIE
372.- LAPOURSIOUQUE (VALLEE D'ARAN)
373.- LARRY
374.- LAS QUEBES
375.- LAS QUÉBOTTES DE BROUSSET
376.- MAGNABAITG
377.- MASPÊTRE
378.- MASPÊTRE I
379.- MASPÊTRE II
380.- OURATOU
381.- OURDINSE I
382.- OURDINSE II
383.- OURDINSE III
384.- PEDAING-DOUS-PLOUS
385.- PEYRECORE
386.- PEYREGET
387.- PIC D'AROUGOS
388.- PLAA HOUNGAROUS
389.- PLAT DE LA GRADILLÈRE
390.- PLAT DE LA GRADILLÈRE ESTE
391.- PLAT DE LA GRADILLÈRE OESTE
392.- PLATEAU DE GOUETSOULE
393.- PLUVIÓMETRO (NIVÓMETRO)
394.- SAOUBATHOU (IBOSQUE)
395.- SAOUBATHOU (SPELUNGUETTE)
396.- SARRAILLE (DE CAZAUX)
397.- SAOUBATHOU
398.- SÉNESCAU I
399.- SÉNESCAU II
400.- SÉNESCAU III
401.- SENTIER DE LOUSTRÉBÈS
402.- SOQUES
403.- SOUPERET
404.- SOUSSOUÉOU

PIRINIO GARAIAK

405.- AFFRON
406.- ARRATILLE
407.- DARRÉ SPLUMOUSE
408.- ILHEOU
409.- LUTOUR I
410.- LUTOUR II
411.- PE DET MALH
412.- PLA DE LA GOLE I
413.- PLA DE LA GOLE II

BIZKAIA

1.- BIROLEO

Kokalekua
Karrantzako ibarra I eta E alderdietatik Las Nieves aldera inguratzen duten Galupa (722 m), Carcelares eta Armañón (859 m) mailek osatzen duten mendikatearen elkarzut dauden gainetan, Turtziozko (Bizkaia) eta Rasinesko (Santander) udalerrien lurretan.

Koordenatuak:
Orria: 60 (20-5). Valmaseda. (1:50.000)
X. 472.650 Y. 4.793.450 Z. 632

Deskribapena
2 harrespilaz osaturiko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. Diametroa zehazten zaila da. Lauza formako 3 lekuko ditu agerian, 0,25, 0,20 eta 0,10 m-ko garaierakoak, hurrenez hurren. Barnealdean beste 3 harri bereizten dira, lekukoen material berekoak.
2.- Harrespila. Harrizko eraztun bikoitza du: kanpoaldekoaren diametroa 6,50 eta 7 m artekoa da, eta barnekoarena 5 m-koa. Lauza formako 55 lekuko agerikoz osatua da; 0,20 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da horien artean.

Historia
1. harrespila 1966an aurkitu zuten P. M. Gorrochategui eta J. M. Iparraguirrek, eta 2. harrespila 1975ean, P. M. Gorrochategui eta J. Gorrochateguik. Aurkitzaileek zalantza dute lehenengo monumentua historiaurreko monumentua ote den. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Gorrochategui, J. (1979)
Gorrochategui, J.; Yarritu, M. J. (1984a)

2.- KANPAZAULO

Kokalekua
Eretza eta Apuko bereizten dituen lepoan, Saratxo herriaren gainean, Barakaldo eta Goeniz udalerrien artean.

Koordenatuak:
Orria: 61-III. Güeñes. (1:25.000)
X. 497.140 Y. 4.788.050 Z. 522

Deskribapena
Tumuludun harrespil bikoitza. 9 m-koa du gehieneko diametroa, eta oso txikia da garaieraz. Zirkulu handienak 31 lekuko ditu agerian eta 29, berriz, zirkulu txikiak, lauza formakoak guztiak. Erdian zulo bat du, harlauza handi okertu batekin. Hareharria.

Historia
1955ean aurkitu zuen A. Aguirrek, eta indusketa lanak 1965 inguruan egin zituen J. M. Apellanizek. Egile horrek 1973an argitara emandako Materialen Corpusean Ereza izenaz ageri da.

Egiturak eta Estratigrafia
Monumentu hau oso egoera kaskarrean zegoen indusketa egin zen garaian, eta ezin izan zen alor honetan datu aipagarririk eskuratu.

Materialak
Industria litikoa:
- Harri printza landua, muxarradura txiki batekin.
- Harri printza itxuragabea.

Kultura sekuentzia
J. M. Apellanizen iritzian litekeena da monumentu hau ez izatea harrespil baten osagai.

Bibliografia
Aguirre, A. (1955)
Apellaniz, J. M. (1973)
Barandiaran, J. M. de (1962b)

3.- KORLETA

Kokalekua
Korletako lepotik hurbil, maldatxo baten goialdean, Orozkoko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 86 (21-6). Landaco. (1:50.000)
X. 509.350 Y. 4.767.450 Z. 825

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa. 12 lekuko ditu agerian, lauza itxurakoak.
Monumentuaren behealdean, H-ko muturrean 2 lauza daude ganbera moduan finkaturik. Hareharria.

Historia
1984an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Millán, L. (1984)
Millán, L. (1985/86)

4.- PERUTXOTE

Kokalekua
Laherrerako zelaia (625 m) hasten den gain txikiaren hurbileko zabaldi batean, Pico de La Parada edo Perutxote (672 m) gailurretik hurbil, Turtzioz (Bizkaia) eta Castro Urdiales (Santander) udalerrien lurretan.

Koordenatuak:
Orria: 60 (20-5). Valmaseda. (1:50.000)
X. 482.100 Y. 4.793.750 Z. 622

Deskribapena
Harrespila. 2,80 m-ko diametroa. 7 lekuko ditu agerian, lauza itxurakoak (horietako 3 etzanda daude gaur egun); 2

4. argazkia. Perutxoteko harrespila.

lekuko nabarmentzen dira horien artean, 1 eta 0,80 m garaiak, hurrenez hurren. Hareharria.

Historia
1959an aurkitu zuten P. M. Gorrochategui eta P. J. Gorrochateguik. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1962b)
Gorrochategui, J. (1979)
Gorrochategui, P. M.; Gorrochategui, J. (1974)
Gorrochategui, J.; Yarritu, M. J. (1984a)

5.- SORBITZUAGA

Kokalekua
Sorbitzuaga edo Arrietara Ugarane deituriko parajean, Sorbitzuaga baserritik hurbil, Altamira auzoan, Busturiako udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria: 38 (22-4). Bermeo. (1:50.000)
X. 522.050 Y. 4.803.100 Z. 420

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.
Ez dago zehazki jakiterik monumentu hauek berez zenbateko neurria zuten, hondatuta baitzeuden 1990eko ekinaldi arkeologikoa egin zenerako. Zutarri bat eta ortostato bat –azken hau mugarri gisa erabilia– bakarrik gelditzen dira gaur egun, eta bi harri txiki, I. Pujanaren iritzian.

Zutarria –zeinaren inguruan egon bide baitziren, era perimetralean kokaturik, bi zirkuluak, indusketaren egileak esan duenez– alboetan hozkak dituen hareharri antropomorfo bat da, mutur distalean zirkulu erdi formako epaiekiko koskak dituena, 2 m luzea, 0,92 m zabala, gehienera, oinarrian, eta 0,25 m lodia. Hozken eta gorputzaren buruaren arteko distantzia 1,82 m-koa da.

Historia
1985ean aurkitu zituen R. Ensunzak. 1990ean egin ziren lehenengo indusketa lanak, I. Pujanaren eskutik. Aurretik zenbait kata ezkutuko egin ziren bertan. 1989an Arriatara Ugarene I izenaz ezagutzen den monolitoa soilik eman zen argitara.

Egiturak eta Estratigrafia
Ezin zehaztu izan dira, aztarnategiaren egoera kaskarra dela-eta.

Materialak
Gune horretan aurkitu dira:
- suharrizko gune txiki bat.
- 2 harri printza.
- garai berriagoetako aztarnak.

Kultura sekuentzia
I. Pujanak Azken Brontze-Burdin Aroa artean kokatu du.

Bibliografia
Lopez, J. C.; et alii. (1989)
Pujana, I. (1990)

GIPUZKOA

6.- ABADE KURUTZ

Kokalekua
Abade Kurutz mendiaren hego-mendebaldeko saihetsaldean, gailurretik 200 m-ra, Baratzarretan. Suebaki bat igarotzen da bertatik, Berastegiko udalerriaren lurretan.

5. argazkia. Abade Kurutzeko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 89-2. Berastegi. (1:25.000)
X. 587.565 Y. 4.778.055 Z. 905

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Suebaki batek hondatua. Garai batean multzo hau osatzen zuten kuartzozko blokeen hondakin etzan nahasiak bakarrik gelditzen dira gaur egun, suebakiaren alde banatara. Hauek ziren harrespilaren ezaugarriak, L. Peñaren arabera:

1.- Harrespila. 8,90 m-ko diametroa. Bloke formako 27 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 7,10 m-ko diametroa I-H-an eta 6,80 m-koa E-M-an. Bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 13 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1946an aurkitu zituen L. Peñak. Ez da indusketa lanik egin. Suebaki baten ondorioz hondatuta dago.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Peña Basurto, L. (1960)

7.- AITZAZATE I

Kokalekua
Aitzazate mendiaren iparraldeko hegalean, Herrilurra izenaz ezagutzen den gunean, Donostiako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-1. Zarautz. (1:25.000)
X. 574.695 Y. 4.794.320 Z. 327

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako hareharria.

1.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua; horietako bat 0,55 m da garai, eta gainerakoak lur azalaren mailan daude. Mendebaldeko arkuan ez da lekukorik ageri.
2.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 7 lekuko ditu agerian; horietako lau 0,10 m dira garai, eta gainerakoak lur azalaren mailan daude. IE alderdian ez da lekukorik ageri.

Historia
1985ean aurkitu zituen I. Gazteluk. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1990)

8.- ALTXISTA (ANTXISTA)

Kokalekua
Antxistako lepoan (Ilintxarbe), Zaburuko (Argarate) harrien hego-ekialdeko hegalean. Isurialdeen banalerroaren alde banatara daude kokatuta monumentuak, Zaburuko hegalean bertan; 2.600 m^2 inguruko eremua hartzen dute, Elduaingo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 584.975 Y. 4.782.350 Z.670

Deskribapena
8 harrespileko multzoa. Hareharria eta pudinga.

1.- Harrespila. 2 m-ko diametroa. Bloke eta lauza itxurako 3 lekuko agerikoz osatua; 0,95 m eta 0,50 m arteko garaiera dute lekukook.
2.- Harrespila. 7,30 m-ko diametroa. Bloke eta lauza itxurako 19 lekuko ditu agerian; 0,35-0,15 m bitarteko garaiera dute horietako lauk. Erdian 1,70 x 1,20 m-ko bloke bat dago, etzanda.
3.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren 9 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren 10 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 7,50 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,20 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da.
6.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua; 3 lekuko nabarmentzen dira, 1,10-0,35 m arteko garaierakoak.
7.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren 5 lekuko ditu agerian.
8.- Harrespila. 3,60 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren 6 lekuko ditu agerian.
Egitura hauen artean hainbat bloke ageri dira, gaur egun oso hondatuta dauden beste monumentu batzuen parte bide zirenak garai batean.

6. argazkia. Altxistako harrespil multzoa (Antxista).

Historia
1. eta 6. harrespilak 1923an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Gainerakoak L. del Barrio, L. Millán eta J. J. Ochoak aurkitu zituzten, 1982 eta 1989 bitartean. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barandiaran, J. M. de (1926)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1954)
Peña Basurto, L. (1960)

9.- ARLEORKO ZABALA

Kokalekua
Arleorko Zabala lepoan, Trintxalekuta eta Arleor harkaitzen artean, Urnietako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 584.250 Y. 4.785.900 Z. 535

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Bertako hareharria.

1.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa I-H-an eta 3,60 m-koa E-M-an. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua; 10 lekuko nabarmentzen dira horien artean, 0,26-0,12 m arteko garaiera dutenak.
2.- Harrespila. 5,70 m-ko diametroa. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua; 10 lekuko nabarmentzen dira horien artean, 0,32-0,15 m arteko garaiera dutenak.
3.- Harrespila. 5,40 m-ko diametroa I-H-an eta 6 m-koa E-M-an. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,55-0,17 m bitarteko garaierakoak.
4.- Harrespila. 4,10 m-ko diametroa I-H-an eta 4,80 m-koa E-M-an. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua; 10 lekuko nabarmentzen dira horien artean, 0,30-0,15 m arteko garaiera dutenak.

Historia
1978an aurkitu zituzten L. del Barrio eta L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barrio, L. del (1979)

10.- ARRITXULANGAÑA

Kokalekua
Irumugarrieta izenaz ezagutzen den gunearen gainean, Goizueta, Lesaka eta Oiartzun udalerrien arteko erpinean. Oiartzungo udalerriko Bianditz erpin geodesikotik 350 m iparraldera.

Koordenatuak:
Orria: 65-3. Oyarzun. (1:25.000)
X. 597.955 Y. 4.789.140 Z. 832

Deskribapena
10 harrespila eta bi tumuluz osaturiko multzoa. Bertako granitoa.

1.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa I-H-an eta 7 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 25 lekuko agerikoz osatua; 15 nabarmentzen dira horien artean, 0,65 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 5,50 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua; horien artean 7 nabarmentzen dira, 0,30 eta 0,10 m bitarte garaiak.

7. argazkia. Arritxulangaineko harrespil multzoa.

3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 5,50 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua; 8 nabarmentzen dira horien artean, 0,40 eta 0,22 m bitarteko garaierakoak.
4.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua; horien artean 3 nabarmentzen dira, 0,30 eta 0,12 m bitarteko garaierakoak.
5.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua; 5 nabarmentzen dira horien artean, 0,42-0,10 m arteko garaiera dutenak.
6.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa I-H-an eta 3,50 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua; horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,10 m garaiak.
7.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua; horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,45 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak.
8.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua da, eta horien artean bat nabarmentzen da, 0,15 m garaia.
9.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 17 lekuko agerikoz osatua da, eta horien artean 3 nabarmentzen dira, 0,10 m garaiak.
10.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa I-H-an eta 5 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua da, horien artean 3 nabarmentzen direla, 0,14 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak.
Monumentu hauen guztien artean lurrean finkaturiko zenbait harri ageri dira, gaur desagertuta dauden beste monumentu batzuen parte izan bide zirenak edo deskribatzen diren monumentu hauekin zerikusia bide zutenak garai batean.

Historia
Lehenengo monumentuak 1909an aurkitu zituen P. Soralucek. Handik aurrera aurkikuntza berriez osatu dute monumentua L. Peña Basurto, L. del Barrio, L. Millán eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)

Altuna, J.; et alii. (1990)
Aranzadi, T. de (1915)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

11.- ARRITXURRIETA

Kokalekua
Arritxulagaña mendiaren iparraldeko saihetsaldearen zabalgunean, gune hartan nabarmentzen den kuartzozko harkaitz handitik 200 m iparraldera, Oiartzungo udalerrian.

8. argazkia. Arritxurrietako harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 594.900 Y. 4.792.110 Z. 385

Deskribapena
7 m-ko diametroko harrespila, bloke formako 22 lekuko agerikoz osatua, 13 nabarmentzen direla horien artean, 0,20 eta 0,75 m arteko garaierakoak; gainerako lekukoak lur azalaren mailan edo lurrean etzanda daude (5 kanpoaldera begira, 1 barnealdera begira). Barnealdeko espazioa blokez beterik dago. Bertako kuartzoa.

Historia
1981ean aurkitu zuten J. M. García eta J. Lekuonak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Arbelaiz, I. (1981)

12.- BASATE

Kokalekua
Basateko gainaren goialdean, hegoaldeko muturrean, Oiartzungo udalerrian.

9. argazkia. Basateko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 595.290 Y. 4.789.980 Z. 630

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Bertako granitoa eta arbela.

1.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 13 lekuko agerikoz osatua; 0,18 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da horien artean.
2.- Harrespila. 2,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua; 0,15 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da horien artean.
3.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua, 0,45 eta 0,20 m arteko garaiera duten 6 lekuko nabarmentzen direla horien artean.
4.- Harrespila. 3 m-ko diametroa I-H-an eta 5 m-koa E-M-an. Bloke txiki ugariz dago osatua, baina horien artean bat nabarmentzen da, 0,40 m garaia.
5.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke txiki ugariz dago osatua, baina horien artean bat nabarmentzen da, 0,25 m-ko garaiera duena.
6.- Harrespila. 4,70 m-ko diametroa I-H-an eta 5,70 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,18 eta 0,10 m garaiak, hurrenez hurren.

Historia
1948an aurkitu zituen L. Peñak, 6. harrespila izan ezik; 6. hori 1983an aurkitu zuen J. A. Garcíak. Ez da indusketa lanik egin.
L. Peñak (1960) 6 harrespil aipatu zituen lekuan 5 bakarrik bereizten dira gaur. Multzo nagusitik 75 m IM-ra dago 6. harrespil gisa katalogatu dugun harrespila.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Peña Basurto, L. (1960)

13.- BEASKIN I

Kokalekua
Beaskingo lekuan, izen bereko saroitik 250 m IE-ra, Enirio-Aralar Mankomunitatean.

Koordenatuak:
Orria: 114-1. Ataun. (1:25.000)
X. 577.840 Y. 4.760.140 Z. 1.205

Deskribapena
6 m-ko diametroko harrespila, lur azalaren mailatik apenas goititzen diren bloke formako 19 lekuko agerikoz osatua. Bertako hareharria.

Historia
L. del Barrio eta A. Armendarizek aurkitu zuten 1982an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1990)

14.- EGIAR

Kokalekua
Egieder lepoan, Egiar gailurretik hurbil, ekialdera, Oiartzungo udalerrian.

10. argazkia. Egiarko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 594.825 Y. 4.794.975 Z. 320

Deskribapena
7 harrespileko multzoa. Bertako konglomeratua eta inguruetako hareharria.

1.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Bloke formako 19 lekuko agerikoz osatua; horien artean 14 nabarmentzen dira, 0,95 eta 0,20 m bitarteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 5,50 m-koa E-M-an. Bloke formako 15 lekuko ditu agerian, horien artean 9 nabarmentzen direla, 0,60 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
3.- Harrespila. 7,50 m-ko diametroa. Bloke formako 20 lekuko ditu agerian; horien artean 14 nabarmentzen dira, 1,75 eta 0,10 m arteko garaierakoak (garaienak 1,75 m ditu, eta gainerakoak baino gehiago nabarmentzen da; iparralderantz erorita zegoen indusketa lanak egin aurretik).
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 13 lekuko agerikoz osatua; horien artean 9 nabarmentzen dira, 0,35 eta 0,10 m arteko garaiera dutenak.
5.- Harrespila. 2 m-ko diametroa. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua; 0,28 eta 0,10 m arteko garaiera dute lekukook.
6.- Harrespila. 3,60 m-ko diametroa I-H-an eta 3,50 m-koa E-M-an. Bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua; horien artean 9 nabarmentzen dira, 0,65 eta 0,10 m arteko garaiera dutenak.
7.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Azaleratze baten gainean eraikia, bertako materialak baliatuz. IE koadrantean hareharrizko lauza bat dago, inguruetatik erakarria.

Historia
1909. urtean aurkitu zituen P. Soralucek; Soralucek berak indusketa egin zuen urte berean. Handik hilabete batzuetara, urte hartan betiere, eta T. de Aranzadi lagun zuela, beste indusketa txiki bat eraman zuen aurrera. 1967an harrespil haietako zenbait induskatu eta berrosatu zituen J. Altunak.

Materialak
Orain arte aipaturiko lanetatik bakar batean ere ez da inongo material arkeologikorik eskuratu.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Aranzadi, T. de (1915)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

15.- ELORRITAKO GAÑA (ELORRIETAKO GAINA)

Kokalekua
Elorritako Kasku edo Oteiz mendiaren gailurrean, Arandan

11. argazkia. Elorritako Gañeko harrespila (Elorrietako Gaina).

(Arandaran) baserritik IM-ra eta Ozenzio (Ozentziyo) baserriaren eta ermitaren E-HE-ra, Oiartzungo udalerrian.



2.irud. Elorritako Gañeko harrespila (Elorrietako Gaina). (J. Altuna; et alii, 1990).

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 593.205 Y. 4.791.710 Z. 400

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 3,20 m-ko diametroa eta 0,30 eta 0,25 m arteko garaiera duena. Tumuluaren garaiera bera eta bloke formako 14 lekuko ditu. Bertako arbela.

Historia
1986an aurkitu zuen J. Argomanizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barrio, L. del (1986)
Barrio, L. del (1987)

16.- ELURZULO (LEIAKO ELURTZULO)

Kokalekua

Adarra mendiaren iparraldeko hegalean, Mantale lepo eta elurzulo zaharretik 200 m hegoaldera, zabalgune txiki batean, Urnietako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 584.680 Y. 4.785.060 Z. 615

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 11 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duena. 57 lekuko agerikoz osatua, horien artean 0,75 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen dela. Bertako kuartzita, arbela eta hareharria.

Historia
1951n aurkitu zuen L. Peñak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Peña Basurto, L. (1960)

17.- ERRENGA

Kokalekua
Errenga mendiaren ipar-mendebaldeko saihetsaldeko zabalgune batean, uren banalerroan eta Lesakako udalerriarekiko mugan, gailurretik 350 m HM-ra, Oiartzungo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 597.880 Y. 4.789.945 Z. 735

Deskribapena
8 harrespileko multzoa. Bertako granitoa.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa I-H-an eta 6,50 m-koa E-M-an. Bloke formako 23 lekuko ageriko ditu, eta horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,37 eta 0,30 m garaiak, hurrenez hurren.
2.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa I-H-an eta 7 m-koa E-M-an. Bloke formako 40 lekuko ageriko ditu, eta horien artean 15 nabarmentzen dira, 0,90 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak.
3.- Tumuludun harrespila. 8 m-koa du diametroa eta 0,25 m da garaia. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua, 1,15 eta 0,10 m bitarteko garaiera duten 22 lekuko nabarmentzen direla horien artean.
4.- Tumuludun harrespila. 4,60 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera. Bloke formako 13 lekuko agerikoz osatua; horien artean 7 nabarmentzen dira, 0,35 eta 0,15 m bitarteko garaiera dutenak.

12. argazkia. Errengako harrespil multzoa.

5.- Tumuludun harrespila. 7,50 m-ko diametroa I-H-an, 7,70 m-koa E-M-an, eta 0,15 m-ko garaiera. Bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua; horien artean 4 nabarmentzen dira, 0,45 eta 0,15 m bitarte garaiak.
6.- Tumuludun harrespila, 5,20 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duena. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua; horien artean 9 nabarmentzen dira, 0,50 eta 0,15 m arteko garaierakoak.
7.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua; horien artean 12 nabarmentzen dira, 0,55 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
8.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 0,20 m garaia.

Historia
1909an aurkitu zituen P. Soralucek; egile hark, T. de Aranzadi lagun zuela, azaleko indusketa bat egin zuen 1915ean.

Materialak
Ez zen inolako materialik aurkitu indusketan.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Aranzadi, T. de (1915)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

18.- ETENETA I (ETENETAKO LEPOA)

Kokalekua
Aerreko Zabala izenaz ezaguna den lepo zabal baten erdian, Urnietako udalerrian.

13. argazkia. Eteneta Ieko harrespil multzoa (Etenetako Lepoa).

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 584.275 Y.4.783.780 Z. 704

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako hareharria.

1.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako hainbat lekukoz osatua; 0,45 eta 0,20 m arteko garaiera dute lekuko horiek, 2 m garai den lekuko batek izan ezik (lekuko honek lurperatuta duen partea kontuan harturik, 3 m-rainoko garaiera du). Lurrean etzanda aurkitu zuten lekuko garai hau, esparrutik kanpo, eta gerora bi aldiz konpondu izan da. Monumentuaren iparraldeko arkuan harrizko pila bat dago, eta tumulu antza ematen dio horrek.
2.- Harrespila. 2,70 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 24 lekuko agerikoz osatua, horien artean 3 nabarmentzen direla, 0,37 eta 0,28 m arteko garaierakoak.

Historia
Harrespilak 1951n aurkitu zituen L. Peñak eta monolitoa, berriz, 1978an J. Altuna eta K. Mariezkurrenak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barrio, L. del (1979)
Peña Basurto, L. (1960)

19.- ETENETA II (ETENETAKO BIZKARRA)

Kokalekua
Agerreko Zabala izenaz ezagutzen den lepo zabalaren hegomendebaldeko muturrean, Onddo mendiaren ipar-ekialdeko hegalaren hasieran, Andoaingo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 584.190 Y. 4.783.605 Z. 713

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Bertako hareharria.

1.- Harrespila. 8,50 m-ko diametroa. Lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua; horien artean 12 nabarmentzen dira, 0,50 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 4,90 m-ko diametroa I-H-an eta 5,50 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua; horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,35 eta 0,15 m bitarteko garaiera dutenak.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren lauza eta bloke formako 13 lekuko ditu agerian.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 5,30 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua; 8 lekuko nabarmentzen dira horien artean, 0,34 eta 0,10 m arteko garaierakoak.

Historia
1. eta 4. harrespilak 1951n aurkitu zituen L. Peñak. 2. eta 3. harrespilak, berriz, 1978an aurkitu zituzten L. del Barrio eta L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barrio, L. del (1979)
Peña Basurto, L. (1960)

20.- ETZELA

Kokalekua
Etzelako lepoan, Leuneta mendiaren mendebaldeko saihetsaldean, uren banalerroan eta hegoaldeko isurialdean. Zenbait pista eta suebaki bat igarotzen dira bertatik, Elduain eta Hernani udalerrien lurretan.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 587.520 Y. 4.780.790 Z. 780

Deskribapena
16 harrespileko multzoa, 17.000 m^2-ko eremua hartzen duena gutxi gorabehera, eta 5 sail desberdinetan banatua: 1-5, 6-8, 9-11, 12-14 eta 15-16. Bertako kuartzita eta arbela.

1.- Tumuludun harrespila. 7 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera. Lauza eta bloke formako hainbat lekuko ageriko ditu; horien artean 7 nabarmentzen dira, 0,20 m garaiak.
2.- Tumuludun harrespila. 9 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera. Lauza eta bloke formako hainbat lekuko ageriko ditu, horien artean 20 nabarmen, 0,30 m-ko garaiera dutenak batez beste.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Sasiz estalitako hainbat lekukoz osatua.
4.- Tumuludun harrespila, 9 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Sasiz estalitako hainbat lekukoz osatua. Iparraldeko arkuan suebaki batek ebakia.
5.- Harrespila, 6 m-ko diametrokoa. Lurrez estalita dauden bloke formako hainbat lekukoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,30 m garaiak.
6.- Harrespila. Estimazioz kalkulaturiko diametroa: 5 m. Pista batek eta suebaki batek ebakia. Lau lekuko gelditzen dira agerian, bloke itxurakoak, eta horien artean bat nabarmentzen da, 0,60 m garaia.
7.- Harrespila. Estimazioz kalkulaturiko diametroa: 5 m. Pista batek eta suebaki batek ebakia. 8 lekuko gelditzen dira agerian, lauza eta bloke itxurakoak, eta horien artean bat nabarmentzen da, 0,50 m-ko garaiera duena.
8.- Harrespila. Estimazioz kalkulaturiko diametroa: 5 m. Pista batek eta suebaki batek ebakia. 8 lekuko gelditzen dira agerian, lauza eta bloke itxurakoak, eta horien artean bat nabarmentzen da, 0,20 m garaia.
9.- Tumuludun harrespila, 3,60 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Landarez estalia. Lauza eta bloke formako 15 lekuko ditu agerian, 0,20 eta 0,10 m arteko garaiera dutenak.
10.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Landarez estalia. 13 lekuko ditu agerian, lauza eta bloke formakoak, 0,20 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
11.- Tumuludun harrespila. 4,80 m-ko diametroa I-H-an, 5 m-koa E-M-an, eta 0,20 m-ko garaiera. 0,20 eta 0,10 m arteko garaiera duten lauza eta bloke formako 22 lekuko ditu agerian.
12.- Tumuludun harrespila. 9 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera. Lauza eta bloke formako 35 lekuko agerikoz osatua, horien artean 17 nabarmentzen direla, 0,90 eta 0,20 m bitarteko garaiera dutenak. 13. harrespilaren ebakitzailea da HE-ko arkuan.
13.- Tumuludun harrespila. 10,70 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera. Lauza eta bloke formako 36 lekuko agerikoz osatua; horien artean 16 nabarmentzen dira, 1,20 eta 0,20 m arteko garaierakoak. 12. harrespilaren ebakitzailea da IM-ko arkuan.
14.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 4 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,20 m garaiak biak.
15.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua, horien artean 3 nabarmentzen direla, HE-ko arkuan, 0,60 eta 0,15 m bitarteko garaierakoak.
16.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. IM-ko arkuan 3 lekuko ditu agerian, 0,30 eta 0,20 m bitarte garaiak.
Egitura hauen artean hainbat bloke ageri dira, gaur egun oso hondatuta dauden beste monumentu batzuen parte izan bide zirenak garai batean.

Historia
1., 2., 3., 4., 12. eta 13. harrespilak 1923an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Gainerako aurkikuntzak I. Gaztelu, L. Millán eta J. J. Ochoak egin zituzten 1989 eta 1990 urteetan.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barandiaran, J. M. de (1926)
Barandiaran, J. M. de (1946)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

21.- ETZELA MENDEBAL

Kokalekua
Urritzako Lepoaren hegoaldeko isurialdean, Leizaran aldera, uren banalerroaren 50 m-ra, Elduaingo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 587.155 Y. 4.780.845 Z. 765

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 10,50 m-ko diametrokoa eta 0,25 m garaia, bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua, horien artean 12 nabarmentzen direla, iparraldeko arkuan, 0,90 eta 0,25 m bitarteko garaierakoak. Erdialdean hainbat bloke handi ageri dira nahasirik. Bertako kuartzita eta arbela.

Historia
1923an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barandiaran, J. M. de (1926)
Barandiaran, J. M. de (1946)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

22.- ETZELAKO ARRITXURIAK

Kokalekua
Leuneta mendiaren ekialdeko hegalean, Etzeletako lepotik 300 m HE-ra, Mandoegi mendira doan pistatik hurbil, pista horren azpian hain zuzen. Arritxurrieta izenaz ere ezagutzen da gune hau, eta Elduaingo udalerriaren barruan dago.



3.irud. Etzelako Arritxurietako harrespilak. (J. Altuna; et alii, 1990).

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 587.680 Y. 4.780.530 Z. 795

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako kuartzita eta arbela.

1.- Tumuludun harrespila. 6 m-ko diametroa eta 0,25 m-ko garaiera. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 24 lekuko ditu agerian.
2.- Tumuludun harrespila. 12 m-ko diametroa eta 0,25 eta 0,50 m arteko garaiera. Bloke formako 54 lekuko agerikoz osatua, horien artean 13 nabarmentzen direla, 1,20 eta 0,50 m arteko garaierakoak. Gehien nabarmentzen diren lekukoak mendebaldeko arkuan daude, eta barnetik monumentuaren oinarria monumentua kokatuta dagoen hegalaren mailara eramateko bezala betea dirudi.

Historia
2. harrespila J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen 1923an, eta 1. harrespila I. Gazteluk 1990ean. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barandiaran, J. M. de (1926)
Barandiaran, J. M. de (1946)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

23.- EZIOKO SOROA

Kokalekua
Izen bereko lepoan, Ezioko Harriya eta Ezioko Tontorra artean, Pagoagatik 1.400 m iparraldera, Hernaniko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 587.695 Y. 4.784.560 Z. 460

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Bertako hareharria, arbela, kuartzoa eta pudinga.

1.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa I-H-an eta 4,80 m-koa E-M-an. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 13 lekuko ditu agerian. Hego-ekialdeko sektorean ez du lekukorik.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua, horien artean 8 nabarmentzen direla, 0,35 eta 0,15 m arteko garaierakoak.
3.- Harrespila. 5,60 m-ko diametroa. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua, horien artean 12 nabarmentzen direla, 0,25 eta 0,15 m arteko garaierakoak.
4.- Harrespila. 5,80 m-ko diametroa, estimazioz kalkulatua. Lur azaletik apenas goititzen diren hainbat bloke txiki ditu, baita barnealdean ere. Hegoaldeko arkuan ez du lekukorik eta iparraldeko 5 lekukoen bidez soilik muga daiteke.

14. argazkia. Ezioko Soroko harrespil multzoa.

Historia
1. eta 2. harrespilak 1979an aurkitu zituzten J. M. Hernandez Gurmendi eta L. P. Peña Santiagok. 3. harrespila 1981ean aurkitu zuten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. 4. harrespila, azkenik, 1988an aurkitu zuten L. del Barrio eta A. Urizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)

24.- EZIOKO TONTORRA

Kokalekua
Ezioko gainean, Ezioko Harriyatik 300 m hegoaldera, Pagoagatik 1.600 m iparraldera, Hernaniko udalerrian.

15. argazkia. Ezioko Tontorreko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 587.615 Y. 4.784.400 Z. 483

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako hareharria, kuartzoa eta pudinga. 5. harrespila ia erabat hondatuta dago.

1.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa I-H-an eta 4,90 m-koa E-M-an. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 15 lekuko ditu agerian.
2.- Tumuludun harrespila. 5,50 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera. Bloke formako 22 lekuko agerikoz osatua, horien artean 9 nabarmentzen direla, 0,35 eta 0,15 m arteko garaierakoak.
3.- Tumuludun harrespila. 5 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera. Bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua, horien artean 3 nabarmentzen direla, 0,25 eta 0,15 m arteko garaierakoak.
4.- Tumuludun harrespila. 6 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,30 eta 0,20 m garaiak, hurrenez hurren.
5.- Tumuludun harrespila. Gaur egun ia erabat hondatua. 6,50 m-ko diametroa eta 0,45 m-ko garaiera. Bloke formako 22 lekuko agerikoz osatua da, eta horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,40 eta 0,35 m bitarteko garaierakoak. Mendebaldeko arkuan zegoen harrizko azaleratze bat baliatuz eraikia da itxuraz; arku horretan ez zen lekukorik ageri.

Historia
1981ean aurkitu zituzten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin. 5. harrespila baso-bide bat eraikitzean hondatu zen, 1989an.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)

25.- IGARATZA II

Kokalekua
Perilekuko zelaian, Enirio-Aralar Mankomunitatean.

Koordenatuak:
Orria: 114-1. Ataun. (1:25.000)
X. 578.170 Y. 4.760.250 Z. 1.200

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 12 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia I-an eta 0,40 m garaia E-an (gainerako alderdiak lur azalaren maila bertsuan daude). Harrespilak 25 lekuko ditu agerian, lauzak eta blokeak, eta horien artean bat nabarmentzen da, HE-an, 0,75 x 0,45 x 0,30 m-koa, apur bat barnealdera okertua. Mendebaldeko arkuan ez dago ia lekukorik agerian. Bertako kareharria.

Historia
1976an aurkitu zuten Aranzadi Zientzia Elkarteko Espeleologia Saileko kideek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1990)

26.- JAIZKIBEL I (ISKULIN)

Kokalekua
Zabalgune batean, gaur egun Jaizkibel mendiko turismo paradore zaharraren eraikina dagoen gunean, Hondarribiko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 41-3. Irun. (1:25.000)
X. 593.950 Y. 4.800.880 Z. 410

Deskribapena
Gaur egun hondatuta dauden 2 harrespila ukitzailez osaturiko multzoa. J. M. de Barandiaranen arabera:

1.- Harrespila. 4,70 m-ko diametroa I-H-an eta 4 m-koa E-M-an. Garaiera txikiko lauza eta bloke formako 9 lekuko ditu agerian. Bertako hareharria.

2.- Harrespila. 7 m-ko diametroa I-H-an eta 6,90 m-koa E-M-an. Garaiera txikiko lauza eta bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua. Bertako hareharria.

Historia
1935ean aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin. 1955ean erabat hondatuta gelditu ziren, gune hartako turismo paradore probintzial zaharraren eraikuntza lanen ondorioz.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barandiaran, J. M. de (1946)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Barandiaran, J. M. de (1963-64)
Peña Basurto, L. (1960)

27.- JAIZKIBEL II (JAIZKIBEL)

Kokalekua
Jaizkibel mendiaren IM-ko hegalean, Mendizabalen Arriya izeneko monumentutik 130 m IM-ra, eta errepidetik distantzia berera, HE-ra. Turismoko paradore probintzial zaharretik 650 m I-IE-ra, Hondarribiko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 41-3. Irun. (1:25.000)
X. 594.200 Y. 4.801.475 Z. 375

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako hareharria.

1.- Harrespila. Estimazioz kalkulaturiko diametroa: 8,50 m. Lauza eta bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua, horien artean 6 nabarmentzen direla. Ez dago lekukorik HM-IIE-an.
2.- Harrespila. Oso itxuraldatua. Estimazioz kalkulaturiko diametroa: 7 m. Lauza formako 9 lekuko ditu agerian, horien artean 4 nabarmentzen direla. Mendebaldeko sektorean ez du lekukorik.
3.- Harrespila. Estimazioz kalkulaturiko diametroa: 6,50 m I-H-an eta 4,50 m E-M-an. Lauza eta bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua; horien artean 5 nabarmentzen dira. IM-ko sektorean ez du lekukorik.
4.- Harrespila. Estimazioz kalkulaturiko diametroa: 4,50 m. Lauza eta bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmentzen dela.
5.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 17 lekuko agerikoz osatua; horien artean 5 nabarmentzen dira.
3., 4. eta 5. harrespilen artean lauza ugari daude, antzeko beste monumentu batzuen hondakin edo deskribatu direnen parte bide direnak.

Historia
1980an aurkitu zituzten A. Armendariz eta J. A. Mujikak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)

28.- KAUSO I (KAUSOKO LEPOA)

Kokalekua
Kausoro (Kausoro Zabala) lepoaren hego-ekialdeko muturrean, Kausorogaña eta Kausorotxiki gainen artean, Oiartzungo udalerrian.

16. argazkia. Kauso Ieko harrespil multzoa (Kausoko Lepoa).

Koordenatuak:
Orria: 65-3. Oyarzun. (1:25.000)
X. 594.930 Y. 4.788.735 Z. 615

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako granitoa.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 21 lekuko ditu agerian.
2.- Tumuludun harrespila. Harrizko azaleratze baten gainean eraikia. 7 m-ko diametroa I-H-an, 6,50 m-koa E-M-an, eta 0,65 m-ko garaiera. Bloke formako 17 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da 0,25 m garaia.

Historia
1981ean aurkitu zituzten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)

29.- KAUSO II (KAUSOKO GAINA)

Kokalekua
Kausorotxiki muinoaren gailurrean, Munanier-en (Munerre) mendebaldeko saihetsaldean, Oiartzungo udalerrian.



4.irud. Kauso IIko harrespilak (Kausoko Gaina). (J. Altuna; et alii, 1990).

Koordenatuak:
Orria: 65-3. Oyarzun. (1:25.000)
X. 595.050 Y. 4.788.785 Z. 639

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako granitoa.

1.- Tumuludun harrespila. 7,40 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera. Bloke formako 16 lekuko ditu agerian, 0,40 eta 0,20 m bitarteko garaierakoak.
2.- Tumuludun harrespila. 6,50 m-ko diametroa eta 0,65 m-ko garaiera. Lurretik kanpo apenas nabarmentzen diren bloke formako 17 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1981ean aurkitu zituzten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)

30.- MENDIZORROTZ I

Kokalekua
Mendizorrotz mendiaren iparraldeko hegalean dagoen zabalgune txiki batean, Mikelaitzondo izenaz ezaguna den gunean, Donostiako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-1. Zarautz. (1:25.000)
X. 575.190 Y. 4.794.435 Z. 360

Deskribapena
Harrespila, 3 m-ko diametroa duena I-H-an eta 3,20 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 12 lekuko ditu agerian, eta horien artean 9 nabarmentzen dira, 0,30 eta 0,20 m arteko garaiera dutenak. Barnealdean bloke txikiren bat ageri da. Bertako hareharria.

Historia
1985ean aurkitu zuen J. Argomanizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1990)

31.- MULISKO GAINA

Kokalekua
Onyi mendiaren hego-ekialdeko saihetsaldearen zabalgune batean, Hernani-Urnieta mugaren norabidea aldatzen den gunean, mugarriaren alboan. Mulisko lepotik 200 m ekialdera, Hernaniko eta Urnietako udalerrien lurretan.

17. argazkia. Mulisko Gaineko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 585.675 Y. 4.786.900 Z. 415



5.irud. Mulisko Gaineko harrespilak. (X. Peñalver, 1987a).

Deskribapena
4 harrespila, zista bikoitza, monolito bat eta ezaugarri zehazgabeekiko 2 egitura osagai dituen multzoa. Bertako hareharria eta konglomeratua.

1.- Harrespila. 5,60 m-ko diametroa I-H-an eta 5,45 m-koa E-M-an. Lauza formako 31 lekuko ditu agerian, horien artean bat nabarmena, 1,47 m-ko garaiera duena.
2.- Harrespila. 3,05 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 1,75 eta 1,45 m garaiak, hurrenez hurren.
3.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa I-H-an eta 4,30 m-koa E-M-an. Lauza formako 18 lekuko ditu agerian; horien artean 2 nabarmentzen dira, 1,45 eta 1,40 m garaiak, hurrenez hurren. Barnealdean, iparraldeko sektorea ukitzen, 1,80 x 1,10 m-ko eraztun itxurako egitura bat du, lekuko txikiagoez osatua.
4.- Harrespila. Indusketa egin zenerako baso-bide batek erabat suntsituta zegoen. Lauza formako 3 lekuko soilik ditu agerian, hego-ekialdeko sektorean.

Historia
1956an aurkitu zuen J. M. Hernandezek; hark topatu zuen 1. harrespileko lekuko nagusia. 1976an L. Millánek 1. eta 2. harrespilak aurkitu zituen, eta 1978an, L. del Barriorekin batera, 3. harrespila eta monolitoa. Multzoa 1983-1985 bitartean induskatu zen X. Peñalverren eskutik, eta ondoren berrosatu egin zen.



6.irud. Mulisko Gaineko 1. harrespila. (X. Peñalver, 1987a).

Egiturak eta Estratigrafia
1. harrespila:

- Peristalitoa.

Monumentu honen lekukoak eraldaketa lurrean daude zuzenean jarrita, eta neurri ertaineko harriak dituzte altxagarri, harrespila osatzen duten lekukoen mota berekoak.

- Barnealdea.

Lurraren oinarria iritsi arte hainbat harri zeuden, angelutsuak gehienak. Ikatz puskak, oso txikiak, esparruaren barnealde guztian erregularki barreiatuta zeuden; ez zen aurkitu kontzentrazio handiagoko gunerik. Hondakin horiek beheko mailetan zeuden, berezko lurretik oso zentimetro gutxira. Ez zuen batere barne egiturarik.

7.irud. Mulisko Gaineko 2. harrespila. (X. Peñalver, 1987a).

2. harrespila:

- Peristalitoa.

Harrespil honen lauzak oinarri lurrean daude jarriak. Haien alboan, barnealdetik zein kanpoaldetik, neurri ertaineko harri asko zeuden, ez ordea monumentuaren barnealdean.

- Barnealdea.

Esparruaren barrualdean ez zegoen inongo egiturarik, eta ikatz puskak, aurreko kasuan bezala, zatiki oso txikitan agertu ziren, harrespilaren atal batzuetan, kontzentrazio bertsuak alde guztietan.



8.irud. Mulisko Gaineko 3. harrespila. (X. Peñalver, 1987a).

3. harrespila:

- Peristalitoa.

Monumentu honetako lekukoak oinarri lurrean 0,22 m-ko sakoneraraino sartuta zeuden lubaki baten bidez.

- Barnealdea.

Esparru honetan egitura bat aurkitu zen I-ko muturrean, lekuko nabarmenari atxikita. Barne esparru honek itxura obala zuen, diametroak 1,80 m-ko neurria zuen I-H-an eta 1,10 m-koa E-M-an, eta lurrean bertikalean finkaturiko zenbait bloke eta lauzaz osatua zen. Ikatz puskak, aurreko bi harrespiletan bezala, monumentuaren leku guztietan barreiatuta zeuden, baina kasu honetan urriago ziren H-an, eta I-an berriz, esparru zirkularretik kanpoko eremu txiki batean ere aurkitu ziren. Hondakin hauek berezko lurretik distantzia gutxira agertu ziren, berezko lurretik 0,02 eta 0,07 m arteko distantzian gutxi gorabehera.

4. harrespila:
Monumentu honetan ezin izan zen indusketarik egin, erabat hondatuta zegoelako.

Materialak

1. harrespila.
Industria litikoa:
- Zulakaitz diedroa, dekortikapen-printza gainean egina, eta ukiera erdimalkartsua alboko ertzetako batean duena. (Neurriak: 27-14-7).
- Karenadun marruska, ijelki zati baten mutur distalean. (Neurriak: 11,5-14, 5-6).
- Printza-zati lodia :ukiera gorairtena zuzena. Marruska batizan daiteke.. (Neurriak: 33-26-17).
- Dekortikapen printza: ertza horzkatua, ustez igitai hortza. (Neurriak: 26,5-13,5-8,5).
- Dekortikapen printza: alderantzizko ukiera laua ezkerreko ertzean, bakunarekin kontrajarria, alderantzizkoa, partziala. (Neurriak: 20-23,5-6).
- Eskuin alboko ertzean ukitu sinplea eta haustura distala duen printza. (Neurriak: 11-11,5-3,5).
- Printza baten puska proximala, eskuineko aldean ukitu sinple, ertzekoa, horzkatua, alderantzikoa duena. (Neurriak: 13-13-3,5).

2. harrespila.
Industria litikoa:
- Printza: aldebiko ukitu lau, alderantzikoa duena. (Neurriak: 22,5-19,5-10).

Zistaren inguruko tumulua
Industria litikoa:
- Printza gaineko zulagailua. (Neurriak: 17-12-4,5).
- Ezkerretara bizkar kurbadun punta, oinaldean hautsia, zati distalean ukiera malkartsu osagarria du, eta horzkadura irregularrak azaltzen dira erabilpenagatik sortuak eskuineko ertzean. (Neurriak: 23,5-9,5-4).
- Ezpalduradun pieza. (Neurriak: 29-21-7,5).
- Printza-zatia: ukiera gorairtena. Bi ezpaldura bipolar alderantzizkoak ditu. (Neurriak: 20-7,5-6).
- Printza zatia muxarraduraduna. (Neurriak: 21-11,5-3).
- Ijelki zati proximala, bi alboetan ukiera alternoak dituena. (Neurriak: 13-13-3,5).
- Ijelkitxo zati proximala, erabilera ukierakin. (Neurriak: 17-6-2,5).
- Ijelki zai proximala, ustez erabilera arrastoak bi alboetan dituena. (Neurriak: 29-27-6,5).
- Ijelki zati proximala, erabilera ukituekin. (Neurriak: 35-24-5,5).
- Ijelki zati mediala, ukiturik gabea. (Neurriak: 29-10,5-4,5).

Monumentuen kanpoaldeko eremua
Material litikoa:
- Hatzazal erako marruska. (Neurriak: 12-14-5,5).
- Printza gaineko marruska, aurrealde gainezkakoa duena. (Neurriak: 17,5-19-5).
- Mikromarruska karenatu azpizirkularra, bizkar gainalde guztian ukitua eta oinalde hautsia duena. (Neurriak: 14,5-13-6).
- Printza: ukiera bakuna, alderantzizkoa, zati distalean muxarradura laburrez jarraitua, aho ganbila osatuaz. Marruska izan daiteke. (Neurriak: 33-23-7).
- Ukiturik gabeko ijelki zati mediala. (Neurriak: 9-13,5-4).
- Printza-zatia: ukiera bakuna, sakona, zuzena eskuinaldeko zati distalean.
- Printza-zatia: ertz batean ukiera bakuna eta zuzena duena. (Neurriak: 13-19-5).
- Printza alboko zatia: ukiera garairtena zuzena, hedatzailea eta ukiera ezpaldua alderantzizkoa haustura-erpin bizkarrean. (Neurriak: 22-10-9).
- Lau dronda motako fusil harri zatia.

Orain arte deskribatu diren materialez gainera 11 harri printza aurkitu dira, eta lau erabilera zati, zehazten zailak, harri printzaren edo ijelkiren ertzen bati eragiten dieten "erabilerazko" jotzen ditugun ukituak ageri dituztenak. Era berean 116 harri printza sinple zenbatu dira indusketa eremu guztian.
Askotarikoak:
- Egur ikatzezko hondakinak.

Kultura sekuentzia
C14 datazioa (I. 14.100) 2.630 ± 90 B.P. izan da.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barrio, L. del (1979)
Hernandez, J. M. (1957)
Peñalver, X. (1983a)
Peñalver, X. (1985)
Peñalver, X. (1986a)
Peñalver, X. (1986b)
Peñalver, X. (1987a)
Peñalver, X. (1990a)

32.- MUNERRE

Kokalekua
Munanier-en (Munerre) iparraldeko saihetsaldean, maila horren eta Agiñako Kaskua izenaz ezagutzen den gainaren arteko lepoan, Oiartzungo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65-3. Oyarzun. (1:25.000)
X. 595.590 Y. 4.789.220 Y. 656

18. argazkia. Munerreko harrespil multzoa.

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako kuartzoa eta granitoa.

1.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 9 lekuko ditu agerian, horien artean 7 nabarmentzen direla, 0,60 eta 0,10 m arteko garaierakoak. Ez du lekukorik mendebaldeko arkuan.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 17 lekuko ditu agerian, horien artean 5 nabarmentzen direla, 0,20 eta 0,10 m arteko garaierakoak. Ez du lekukorik mendebaldeko arkuan.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko ditu agerian, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,28 eta 0,10 m arteko garaierakoak. Ez du lekukorik mendebaldeko arkuan.
4.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 5 lekuko ditu agerian, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,70 eta 0,20 m garaiak. Ez du lekukorik ekialdeko arkuan. Hegoaldeko arkua baso-pista batek kaltetuta dago.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 7 lekuko ditu agerian.

Historia
Lehenengo lauak 1948an aurkitu zituen L. Peñak. Bosgarrena, berriz, 1981ean aurkitu zuten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Peña Basurto, L. (1960)

33.- OIANLEKU HEGO

Kokalekua
Muino txiki baten gainean, Oieleku lepoaren hegoaldetik hurbil (Oianleku), Oiartzungo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 595.490 Y. 4.789.635 Z. 605

Deskribapena
2 harrespil tumuludunez osaturiko multzoa. Bertako granitoa.

1.- Tumuludun harrespila. 8 m-ko diametroa eta 0,10 m-ko garaiera. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,50 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
2.- Tumuludun harrespila. 5,50 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera. Suntsitua.

Historia
1948an aurkitu zituen L. Peñak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Peña Basurto, L. (1960)

34.- OIANLEKU IPAR

Kokalekua
Basate gainaren ipar-ekialdeko hegalean, Oieleku lepoaren ipar-mendebaldeko muturrean (Oianleku), Oiartzungo udalerrian.



9.irud. Oianleku Iparreko harrespilak. (J. Altuna, P. Areso, 1977).

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 595.350 Y. 4.789.905 Z. 610

Deskribapena
7 harrespileko multzoa. Bertako granitoa.

1/2.- Bi zirkulu ebakitzailez osaturiko egitura. 1. zirkuluak 9,50 m-ko diametroa du, eta bloke formako 29 lekuko ditu agerian, 1 eta 0,10 m bitarte garaiak. 2.aren diametroa 6,80 m-koa da, eta bloke formako 18 lekuko ditu agerian, 0,40 eta 0,10 m bitarte garaiak. Bi zirkulu horiek elkar ebakitzen duten gunean ez da lekukorik ageri, monumentuaren gaineko guneetan lekukoen oinarri diren blokeen tankerako blokeez osaturiko harresi txiki bat baizik.

3.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua; horien artean 7 nabarmentzen dira, 0,15 eta 0,10 m arteko garaierakoak. 4.aren ebakitzailea da.
4.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Hegoaldeko arkuan azaleratutako bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira 0,57 eta 0,10 m arteko garaiera dutenak. 3.arenaren ebakitzailea da.
5.- Harrespila. 10 m-ko diametroa I-H-an eta 7,50 m-koa E-M-an. Bloke formako 11 lekuko ditu agerian; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,20 eta 0,17 m garaiak, hurrenez hurren. 6.aren ukitzailea da.
6.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 6 lekuko ageriko ditu, iparraldeko arkuan, eta horien artean bat nabarmentzen da 0,10 m-koa. 5.aren ukitzailea da.
7.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa I-H-an eta 4 m-koa E-M-an. Bloke formako 9 lekuko ditu agerian, eta horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,72 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak, hurrenez hurren.

19. argazkia. Oianleku Iparreko harrespil multzoa.

Historia
1909an aurkitu zituen P. Soralucek. 1. eta 2. egiturak 1976an induskatu zituzten J. Altuna eta P. Aresok, eta haiei egiten diete erreferentzia ondoren aipatzen diren materialek. Gainerako monumentuetan ez da indusketa lanik egin.

Egiturak eta Estratigrafia
J. Altuna eta P. Aresok bildutako datuen arabera:

1. harrespila

- Peristalitoa.

Elkarretatik oso hurbil jarritako bloke formako ortostatoez osatua da. Harrizko bloke poliedriko txikiez egindako koroa moduko bat zuen, peristalitoaren barnealdetik nagusiki; aldeko 0,25 m inguruko neurria dute bloke horiek, lekukoen oinarriaren eta gune garaienaren bitarteko garaieran.

Era horretako harri gehiago zeuden H-ko muturrean, eta M-an, berriz, ez zen horrelakorik batere ageri. Aldiz, IE-an, 1. harrespilak eta 2.ak bat egiten duten gunean, lekukorik ez zegoen gunean, bi harrespilak argi eta garbi bereizten zituen harresi txiki moduko bat eratzen zuten harri hauek.

- Erdigunea.

Monumentuaren atal honetan ez zen inolako egiturarik aurkitu. 0,70 m-ko sakoneran, ordea, eta 0,50 m-ko diametroko eremu zirkularra hartzen zuen esparru batean, hezur erraustu pila bat (460 zati) eta eraztun bat eta brontzezko botoi bat aurkitu ziren aldez aurretik lurreko harriak kenduta zeuden gune batean.

Hona hemen harrespil honen indusketak eman zuen estratigrafia, goitik behera:

- Lur begetalezko maila bat, 0,10 m lodia.
- Lur begetalezko maila bat, gaur egun bertan desagertuak diren iratzeen hondakinekin. 0,15 m-ko lodiera zuen maila honek.
- Lur aske eta hareatsu, ilun eta harri koskor gutxiko maila bat, 0,40 m lodia.
- 0,10 m-ko lodierako lur hareatsu askeko maila bat, aurreko mailakoa baino lur ilunagokoa, berezko geruza harritsu bat osatzen zuten harri koskor ugari zituena. Maila honetan topatu zen hezur erraustuen biltegia.
- Bertako lur buztintsu horiz osaturiko maila bat, 0,20 m lodia.

Zirkulu honen azalaldean ontzi bat lurperatu zen gerora, hezurrak eta errausketako ikatz puskak zituena barnean.

2. harrespila.

- Peristalitoa.

1. harrespilaren kasuan bezala, bloke formako ortostatoak elkarretatik oso hurbil jarrita zeuden eta barnealdean ageri ziren hauek ere, eta 1. harrespilean ageri ziren garaiera bertsuan, hainbat bloke aurkitu ziren, eraztun periferiko bat osatu ordez barnealderantz zabalduak, aurreko kasuan ez bezala. Ez zuen lekukorik harrespil nagusiarekiko mugan.

- Erdigunea.

Harrespil honen barnealdean ageri diren harri angelutsuak desagertu egiten dira monumentuaren zentrotik 0,80 m-ko distantziara, gutxi gorabehera, H-an izan ezik; izan ere, H-an zentimetro gutxi gelditzen ziren harrion eta lekukoen artean. Erdigunean, eta gaur egungo mailatik 0,55 m-ko sakoneran, aurkitu zen hezur erraustuen biltegia (429 zati). Kasu honetan, eta hezur hondakinak ez zeudenez aurrekoan bezain sakon lurperatuta, ez zen harrizko estratua eraldatu behar izan, ez baitzen estratu horretaraino iristeko beharrik sortu.

Estratigrafia 1. harrespilaren antzekoa da, biltegiaren mailari dagokionean salbu, goian aipatu den bezala.

Materialak

1. harrespila.

- Azalean:
Industria litikoa:
- Ijelki lodi baten alboan eginiko marruska. Bi bulbo ageri ditu.
- Ijelkia: zati distalean zeharreko trunkadura azaltzen du erabilera ukituekin, eta azpialdean aleki-distira ukieraren jarraian.
- Printza lodia: ukiera gorairtena zuzena eta ezpaldura alderantzizkoak dituena.
- 3 printza ustezko erabilera ukituekin.
- 3 printza sinple.
- Uharri esferiko edo arrautza itxurakoak, gerezi baten neurrikoak.

Zeramika:
- Apaingarririk gabeko 12 zeramika puska; ertzik edo hondorik gabeak.

Askotarikoak:
- Ikatz puskak.

Giza aztarnak:
- Hezur erraustuen hainbat puska.

- Sakoneko aldea:

Metala:
- Eraztun hautsia (4 puska), brontzezkoa, erronboide formako sekzioa duena.
- Brontzezko botoi zehar-ziriduna, zatikatua.

Giza aztarnak:
- Giza hezurren 460 puska.

2. harrespila.

Industria litikoa:
- Disko formako marruska karenatua.

Giza aztarnak:
- Giza hezurren 429 puska.

Kultura sekuentzia:
Indusketaren egileek diotenez, K.a. lehen mila urtekoaren lehen erdikoak bide dira aztarnak.

Bibliografia
Altuna, J.; Areso, P. (1977)
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Aranzadi, T. de (1915)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Blot, J. (1979c)
Peña Basurto, L. (1960)

20. argazkia. Tximistako Egiko harrespil multzoa.

35.- TXIMISTAKO EGIA

Kokalekua
Adarra gailurraren ekialdean eta handik hurbil dagoen ordokian, Tximistako Egia izenekoan, Urnietako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25.000)
X. 584.615 Y. 4.784.465 Z. 785

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Bertako hareharria.

1.- Tumuludun harrespila. 12 m-ko diametroa I-H-an, 11 m-koa E-M-an, eta 0,40 m-ko garaiera. Lauza eta bloke formako 38 lekuko ditu agerian; horien artean 22 dira nabarmentzekoak, 0,40 eta 0,30 m bitarte garaiak.
2.- Tumuludun harrespila. 13 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera. Zehaztu ezinezko hainbat blokez osatua. Erdian zenbait harri printza ditu (ganbera?).
3.- Tumuludun harrespila. 4,10 m-ko diametroa I-H-an, 3,70 m-koa E-M-an, eta 0,30 m garaia. Lauza eta bloke formako hainbat lekuko ditu agerian, 0,25 m-ko garaiera duen bat horien artean.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 4,30 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 16 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat da nabarmena, 0,30 m garaia.
5.- Harrespila. 4,30 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua; horien artean 4 dira nabarmenak, 0,35 eta 0,15 m bitarte garaiak.
6.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa I-H-an eta 4,50 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 19 lekuko ditu agerian, 9 nabarmenak, 0,30 eta 0,15 m arteko garaiera dutenak.

Historia
1. eta 2. harrespilak 1951n aurkitu zituen L. Peñak. Gainerako harrespilak 1978an aurkitu zituzten L. del Barrio eta L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barrio, L. del (1979)
Peña Basurto, L. (1960)

21. argazkia. Unameneko harrespil multzoa.

36.- UNAMENE

Kokalekua
Leunetako iparraldeko saihetsaldean, Unameneko Atakatik iparraldera. Monumentuak gain zorrotz honetan daude, 150 m-ko eremuan gutxi gorabehera, Hernaniko eta Aranoko udalerrien artean.

Koordenatuak:
Orria: 64-4. Urnieta. (1:25. 000)
X. 587.740 Y. 4.781.160 Z. 755

Deskribapena
3 harrespilaz eta bi tumuluz osaturiko multzoa. Bertako arbela eta kuartzoa.

1.- Harrespila. 8,50 m-ko diametroa. Garaiera txikiko bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Garaiera txikiko bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila. 11,30 m-ko diametrokoa eta 0,70 m garaia. Bloke formako 35 lekuko ditu agerian, tumuluaren garaierakoak horietako gehienak.

Historia
3. harrespila 1923an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. 2. harrespila eta tumuluak L. Peñak aurkitu zituen 1946an. 1. harrespila, azkenik, 1981ean aurkitu zuten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1982)
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

37.- URKULLU TXIKI EGIA

Kokalekua
Urkullu, iparraldean, eta Urkullu Txiki, hegoaldean, gainen arteko lepoan, Iruarrietako hego-mendebaldeko saihetsaldean, Oiartzungo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65-1. Irun. (1:25.000)
X. 595.760 Y. 4.794.055 Z. 370

Deskribapena
4 harrespileko multzoa.
Multzo honen egiturak oso eraldatuta eta hondatuta daude, bertan egindako alertze landaketaren eraginez; 45 m koadroko eremua hartzen du orotara. Ez da erraza egitura hauen bana-banako ezaugarriak eta diametroak zehaztea, baina elkarri loturik edo korapilaturik eraikiak direla ematen du. Bloke eta lauza multzoan 19 dira nabarmentzekoak, 0,13 eta 0,10 m arteko garaiera dutenak. Inguruetako hareharria.

Historia
1986an aurkitu zituzten J. Argomaniz eta L. del Barriok. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Altuna, J.; et alii. (1990)
Barrio, L. del (1987)

NAFARROA

38.- ABARTAN (IZKOA)

Kokalekua
Abartan mendi inguruetan, 918 mailan, gailur horretatik I-M-ra dauden hiruetatik erdikoan, Baztango udalerrian.

22. argazkia. Abartaneko harrespil multzoa (Izkoa).

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 617.150 Y. 4.772.750 Z. 910

Deskribapena
7 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 9 m-ko diametroa. Lauza formako 33 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,70 eta 0,60 m garaiak, hurrenez hurren. Hegoaldean ez du lekukorik.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko ditu agerian.
3.- Harrespila. 2,40 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko ditu agerian, lur azaletik apenas goititzen direnak.
4.- Harrespila. 7,30 m-ko diametroa I-H-an eta 8 m-koa E-M-an. Lauza formako 27 lekuko ditu agerian; horien artean bat nabarmentzen da, 0,50 m-koa.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko ditu agerian.
6.- Tumuludun harrespila, 4,80 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duena. Lauza formako 23 lekuko ditu agerian.
7.- Tumuludun harrespila, 2,60 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 7 lekuko ditu agerian.

Historia
1., 3. eta 4. harrespilak 1972an aurkitu zituen F. Ondarrak; 5. harrespila 1982an aurkitu zuen L. Millánek, eta 2., 6. eta 7.a, berriz, 1988an, L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975b)

39.- ABARTANGO-ZELAIA

Kokalekua
Abartan eta Elorregi mendiek eratzen duten lepoan, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 616.950 Y. 4.771.600 Z. 1.030

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 14 m-ko diametrokoa eta 1,50 m-ko garaiera duena erdialdean. Lauza formako 12 lekuko ditu agerian, horien artean bat nabarmena, 0,25 m-ko garaiera duena. Bertako kareharria.

Historia
1973an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975b)

40.- ADI'KO SOROA

Kokalekua
Adi menditik (1.458 m) I-IE-ra jaisten diren mendi-adarretako bateko zabalgunean, Erroko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 626.950 Y. 4.765.050 Z. 1.125

Deskribapena
10 harrespileko multzoa. Hareharria eta arbela.



10.irud. Adiko Soroko harrespilak. (J.M. Larrañaga, 1980).

1.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 24 lekuko agerikoz osatua; horien artean 3 nabarmentzen dira, 0,71, 0,60 eta 0,57 m garaiak, hurrenez hurren.

11.irud. Adiko Soroko harrespilak. (J.M. Larrañaga, 1980).



12.irud. Adiko Soroko harrespilak. (J.M. Larrañaga, 1980).

2.- Harrespila. 3,30 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 24 lekuko agerikoz osatua. I-ko muturrean, esparruaren barnealdean, 3 lekuko txiki daude, 0,50 m-ko diametroko zirkulu formako esparru bat eratzen dutenak beste bi harrespilekin batera. 3. harrespilaren ukitzailea da E-an.
3.- Harrespila. 5,20 m-ko diametroa. Bloke formako 19 lekuko agerikoz osatua, horien artean 1,04 m-ko bat nabarmentzen dela, I-an. 2. harrespilaren ukitzailea da M-an.
4.- Harrespila. 2,30 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 11 lekuko ditu agerian. IE-an ez du lekukorik.
5.- Harrespila. 4,30 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 15 lekuko ditu agerian. H-ko sektorean lekuko bat bide den harri bat dago, erorita, metro bete luzea. 6. harrespilaren ukitzailea da HE-an. E-an ez du lekukorik.

23. argazkia. Adiko Soroko harrespil multzoa.

6.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke formako 32 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 2 eta 1,85 m garaiak, hurrenez hurren. 2 m luze den lekuko posible bat dago erorita. 5. harrespilaren ukitzailea da IM-an.
7.- Harrespila. 5,30 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 14 lekuko ditu agerian. Nabarmentzekoa da E-ko sektorean erorita dagoen ustezko lekuko bat, 2,35 m luzea. Ez du lekukorik IE-an.
8.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Bloke formako 14 lekuko ageriko ditu, horien artean bat nabarmena, 0,70 m-ko garaiera duena. E-ko muturrean erorita balizko lekuko bat dago, 2,30 m-ko garaiera duena.
9.- Harrespila. 3,90 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 11 lekuko ditu agerian. M-ko erdian ez du lekukorik.
10.- Harrespila. 3,70 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-an eta H-HM-an.

Historia
1966an aurkitu zituen horietako sei T. Lopez Sellések eta beste lauak, 1980an, J. M. Larrañagak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Larrañaga, J. M. (1980)
Lopez Sellés, T. (1973).

41.- AGATUNKO LEPOA

Kokalekua
Adi mendiaren E-IE-ko lepoan, Erroko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 627.500 Y. 4.764.800 Z. 1.215

Deskribapena
Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko ditu agerian. Ez du lekukorik H-ko eta HE-ko muturrean, zeinetatik zeharkatzen baitu hesi batek. Hareharria eta arbela.

Historia
1983an aurkitu zuten L. Millán, F. Ondarra, P. Arrese eta A. Lizarraldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ripa, P. (1991-92)

42.- AGIÑA I (AGINA IPAR)

Kokalekua
Agiñako lepoaren erdian, lepo hori Lesaka aldera zeharkatzen duen errepidearen alboan, ezkerretara, Lesakako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.800 Y. 4.791.235 Z. 555

Deskribapena
9 harrespileko multzoa. Bertako granitoa eta arbela.

1.- Harrespila. 4,35 m-ko diametroa I-H-an eta 3,70 m-koa E-M-an. Bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua, horien artean 8 nabarmentzen direla, 0,25 eta 0,15 m arteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 3,10 m-ko diametroa, gutxi gorabehera. 5 lekuko ditu agerian E-ko eremuan, bloke formakoak, eta horien artean 2 dira nabarmenak, 0,10 m garaiak.
3.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa, gutxi gorabehera. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua, horien artean 3 nabarmentzen direla, 0,20 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
4.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa I-H-an eta 4,50 m-koa E-M-an. Bloke formako 13 lekuko ditu agerian, horien artean 7 nabarmenak, 0,25 eta 0,15 m bitarteko garaierakoak.
5.- Harrespila. 4 m-ko diametroa, gutxi gorabehera. 9 lekuko ageriko ditu iparraldeko eremuan, bloke formakoak; horien artean 4 dira nabarmentzekoak, 0,30 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak.
6.- Harrespila. 5 m-ko diametroa, gutxi gorabehera. IM-an gaur arte iraun ez duten bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua; horien artean 7 nabarmentzen dira, 0,25 eta 0,10 m arteko garaiera dutenak.
7.- Harrespila. 6 m-ko diametrokoa, gutxi gorabehera, eta bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,20 eta 0,10 m arteko garaierakoak. 8. harrespilaren ukitzailea da HE-an.
8.- Harrespila. 5,70 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,30 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak. 7. harrespilaren ukitzailea da IM-an.
9.- Harrespila. 5 m-ko diametroa, gutxi gorabehera, M-ko aldean desagertuta dauden bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 lekuko dira nabarmentzekoak, 0,15 eta 0,10 m garaiak, hurrenez hurren.

Historia
1958an aurkitu zituen L. Peña Basurtok. 1984an, I. Arbelaiz, L. del Barrio eta L. Millánek harrespil gehiago aurkitu zituzten, 9ko kopurua iristeraino. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, I.; Vallespí, E. (1980).
Barrio, L. del (1989).
Peña Basurto, L. (1960).

43.- AGIÑA II (AGINA ERDI)

Kokalekua
Agiñako gainetik Domiko urtegira doan pistaren eskuinaldean, Aita Donostiren monumentua eta Agiña III harrespil multzoa dauden kaskoaren aurreko lepo gainean, Lesakako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.660 Y. 4.790.845 Z. 548

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Bertako granitoa.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. E eta IM-an desagertuta dauden bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua, horien artean 5 nabarmentzen direla, 0,50 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 5,40 m-ko diametroa. E eta M-an desagertuta dauden bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 0,10 m garaia.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,15 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
4.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. H eta E-an desagertuta dauden bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,70 eta 0,35 m garaiak, hurrenez hurren.

Historia
1957an aurkitu zituzten T. Atauri, J. M. de Barandiaran eta M. Labordek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1957a)
Barrio, L. del (1989)
Peña Basurto, L. (1960)

44.- AGIÑA III (AGINA HEGO)

Kokalekua
Aita Donostiren monumentua dagoen kaskoan, monumentutik 100 m I-ra, Agiñako gainetik Domiko urtegira doan pistan, Lesakako udalerrian.

24. argazkia. Agiña IIIko harrespil multzoa (Agiña Hego).

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.660 Y. 4.790.740 Z. 562

Deskribapena
3 harrespilak eta zalantzazko jatorria duen egitura batek osaturiko multzoa. Bertako granitoa.

1.- Harrespila. 2,80 m-ko diametroa I-H-an eta 3,20 m-koa E-M-an. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 13 lekuko ditu agerian. Han inguruan eraikitako kapera baten egiturak kaltetuta dago aztarnategiaren HE-ko eremua.
2.- Harrespila. 3,10 m-ko diametroa, gutxi gorabehera. Bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmentzen dela, 0,70 m-ko garaierakoa. Egitura itxuragabetuta dago gaur egun.
3.- Harrespila. 4,10 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua.
4.- Zalantzazko jatorria duen egitura, Aita Donostiren omenezko monumentuarekin batera eraiki bide zutena 1957an. 18 eta 20 m arteko diametroa du. Lekukoen neurriak eta kokaerak zalantza sortzen du egitura honen jatorriaz, ezin esan daiteke ziur protohistoriakoa dela.

Historia
1957an aurkitu zituen J. M. Sansineneak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, I.; Vallespí, E. (1980)
Barandiaran, J. M. de (1957a)
Barrio, L. del (1989)
Elosegui, J.; Perez, F. (1981)
Peña Basurto, L. (1960)
Sansinenea, J. M.; Rodriguez, L. (1957)

45.- AGIÑA IV (AGINA SOROA)

Kokalekua
Aita Donostiren monumentua eta Agiña III multzoa kokatuta dauden gainari jarraipena ematen dion zabalgunean, Agiñako gainetik Domiko urtegira doan pistan, Lesakako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.635 Y. 4.790.460 Z.543

Deskribapena
Harrespil batez eta tumulu batez osaturiko multzoa. Bertako granitoa.
6,50 m-ko diametroko harrespila. Ekialdeko eremuan desagertuta dauden bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua; horien artean 4 nabarmentzen dira, 0,25 eta 0,10 m bitarte garaiak. Itxuragabetua eta nahasia.

Historia
1957an aurkitu zuten T. Atauri, J. M. de Barandiaran eta M. Labordek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1957a)
Barrio, L. del (1989)

46.- AINONAKO GAINA (URGARATAKO GAINA)

Kokalekua
Añoenea edo Urgarata lepotik ekialdera dagoen gainean kokatua, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 590.150 Y. 4.781.400 Z. 593

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Kuartzo zuria.

1.- Harrespila. 8,50 m-ko diametroa. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 40 lekuko agerikoz osatua.

25. argazkia. Ainonako Lepoko harrespil multzoa (Urgaratako Gaina).

Historia
1. harrespila 1952an aurkitu zuen L. Peña Basurtok, eta Añona izendaturiko multzoaren osagaitzat hartu zuen; 2.a, berriz, 1984an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Peña Basurto, L. (1960)

47.- AINONAKO LEPOA (URGARATAKO LEPOA)

Kokalekua
Urgaratako lepoan, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 590.100 Y. 4.781.350 Z. 582

Deskribapena
7 harrespileko multzoa. Kuartzo zuria.

1.- Tumuludun harrespila, 7,40 m-ko diametrokoa eta 0,15

26. argazkia. Ainonako Lepoko harrespil multzoa (Urgaratako Lepoa).

m garaia. Bloke formako 25 lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila, 7,40 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 32 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 11 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 43 lekuko agerikoz osatua.
4.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua.
5.- Tumuludun harrespila, 7,80 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua.
6.- Tumuludun harrespila, 5,20 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua.
7.- Tumuludun harrespila, 10,80 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 65 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, metro bete garaiak.

Historia
1., 2., 3., 4., 5. eta 7. harrespilak 1952an aurkitu zituen L. Peña Basurtok, eta Añona izena jarri zien; 6.a, berriz, 1984an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Peña Basurto, L. (1960)

48.- AIZALEGI

Kokalekua
Aizalegi gailurraren E-ra, gailur horretatik 30 m-ra dagoen tontor batean, Baztango Haranean (Amaiur).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 624.350 Y. 4.788.800 Z. 733

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,10 m garaia. Bloke formako 30 lekuko ditu agerian. Kuartzoa.

Historia
1990ean aurkitu zuten L. Millán eta A. Lizarraldek. Ez da indusketa lanik egin.

49.- ALTSOROI

Kokalekua
Orizki mendiaren gailurretik (678 m) E-ra dagoen zabalgune batean, Etxalarko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 615.100 Y. 4.788.800 Z. 642

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,45 m garaia. Lauza formako 3 lekuko ditu agerian, I, E eta M-an kokatuak, hurrenez hurren. Monumentuaren erdian zenbait harri aurkitu dira.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa I-H-an eta 5,50 m-koa E-M-an. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 5,70 m-ko diametroa I-H-an eta 5 m-koa E-M-an. Bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua. Indusketa arrastoak ageri dira erdigunean.

Historia
2. eta 3. harrespilak 1954an aurkitu zituen J. Elóseguik; 1.a 1984an L. Millán eta F. Ondarrak. Ez da indusketa lanen berririk, baina ezkutuko lanen arrastoak nabarmenak dira.

27. argazkia. Altsoroiko harrespil multzoa.

Bibliografia
Elósegui, J. (1956)

50.- ALTUETAKO LEPOA

Kokalekua
Altuetako lepoan, Altueta eta Deskantsuko Bizkarra mailen artean, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65(25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 594.905 Y. 4.784.110 Z. 534

Deskribapena
Harrespil tumuluduna, hondoratua eta itxuraldatua, 3,20 m-ko diametroa duena. Harrizko bloke txiki ugariz dago osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira I-an, zutik horietako bat, 0,40 m garaia. Harrespilaren erdigunea erabat hondoratua dago. Bertako arbela eta kuartzita.

Historia
1985ean aurkitu zuen J. Tellabidek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

51.- AMABIRJINEI-ARPEA

Kokalekua
Gain zabal batean, Bardakomendi (961 m) eta Alkaxuri (970 m) mailen artean, Baztango udalerrian (Erratzu).

28.Amabirjinei-Arpeko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 628.750 Y. 4.788.050 Z. 857

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Lauza formako hainbat lekuko ditu agerian, eta erdialdean 2 harlauza bereizten dira, lurrean finkatuak, 1,30 eta 0,60 m luzeak, hurrenez hurren, 0,10 m- lodiak, eta garaiera txikikoak. Era berean harlauza zati etzan bat aurkitu da tumuluaren IM-an. Metro beteko eta 0,50 m zabaleko sakonunea du erdigunean.
2.- Tumuludun harrespila, 3 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Sakonunea du barnealdean.
3.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Erdigunean metro beteko eta 0,07 m lodiko bi harlauza paralelo ditu, elkarretatik 0,50 m-ko distantzian. Harlauza zati etzan bat dago tumuluaren M-ra.
4.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,60 m garaia. 4 m-ko diametroko eta puntu batzuetan 0,90 m-rainoko sakonera duen sakonune zabal bat ageri da erdian.
5.- Tumuludun harrespila, 3,80 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Erdigunean 3 harlauza daude lurrean finkaturik. Hona hemen harlauza horien neurriak: metro beteko luzera, 0,30 m-ko garaiera eta 0,07 m-ko lodiera; 0,80 m-ko luzera, 0,17 m-ko garaiera eta 0,07 m-ko lodiera; metro beteko luzera, 0,30 m-ko garaiera eta 0,07 m-ko lodiera. Hiru harri horiek espazio trapezoidal bat osatzen dute, 0,90 m-ko luzera eta 0,80 eta 0,50 m bitarteko zabalera duena. Tumuluaren HE-ra harlauza zati bat dago, metro bete luzea, metro bete zabala eta 0,07 m lodia.
6.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Tumuluaren M-ra 2 harlauza zati etzan ageri dira. Erdigunean sakonune bat du, metro bete luzea, 0,50 m zabala eta 0,10 m sakona.

Historia
1972an aurkitu zituen F. Ondarrak, eta dolmen gisa katalogatu zituen.

Monumentu hauetako batzuetan deskribatu diren erdiguneko sakonuneek indusketa zaharraren bat egin bide zela erakusten dute.

G. Suquilbidek –indusketa lanetan parte hartu bide zuen berak– F. Ondarrari esan zionez: “Sei monumentuetatik hiru induskatu ziren, eta bere horretan utzi ziren gainerako hiruak. Errautsak eta hezur erraustuak zituzten harrizko kutxak agertu ei ziren. Harlauza bat kutxaren gainean, lurra harlauzaren gainean, eta beste harlauza bat lurraren gainean”. (Ondarra, F. 1975). Egile hark berak obra horretan aipatzen duenez: “1973ko martxoaren 17an, Iparlatik itzuleran, Erratzun, Urritzate ubide inguruko baserrietan bizi ziren zenbait lagunekin topo egin nuen. Haietako batek, Katalintegiko-Bordaren jabeak, berak enterramentuetan deitu zuenak egiten berriro hasiko ote ziren galdetu zidan. Eta gure monumentuez ari zen, bere baserri gain-gainean dauden monumentuez alegia”.

Ez da lan horien memoriarik ezagutzen.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

52.- AMARGUNGO ZEHARRA

Kokalekua
Miaka izeneko lepoaren erdian, San Anton menditik HE-ra, Lesakako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 603.775 Y. 4.791.140 Z. 340

Deskribapena
Tumuludun harrespila. 11,40 m-ko diametroa I-H-an eta 9,50 m-koa E-M-an; 1,20 m-ko garaiera du erdian. Bloke formako 21 lekuko ditu agerian, eta barnealdean hainbat bloke ditu, harri txiki eta lurrezkoak. Bertako kuartzita eta arbela.



13.irud. Amargungo Zeharreko harrespila. (L. del Barrio, 1989).

Historia
1954an aurkitu zuten J. Elósegui, P. Otegui eta J. M. Salaverriak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Elósegui, J. (1956)

53.- ANSESTEGIKO LEPOA

Kokalekua
Otxondoko gainetik Artzamendi mendi aldera doan pistaren eskuinaldeko zabalgunetxo batean, Baztango Haranean (Amaiur).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 625.150 Y. 4. 789.550 Z. 685

Deskribapena
Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 13 lekuko ditu agerian. Hareharria.

Historia
1985ean aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

54.- ANUSBIZKAR

Kokalekua
Arriurdiñeta lepoaren eta Loizate mendiaren artean, Artikutza eta Goizueta arteko mugak 90°-ko angelua osatzen duen gunean, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 597.350 Y. 4.780.350 Z. 944

Deskribapena
Tumulu txikia duen harrespila, 3 m-ko diametroa duena. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 13 lekuko ditu agerian. 0,50 m-ko lauza itxurako harri bat dago erdigunean. Kuartzita.

Historia
1992an aurkitu zuten L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

55.- ARBILLETA

Kokalekua
Mendixka batean, Arbilleta menditik M-ra, Erroibarko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 630.500 Y. 4.763.400 Z. 1.051

Deskribapena
Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 13 lekuko ditu agerian. Barnealdean 4 harri ditu. Kuartzoa.

Historia
1983an aurkitu zuen P. Arresek. Ez da indusketa lanik egin.

56.- ARGIBEL

Kokalekua
Argibel lepoko gain txiki batean, Elizondo eta Gartzain udalerrien artean, Baztanen.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 624.550 Y. 4.772.400 Z. 955

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 2,70 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua da, eta erdigunean zista bat du, zeinetatik gelditzen baita harlauza bat.
2.- Tumuludun harrespila, 6,40 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lauza formako 19 lekuko agerikoz osatua da, eta erdigunean zista bat du, zeinetatik gelditzen baitira bi harlauza.
3.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1. eta 2. harrespilak 1952an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek; 3.a 1987an topatu zuten L. Millán eta J. J. Ochoak.

J. M. de Barandiaranek dioenez (1962) harrespil hauek aurkitu ziren muinoa "Harguibelco laeneco gastoa" izenaz ageri da katastroko planoan.

Induskatu gabe daude.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)
Barandiaran, J. M. de (1962a)
Blot, J. (1980)

57.- ARGINTZU EKIALDE

Kokalekua
Azaldegiko Lepotik Urkiaga lepora doan bidearen 150 bat m E-ra, Argintzu mendiaren ekialdeko saihetsaldeak eratzen duen gailur batean, Kintoko lurretan.

29. argazkia. Argintzu Ekialdeko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 624.100 Y. 4.768.700 Z. 1.030

Deskribapena
6 m-ko diametroa duen harrespila. Lauza formako 30 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,30 eta 0,25 m garaiak, hurrenez hurren. Arbela, hareharria eta kuartzo zuria.

Historia
1973an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976a)

58.- ARGINTZUKO-LEPOA

Kokalekua
Argintzu (1.164 m) eta Luurzu (1.213 m) mendiek osatzen duten lepoan. Baztan Harana eta Kintoa bereizten dituen hesiak, zeinak zeharkatzen baitu lepoa, bi zatitan zatitzen du multzoa. Kintoko eta Baztango lurretan.



30. argazkia. Argintzuko-Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 623.500 Y. 4.768.900 Z. 1.140

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6,40 m-ko diametrokoa, apur bat ahurra. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua da; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,55 eta 0,35 m garaiak, hurrenez hurren. Harri horietako bost era erradialean daude ezarrita (4 IM-an eta bat H-an). Harrespilaren erdian, berriz, harri bat dago, 1,25 m luzea, 0,80 m zabala eta 0,15 m lodia.
2.- Tumuludun harrespila, 4,20 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lauza formako 8 lekuko ditu agerian. Erdigunean zista bat izan daitekeen egitura bat du, 2 lauzak osatua.
3.- Tumuludun harrespila. 5,50 m-ko diametroa du eta ez da lur azalaren mailatik apenas goititzen. Bloke formako 16 lekuko agerikoz osatua da, horien artean 4 nabarmentzen direla: 1,45 m-ko garaiera, 0,50 m-ko zabalera eta 0,20 m-ko lodiera du lehenak; 0,90 m-ko luzera, bigarrenak; 0,80 m-ko luzera, berriz, hirugarrenak, eta azkenik, metro bete luze eta 0,85 m zabal da laugarrena.
4.- Harrespila. 3,80 m-ko diametrokoa, eta apur bat ahurra. Lauza formako 36 lekuko ditu agerian, 0,10 m-tik beherako garaiera dutenak. 3 harri etzan daude, 1,40 m, 0,90 m eta 0,85 m luzeak, hurrenez hurren.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametrokoa, apur bat ahurra. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua da, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,55 eta 0,35 m garaiak, hurrenez hurren. Harrespilaren erdian harri bat dago, 1,25 m-ko luzera, 0,80 m-ko zabalera eta 0,15 m-ko lodiera duena.

Historia
1., 3., 4. eta 5. harrespilak 1973an aurkitu zituen F. Ondarrak; 2.a, berriz, 1989an L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976a)

59.- ARGORRIETA

Kokalekua
Argorrietako-Lepoan, Anue haranean (Lantz).

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 614.200 Y. 4.766.200 Z. 1.110

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 12 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lauza formako 12 lekuko ditu agerian, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,75 eta 0,65 m garaiak, hurrenez hurren. Ez du lekukorik M-ko erdian.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko ditu agerian, I-ko sektorean guztiak; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,70 m-ko garaiera dutenak.

Historia
1. harrespila 1972an aurkitu zuen F. Ondarrak; eta 2.a 1988an L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975b)
Ripa, P. (1991-92)
Vegas, J. I. (1988)

60.- ARRATAKAKO ITURRI

Kokalekua
Azpegi eta Idopil lepoen artean, pistaren ezkerraldera, Orbaitzetako udalerrian.

31. argazkia. Arratakako Iturriko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 645.400 Y. 4.767.300 Z. 985

Deskribapena
Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 14 lekuko ditu agerian. Kareharria.

Historia
1988an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

61.- ARRIURDIÑETA

Kokalekua
Urriztiko Gaina mailatik H-ra, Arriurdiñetako igarobide zaharraren I-ko zabalgunean, gaur egun harrobia dagoen gunean, Goizuetako udalerrian.

32. argazkia. Arriurdiñetako harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 596.680 Y. 4.781.765 Z. 600

Deskribapena
5 harrespil eta tumulu batez osaturiko multzoa. Bertako arbela, kuartzita eta kareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Barnealdean zein peristalitoan bloke eta lauza txiki ugari ditu lurrean finkatuta; horien artean 4 nabarmentzen dira, 0,30 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak. Hondoratua eta itxuraldatua. 2. harrespilaren ukitzailea da HM-ko muturrean.
2.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa eta 0,25 m garaia. Bloke eta lauza txiki ugariz dago osatua barnealdean zein peristalitoan; horien artean 13 nabarmentzen dira, 0,55 eta 0,10 m arteko garaierakoak. Hondoratua eta itxuraldatua. 1. harrespilaren ukitzailea da IE-ko muturrean, eta 3.arena HM-ko muturrean.
3.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke eta lauza txiki ugariz dago osatua barnealdean zein peristalitoan, horien artean bat nabarmena, IM-ko sektorearen barnealdean dagoena, 0,15 m garaia. Hondoratua eta nahasia.

4.- Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,45 m garaia erdialdean. Harrizko bloke ugariz osatua da, horien artean 4 nabarmentzen direla, H-an, 0,15 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak.
5.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia erdialdean. Harrizko bloke ugariz osatua.

Historia
1985ean aurkitu zituen J. Tellabidek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

62.- ARRIURDIÑETA ERDI (EZKITURRITAKO GAINA)

Kokalekua
Oraume lepoaren eta Arriurdiñetako gailurraren artean, Aranoko udalerrian.

33. argazkia. Arriurdiñeta Erdiko harrespil multzoa (Ezkiturritako Gaina).

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 589.750 Y. 4.782.000 Z. 645

Deskribapena
8 harrespileko multzoa. Kuartzoa.

1.- Tumuludun harrespila, 6,40 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 12 lekuko ditu agerian.
2.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke formako 12 lekuko ditu agerian. Ez du lekuko agerikorik M-an.
3.- Tumuludun harrespila, 4,40 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke formako 12 lekuko ditu agerian. Ez du lekuko agerikorik M-an.
4.- Tumuludun harrespila, 13 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke eta lauza formako 60 lekuko ditu agerian. Bidezidor bat igarotzen da erdialdetik.
5.- Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 15 lekuko ditu agerian. Ez du lekuko agerikorik M-an.
6.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 40 lekuko ditu agerian. H-ko muturrean harri bat dago, lurrean etzanda, 1,50 m-ko luzera duena.
7.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 10 lekuko ditu agerian.
8.- Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 65 lekuko ditu agerian.

Historia
4. eta 6. harrespilak 1923an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek; 1., 2., 3., 5., 7. eta 8.a, berriz, 1984an aurkitu zituen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1926)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

63.- ARRIURDIÑETA OCCIDENTAL (URKAMENDI HEGO)

Kokalekua
Arriurdiñeta Erdi (Ezkiturritako Gaina) multzotik 200 m H-ra, Arriurdiñeta mendiaren I-an, Aranoko udalerrian.

34. argazkia. Arriurdiñeta occidental harrespila (Urkamendi Hego).

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 589.700 Y. 4.781.800 Z. 645

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 10,50 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia erdigunean. Bloke formako 70 lekuko agerikoz dago osatua, horien artean 3 nabarmentzen direla, E-an eta M-an, 1,50, 1,40 eta 1,10 m garaiak, hurrenez hurren. Kuartzoa.

Historia
1923an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1926)
Peña Basurto, L. (1960)

64.- ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU SORO)

Kokalekua
Ezkiturritako Gaina gailurraren eta Oraume lepoaren artean, Aranoko udalerrian.

35. argazkia. Arriurdiñeta Oriental harrespila (Burninburu soro).

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 589.900 Y. 4.782.200 Z. 620

Deskribapena
Harrespila. 5 m-ko diametroa I-H-an 4 m-koa E-M-an. Bloke formako 34 lekuko agerikoz osatua. Kuartzo zuria.

Historia
1923an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1926)
Peña Basurto, L. (1960)

65.- ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU TXABALA)

Kokalekua
Burninburuko Txabala izeneko zelaigunean, Oraume lepotik H-ra, Aranoko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 589.900 Y. 4.782.350 Z. 605

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Kuartzoa eta arbela.
1.- Harrespila. 9,60 m-ko diametroa. Bloke formako 30 lekuko ditu agerian; 0,60 m-ko garaiera duten 2 nabarmentzen dira horien artean.
2.- Harrespila. 10 m-ko diametroa. Bloke formako 40 lekuko ditu agerian; horien artean 6 nabarmentzen dira, 0,60 m garaiak.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 5 lekuko ditu agerian.
4.- Harrespila. 5,20 m-ko diametroa. Bloke formako 10 lekuko ditu agerian.

Historia
1. eta 2. harrespilak 1923an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek; 4.a 1984an aurkitu zuen L. Millánek, eta 3.a 1989an, Millánek berak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1926)
Peña Basurto, L. (1960)

66.- ARRIURDIÑETA ORIENTAL (URKAMENDI IPAR)

Kokalekua
Ezkiturritako Gaina multzotik 50 m H-ra, Aranoko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 589.750 Y. 4.781.900 Z. 645

Deskribapena
Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 15 lekuko ditu agerian. I-H zeharkatzen du erreten batek monumentua. Barnealdean 6 harri ditu. Kuartzoa.

Historia
1984an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

67.- ARRIURDIÑETAKO LEPOA

Kokalekua
Arriurdineta gailurrera iritsi aurreko lepoan, bidezidorretik hurbil, Aranoko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 589.250 Y. 4.781.150 Z. 678

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 2,50 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia erdialdean. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua da. Kuartzoa.

Historia
1990ean aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

68.- AUNTZBIZKAR

Kokalekua
Auntzbizkar mailatik HE-ra dagoen lehen lepoan, Artikutzako barrutia zedarritzen duen hesiaren alboan, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 597.435 Y. 4.780.300 Z. 924

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako arbela eta inguruetako hareharri triasikoa.

1.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Bloke formako 15 lekuko ditu agerian; horien artean 7 nabarmentzen dira, 0,50 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 3,80 m-ko diametroa. Lauza txiki eta bloke formako 11 lekuko ditu agerian; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,20 eta 0,10 m garaiak, hurrenez hurren.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa I-H-an eta 5,90 m-koa E-M-an. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua.
4.- Tumuludun harrespila, 2 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza eta bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua.
5.- Tumuludun harrespila, 3 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza eta bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1., 2. eta 3. harrespilak 1985ean aurkitu zituzten L. del Barrio eta P. Lopezek; 4. eta 5.a, berriz, 1989an L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

69.-AXPAGETA IPAR I (IDOPILKO SOROA)

Kokalekua
211. mugarritik hurbil (Idopil), Orbaitzetako udalerrian.

36. argazkia. Axpageta Ipar Ieko harrespil multzoa (Idopilko soroa).

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 645.600 Y. 4.768.000 Z. 980

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Kareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1. harrespila 1956an aurkitu zuen J. Elóseguik; 2.a 1976an aurkitu zuen J. Blotek, eta Axpegeta Norte I izena eman zion. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)
Elósegui, J. (1962)

70.- AXPAGETA IPAR II (AXPAGETA)

Kokalekua
Organbide lepotik 500 m HM-ra, Orbaitzetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 645.600 Y. 4.767.550 Z. 986

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Kareharria.

1.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-HE-ko muturrean.
4.- Harrespila. 10 m-ko diametroa I-H-an eta 9 m-koa E-M-an. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik H-an.
5.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 9,50 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua. Ez du batere lekukorik HE-ko muturrean eta gutxi ditu IM-an.

Historia
1976an aurkitu zituen J. Blotek; Axpageta Norte II izena jarri zien. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)

71.- AXPAGETA HEGO (ARRATAKA)

Kokalekua
Azpegi eta Idopil lepoen artean, pistatik ezkerraldera, Orbaitzetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 645.350 Y. 4.767.350 Z. 985

Deskribapena
9 harrespileko multzoa. Kareharria.

1.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da IE-an.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 1,15 m-ko garaiera duena. 1. harrespilaren ukitzailea da HM-ko muturrean, eta 3.arena IE-koan.
3.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da HM-ko muturrean.
4.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 9 m-ko diametroa I-H-an eta 8 m-ko E-M-an. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua.
7.- Harrespila. 9,50 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua.
8.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.
9.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako 3 lekuko agerikoz osatua.

Historia
2. eta 3. harrespilak 1961ean aurkitu zituen T. Lopez Sellések; 1., 4., 5., 6., 7., 8. eta 9.a, berriz, 1976an aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)
Lopez Sellés, T. (1961)

72.- AZALDEGIKO-LEPOA

Kokalekua
Azaldegiko-Lepoan, Autrin gailurretik H-ra, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 624.350 Y. 4.769.800 Z. 950

Deskribapena
5 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua; 3 nabarmentzen dira horien artean, 0,90 eta 0,30 m arteko garaierakoak. Ez du lekukorik HE-an eta IM-an. Hareharria.

Historia
1973an aurkitu zuen T. Lopez Sellések. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976a)

73.- AZKENAZKO-LEPOA

Kokalekua
Anddeberri (1.296 m) eta Azkenatz (1.171 m) arteko lepoan, Baztango udalerrian.

37. argazkia. Azkenazko-Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 614.550 Y. 4.767.600 Z. 1.120

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmentzen dela, 0,16 m garaia; gainerakoak lur azalaren mailan daude ia.
4.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1. harrespila 1966an aurkitu zuen T. Lopez Sellések, eta Gatzaga Norte izendatu zuen; 2.a, berriz, 1989an L. Millán eta J. J. Ochoak; eta 3. eta 4.a., azkenik, 1982an aurkitu zituen L. Millánek. Azken biak Azkenazko Lepoa I eta II izendatu ditu, hurrenez hurren, F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Lopez Sellés, T. (1973)
Ondarra, F. (1988)

74.- AZPEGI IPAR

Kokalekua
Azpegi lepotik I-ra, Orbaitzetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 645.000 Y. 4.767.000 Z. 1.030

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1976an aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)

75.- AZPEGIKO LEPOA

Kokalekua
Azpegiko Lepoan, Orbaitzetako udalerrian.

38. argazkia. Azpegiko Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 644.900 Y. 4.766.800 Z. 1.050

Deskribapena
13 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua. 3. harrespilaren ukitzailea da E-an eta 4. harrespilarena IM-an.
3.- Harrespila. 6,30 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da M-an.
4.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da HE-an, eta 5. harrespilarena E-an.
5.- Harrespila. 2,75 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. 4. harrespilaren ukitzailea da M-an, eta 6.arena IE-an.
6.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmena, 0,90 m garaia. 5. harrespilaren ukitzailea da HM-an, eta 7.arena I-an.
7.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. 6. harrespilaren ukitzailea da H-an, eta 8.arena E-an.
8.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua. 7. harrespilaren ukitzailea da M-an.
9.- Tumuludun harrespila, 13 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua.
10.- Tumuludun harrespila, 21 m-ko diametrokoa eta 1 m garaia erdigunean. Lauza formako 35 lekuko agerikoz osatua.
11.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua.
12.- Harrespila. 7,50 m-ko diametroa. Lauza formako 21 lekuko agerikoz osatua. 13. harrespilaren ukitzailea da IM-an.
13.- Harrespila. 5,30 m-ko diametroa. Lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua. 12. harrespilaren ukitzailea da HE-an.

Historia
1., 2., 3., 4., 6., 7., 8. eta 10. harrespilak 1956an aurkitu zituen J. Elóseguik; 9., 11. eta 13.a 1976an, J. Blotek, eta 5.a 1989an, L. Millán eta J. J. Ochoak.
J. Blotek Azpegi Este izenaz argitaratu zituen monumentu hauek, guk eman diegun zenbakiekin bat ez zetorren zenbaki batzuez; lehenengo bi harrespilen zenbakiak bakarrik datoz bat. Gure katalogoko 4., 6., 7., 8., 9., 11., 12. eta 13. harrespilei J. Blotek 3., 5., 6., 7., 8., 9., 10. eta 11. zenbakiak eman zizkien, hurrenez hurren, eta harenean ez da ageri guk 5. harrespilatzat agertzen duguna, eta ezta 10.a ere, hark Azpegi Norte multzoko harrespilatzat hartu zuena. 4. harrespila P. Arresek induskatu du. Lan horien emaitzak argitara eman gabe daude.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)
Elosegui, J. (1962)

76.- BALSA FRIA

Kokalekua
Lizarragako tuneletik Peña Blanca I-ra inguratzen duen pistaren eskuinean, Andiako larreetan.

Koordenatuak:
Orria: 114 (24-7). Alsasua. (1:50.000)
X. 587.850 Y. 4.746.400 Z. 1.190

39. argazkia. Balsa Fríako harrespil multzoa.

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Kareharria.

1.- Harrespila. 8,80 m-ko diametroa I-H-an eta 7,70 m-ko E-M-an. Bloke formako 31 lekuko agerikoz osatua; lekukoak ez dira lurretik apenas goititzen, lurraren mailatik 0,25 m azaleratuta dagoen bat izan ezik.
2.- Tumuludun harrespila, 12 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. Ez du ageriko lekukorik I-ko erdian. E-ko eta M-ko harri batzuk handi samarrak dira, baina lurrean etzanda daude. Harri asko zituen erdigunean.

Historia
1952an aurkitu zituen J. Elóseguik. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Elosegui, J. (1952)
Ondarra, F. (1991/92)

77.- BARAXAR PAGOXAR

Kokalekua
Baraxar Pagoxar kaskoaren iparraldeko muturrean, zabalgune batean, Goizueta (Artikutzako barrutia) eta Aranatz udalerrietan.



14.irud. Baraxar Pagoxarko harrespila. (L. del Barrio, 1989).

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.625 Y. 4.783.240 Z. 740

Deskribapena
7,70 m-ko diametroko harrespila, lauza eta bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua; 12 nabarmentzen dira horien artean, 0,78 eta 0,10 m arteko garaiera dutenak. Gainerako lekukoak lur gainean etzanda daude, berriki bertan egindako kontrolik gabeko indusketa baten ondorioz.
Erdigunea 2,80 x 1,50 m-ko gainaldean eta 0,60 m-ko sakoneran hondoratua dago, HE-IM norabidean. Era berean, ekialdeko arkuan lubaki bat dago, 3,00 x 0,40 m-koa eta 0,40 sakona. Hori guztia ezkutuan egindako indusketa lanen ondorioz. Goizuetatik (Artikutzako barrutia) Aranatzerako hesiak ipar-ekialdean ebakitzen du harrespila. Bertako arbela.

Historia
1976an aurkitu zuen A. Leibarrek. Ezkutuan induskatua izan da parte batean.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Leibar, A. (1976)
Leibar, A. (1977)

78.- BARDOIZA

Kokalekua
Bardoizako zabaldian, Otsoportilloko Basetxetik M-ra, Bardoizako putzuetatik hurbil, Urbasan.

Koordenatuak:
Orria: 140 (24-8). Estella. (1:50.000)
X. 575.150 Y. 4.741.550 Z. 999

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 7,20 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 30 lekuko agerikoz osatua; barnealdean harri txiki batzuk ditu. Kareharria.

Historia
1984an aurkitu zuen I. Gazteluk. Ez da indusketa lanik egin.

79.- BEARDEGIKO GAINA

Kokalekua
Beodoi mendiaren (1.149 m) I-ra dagoen zabalgune batean, Erroibarko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 630.350 Y. 4.765.900 Z. 1.065

Deskribapena
Harrespila. 7,30 m-ko diametroa I-H-an eta 8,30 m-koa E-M-an. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua. Kareharria.

Historia
1948an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949b)

80.- BELTZUNTZA

Kokalekua
Beltzuntza mailaren eta udalerriaren muga egiten duen hesiaren erpinaren –Beltzuntzako ukondo izenaz ezagutzen da– arteko zabalgunean, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 599.455 Y. 4.782.150 Z. 880

Deskribapena
5,50 m-ko diametroko harrespila, bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua, horien artean 4 nabarmentzen direla, 0,25 eta 0,10 m arteko garaierakoak. Bertako arbela eta kuartzita.

Historia
1984an aurkitu zuten I. Arbelaitz, L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

81.- BELTZUNTZAKO HARRIA

Kokalekua
Goizueta eta Artikutzako barrutia bereizten dituen muga lerroan, eta Gerasunko Ataka eta Beltzuntza artean, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.000 Y. 4.781.700 Z. 935

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua. Artikutzako barrutiko hesiak I-tik zeharkatzen du monumentua. Kuartzitak.

Historia
1989an aurkitu zuten L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

82.- BERASKUAIN

Kokalekua
Sorogain ibarrean, Beraskoain lepoan, Erron.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 630.750 Y. 4.764.600 Z. 1.040

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Kareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 6,80 m-ko diametrokoa eta 0,10 m garaia. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,10 m garaia. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa eta 0,10 m garaia. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1984an aurkitu zituzten L. Millán eta F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

83.- BIAMENDIKO LEPOA

Kokalekua
Loizate menditik H-ra, Labaiengo udalerrian.

40. argazkia. Biamendiko Lepoko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 599.415 Y. 4.778.615 Z. 953

Deskribapena
Harrespila. 2,90 m-ko diametroa I-H-an eta 2,50 m-koa E-M-an. Arbelezko hainbat lauza eta bloke txikiz osatua, horien artean 11 nabarmentzen direla, 0,18 eta 0,10 m arteko garaierakoak. Iparraldeko arkua eraldatua dago, pago bat dagoelako bertan. Esparruaren barnean kuartzitazko bi bloke daude. Bertako arbela.

4 m HE-ra 3 bloke ageri dira lurrean finkaturik, oraingoz zehaztu ez den beste egituraren baten osagai izan daitezkeenak.

Historia
1985ean aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

84.- BIDAKORRIKO LEPOA

Kokalekua
"Paso de Napoleón" izeneko lepoan, Txaruta eta Labeaga gailurren artean, Donamariako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 607.750 Y. 4.768.450 Z. 890

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Inguruetako kareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa eta garaieraz txikia. Bloke formako 20 lekuko ditu agerian, 0,40 m-tik beherako garaiera dutenak. Ez du lekukorik H-ko muturrean.
2.- Harrespila. Ardatz nagusiak 17 m ditu (IE-HM) eta ardatz txikiak 12 m. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua da, horietako batzuk metrotik gorako luzera eta 0,70 m-tik gorako garaierakoak. Ez du lekukorik E-ko muturrean.

Historia
1986an aurkitu zituen L. M. Martinez Torresek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Martinez Torres, L. M. (1988)

85.- BIDANGOKO GAINA

Kokalekua
Bidangokogaina mailan, Lesakako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 599.310 Y. 4.788.170 Z. 781

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 4,50 m-ko diametrokoa, lurretik apenas goititzen diren hainbat bloke txikiz osatua. Tumulua hondoratua dago, eta peristalitoa itxuraldatua neurri handi batean, monumentuaren gainetik hainbat jende eta ibilgailu igarotzen dela-eta. Hegoaldeko arkuan kuartzitazko bloke bat dago, hiruki formako harlauza baten tankerakoa; 1,50 m garaia, 1,50 eta 0,25 m bitarte zabala eta 0,35 eta 0,25 m bitarte lodia, eta ardatz nagusia E-M norabidean orientaturik duena. Esparruaren barnealdera ematen duen aldean Orreagako Kolegiata zaharreko "artzain makila" bat du grabaturik. Bertako kuartzita, granitoa eta arbela.

Historia
1976an aurkitu zuen A. Leibarrek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Leibar, A. (1976)
Leibar, A. (1977)

86.- BURDIMOTX BIZKARRA

Kokalekua
Otxondo gainaren eta Artzamendi mendiaren artean, Ansestegiko Lepoa harrespiletik I-ra, Baztanen.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 628.100 Y. 4.787.700 Z. 915

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 3,40 m-ko diametrokoa I-H-an eta 3,20 m-koa E-M-an, 0,30 m garaia. Forma erradialean ezarritako lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua da. Barnealdean hainbat harri ikus daitezke. Hareharria.

Historia
1985ean aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

87.- BURGA

Kokalekua
Soalar mendiaren (827 m) eta Burga mendiaren (866 m) iparraldeeneko mailaren arteko lepoan, Baztango udalerrian.

41. argazkia. Burgako harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 625.150 Y. 4.777.700 Z. 800

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 3 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke eta lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmentzen dela, 0,50 m garaia. Ez du lekukorik IE-an, eta oso gutxi ditu M-ko erdian. Bertako hareharria eta kuartzo zuria.

Historia
1975ean aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin. Orain dela gutxi hondatuta gelditu zen, bazkarako larre berriak hartu zirelarik.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976b)

88.- BURNAIZTIETAKO LEPOA

Kokalekua
Burnaiztietako Lepuan, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 598.805 Y. 4.788.400 Z. 748

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako granitoa



15. irud. Burnaiztietako Lepoko harrespilak. (L. del Barrio, 1989).

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Hegoaldeko arkua hondatuta dago parte batean, gune horretatik bidezidor bat igarotzen baita E-M norabidean. Bloke formako 10 lekuko ditu agerian, horien artean 2 nabarmentzekoak, 0,35 eta 0,10 m garaiak, hurrenez hurren.
2.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Hegoaldeko arkua hondatuta dago parte batean, gune horretatik bidezidor bat igarotzen baita E-M norabidean. Bloke formako 8 lekuko ditu agerian, horien artean 4 nabarmentzen direla, 0,45 eta 0,10 m bitarte garaiak.

Historia
1984an aurkitu zituzten L. del Barrio eta A. Urizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografía
Barrio, L. del (1989)

89.- BUURDIKO-LEPOA

Kokalekua
Buurdiko-kaskoa mailatik (723 m) hegoalderako lepo batean, Baztango udalerrian (Amaiur).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 625.050 Y. 4.789.900 Z. 670

Deskribapena
3 m-ko diametroko harrespila, lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat da nabarmena, 1,50 m-ko luzera duena. Esparruaren barnealdean zenbait harri ikus daitezke. Hareharria eta arbela.

Historia
1974an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

90.- DESKANTSUKO BIZKARRA

Kokalekua
Deskantsuko Bizkarra izeneko mailan (Burugorri), Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 594.700 Y. 4.784.265 Z. 576

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako eskistoa eta kuartzoa.

1.- Tumuludun harrespila. 6,30 m-ko diametroa du, eta 0,10 m-ko garaiera, erdialdean. Harrizko hainbat blokez eta lurrez osatua. Nahasia eta hondatua.
2.- Harrespila. IE-ko sektoreak bakarrik iraun du; bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua da alderdi hori. Gainerako osagaiak desagertu egin dira edo lurrak estalita daude.
Lurrean finkaturiko blokeak eta konkorrak ikusten dira ingurunean, gaur aurkitzen zailak diren beste egitura batzuen osagai izan litezkeenak.

Historia
1987an aurkitu zituen J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

91.- DESKARGAKO ARRIETA

Kokalekua
Koxingo lepoaren eta Deskarga mailaren arteko hegalaren erdialdean, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 594.770 Y. 4.779.210 Z. 670

Deskribapena
3,40 m-ko diametroko harrespila, bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 0,55 m garaia. Erdigunean hiru bloke aurkitu dira. Bertako arbela eta kuartzita.

Historia
1986an aurkitu zuen J. Argomanizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

92.- EGURTEGI

Kokalekua
Egurtegi tontorraren iparraldeko hegalean, gailurretik 500 m-ra, Baztango udalerrian.

42. argazkia. Egurtegiko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 618.650 Y. 4.768.600 Z. 1.080

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria.
1.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Bloke formako 13 lekuko ditu agerian, horien artean bat nabarmena, 0,18 m-ko garaiera duena. (Egurtegi S. izena eman zion aurkitzaileak).
2.- Tumuludun harrespila. 2,80 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua. Tumuluaren erdian sakonune txiki bat du. (Egurtegi N. izena eman zion aurkitzaileak).
3.- Tumuludun harrespila, 3,20 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1. eta 2. harrespilak 1971n aurkitu zituen F. Ondarrak; 3.a, berriz, 1984an L. Millán eta F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975b)

93.- ELORREGIKO LEPOA

Kokalekua
Elorregi lepoan, Abartan gailurrera doan bidezidorraren ezkerraldean, Baztango udalerrian (Ziga).

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 617.200 Y. 4.772.250 Z. 910

Deskribapena
Harrespila. 4,20 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko ditu agerian, 0,40 eta 0,20 m bitarteko garaiera dutenak. Hareharria.

Historia
1985ean aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

94.- ELORRIETA

Kokalekua
Elorrieta lepoan, 101. eta 102. mugarrien artean, Erratzu eta Baigorri artean.

43. argazkia. Elorrietako harrespil multzoa

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 629.950 Y. 4.779.600 Z. 860

Deskribapena
14 harrespileko multzoa. Hareharria eta kuartzoa.

1.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 19 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 28 lekuko ditu agerian, horien artean bat nabarmena, 0,90 m garaia.
3.- Tumuludun harrespila, 6,60 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke eta lauza formako 34 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 lekuko dira nabarmentzekoak, 1 eta 0,90 m garaiak, hurrenez hurren.
4.- Harrespila. 3,40 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 21 lekuko ditu agerian.
5.- Harrespila. 3,40 m-ko diametroa. Lauza formako 3 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 38 lekuko ditu agerian, horien artean bat nabarmena, 0,70 m garaia. Norbaitek hautsi egin duela dirudi.
7.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 22 lekuko ditu agerian, horien artean 0,70 m-ko garaiera duen bat. Erdigunean lauza formako 2 harriz osaturiko zista bat antzematen da.
8.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza formako 17 lekuko ditu agerian. Erdigunean lauza formako 2 harriz osaturiko zista bat antzematen da.
9.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Bloke formako 17 lekuko ditu agerian. Erdigunean zista baten moduko aztarnak ikusten dira.
10.- Harrespila. 3,30 m-ko diametroa. Bloke formako hainbat lekuko ditu agerian.
11.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko ditu agerian, era erradialean ezarriak. Erdigunean zista baten moduko aztarnak ikusten dira.
12.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko ditu agerian. Erdigunean zista baten moduko aztarnak ikusten dira.
13.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko ditu agerian, era erradialean ezarriak. Erdigunean zista baten moduko aztarnak ikusten dira.
14.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua.

Historia
Multzo honetako lehenengo 8 harrespilak 1948an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek, eta Elorrieta edo Elorta izena eman zien. Gainerakoak 1989an aurkitu zituzten L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949c)

95.- ELUTXO HARRIA (BIDANGOKO ZABALA)

Kokalekua
Bianditz mendiaren (M-ra) eta Pagolleta mendiaren (E-ra) artean, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.



16.irud. Elutxo Harriko harrespila (Bidangoko Zabala). (L. del Barrio, 1989).

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 599.125 Y. 4.787.885 Z. 754

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 6,20 m-ko diametrokoa eta 0,65 m garaia. Bloke formako 22 lekuko ditu agerian; horien artean bederatzi nabarmentzen dira, 0,55 eta 0,15 m arteko garaiera dutenak. Bi lekuko erorita daude. Bertako granitoa, kuartzoa eta arbela.

Historia
1951n aurkitu zuen L. Peña Basurtok. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Peña Basurto, L. (1960)

96.- ENEKO ELORRITA I (ENEKO ELORRIETA EGIA)

Kokalekua
Eneko Elorritako Lepuaren erdigunetik 100 m-ra, Deskarga eta Mendiribil mendien artean, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 595.460 Y. 4.779.520 Z. 695

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Bertako hareharria eta arbela.

1.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Bloke formako 3 lekuko ditu agerian, horien artean bi nabarmenak, 0,10 m-ko garaiera dutenak.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa I-H-an eta 4,50 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 0,10 m garaia.

3.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 0,10 m garaia.

Historia
1986an aurkitu zituzten J. Argomaniz eta L. del Barriok. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

97.- ENEKO ELORRITA II (ENEKO ELORRIETA LEPOA)

Kokalekua
Eneko Elorritako Lepuaren erdian, Deskarga eta Mendibil artean, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 595.340 Y. 4.779.510 Z. 682

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Bertako arbela eta kuartzita.

1.- Tumuludun harrespila. 4 m-ko diametroa. Nahasia eta hondoratua; harrizko hainbat bloke txikiz eta lurrez dago osatua. Erdialdean sakonune bat du, 3 x 3 m-koa.
2.- Tumuludun harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Harrizko hainbat bloke txikiz eta lurrez dago osatua. Erdialdean sakonune bat du, eta ia osorik hartzen du egitura.
3.- Tumuludun harrespila. 4 m-ko diametroa I-H-an eta 3,50 m-koa E-M-an. Nahasia eta hondoratua; harrizko hainbat bloke txikiz eta lurrez dago osatua. Erdialdean sakonune bat du, 3 x 2 m-koa.

Historia
1986an aurkitu zituzten J. Argomaniz eta L. del Barriok. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

98.- ENOBIETA TXIKIA

Kokalekua
Enobietako Txikia (Almendruitzko-Ataka) lepoaren erdian, Enobieta eta Almendruitz mailen artean, Lesakako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.340 Y. 4.787.400 Z. 645

Deskribapena
4,50 m-ko diametroko harrespila, bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua; lekuko horien artean 4 nabarmentzen dira, 0,46 m eta 0,10 m arteko garaiera dutenak. Iparraldeko arkuan pago bat dago, eta pago horrek itxuraldatu egin du egitura. Bertako arbela.

Historia
1985ean aurkitu zuten L. del Barrio eta A. Urizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

99.- ERMITAKO-LEPOA

Kokalekua
Ermitako-Lepoan, Venta Quemada (Benterre) inguruan, Belateko mendatean, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 612.800 Y. 4.766.750 Z. 910

Deskribapena
7,80 m-ko diametroko harrespila. 0,40 eta 0,30 m arteko garaiera duten lauza formako 5 lekuko ditu agerian. Bertako hareharria.

Historia
1982an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

100.- ERNAZABALGO SOROA

Kokalekua
Urkiagako mendatetik M-ra, Otarra Bizkarra harrespiletatik apur bat H-ra, Kintoko lurretan.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 623.000 Y. 4.766.450 Z. 1.150

Deskribapena
7 harrespileko multzoa. Hareharria, arbela eta kuartzoa.

1.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 16 lekuko ditu agerian.
3.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko ditu agerian.
4.- Harrespila. 2,50 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko ditu agerian.
5.- Tumuludun harrespila, 8 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 8 lekuko ditu agerian.
6.- Tumuludun harrespila, 6,50 m-ko diametrokoa eta 0,10 m garaia. Lauza formako 26 lekuko ditu agerian.

7.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko ditu agerian.

Historia
1. harrespila 1984an aurkitu zuten L. Millán eta F. Ondarrak; 2.a 1975ean T. Lopez Sellések; 3., 5. eta 7.a 1989an L. Millán eta J. J. Ochoak; 4.a 1983an F. Ondarrak, eta 6.a, 1974an, ikertzaile horrek berak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976a)
Ondarra, F. (1976b)
Ondarra, F. (1988)

101.- ERREKALKO (ERREKALEKU)

Kokalekua
Errekalko lepoan, leku hartatik igarotzen den pistaren alde bietara, Arano eta Goizueta udalerrietan.

44. argazkia. Errekalkoko harrespil multzoa (Errekaleku).

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 588.800 Y. 4.780.650 Z. 656

Deskribapena
20 harrespileko multzoa. Kuartzoa eta hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 5,80 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza eta bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da IM-ko muturrean.
2.- Tumuludun harrespila, 8 m-ko diametrokoa I-H-an eta 7,50 m-koa E-M-an, 0,30 m garaia. Lauza eta bloke formako 43 lekuko ditu agerian. 1. harrespilaren ukitzailea H-HE-ko muturrean, eta 6.aren ukitzailea IM-an.
3.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da HE-ko muturrean.
7.- Harrespila. 9 m-ko diametroa. Lauza formako 23 lekuko agerikoz osatua.
8.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua
9.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. 10. harrespilaren ukitzailea da HE-ko muturrean.
10.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke eta lauza formako 25 lekuko ditu agerian. 9. harrespilaren ukitzailea da IM-ko muturrean.
11.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 11 lekuko ditu agerian. IM-ko erdian ez du lekukorik, pista bat igarotzen baita bertatik.
12.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 24 lekuko ditu agerian.
13.- Harrespila. 9 m-ko diametroa. Lauza formako 11 lekuko ditu agerian. M-ko erdian ez du lekukorik, pista bat igarotzen baita bertatik.
14.- Tumuludun harrespila, 9 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Lauza formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
15.- Harrespila. 4,30 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua.
16.- Harrespila. 4,40 m-ko diametroa. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua.
17.- Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Bloke formako 39 lekuko ditu agerian.
18.- Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke formako 9 lekuko ditu agerian.
19.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 18 lekuko ditu agerian.
20.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua.

Historia
2., 7., 10., 14., 17., 18., 19. eta 20. harrespilak 1923an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek; 6. eta 12.a 1946an aurkitu zituen L. Peña Basurtok; eta 1., 3., 4., 5., 8., 9., 11., 13., 15. eta 16.a, berriz, 1982an L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1926)
Barandiaran, J. M. de (1946)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)

102.- ERROLAN

Kokalekua
Elizondoko herrigunetik M-ra, Beartzun sakanetik hurbil, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 626.750 Y. 4.776.050 Z. 717

45. argazkia. Errolanen harrespila.

Deskribapena
Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. I-ko erdian ez du lekukorik. Hareharria.

Historia
1949an aurkitu zuen E. Zudairek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976b)
Zudaire, E. (1949)

103.- ETENE

Kokalekua
Etene muinoan, Eztulkorte mendiaren (1.066 m) M-ra, Donamariako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 609.000 Y. 4.768.150 Z. 928

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua da; horien artean 5 dira nabarmentzekoak, nahiko handiak (1,65 m, 1,20 m, 1,20 m, 1 m eta 0,82 m), nahiz eta etzanda dauden. Erdigunean ganbera moduko bat dago, 5 harriz osatua (kareharrizkoak, horietako bi) eta IM-HE norabidean orientatua. Kareharria eta bertako hareharria.

Historia
1989an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1989)

104.- ETSAIN

Kokalekua
Etsain mendiaren gailurrean, Alkurruntz menditik HM-ra, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 620.800 Y. 4.786.100 Z. 851

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 2,50 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 26 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1992an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

105.- EXKAXPE

Kokalekua
Artikutzako sarreratik 300 bat m-ra dagoen zabalgune batean, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.

46. argazkia. Exkaxpeko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 597.310 Y. 4.788.000 Z. 630

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako granitoa eta kuartzita.

1.- Harrespila. 6,20 m-ko diametroa I-H-an eta 6 m-koa E-M-an. Bloke formako 28 lekuko ditu agerian, horien artean 15 nabarmentzen direla, 0,50 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 5,70 m-koa E-M-an. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua; horien artean 19 nabarmentzen dira, 0,80 eta 0,10 m bitarte garaiak. Egituraren barnealdean neurri ertaineko hiru bloke daude etzanda.



17.irud. Exkaxpeko harrespilak. (L. del Barrio, 1989).

Historia
1976an aurkitu zituen A. Leibarrek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Leibar, A. (1976)
Leibar, A. (1977)

106.- EZKAIN'KO LEPOA

Kokalekua
Ezkain lepoan, Olegi (1.050 m) eta Elazmuño (1.042 m) mendien artean, Ezkurrako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 595.950 Y. 4.772.400 Z. 975

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 6,75 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 25 lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 3,80 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1928an aurkitu zituen J. M. Sansineneak. 1936an indusketa lanak egin zituen J. M. de Barandiaranek han hurbileko Iruñarriko monolitoaren oinarrian eta "zenbait zirkulu zentrotan", J. M. Sansinenearen arabera (1950), baina ez zen argitaratu lan haien emaitzen erreferentziarik; dena dela, aurkitzailearen ustez "ez zen ezer aurkitu, nonbait".

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Peña Basurto, L. (1960)
Sansinenea, J. M. (1950)

107.- GARTZAGAKO-LEPOA

Kokalekua
Gartzaga (1.296 m) eta Okolin (1.362 m) gailurren arteko lepoan, Baztango udalerrian.

47. argazkia. Gartzagako-Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 615.250 Y. 4.767.650 Z. 1.210

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 8 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako 16 lekuko ditu agerian, horien artean bat nabarmena, 0,50 m-ko garaierakoa.
2.- Harrespila. 2 zirkulu zentrokidez osatua. Handienak 7,10 m-ko diametroa du eta lauza formako 7 lekuko ditu agerian, gutxi batzuk bakarrik iparraldeko erdian. Barneko zirkulua beste zirkulutik metro bateko distantziara dago eta 16 lekuko ditu agerian, oso txikiak, bakarren bat soilik iparraldeko erdian.

Historia
1. harrespila 1966an aurkitu zuen T. Lopez Sellések; 2. harrespila 1974an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.
1. harrespilari Gatzaga Sur izena ere eman izan zaio, eta beste harrespilatik 10 m HM-ra dago; 2. harrespilarekin lotura du gure ustez.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975b)
Lopez Sellés, T. (1973)

108.- GATZARRIETA I

Kokalekua
Bianditz menditik H-HE-ra, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutiaren mugen barruan.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 598.740 Y. 4.788.550 Z. 765

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 5,70 m-ko diametrokoa eta 0,45 m garaia. Txilarrez eta landarez estalita dago erabat, eta horrenbestez, ez dira ikusten lekukoak; barnealdean bakarrik bereizten dira bloke batzuk. Bertako granitoa.

Historia
1984an aurkitu zuen I. Arbelaiz, L. del Barrio, Tx. Ugalde eta A. Urizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

109.- GATZARRIETA II

Kokalekua
Bianditz menditik H-HE-ra, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 598.820 Y. 4.788.465 Z. 755

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 7,60 m-ko diametrokoa I-H-an eta 7,80 m-koa E-M-an; 0,60 m-ko garaiera du erdialdean. Bloke formako 6 lekuko ditu agerian, 0,90 eta 0,35 m arteko garaiera dutenak. Bertako granitoa.

Historia
1984an aurkitu zuten I. Arbelaiz, L. del Barrio, Tx. Ugalde eta A. Urizek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

110.- GAZTANBIDE

Kokalekua
Abodi menditik E-ra, Otsagabiako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 117-I (27-7). Irati. (1:25.000)
X. 659.500 Y. 4.757.750 Z. 1.489

Deskribapena
3,60 m-ko diametroko harrespila, lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua; bat nabarmentzen da horien artean, 0,25 m garaia, monumentuaren M-an. HE-ko muturrean ez dago lekukorik. Hareharria.

Historia
1984an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

111.- GAZTARROZKO BIZKARRA

Kokalekua
Gaztarrozko Bizkarra mailaren atzeko zabalgune batean, Altueta, Deskantsuko Bizkarra (Burugorri), Gaztarrozko Borda mendilerroan, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 593.970 Y. 4.785.150 Z. 512

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako arbela eta kuartzita.

1.- Tumuludun harrespila. 4,20 m-ko diametroa I-H-an eta 4,30 m-koa E-M-an. Bai peristalitoa eta bai barnealdea neurri ertaineko harri bloke ugariz –horietako batzuk lurrean finkatuta– eta lurrez daude osatuak. Nahasia eta itxuraldatua.
2.- Tumuludun harrespila. 4,70 m-ko diametroa I-H-an eta 4,50 m-koa E-M-an. Bai peristalitoa eta bai barnealdea neurri ertaineko harri bloke ugariz –horietako batzuk lurrean finkatuta– eta lurrez daude osatuak. Nahasia eta itxuraldatua.

Historia
1985ean aurkitu zituen J. Tellabidek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

112.- GERASUNKO ATAKA

Kokalekua
Gerasunko Ataka (Karasuko Ataka) izeneko lepoaren erdian, Araña (1.037 m) mendiaren iparraldeko muturraren eta Bezuntzatik (912 m) HE-ra jaisten den mendi-adarraren artean, Goizuetako (Artikutzako barrutia) eta Aranatzko udalerrien artean.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.410 Y. 4.780.990 Z. 980

Deskribapena
10 harrespileko multzoa. Bertako arbela eta kuartzita.

1.- Tumuludun harrespila. 3,80 m-ko diametroa du I-H-an, 4,20 m-koa E-M-an, eta 0,15 m da garaia. Bloke eta lauza formako 16 lekuko ditu agerian.

2.- Tumuludun harrespila, 3,40 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke eta lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke eta lauza formako 10 lekuko ditu agerian.
4.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua.
5.- Tumuludun harrespila, 7,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
6.- Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,45 m garaia. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
7.- Tumuludun harrespila. 5,80 m-ko diametroa I-H-an eta 6 m-koa E-M-an. Lauza formako 30 lekuko agerikoz osatua.
8.- Harrespila. 4,60 m-ko diametroa. Lauza formako 21 lekuko agerikoz osatua.
9.- Harrespila. 7,80 m-ko diametroa. Lauza formako 26 lekuko agerikoz osatua.
10.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua.

48. argazkia. Gerasunko Atakako harrespil multzoa.

Historia
5., 6., 7., 8. eta 9. harrespilak 1951n aurkitu zituen L. Peña Basurtok; 10.a 1989an topatu zuten L. Millán, L. del Barrio eta J. J. Ochoak eta 1., 2., 3. eta 4.a ere urte hartan bertan, L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, I.; Vallespí, E. (1980)
Barrio, L. del (1989)
Peña Basurto, L. (1960)

113.- GOIZAMENDI (MEATZETAKO KASKOA)

Kokalekua
Aizalegiko Lepotik IE-ra, Baztango Haranean (Amaiur).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 624.650 Y. 4.789.000 Z. 735

49. argazkia. Goizamendiko harrespila (Meatzeko Kaskoa).

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,80 eta 0,75 m garaiak, hurrenez hurren. Hareharria.

Historia
1949an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Meatzeko-Kaskoa izenaz ere ezaguna. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949c)

114.- GOROSPILGO-LEPOA

Kokalekua
Katillegi eta Uztarketa gailurren arteko lepoan, Saioa-Abartan mendilerroan, Baztango udalerrian.

50. argazkia. Gorospilgo-Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 617.050 Y. 4.770.950 Z. 1.005

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Inguruetako hareharria eta bertako kareharria.

1.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmentzen dela, 0,55 m garaia. Esparruaren barnealdean harri txiki batzuk daude.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 10 lekuko ageriko ditu, eta horietako batzuk ez dira 0,20 m baino gehiago ateratzen lur azalaren mailatik gora.

Historia
1. harrespila 1966an aurkitu zuen T. Lopez Sellések, eta Pikuda Norte izena jarri zion; 2. eta 3. harrespilak 1975ean aurkitu zituzten T. Lopez Sellés eta F. Ondarrak; eta 4.a, 1983an, F. Ondarrak. Azken hori Gorospil III izenaz eman zuen argitara aurkitzaileak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Lopez Sellés, T. (1973)
Ondarra, F. (1976b)
Ondarra, F. (1988)

115.- GOROSTI

Kokalekua
Amabirginei-Arpea harrespilen aurreko lepoan, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 628.550 Y. 4.788.000 Z. 855

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa I-H-an eta 3,50 m-koa E-M-an. Lauza formako 25 lekuko agerikoz osatua. 1,20 m-ko diametroa duen zista txiki bat edo esparru biribil moduko bat osatzen duten 5 harri ditu barnealdean.
2.- Harrespila. 4,40 m-ko diametroa. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua. Barnealdean, 0,80 m-ko diametroa duen zirkunferentzia txiki bat zedarritzen dute 12 harrik.

Historia
1985ean aurkitu zituen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

116.- GOROSTI BIZKAR

Kokalekua
Urkiaga mendatearen eta Adi mendiaren artean, Erroko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 626.300 Y. 4.765.550 Z. 1.190

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 3,80 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 50 lekuko ditu agerian. Hareharria.

Historia
1980an aurkitu zuen J. M. Larrañagak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Larrañaga, J. M. (1980)

117.- GORRAMAKIL EKIALDE

Kokalekua
Aritzakun eta Urritzarte ibaien uren banalerroan, Baztango udalerrian (Erratzu).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 627.900 Y. 4.787.400 Z. 1.040

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta, gehienera, 0,30 m-ko garaiera duena. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua. Erdian zulo bat du. Bertako hareharria.

Historia
1982an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

118.- GORRAMAKIL MENDEBAL

Kokalekua
Lepo txiki batean, Gorramakil multzoa inguratzen duen sare metalikotik 50 m iparraldera, EEBBen radar bat kokatuta egon zen gune berean, Baztango Haranean (Erratzu).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 627.600 Y. 4.786.800 Z. 1.070

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,50 m garaia. Lauza formako hainbat lekuko agerikoz osatua. Erdigunean, 1 m-ko luzera eta 0,07 m-ko lodiera duen harlauza baten alboan, sakonune bat dago, behereneko mailan aldeko metro bete iristen duena. Hareharria.

51. argazkia. Gorramakil Mendebaleko harrespila.

Historia
1972an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez dago indusketa lan kontrolatuen berririk. Trikuharri gisa argitaratu zen.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

119.- GORRAMENDI

Kokalekua
Gorramendi mendiaren hego-ekialdeko hegalaren zabalgune batean, Baztango udalerrian.

52. argazkia. Gorramendiko harrespila

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 626.700 Y. 4.784.950 Z. 950

Deskribapena
5,50 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 12 lekuko ditu agerian, horien artean 4 nabarmenak, 0,60 eta 0,40 m arteko garaiera dutenak. Ez du lekukorik HE-an. Bertako hareharria.

Historia
1972an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

120.- GURUTXE-MEAKA

Kokalekua
Astabizker (1.129 m) eta Araun (1.149 m) gailurren arteko lepoan, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Hoja 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 621.250 Y. 4.769.050 Z. 1.030

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kareharria eta hareharria.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko ditu agerian, horien artean 2 nabarmenak, 0,20 m-ko garaierakoak.
2.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,25 m garaia erdialdean. Lurrez eta harriz osatua; 20 harri dira, periferian kokatuak eta bloke formakoak.
3.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 13 lekuko ditu agerian.

Historia
2. eta 3. harrespila 1978an aurkitu zituzten F. Ondarra eta J. L. Arruabarrenak, eta 1.a, berriz, F. Ondarra eta L. Millánek 1982an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1982)
Ondarra, F. (1988)

121.- GURUTZE-MEAKA IPAR

Kokalekua
Gurutze-Meaka lepotik hurbil, iparraldera, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 621.350 Y. 4.769.200 Z. 1.000

Deskribapena
Tumuludun harrespila. 4,50 m-ko diametroa I-H-an eta 3 m-koa E-M-an. Lauza formako 20 lekuko periferiko ditu agerian, eta orobat bereizten dira zenbait harri, barnealdean, horietako 3 harri 0,68 eta 0,50 m bitarte luzeak. Bertako kareharria.

Historia
1983an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

122.- IBAÑETA EKIALDE

Kokalekua
Atxuri menditik hegoaldera, Ibañeta lepoan, Baztanen.

53. argazkia. Ibañeta Ekialdeko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 617.400 Y. 4.790.350 Z. 515

Deskribapena
10 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 8,60 m-ko diametroa. Lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 6,60 m-ko diametroa. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 5,80 m-ko diametroa. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 7,60 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 6,60 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua.
7.- Harrespila. 10 m-ko diametroa. Lauza formako 19 lekuko agerikoz osatua.
8.- Harrespila. 3,80 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua.
9.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua.
10.- Tumuludun harrespila, 10 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lauza formako 25 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1949an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1950)
Barandiaran, J. M. de (1953)

123.- IBAÑETA MENDEBAL

Kokalekua
Atxuri menditik hegoaldera eta Ibañeta ekialde trikuharritik eta harrespiletatik metro gutxira, Baztanen.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 617.300 Y. 4.790.350 Z. 515

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6,20 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 5,40 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 6,40 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. Bide bat igarotzen da monumentuaren gainetik eta erdialdea kaltetua du bide horren eraginez.

Historia
1. eta 4. harrespilak 1984an aurkitu zituzten L. Millán eta F. Ondarrak; eta 2., 3. eta 5.a 1989an L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

124.- IBINTZA

Kokalekua
Ibintza izeneko gunean, lepoaren erdian, Goizueta (Artikutzako barrutia) eta Aranatz udalerrien artean.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 600.475 Y. 4.780.250 Z. 950

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako arbela.

1.- Harrespila. 4,20 m-ko diametroa I-H-an eta 4,60 m-koa E-M-an. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 3,20 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 7,20 m-ko diametroa I-H-an eta 7,50 m-koa E-M-an. Bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua, horien artean 7 nabarmentzen direla, 0,53 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak. Muga egiten duen hesiak ebakitzen du monumentu hau bere erdialdean, I-H norabidean.

4.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 7 lekuko ditu agerian, eta horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,18 eta 0,10 m bitarte garaiak. HM-IE arkuan beste inon ez da ageri lekukorik.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua.

Historia
3. eta 4. harrespilak 1984an aurkitu zituzten I. Arbelaiz, L. del Barrio eta Tx. Ugaldek; 1. eta 2.a 1989an L. del Barrio, L. Millán eta J. J. Ochoak, eta 5.a 1990ean L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

125.- IGUZKI HEGO

Kokalekua
Iguzki mendiaren hegoaldean, pistaren alboan, Aritzakun sakanaren aldean, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 628.250 Y. 4.791.750 Z. 720

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 3 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila, 3,40 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 3 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1985ean aurkitu zituen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

126.- ILLARBITEKO SOROA (ARRAMALETA)

Kokalekua
Arramalta lepoaren erdian, Mendiribil mendiaren mendebaldeko mendi-adarrean, Goizuetako udalerrian.

54. argazkia. Illarbiteko Soroko harrespil multzoa (Arramaleta).

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 596.340 Y. 4.780.060 Z. 825

Deskribapena
4 harrespilaz eta tumulu batez osaturiko multzoa. Bertako arbela, hareharria eta granitoa.



18.irud. Illarbiteko Soroko harrespilak (Arramaleta). (L. del Barrio, 1989).

1.- Harrespila. 3,20 m-ko diametroa I-H-an eta 3,10 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua; 3 nabarmentzen dira horien artean, 0,12 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 2,60 m-ko diametroa I-H-an eta 2,25 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 11 lekuko ditu agerian, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,45 eta 0,10 m arteko garaierakoak. Egituraren H-ko muturrean 1 x 0,75 m-ko lauza bat dago, etzanda.
3.- Harrespila. 3,80 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 21 lekuko agerikoz osatua; horien artean 15 nabarmentzen dira, 0,40 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak.
4.- Harrespila. 2,70 m-ko diametroa I-H-an eta 2,90 m-koa E-M-an. Bloke formako 16 lekuko ditu agerian, 0,52 eta 0,10 m arteko garaierakoak.

Historia
1953an aurkitu zituen L. Peña Basurtok. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, I.; Vallespí, E. (1980)
Barrio, L. del (1989)
Lopez Sellés, T. (1960)
Peña Basurto, L. (1954)
Peña Basurto, L. (1960)

127.- IRAINGO ATAKA

Kokalekua
Iraingo Ataka lepoan, Loizare mailatik (1.038 m) hurbil, Goizuetako udalerrian (Artikutzako barrutia).

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 598.710 Y. 4.779.330 Z. 970

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Bertako arbela eta kuartzita.

1.- Harrespila. 2,40 m-ko diametroa. Bloke formako 4 lekuko ditu agerian; horien artean 3 nabarmentzen dira, 0,35 eta 0,15 m bitarteko garaierakoak. Itxuraldatua.
2.- Harrespila. 2,50 m-ko diametroa I-H-an eta 2 m-koa E-M-an. Bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua; horien artean 3 nabarmentzen dira, 0,35 eta 0,15 m bitarte garaiak. Itxuraldatua.
3.- Harrespila. 3 m-ko diametroa I-H-an eta 3,50 m-koa E-M-an. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 7 lekuko ditu agerian. Harrespilaren erdian bloke azaleratu bat dago. Itxuraldatua.

Historia
1986an aurkitu zituzten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

128.- IRASKARDI

Kokalekua
Iraskardiko txabolen –iparraldean– eta Pakopena –hegoekialdean– artean, Andiako larreetan.

Koordenatuak:
Orria: 114 (24-7). Alsasua. (1:50.000)
X. 583.150 Y. 4.743.900 Z. 1.075

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 2,20 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. I-ko muturrean apenas ikusten diren bloke formako 22 lekuko agerikoz osatua. Kareharria.

Historia
1983an aurkitu zuen L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

129.- IRAURTZA

Kokalekua
Zalkuba ekialdeko gainaren zabalgune txiki batean, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 590.850 Y. 4.781.250 Z. 480

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Kuartzita.

1.- Tumuludun harrespila, 4,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 24 lekuko ditu agerian. 1,40 m-ko luzera duen lekuko bat du.
2.- Tumuludun harrespila, 6,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 3 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 4 lekuko ditu agerian. Ez du lekukorik E-ko erdian.
4.- Harrespila. 2 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua. Lekuko bat bakarrik du H-ko erdian.

Historia
Goizuetako bizilagun talde batek aurkitu zituen 1984an. Ez da indusketa lanik egin.

130.- IROPILE HEGO (IDOPILKO LEPOA)

Kokalekua
212. mugarritik hurbil (20 m E-HE-ra), Orbaitzetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 645.760 Y. 4.768.040 Z. 980

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 8 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke formako 3 lekuko agerikoz osatua. Kareharria.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)
Blot, J. (1978b)

131.- IRUMUGETA

Kokalekua
Errebelu eta Okolin arteko lepoan, Baztan eta Lantz udalerrien artean.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 614.650 Y. 4.766.450 Z. 1.160

Deskribapena
11 harrespileko multzoa. Hareharria.

55. argazkia. Irumugetako harrespil multzoa.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila, 11 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua. Barnealdean beste harrespil zentrokide bat dauka, 4,50 m-ko diametrokoa eta 20 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 9 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua.
4.- Tumuludun harrespila, 13 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lauza formako 36 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 1,50 eta 1,30 m garaiak, hurrenez hurren.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua. Barnealdean harriak ditu.
6.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua. Barnealdean beste harrespil bat du, 5,50 m-ko diametrokoa eta 8 lekuko agerikoz osatua.
7.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 1,80 m garaia.
8.- Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
9.- Tumuludun harrespila, 10 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Tumuluaren eremu guztia bloke formako hainbat harriz dago osatua.
10.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 13 lekuko ditu agerian. Bidezidor bat igarotzen da H-ko muturretik.
11.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.

Historia
2., 3., 4. eta 6. harrespilak 1958an aurkitu zituen T. Lopez Sellések; 8., 9., 10. eta 11.a 1973an F. Ondarrak; 5.a 1983an L. Millán, F. Ondarra eta P. Arresek, 7.a 1985ean L. Millánek, eta 1.a, 1990ean, L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Lopez Sellés, T. (1973)
Ondarra, F. (1975b)

132.- ISTAUZ

Kokalekua
Istauz lepoaren erdiko eremu lau batean, Baztanen (Elbetea).

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 629.250 Y. 4.778.500 Z. 1.000

Deskribapena
Harrespila. 3,30 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua; 0,30 m-ko garaiera dute lauzek, gehienera. Esparruaren barnealdea apur bat goratua dago inguruneko mailaren aldean. Hareharria.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1973b)

133.- IZU (IZUKO GAINA)

Kokalekua
Izu deritzon mailan, Goizueta (Artikutzako barrutia) eta Aranatz udalerrietan.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.410 Y. 4.784.570 Z. 829

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako kuartzita eta arbela eta hareharri triasikoa.

1.- Tumuludun harrespila, 5,80 m-ko diametrokoa, eta 0,20 m garaia erdialdean. Lauza eta bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua, horien artean 4 nabarmentzen direla, 0,45 eta 0,20 m bitarte garaiak. 3. harrespil tumuludunaren ukitzailea da HE-ko sektorean.
2.- Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia erdialdean. Lauza formako 34 lekuko agerikoz osatua; horien artean 13 dira, 0,35 eta 0,15 m bitarteko garaierakoak. 1. harrespilaren ukitzailea da IM-ko sektorean.
3.- Harrespila. 5,30 m-ko diametroa. 0,67 eta 0,10 m bitarteko garaiera duten lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik ekialdeko arkuan, hesia ukitzen baitu alderdi horretan.
4.- Harrespila. 4,60 m-ko diametroa. Bloke formako hainbat lekukoz dago osatua, baina lekukook nahasita eta beren jatorrizko kokagunetik lekualdatuta daude, hesi baten zutoinak eta maila geodesikoa adierazteko mugarri bat finkatu baitira bertan.
5.- Harrespila. 7,40 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua, horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,54 eta 0,16 m bitarte garaiak. Ez du lekukorik ekialdeko sektorean. Aurretik aipatu diren 4 harrespiletatik 50 m H-HE-ra dago.

Historia
1984an aurkitu zituzten I. Arbelaiz, L. del Barrio, Tx. Ugalde eta A. Urizek, nahiz eta 1976an A. Leibarrek gune hartan egitura megalitikoak zeudela aipatu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Leibar, A. (1976)

134.- IZURRIZTI I (IZURRIZTIKO EGIA)

Kokalekua
Izu mendiaren hegalean, maila gorena baino 330 m lehenago, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.090 Y. 4.784.645 Z. 780

Deskribapena
12 harrespileko multzoa; horien artean hainbat bloke ageri dira, lurrean finkatuta, gaur egun zehazten zailak diren beste egitura batzuen osagai izan litezkeenak. Bertako kuartzita eta arbela eta hareharri triasikoa.

1.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa I-H-an eta 4,60 m-koa E-M-an. Bloke formako 14 lekuko ditu agerian; horien artean 8 nabarmentzen dira, 0,50 eta 0,20 m arteko garaierakoak. Ez du lekukorik HE-ko sektorean. 2. harrespilaren ukitzailea da hego-mendebaldeko sektorean.
2.- Harrespila. 5,30 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua, horien artean 5 nabarmentzen direla, 0,35 eta 0,10 m arteko garaierakoak. 1. harrespilaren ukitzailea da ipar-ekialdeko sektorean.
3.- Harrespila. 2,45 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik ekialdeko arkuan.
4.- Tumuludun harrespila, 3,60 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 6 lekuko ditu agerian. 7. harrespilaren ukitzailea da ipar-mendebaldeko arkuan.
5.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 6 lekuko ditu agerian. 6. harrespilaren ukitzailea da hego-ekialdeko sektorean.
6.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Bloke formako 21 lekuko agerikoz osatua, horien artean 11 nabarmentzen direla, 0,30 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak. 5. harrespilaren ukitzailea da ipar-mendebaldeko sektorean.
7.- Harrespila. 3,20 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 12 lekuko ditu agerian; horien artean 3 nabarmentzen dira, 1 m-tik 0,10 m-ra bitarteko garaiera dutenak. Lekukorik garaiena M-an dago eta bere neurriak dira 1 x 0,55 x 0,30 m. Ez du lekukorik iparraldeko arkuan. 4. harrespilaren ukitzailea da hego-ekialdeko arkuan.
8.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,25 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak. Ez du lekukorik ekialdeko arkuan.
9.- Harrespila. 3,60 m-ko diametroa. Bloke formako 10 lekuko ditu agerian; horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,32 eta 0,10 m bitarte garaiak. Ez du lekukorik mendebaldeko sektorean.
10.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua.
11.- Harrespila. 4,10 m-ko diametroa I-H-an eta 3,70 m-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 20 lekuko ditu agerian, horien artean 19 nabarmentzen direla, 0,40 eta 0,10 m arteko garaierakoak.
12.- Harrespila. 3,70 m-ko diametroa. Bloke formako 7 lekuko ditu agerian, horien artean 5 nabarmentzen direla, 0,25 eta 0,10 m bitarte garaiak. Ez du lekukorik hegoaldeko arkuan.

Historia
1., 2., 3., 6., 7., 8., 9., 11. eta 12. harrespilak 1984an aurkitu zituzten I. Arbelaitz, L. del Barrio, Tx. Ugalde eta A. Urizek; 4., 5. eta 10.a 1989an L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

135.- IZURRIZTI II (IZURRIZTIKO LEPOA)

Kokalekua
Izu gailurraren aurreko zabalgunean, mendebaldeko saihetsaldean, Izurrizti izenaz ezaguna den gunean, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 599.940 Y. 4.784.680 Z. 765

Deskribapena
8 harrespileko multzoa. Bertako arbela eta kuartzita.

1.- Harrespila. 5,70 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko ditu agerian, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,50 eta 0,30 m arteko garaierakoak. Ekialdeko sektorean 1,50 x 0,80 x 0,50 m-ko kuartzitazko bloke handi bat nabarmentzen da.
2.- Harrespila. 3,90 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 7 lekuko ditu agerian, 0,25 eta 0,18 m arteko garaiera dutenak. Ez du lekukorik ez iparraldeko arkuan eta ez HE eta HM-ko alderdietan.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 25 lekuko ditu agerian, horien artean 8 nabarmentzen direla, 0,35 eta 0,12 m bitarteko garaierakoak. Mendebaldeko alderdian.
4.- Harrespila. 5,60 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua. 5. harrespilaren ukitzailea da ekialdeko sektorean.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik HE-ko sektorean. 4. harrespilaren ukitzailea da mendebaldeko sektorean.
6.- Harrespila. 7,80 m-ko diametroa. Lauza formako 21 lekuko agerikoz dago osatua, eta horien artean bat nabarmentzen da, 0,20 m garaia. Ez du lekukorik IE-ko sektorean.

7.- Harrespila. 8,50 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua.
8.- Tumuludun harrespila, 15 m-ko diametrokoa eta 1 m garaia. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 42 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1973an aurkitu zituen T. Lopez Sellések. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Lopez Sellés, T. (1973)
Ondarra, F. (1975b)

136.- KATILLEGIKO-LEPOA HEGO

Kokalekua
Aurrizti mendiaren hegaleko zabalgune batean, Saioa menditik Abartan aldera doan bidearen alboan, Baztango udalerrian.



19.irud. Katillegiko-Lepoa Hegoko harrespilak. (F. Ondarra, 1975b).

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 616.850 Y. 4.769.650 Z. 1.090

Deskribapena
8 harrespileko multzoa. Hareharria, kuartzoa eta arbela.

1.- Harrespila. 8,20 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua. H-ko erdian lekuko gutxi daude. 2. harrespilaren ukitzailea da hego-ekialdeko sektorean.
2.- Tumuludun harrespila, 13,60 m-ko diametrokoa, eta metro bete garaia erdialdean. Lauza formako 25 lekuko agerikoz dago osatua; horien artean bat da nabarmena, 0,25 m-ko garaierakoa. E-ko erdian lekuko ageriko gutxi ditu. 3. harrespilaren ukitzailea da ekialdeko sektorean eta 1. harrespilaren ukitzailea ipar-mendebaldeko sektorean.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz dago osatua, horien artean bat nabarmena, 0,25 m garaia. E-ko erdian lekuko ageriko gutxi ditu. 2. harrespilaren ukitzailea da mendebaldeko sektorean.
4.- Harrespila. 5,60 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 18 lekuko ditu agerian. 5. harrespilaren ukitzailea da ekialdeko sektorean.
5.- Harrespila. 6 m. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik HE-ko sektorean. 4. harrespilaren ukitzailea da mendebaldeko sektorean.
6.- Harrespila. 7,80 m-ko diametroa. Lauza formako 21 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 0,20 m-ko garaiera duena. IE-ko sektorean ez du lekukorik.
7.- Harrespila. 8,50 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua.
8.- Tumuludun harrespila, 15 m-ko diametrokoa eta 1 m garaia. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 42 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1973an aurkitu zituen T. Lopez Sellések. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Lopez Sellés, T. (1973)
Ondarra, F. (1975b)

137.- KATILLEGIKO-LEPOA IPAR

Kokalekua
Katillegi lepotik hegoaldera, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 616.900 Y. 4.769.900 Z. 1.050

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6,40 m-ko diametroa. Lauza formako 23 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmentzen dela, 0,20 m-ko garaiera duena.
2.- Harrespila. 6,80 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 0,60 m garaia.

Historia
1973an aurkitu zituen F. Ondarrak, eta Katillegiko-Lepoa I eta II izendatu zituen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975b)

138.- LANOTEGIBEKOA

Kokalekua
Zabalgune txiki batean, Lanotegi gailurraren eta Txasperro lepoaren artean, Erroibarren.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 631.550 Y. 4.764.300 Z. 1.000

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta garaiera txikikoa. Bloke formako 13 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1983an aurkitu zuten L. Millán eta P. Arresek. Ez da indusketa lanik egin.

139.- LARRAKAGAINA

Kokalekua
Aizalegiko-Lepotik 130 m hego-ekialdera, Baztango udalerrian.

56. argazkia. Larrakagainako harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 624.550 Y. 4.788.500 Z. 680

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 15 lekuko ditu agerian. Ez du lekukorik IE-ko aldean. Barnealdean harri batzuk ditu eta erdialdean sakonune txiki bat. Kuartzo zuria.

Historia
1973an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

140.- LEKENDIKO GAINA

Kokalekua
Arriurdiñeta gainaren H-ko muturrean, Errekalekuren gainean, Aranoko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 588.950 Y. 4.780.800 Z. 691

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 7,50 m-ko diametrokoa eta 0,50 m garaia. Bloke formako 40 lekuko ditu agerian. Kuartzoa.

Historia
1926an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1926)
Barandiaran, J. M. de (1946)
Barandiaran, J. M. de (1953)

141.- LEPAKAESTUA

Kokalekua
Lepakaestu izeneko lekuan, Añonaren iparraldeko saihetsaldean, Goizuetako udalerrian.

57. argazkia. Lepakaestuko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 40 (24-4) eta 64 (24-5). San Sebastián. (1:50.000)
X. 590.700 Y. 4.781.400 Z. 520

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Kuartzo zuria.

1.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa. Lauza formako 21 lekuko agerikoz osatua da.
2.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua da.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua da.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 33 lekuko agerikoz osatua da.

Historia
1983an aurkitu zituzten J. Arbelaiz, L. del Barrio, J. A. Garcia eta P. Lopezek. Ez da indusketa lanik egin.

142.- LERATE (LEGATE)

Kokalekua
Legate mendiaren gailurrera doan gurutze bidearen (Via Crucis) hasieran, Lekarozko udalerrian.

58. argazkia. Lerateko harrespila (Legate).

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 616.800 Y. 4.781.000 Z. 772

Deskribapena
Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua da; horien artean 3 nabarmentzen dira, 0,70, 0,50 eta 0,40 m garaiak, hurrenez hurren. Hareharria.

Historia
1920an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. 1973an, F. Ondarraren arabera (1975a), zenbait lan egin ziren bertan; ikertzaile honek jakin zuenez (Ondarra, F. 1982), norbaitek indusketak egin zituen 1941ean multzo honen parte batean, "karlistek gune horretan ezkutaturiko armen bila", hark esaten duenez. Ikertzaileak dioen bezala, nahiko gauza arrunta da inguru hauetan lotura hori (karlisten eta historiaurreko monumentuen artekoa alegia), eta horrela, Lekarozen jaioa zen Iruritako bizilagun batek Legate mendian Karlisten-Sepulture deitzen zuten harrespil baten aipamena egin zuen.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)
Ondarra, F. (1975a)
Ondarra, F. (1982)

143.- LINDUS

Kokalekua
Lindus menditik hegoaldera, hesi baten alboan, Erroibarren.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 633.650 Y. 4.765.150 Z. 1.170

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke formako 16 lekuko agerikoz osatua. Kareharria.

Historia
1948an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Aranzadi, T. de; Barandiaran, J. M. de (1953)
Barandiaran, J. M. de (1949b)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Ripa, P. (1991-92)

144.- LIZARROZKO SOROA

Kokalekua
Lizarrozko Soroa lepoan, Koxingo lepotik 77 bat m-ra, Goizuetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 594.645 Y. 4.778.885 Z. 624

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako arbela eta grauwaka eta inguruetako hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,25 m garaia. Lurretik apenas azaleratutako bloke txikiez osatua. Erdialdean sakonune bat ageri da, 3 x 3 x 0,10 m-koa.
2.- Tumuludun harrespila, 4,20 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke formako 11 lekuko ditu agerian; horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,20 eta 0,10 m bitarte garaiak.
3.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametroa I-H-an eta 3,50 m-koa E-M-an. Hondoratua eta harrizko bloke txikiez eta lurrez osatua.

4.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa I-H-an eta 5,50 m-koa E-M-an; 0,40 m-ko garaiera du erdian. Harrizko bloke txikiez eta lurrez osatua.
5.- Harrespila. Parte bat bakarrik bereizten da gaur egun, I-ko arkuan, lauza eta bloke formako 6 lekuko ageriko dituena; horien artean 5 nabarmentzen dira, 0,15 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak. Bide batek ebakitzen du harrespila.

Historia
1986an aurkitu zituzten J. Argomaniz eta V. Hernandorenak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

145.- LOITZATEKO SOROA

Kokalekua
Loitzate mailatik 450 m-ra, Loitzateko Soroa izeneko zabalgune batean, Labaiengo udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 598.710 Y. 4.778.950 Z. 980

Deskribapena
Estimazioen arabera 3,50 m-ko diametroa duen harrespila, gaur egun itxuraldatua. Lauza eta bloke formako 5 lekuko ditu agerian, horien artean 3 nabarmentzen direla, 0,12 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak. Bertako arbela eta inguruetako hareharri triasikoa.

Historia
1984an aurkitu zuten L. del Barrio eta Tx. Ugaldek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

146.- LURUKO-ATEKAK

Kokalekua
Otsondotik Gorramendira doan errepidearen ezkerraldean, 3. km-a zeharkartzen duen ataka igaro ondoren, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 624.750 Y. 4.788.300 Z. 670

Deskribapena
Gaur egun ez da aztarnategi honen batere arrastorik.

Historia
1710ekoak dira aztarnategi honen lehenengo berriak. Urte hartan Baztan eta Amaiur arteko mugarri zerrenda finkatu eta Luruko-Zokoa (14.a) eta Luruko-Gaña (15.a) mugarrien egoera aztertu zen, eta aipamenean esaten denez "Lurucoateac" izeneko gune batean aurkitu zen 16. mugarria, "azken aipatu den horretatik alkabuz tiro bateko distantzian dagoen harrizko zirkulu baten alboan", F. Ondarrak (1975) jasotako berrien arabera. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

147.- LUURZU HEGO I

Kokalekua
Luurzu menditik hegoaldera, Kintoko lurretan.

59. argazkia. Luurzu Hego Ieko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 623.300 Y. 4.768.200 Z.1.060

Deskribapena
5,50 m-ko diametroko harrespila. 20 lekuko ditu agerian, horien artean 4 nabarmentzen direla, 0,25 m garaiak. Bertako hareharria.

Historia
1983an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

148.- LUURZU HEGO II

Kokalekua
Luurzu menditik hegoaldera, Kintoko lurretan.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 623.300 Y. 4.768.100 Z. 1.060

Deskribapena
4 m-ko diametroko harrespila. 27 lekuko agerikoz osatua da. Horien artean bat nabarmentzen da, 1,40 m garaia, eta lau dira 0,70 eta 1,15 m bitarte garaiak. Bertako hareharria.

Historia
1983an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

149.- LUURZU HEGO III

Kokalekua
Luurzu Hego I harrespilatik 4,20 m hegoaldera, Loiurzu Munoaren ekialdeko hegalean, Kintoko udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 623.250 Y. 4.768.050 Z. 1.065

Deskribapena
Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1987an aurkitu zuten L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

150.- LUURZUKO LEPOA

Kokalekua
Luurzu lepoan, Baztanen.

60. argazkia. Luurzuko Lepoko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 622.950 Y. 4.768.550 Z. 1.160

Deskribapena
Harrespila. 9 m-ko diametroa. Lauza formako 29 lekuko agerikoz osatua, horien artean 3 nabarmentzen direla, 0,95, 0,70 eta 0,45 m garaiak, hurrenez hurren. Hareharria.

Historia
1957an aurkitu zuen T. Lopez Sellések. Ez da indusketa lanik egin. F. Ondarraren arabera, bertan ibiltzen diren artzainek Kanposaindu Zaharra (k) izenaz ezagutzen dute; gune horretan karlisten eta liberalen artean izandako guduan jeneral karlista bat hil eta monumentu honetan lurperatu bide zutelako ematen zaio izen hori. Azpilcueta izena eman diote zenbaitzuk buruzagi hari.

Bibliografia
Lopez Sellés. T. (1960)
Ondarra, F. (1976a)

151.- MAILARRETA (MAIRUILARRIETA HEGO)

Kokalekua
Mailarreta eta Buurdiko-Kaskoa gailurrak bereizten dituen lepora iritsi baino apur bat lehenago, Baztango udalerrian.

61. argazkia. Mailarretako harrespila (Mairuilarrieta Hego)

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 625.050 Y. 4.790.400 Z. 680

Deskribapena
3 m-ko diametroko harrespila. Lurretik apenas goititzen diren 20 lekuko ditu agerian; HE-ko alderdian oso lekuko gutxi daude. Kuartzo zuria, hareharria eta arbela.

Historia
1973an aurkitu zuen F. Ondarrak, baina 1949an J. M. de Barandiaranek egindako aipamenaren arabera Mailarretako gailurrean ageriko ordenarik gabeko harri sail bat zegoen, harrespil hondakin izan zitekeena. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949c)
Ondarra, F. (1975a)

152.- MAIRUILARRIETA

Kokalekua
Mailarrieta gailurreko gune lau batean, Baztanen.

62. argazkia. Mairuilarrietako harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 625.050 Y. 4.790.500 Z. 707

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kuartzo zuria.

1.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-ko erdian.
2.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik H-an eta M-an.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 21 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik IE-ko koadrantean.
Ez J. M. de Barandiaranek (1949c) eta ez F. Ondarrak (1975a) ez dute datu askorik zehazten multzo honi buruz. Lehenengoak ondoko deskribapen hau egin zuen: "Gailurraren zabaldian (Mailarreta) zenbait harri ikusten dira, itxuraz behintzat ordenarik ez dutenak, baina antzinako baratzak edo illarriak izan daitezkeenak, eta horregatik jarri diogu izen hau muinoari". Bigarren egileak hau erantsi zuen: "Barandiaranek aipatzen dituen Mailarretako zabaldiko harrespilen ustezko aztarnei dagokienez, zera esan dezaket soilik, gailurrean bereizten diren bi tontorretatik ekialdekoan harri oso txiki batzuk ageri direla, belar artean erdi ezkutaturik. Sasitza garbiketa egin beharko litzateke gizakiak horrela jarritako harriak direla ziurtatu ahal izateko".

Historia
1949an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik ezagutzen.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949c)
Ondarra, F. (1975a)

153.- MAISTRUGAIN

Kokalekua
Maistrugain lepoan, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 626.300 Y. 4.784.850 Z. 995

63. argazkia. Maistrugaingo harrespil multzoa.

Deskribapena
10 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6,40 m-ko diametroa I-H-an eta 6,80 m-koa E-M-an. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 9 m-ko diametroa. Lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 9 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia erdialdean. Lauza formako 27 lekuko agerikoz osatua.
4.- Tumuludun harrespila, 2,80 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. Erdigunean harri bat du lurrean finkatua, zista baten aztarna izan daitekeena.
5.- Tumuludun harrespila, 6 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 14 lekuko ditu agerian, kokaera erradialekoak. Lubaki batek zeharkatzen du erdialdetik.
6.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua.
7.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
8.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
9.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 19 lekuko agerikoz osatua.
10.- Tumuludun harrespila, 4,40 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lurretik apenas goititzen diren lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1., 2., 3., 5., 6. eta 9. harrespilak 1972an aurkitu zituen F. Ondarrak; 4., 7., 8. eta 10.a 1988an aurkitu zituzten L. del Barrio, I. Gaztelu, L. Millán, J. J. Ochoa eta F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

154.- MAISTRUGAIN EKIALDE

Kokalekua
Maistrugain lepotik apur bat iparraldera, Baztango udalerrian (Erratzu).

64. argazkia. Maistrugain Ekialdeko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 626.400 Y. 4.784.950 Z. 955

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 4,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1988an aurkitu zuten L. del Barrio, I. Gaztelu, L. Millán, J. J. Ochoa eta F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

155.- MAISTRUGAIN MENDEBAL

Kokalekua
Maistrugain lepotik apur bat iparraldera, Baztango udalerrian (Erratzu).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 626.300 Y. 4.784.950 Z. 955

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 3 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean 2 lauza ditu lurrean finkatuak, horietako bat metro bete luzea, zista baten osagai izan daitezkeenak. Hareharria.

Historia
1984an aurkitu zuten L. Millán eta F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

156.- MEATSEKO BIZKARRA

Kokalekua
Meatse lepoaren hurbileko gain batean, Itxasuko eta Baztango udalerrien artean.

65. argazkia. Meatseko Bizkarreko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 628.650 Y. 4.792.550 Z.720

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 5,40 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da HE-ko muturrean.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua. 1. harrespilaren ukitzailea da IM-ko muturrean.
3.- Tumuludun harrespila, 4,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 33 lekuko agerikoz osatua.
4.- Tumuludun harrespila, 8 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.
5.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1., 2. eta 3.a 1943an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek; 4.a, 1970ean, J. Blotek, eta 5.a, 1988an, L. Millán eta J. J. Ochoak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)
Blot, J. (1972a)

157.- MEATZU

Kokalekua
Meatzu lepoan, Larrun eta Larruntxiki mendien artean, Berako udalerrian.

66. argazkia. Meatzuko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 610.200 Y. 4.795.800 Z. 665

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Hareharria eta kuartzita.

1.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Bloke eta lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua, horien artean 3 nabarmentzen direla, 0,85, 0,65 eta 0,55 m garaiak, hurrenez hurren.
2.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametrokoa eta 0,15 m garaia. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua. Erdian sakonune bat du eta zista izan daitekeen egitura bat ere bai.
3.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametroa I-H-an eta 5,50 m-koa E-M-an; 0,30 m garaia. Lauza formako 35 lekuko agerikoz osatua. Erdian 2 lauzaz osaturiko zista bat eta sakonune bat du.
4.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,20 m garaia. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,60 m garaiak.

Historia
1. harrespila 1982an aurkitu zuen L. Millánek; 2, eta 3.a 1987an topatu zituzten L. Millán eta J. J. Ochoak; eta 4.a 1990ean L. Millánek. Ez da indusketa lanik egin.

158.- MEHATZE

Kokalekua
Mehatze lepoan, 167. mugarriaren alboan, Banka eta Luzaide udalerrien artean.



20.irud. Mehatzeko harrespila. (J. Blot, 1983b).

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 635.000 Y. 4.771.700 Z. 1.120

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Kuartzoa, arbela eta hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 3,80 m-ko diametrokoa eta garaiera txikikoa. Bloke formako 25 lekuko ditu agerian.
2.- Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,40 m garaia. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz dago osatua.
3.- Tumuludun harrespila, 3,50 m-ko diametrokoa eta 0,30 m garaia. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
4.- Tumuludun harrespila, 4,20 m-ko diametrokoa eta garaiera txikikoa. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua.
5.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta garaiera txikikoa. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua.

Historia
2., 3. eta 4. harrespila 1971n aurkitu zituen J. Blotek; 1.a, 1974an, ikertzaile hark berak. 1. harrespila 1977an induskatu zuen J. Blotek, eta Mehatze V izena eman zion.

Egiturak eta Estratigrafia
1. harrespila (V, J. Bloten arabera).
Osorik induskatu zen.

- Peristalitoa.

Harrespil tumuludun honen egitura periferikoa ez da erabat zirkularra. 0,35 x 0,20 m inguruko lodiera duten hareharriz-

ko blokeez osatua da. Bi edo hiru ilaratan kokatuta daude harriok, 0,60 eta 0,80 m arteko zabalerako eraztuna osatzen dutela, eta ez daude flysch harkaitzaren gainean, baizik eta lur buztintsuko maila baten gainean, 0,10 m haren gainetik.

- Erdigunea.

I-M norabidean orientaturiko U formako zista bat dago, 1 m luzea eta 0,60 m zabala. Zista osatzen duten harriak elkarri lotuta daude, ilara bakarra osatuz, eta lurreko harkaitzetik gora dagoen maila buztintsu bat dute euskarri, peristalitoko lekukoek bezalaxe.

Hona hemen monumentu honek peristalitoaren eta erdiguneko zistaren arteko eremuan duen estratigrafia, goitik behera:

- Humus maila, 0,02 eta 0,03 m artekoa, marroi iluna.
- Lur buztintsuko maila homogeneo eta apur bat pikortsua, kolore beltzekoa, materia organikoan aberatsa, 0,13 eta 0,15 m bitarteko lodiera duena.
- Aurrekoaren antzeko maila bat, kasu honetan sustrairik gabea. Maila honen gainean daude bai egitura periferikoa eta bai zista.
- Flysch horixkaz osaturiko maila oso gogorra (oinarri lurra).

Zistaren eremuko estratigrafian zenbait berezitasun dira aipagarri:
Goiko bi mailak aurretik deskribatu diren horien antzekoak dira, baina hirugarren mailan egur ikatz eta lur gorrixka ugari dago, eta suak errea izanaren arrastoak ditu.
Ikatz kontzentrazio nabarmenena zistaren I-ko eremuan dago, eta 0,10 m-ko lodiera hartzen du gehienera. Kontzentrazio horren gainean 0,11 m luzeko eta 0,05 m zabaleko harri bat topatu zen, forma obalekoa eta kuartzozkoa; J. Bloten iritzian harri errituala bide zen.

Materialak

1. harrespila.
Askotarikoak:
- Egur ikatz aztarna ugari.

Kultura sekuentzia

1. harrespilaren C14 datazioa (Gif. 4470 zbkia.) 2730 ± 100 B.P. izan da, eta K.a. 1220tik 640rako tartea ematen du Tucsonen kalibrazioaren arabera.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)
Blot, J. (1978c)
Blot, J. (1979c)
Blot, J. (1983b)

159.- MINAKO LEPOA

Kokalekua
Urkulu menditik hegoaldera, Soroluxeko harrespilen eta Azpegiko txabolen artean, Orbaitzetako udalerrian.

67. argazkia. Minako Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 644.150 Y. 4.766.550 Z. 1.120

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Bertako kareharria.

1.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 23 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 23 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1976an aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)

160.- NEKAITZ

Kokalekua
Nekaitz lepoan, 99. mugarritik 7 m mendebaldera, Baztango udalerrian (Erratzu).

68. argazkia. Nekaitzeko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 629.900 Y. 4.780.050 Z. 850

Deskribapena
Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua. Lurrean etzanda ageri diren bi harri metro bete luze eta 0,90 m luze dira, hurrenez hurren. Hareharria eta kuartzoa.

Historia
1948an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949c)

161.- OIALEGIKO LEPOA

Kokalekua
Oialegi lepoan, Erdizko-Itxie izeneko lekuan, Astabizker (1.129 m) eta Luurzuko-Harria (1.213 m) gailurren artean, Baztango udalerrian.

69. argazkia. Oialegiko Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 622.100 Y. 4.768.800 Z. 1.053

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, gaur egun lurrean etzanda daudenak.
3.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua, horien artean 2 nabarmentzen direla, 0,70 eta 0,50 m garaiak, hurrenez hurren.
4.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da. 0,60 m garaia.

Historia
Leku hau bisitatu zuten 1975ean T. Lopez Sellés eta F. Ondarrak, baina ez zituzten megalitotzat hartu bertako aztarnak. 1989an, L. Millán eta J. J. Ochoak harrespil gisa definitu zituzten. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976a)
Ondarra, F. (1982)

162.- OLARIAGA

Kokalekua
Abartan (1.099 m) –iparraldean– eta Saioa (1.418 m) –hegoaldean– mendiguneen artean, Baztango udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 617.000 Y. 4.771.200 Z. 1.020

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 2,50 m-ko diametrokoa eta 0,10 m garaia M-IM-ko eremuan. 9 lekuko ditu agerian, horien artean 2 nabarmenak, 0,20 m garaia bietako bat. Bertako hareharria.

Historia
1983an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

163.- OLEGI EKIALDE

Kokalekua
Olegi mendiaren ekialdeko hegalean, Ezkurrako udalerrian.

70. argazkia. Olegi Ekialdeko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 595.450 Y. 4.772.450 Z. 1.000

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 10,50 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da, 1,05 m garaia. E-ko muturrean 2,50 m luzeko harri bat dago lurrean etzanda.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua, 1,60 m garaia horietako bat.

Historia
1928an aurkitu zituen J. M. Sansineneak eta Ezkain izena eman zien. 1936an indusketa lanak egin zituen J. M. de Barandiaranek han hurbileko Iruñarriko monolitoaren oinarrian eta "zenbait zirkulu zentrotan", J. M. Sansinenearen arabera (1950), baina ez zen argitaratu lan haien emaitzen erreferentziarik; dena dela, aurkitzailearen ustez "ez zen ezer aurkitu, nonbait".

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Peña Basurto, L. (1960)
Sansinenea, J. M. (1950)

164.- OLEGI MENDEBAL

Kokalekua
Olegi mendiaren ekialdeko hegalean, Ezkurrako udalerrian.

71. argazkia. Olegi Mendebaleko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 595.550 Y. 4.772.400 Z. 1.010

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua. E-ko muturrean harri bat dago etzanda, 1,30 m luzea.
2.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 3,80 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. M-ko lekukoetako batek 1,40 m-ko garaiera du, baina gaur egun bitan zatituta dago lur azaletik 0,70 m-ra.
5.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1928an aurkitu zituen J. M. Sansineneak, eta Ezkain izena eman zien. Multzo honetako zirkulu batzuetan indusketa lanak egin zituen J. M. de Barandiaranek, baina gaur egun ez dago lan haien emaitzen berri.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. (1949a)
Peña Basurto, L. (1960)
Sansinenea, J. M. (1950)

165.- OLEGIKO LEPOA

Kokalekua
Olegi lepotik igarotzen den pistatik ekialdera, Ezkurrako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 595.100 Y. 4.772.650 Z. 1.042

Deskribapena
Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-ko muturrean. I-an 0,75 m luzeko eta 0,20 m zabaleko harlauza bat dago lurrean etzanda. Hareharria.

Historia
1986an aurkitu zuten L. Millán eta A. Lizarraldek. Ez da indusketa lanik egin.

166.- OTARRA-BIZKARRA

Kokalekua
Urkiaga mendatetik Argintzura doan bidetik hurbil. Urritzburuko Munoatik (1.220 m) H-rako lehenengo gainean, Kintoko lurretan.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 622.800 Y. 4.766.950 Z. 1.198

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 23 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat 0,25 m garaia. Esparruaren barnean harriren bat edo beste ageri da.

2.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua; horien artean bat nabarmentzen da 0,25 m garaia. Harrespilaren barnean zulo bat dago 0,50 m-ko sakonera eta 3 m-ko diametroa daukana; Kintoa eta Erregerena bereizten dituen 86. mugarria finkatzeko egin bide zen zulo hori. Gaur egun etzanda dago harri hori, eta 86 zenbakia eta "Q" letra ditu grabatuta, baina F. Ondarraren ustez (1976) ez zen sekula gune horretan ezarri.
3.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren 17 lekuko agerikoz dago osatua. IE-ko eta H-ko alderdietan ez dago ia lekukorik.

72. argazkia. Otarra-Bizkarreko harrespil multzoa.

Historia
1974an aurkitu zituen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976a)

167.- OTSOARRISKO ZELAIA

Kokalekua
Urkulu mendiaren hegoaldera eta Minako Lepotik iparraldera, Orbaitzetako udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 644.050 Y. 4.766.850 Z. 1.200

Deskribapena
Harrespila. 7 m-ko diametroa I-H-an eta 8 m-koa E-M-an. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, metro bete garaiak, eta gainerakoek 0,20 eta 0,50 m arteko garaiera dute. Hareharria.

Historia
1989an aurkitu zuen F. Ondarrak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1989)

168.- PAGOLLETA I (PAGOLLETAKO ZELAIA)

Kokalekua
Pagolleta edo Baratz Motz izenaz ezagutzen den lepoan, Almendruitz eta Pagolletako Gainaren artean, Goizuetako udalerrian, Artikutzako barrutian.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.440 Y. 4.786.415 Z. 650

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako granitoa eta arbela.

1.- Harrespila. 5,80 m-ko diametroa I-H-an eta 5 m-koa E-M-an. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua, horien artean 6 nabarmentzen direla, 0,30 eta 0,10 m bitarteko garaierakoak.
2.- Harrespila. 5,90 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 0,30 eta 0,15 m arteko garaierakoak. Ez du lekukorik IE-ko eta HM-ko arkuetan.

Historia
1976an aurkitu zituen A. Leibarrek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Leibar, A. (1976)
Leibar, A. (1977)

169.- PAGOLLETAKO GAINA

Kokalekua
Pagolletako Gaña izeneko mailan, Goizueta (Artikutzako barrutia), Lesaka eta Aranaz arteko muga egiten du maila horrek, eta udalerri horien eskumenekoa da hortaz.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 600.735 Y. 4.786.110 Z. 685

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Bertako arbela, kuartzita eta granitoa; inguruko triasiko aldiko hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 5,50 m-ko diametrokoa eta 0,50 eta 0,30 m bitarteko garaierakoa, I-an eta M-an hurrenez hurren, lurrean duen kokaeraren arabera. Bai egituraren barruan bai perimetroan hainbat blokek osatua; horien artean nabarmentzekoak dira 0,76-0,10 m bitarteko garaiera duten 4 bloke. Lekukoetako batek mugarri betekizuna du eta grabatuak ditu gurutze bat IE aurpegian, 1 zenbakia HE-an eta Orreagako Kolegiatako makulua HM-an.
2.- Tumuludun harrespila, 5,40 m-ko diametrokoa eta 0,50 eta 0,30 m bitarteko garaierakoa. Egitura osoan zehar sakabanaturiko blokeek osatua.

3.- Tumuludun harrespila, 9 m-ko diametrokoa eta 0,40 m-ko garaierakoa erdialdean. Egituraren barruan zein perimetroan ageri diren hainbat blokek osatzen dute, eta horien artean nabarmentzekoak dira HM-IE aldean 10, 0,50 eta 0,10 m bitarteko garaiera dutenak.

Historia
1. harrespila J. Elóseguik aurkitu zuen 1956an; 2.a eta 3.a L. Millánek aurkitu zituen 1984an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)
Elósegui, J. (1962)

170.- PILOTASORO

Kokalekua
Sorogain ibarraren iparraldean, Astakarri muinoaren ekialdean, Erroko udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 629.250 Y. 4.766.200 Z. 1.000

Deskribapena
4,70 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaierako tumuludun harrespila. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua. Hareharriak.

Historia
P. Arrese, L. Millán eta F. Ondarrak aurkitu zuten 1983an. Ez da indusketa lanik egin.

171.- SAGARDEGI

Kokalekua
Saioa (1418 m) eta Zuriain (1408 m) mendiek osatzen duten lepoan, Arga eta Ultzama ibaien isurialdeen banalerroan, Anueko haranean, Anue udalerriaren barruan.

73. argazkia. Sagardegiko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 90 (25-6). Sumbilla. (1:50.000)
X. 617.750 Y. 4.766.600 Z. 1.250

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- 3 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua.
2.- 5 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 30 lekuko agerikoz osatua.
3.- 7,50 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.

Historia
L. Millánek aurkitu zituen 1982an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

172.- SOALAR

Kokalekua
Soalar gainetik (827 m) 200 m ipar-mendebaldera, Baztango udalerriaren barruan.

74. argazkia. Soalarko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 625.150 Y. 4.778.150 Z. 820

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria eta kuartzo zuria.

1.- Tumuludun harrespila, 5 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duena. Lauza formako eta bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila. 5,20 m-ko diametroa du I-H-an eta 4,80 m-koa E-M-an; 0,30 m garaia. Lauza formako 28 lekukok osatua; 0,40 m-ko garaierako bat nabarmentzen

da horien artean. Lekuko batzuk erradio eran jarrita daude. Barrualdean hainbat harri ikusten dira.
3.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duena. Lauza formako eta bloke formako 25 lekuko agerikoz osatua, 0,50 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen dela horien artean. HM alderdian ez da lekukorik ageri.

Historia
1. harrespila L. Millánek aurkitu zuen 1982an; 2.a eta 3.a F. Ondarrak, 1973an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1976a)

173.- SOLDADUHARRIAK (ATALOSTI)

Kokalekua
Lindus mendiaren (1.200 m) hegoaldeko lepoaren eta Atalosti lepoaren artean, "Soldaduharriaren" iparraldean dagoen lepo moduko batean, Kinto udalerriaren barruan.

75. argazkia. Soldaduharrietako harrespil multzoa (Atalosti).

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 633.450 Y. 4.764.800 Z. 1.120

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- 7 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 54 lekuko agerikoz osatua; horien artean 3 nabarmentzen dira, 0,90, 0,80 eta 0,80 m-ko garaierakoak, hurrenez hurren. IE-an egitura bat izan daitekeena dago, neurriz txikia eta zirkulu erdiaren forma duena.

2.- 7 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako eta 0,75 m-ko garaierako 35 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean hainbat harri daude erorita, egituraren bateko osagai izan zitezkeenak.

Historia
J. M. de Barandiaran eta T. Aranzadik aurkitu zituzten 1926an. Ez da indusketa lanen berririk, nahiz eta 1. harrespilak norbaitek mugitu izanaren arrastoak dituen.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949b)
Barandiaran, J. M. de (1953)

174.- SOROLUXE

Kokalekua
Urkulu mendiaren hegoaldean, Arnostegi lepoaren eta Azpegiko borden artean, Orbaitzetako udalerriaren barruan.

76. argazkia. Soroluxeko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 643.700 Y. 4.766.600 Z. 1.200

Deskribapena
8 harrespileko multzoa. Hareharria eta kareharria.

1.- 10 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da I-an.
2.- 9 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,50 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. 1. harrespilaren ukitzailea da H aldean.
3.- 8 m-ko diametroko harrespila. H-ko erdia besterik ez da gelditzen; erdi horretan lauza formako 3 lekuko agerikoz osatua da.
4.- 4 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua. Sorholuzeko harrespilaren ukitzailea da HE-an.
5.- 7,30 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. 6. harrespilaren ukitzailea da I-an.
6.- 6 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. 5. harrespilaren ukitzailea da I-an.
7.- 10 m-ko diametroa eta metro beteko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. 8. harrespilaren ukitzailea da H-an. 4,30 m-ko diametroko zulo bat du erdialdean.

8.- 9 m-ko diametroa eta 0,80 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua; horien artean 2 nabarmentzen dira, 1,30 eta 1,20 m garaiak, hurrenez hurren. 7. harrespilaren ukitzailea da I-an.

Historia
5., 7. eta 8. harrespilak J. Altunak aurkitu zituen 1973an; 1.a, 2.a, 3.a, 4.a eta 6.a, berriz, J. Blotek 1976an. Ez dago indusketa lanen berririk, hala ere, 7.aren barrualdean lanen arrastoak daude. (Azken hori J. Altunak katalogatu zuen harrespil gisa). Multzoaren erditik igarotzen den eta Arnostegiko lepora eramaten duen pistak suntsitu egin du 4. harrespilaren erdia. J. Blotek (1978) Sorholuze izenaz argitaratu zuen multzo hau.

Bibliografia
Altuna, J. (1974)
Blot, J. (1978b)

175.- TELLETXEKO BIZKARRA

Kokalekua
Zugarramurdiko mendietatik hurbil dagoen Atxuri mendiaren (756 m) E-HE saihetsaldean zelaigune batean, Baztan udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 616.950 Y. 4.789.850 Z. 520

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Bertako hareharria.

1.- Harrespila. 3,70 m-ko diametroa I-H alderdian eta 4,20 m-koa E-M alderdian. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua.
2.- 4,50 m-ko diametroko eta 0,20 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua; M-ko erdialdean ez dago lekukorik.

Historia
L. Millán eta F. Ondarrak aurkitu zuten 1984an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1985-86)

176.- UNALBIDE

Kokalekua
Altueta mendiaren iparraldean, Goizuetako udalerriaren barruan (Artikutzako barrutian).

Koordenatuak
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 595.705 Y. 4.784.680 Z. 565

Deskribapena
Harrespila. 4 m-ko diametroa I-H-an eta 4,60-koa E-M-an. Lauza eta bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua; 0,20 eta 0,10 garaiera bitarteko 5 lekuko nabarmentzen dira horien artean. Bertako arbela eta kuartzita.

Historia
J. Argómanizek aurkitu zuen 1986an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

177.- UNALBIDEKO GAINA

Kokalekua
Altueta mendiaren I-an, Goizuetako udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 595.700 Y. 4.784.550 Z. 565

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Arbela.

1.- 5 m-ko diametroko tumuludun harrespila. Bloke eta lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua, horien artean bat nabarmentzen dela, 0,35 m garaia.
2.- 5 m-ko diametroko harrespila. Bloke eta lauza formako 24 lekuko agerikoz osatua; 0,20 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da horien artean.
3.- 3 m-ko diametroko harrespila. Bloke eta lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua; 0,70 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da horien artean.
4.- 3 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 22 lekuko agerikoz osatua.

Historia
L. Millán eta J. J. Ochoak aurkitu zituzten 1992an. Ez da indusketa lanik egin.

178.- URDOLA

Kokalekua
Urdola bizkarraren hegoaldean, Aizan mailaren (1.055 m) iparraldeko mazelan, Leitzako udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 89 (24-6). Tolosa. (1:50.000)
X. 590.650 Y. 4.774.050 Z. 737

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Bertako ofita eta inguruetako hareharria, triasikokoa.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 28 lekuko agerikoz osatua, horien artean 0,77 eta 0,10 m bitarteko garaiera duten 14 nabarmentzen direla.

2.- Harrespila. 4,25 m-ko diametroa. Lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua; 0,30 eta 0,10 m bitarteko garaiera duten 6 lekuko nabarmentzen dira horien artean.
3.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 28 lekuko agerikoz osatua; 0,30 eta 0,10 m bitarteko garaiera duten 11 nabarmentzen dira horien artean.
4.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 11 lekuko ditu agerian, lur azaletik apenas goititzen direnak. H-an ez du lekukorik. Antzinako baso-bide batek zeharkatzen du E-M-tik.

77. argazkia. Urdolako harrespil multzoa.

Historia
E. García, J. A. García eta F. Ubiernak aurkitu zituzten 1981ean. Ez da indusketa lanik egin; hala ere, urte horretan bertan mendizale batzuek lekuz aldatu zituzten hainbat lekuko, multzo osoa nabarmentzeko asmoz. 1991n oso hondatuta gelditu ziren, ia erabat, bertan egin ziren luberritze lanen ondorioz.

Bibliografia
Barrio, L. del (1985/86)
Millán, L. (1982)

179.- URLEGIKO BIZKARRA

Kokalekua
Urlegi mendiaren (717 m) iparraldeko mazelako ordeka batean, Baztan udalerriaren barruan (Maia-Arizkun).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 624.750 Y. 4.787.850 Z. 675

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 4,40 m-ko diametroa I-H-an eta 4,90 m-koa E-M-an. Bloke eta lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua. Barnealdean beste egitura paralelo bat du, obala. Egitura paralelo horrek 2,35 m-ko diametroa du I-H-an eta 3,55 m-koa E-M-an, eta 11 lekuko agerikoz osatua da.

78. argazkia. Urlegiko Bizkarreko harrespil multzoa.

2.- 5,90 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako hainbat harri eta lurra ditu nahasturik. Erdialdean 4 m-ko diametroko zuloa du; gaur egun erabat nahasturik dago eta ehizaleku bat du gainean.

Historia
1. harrespila L. Millán eta J. J. Ochoak aurkitu zuten 1988an; 2.a F. Ondarrak aurkitu zuen, eta tumulutzat hartu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

180.- URLEGIKO LEPOA

Kokalekua
Otxondotik Gorramendira doan errepidearen ezkerraldean, errepide horretako 3. kilometroaren inguruan dagoen ataka igaro eta 300 bat metrora, Urlegiko lepoan, Baztan udalerriaren barruan.

79. argazkia. Urlegiko Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 624.900 Y. 4.787.950 Z. 655

Deskribapena
7 harrespileko multzoa. Hareharria eta kuartzoa.

1.- 10,40 m-ko diametroa eta metro beteko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 32 lekuko agerikoz osatua. M eta H-ko muturretan bi harri handi daude lurrean etzanda, 1,45 eta 1,50 metrokoak, hurrenez hurren.
2.- 2,40 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua.
3.- 2,40 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua.
4.- 4,20 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua.
5.- 4 m-ko diametroa eta 0,30 eta 040 m bitarteko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 27 lekuko agerikoz osatua.
6.- 4,80 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua.
7.- 4 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. Monumentu honen gainetik bidezidor bat igarotzen da eta kalte arinak eragin dizkio.

Historia
1., 4. eta 5. harrespilak T. Lopez Sellések aurkitu zituen 1957an; 2.a, 3.a eta 6.a L. Millán, F. Ondarra eta A. Lizarraldek 1984an eta 7.a L. Millán eta J. J. Ochoak 1988an. 1. harrespila hondaturik dago, azaletik bada ere, gertu baitu errepidea eta alderdi batean kalte eragin baitio. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Lopez Sellés, T. (1973)
Ondarra, F. (1975a)

181.- URRIZTI

Kokalekua
Urriztiko Gaina mailaren iparraldeko lehenengo lepo txikian, Artikutzako barrutiko hesiaren alboan, Goizueta udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 596.775 Y. 4.782.130 Z. 603

Deskribapena
4 m-ko diametroa eta erdialdean 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke txiki ugariz –batzuk lurrean sartuak– eta lurrez osatua. Bertako eskistoa eta kuartzita.

Historia
J. Tellabidek aurkitu zuen 1985ean. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barrio, L. del (1989)

182.- UZTANBORRO

Kokalekua
Loilurzuko Munoa (1.202 m) mendiaren eta Otarra Bizkarraren (1.198 m) artean, Baztango eta Kintoko udalerrietan.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 622.650 Y. 4.767.950 Z. 1.168

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharriak.

1.- 4,60 m-ko diametroa eta H-HE muturrean 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua. Suntsiturik dago ia erabat.
2.- 6,40 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 2,80 m-ko diametroa. Bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua; 0,20 eta 0,10 m bitarteko garaiera duten 3 nabarmentzen dira horien artean.

Historia
1. harrespila L. Millán, F. Ondarra eta V. Perezek aurkitu zuen 1982an; 2.a eta 3.a F. Ondarrak 1983an. Azken harrespil horri Uztanborro II izena eman zion aurkitzaileak. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1988)

183.- XANTXOTEN HARRIA

Kokalekua
Malda txiki batean, Sorogaingo haranaren erdian, haranaren hondoan ia, Erroibarko haranaren barruan.

80. argazkia. Xantxoten Harriko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 629.350 Y. 4.765.550 Z. 935

Deskribapena
Harrespila. 7,30 m-ko diametroa I-H-an eta 8,30 m-koa E-M-an. Lauza formako 50 lekuko ditu agerian, 0,30 eta 0,80 m bitarteko garaierakoak. Hareharria.

Historia
T. Lopez Sellések aurkitu zuen 1955ean. P. Arresek egin ditu indusketa lanak. Lan horien emaitzak ez dira argitaratu.

Bibliografia
Lopez Sellés, T. (1973)

184.- ZAGUA

Kokalekua
Alba mendiaren HE-an, 128. mugarritik 10 m mendebaldera, Baztango Haranean.

Koordenatuak
Orria: 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 624.350 Y. 4.771.900 Z. 1.005

Deskribapena
7 m-ko diametroa eta 0,10 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
J. Blotek harrespil honi buruzko aipamena egin zuen 1980an, handik hurbil dagoen Zahoko monolitoaz ari zela. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1980)

185.- ZOTALETA ERDI

Kokalekua
Mairuilarrieta mendiaren iparraldean eta Gorospil monolitoaren hegoaldean, Baztango haranean (Arizkun).

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 626.000 Y. 4.791.750 Z. 725

Deskribapena
1,20 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,30 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Erdialdean sakonune txiki bat du. Kuartzoa.

Historia
L. Millánek aurkitu zuen 1984an. Ez da indusketa lanik egin.

186.- ZOTALETA IPAR

Kokalekua
Zotaletako-Kaskoa gailurraren iparraldeko muturrean, Baztango udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 626.000 Y. 4.791.850 Z. 725

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kuartzoa eta arbela.

1.- 4,40 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua. Horien artean E-IE aldeko lekukoa nabarmentzen da, 1,60 m luzea eta 0,85 m zabala.
2.- 8,50 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua. Horien artean H-an eta E-an dauden bi lekuko nabarmentzen dira, 1,35 eta 1,70 m-ko luzera eta 0,40 eta 0,65 m-ko zabalera dutenak, hurrenez hurren.
3.- 6 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua, horien artean 0,50 m-ko garaiera duten 2 nabarmentzen direla.

Historia
J. M. de Barandiaranek aurkitu zituen 1949an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949c)

187.- ZOTALETAKO-KASKOA HEGO

Kokalekua
Urlegitik Gorospilera doan bidetik hurbil dagoen mazelako ordoki batean, Baztango udalerriaren barruan.

81. argazkia. Zotaletako-Kaskoa Hegoko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 626.000 Y. 4.791.550 Z. 725

Deskribapena
5 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 25 lekuko ditu agerian, lur azaletik apenas goititzen direnak. Hareharria, kuartzo zuria eta arbela.

Historia
F. Ondarrak aurkitu zuen 1973an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Ondarra, F. (1975a)

LAPURDI

188.- AIRAGARRI

Kokalekua
Airagarri mendiaren ekialdeko mazelan, Sara udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 612.440 Y. 4.796.980 Z. 550

Deskribapena
Harrespila. 3,30 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen 1941ean. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

189.- ALTXANGA

Kokalekua
San Ignazioko muinotik Larrun mendira igotzen den bidetik hurbil dagoen ordoki txiki batean, burdinbidera iritsi baino 150 m lehenago, Sara udalerrian.

Koordenatuak:
Orria: 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 613.000 Y. 4.797.100 Z. 485

Deskribapena
Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. Monumentuaren barruan 2 lauza daude etzanda. Hareharria.

Historia
J. Blot, L. Millán eta X. Peñalverrek aurkitu zuten 1983an. Ez da indusketa lanik egin.

190.- ARLUXETA

Kokalekua
Arluxetako gailurrean, Artzamendi mendiaren ekialdeko mazelan, Itxasu udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria: 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 629.950 Y. 4.793.800 Z. 860

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharriak.

1.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 2,30 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.

1. eta 2. harrespilen artean 4 harlauza daude lurrean sartuta, planta angeluzuzena osatzen dutela.

Historia
1. harrespila J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen 1938an; 2.a eta 3.a ikertzaile horrek berak aurkitu zituen 1943an. Ez da indusketa lanik egin. Ezin zehatz daiteke gaur egun duen kokalekua.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

191.- ATEKALEUN

Kokalekua
Larrun mendiaren gailurraren hego-ekialdean, Atekaleona lepotik Lizuniaga aldera doan bidean, Sarako udalerriaren barruan.

82. argazkia. Atekaleuneko harrespila.

Koordenatuak:
Orria: 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 611.880 Y. 4.795.700 Z. 660

Deskribapena
Harrespila. 9,50 m-ko diametroa. Lauza formako 75 lekuko ditu agerian, eta horien artean 1, 1, 0,80 eta 0,80 m-ko garaiera duten 4 nabarmentzen dira. Horrez gainera, peristalitoan 4 harri daude etzanda, 1,30, 1,20, 1,10 eta 1 m luzeak, hurrenez hurren. Monumentuaren I-an bi lur bloke handi daude, zirkulua ixten dutenak alderdi horretan. Hareharria.

Historia
I. Gazteluk aurkitu zuen 1988an. Ez da indusketa lanik egin.

192.- ATHARRI

Kokalekua
Legarreko lepoan, Ezkondraiko eta Atharriko gailurren artean, Itsasuko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 628.660 Y. 4.797.680 Z. 349

Deskribapena
2 harrespileko saila. Bertako kuartzita.

1.- Bi zirkulu zentrokidez osatutako harrespil tumuluduna. Zirkulu handienak 5 m-ko diametroa du eta txikienak, berriz, 1,50 m-koa. Lauza eta bloke formako 5 lekuko ageriko ditu lehenak eta 6 lekuko bigarrenak, eta zirkulu handienaren lekukoak dira handienak. Tumulua ez da garaiera handikoa eta erdialdean sakonune bat du. Harrespilaren hegoaldearen zati bat suntsiturik dago, bertatik artzain bide bat igarotzen baita.
2.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. 9 lekuko agerikoz osatua; horietako batzuk oso handiak dira eta, itxuraz, bertatik hartuak. Ingurutik igarotzen den pistak suntsitu egin du monumentu hau.

83. argazkia. Atharriko harrespil multzoa.



21.irud. Atharriko harrespilak. (J. Blot, 1972a).

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blot-ek. Ez da indusketa lanik egin. 1. harrespilari Legarre izena eman zion aurkitzaileak.

Bibliografia
Blot, J. (1972a)

193.- BEHEITAKO-ERREKA

Kokalekua
Beheitako-Erreka izeneko lekuan, H-HE-an Luhuso ikusten den muino lerroaren barruan, Baigura mendiaren saihetsaldeetan, Luhuso udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 634.840 Y. 4.796.580 Z. 277



22.irud. Beheitako-Errekako harrespila. (J. Blot, 1979e).

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametroa du eta garaiera ezin zehatz daiteke, izan ere, oso hondaturik aurkitu baitzen. Peristalitoaren kanpoaldea osatzen zuten harriak bere lekutik kanpora aurkitu ziren. Hareharria, pudinga, kuartzoa eta eskistoa.

Historia
1978an aurkitu zuen F. Gaudeulek. Nekazaritzaren eraginez erabat hondaturik zegoenez gero, larrialdiko indusketa bat egin zen 1978an, J. Bloten zuzendaritzapean.

Egiturak eta Estratigrafia
J. Blotek emandako datuen arabera:
Monumentua hondaturik zegoenez gero, induskatu ziren IM-ean zegoen peristalitoaren alde bat, 4 m luzea, eta HE-ko zati bat, 5 m luzea. Bi horien artean, 7 m luzeko lubaki bat egin zen, monumentuaren diametroari zegokion luzerakoa alegia, tumuludun harrespilaren erdialdean.

- Peristalitoa.

Nekazaritza lanen ondorioz lekuz aldatu ziren 0,30 eta 0,40 m bitarteko blokeak izango ziren peristalitoaren atal. Azaleko geruza, indusketa lanak egin ziren unean oso egoera onean zegoena, gaur egungo lurraren mailatik 0,30 m behera zegoen, eta golde mailatik 0,10 m behera.
Gaur egun arte egoera onean iraun duen peristalito hau 0,15 eta 0,20 m bitarteko harriek osatzen dute, harresi moduko bat eratuz. Harresi horretan lehen aipatutako neurri handieneko harriak falta dira, beste leku batera eraman baitziren.
Harresi horrek 0,25 m-ko garaiera zuen, eta harriak elkarren gainka zeuden jarrita.
Indusketaren zuzendariaren ustez, peristalito honen garaiera 0,60 eta 0,80 m bitartekoa zen, jatorrizko lur maila abiapuntutzat hartuta eta harresi moduko horri erantsita garai batean gainean edo gailurrean bide zituen harri bloke gaur egun lekuz aldatuak.

- Erdigunea.

Peristalitoaren kanpoaldetik 1,80 m-ra, IM-HE ardatzean eta IM-tik abiatuta, harrizko hiru bloke aurkitu ziren eta 0,35 m HE-rago antzeko errenkada bat.
Monumentuaren erdialdean, peristalitoaren kanpoaldetik 3,45 m-ra, ezponda txiki bat aurkitu zen, 0,25 m inguru zabal eta 0,90 m luze. Ezpondaren erdialdetik 0,04 m HE-ra eta lurraren jatorrizko mailan hareharrizko bloke txiki bat zegoen, eta beste bat, txikiagoa, IM-HE ardatzarekiko simetrikoa zena.

Erdialdean lortutako estratigrafia ondoko hau da:

- Monumentuaren oinarri den zorua, eta baita periferiako lurra ere, buztintsua da, marroi argia, eta lur azalaren gaur egungo mailatik 0,45 m beherago.
- Zoru horren gainetik, 0,10 edo 0,15 m-ra eskisto plaketen hondakinez osatutako maila bat aurkitu zen, eta plaketa horiek aurretik deskribatu diren harrespilaren barrualdeko harrien oinarria ziren. Maila hau trinkoagoa da IM-an HE-an baino.
- Aurreko mailaren gainetik barruko ezpondaren plaketak daude, jatorrizko lur mailarekiko 0,15 eta 0,20 m bitarteko sakoneran. Maila horien eta oinarri lurraren artean, erdialdean alegia, egur ikatz zatiak aurkitu ziren, nahiz eta erdiko ezpondaren geruza finen azpian zegoen ikatz gehien, plaketen azpitik 0,10 m-ra.
- Oinarri lurraren eta plaketa mailaren artean, bestalde, monumentuaren erdialdetik metro bat HE-ra, harrixka pila bat zegoen, J. Bloten ustez harrespila eraiki zen unean jatorrizko lurretik hartu zen palakada batetik aterea.
- Aipatutako beheko mailaren azpitik indusketak egin ziren gaur egungo lur mailatik metro bateko sakonera iritsi arte, baina ez zen aztarnarik aurkitu.

Materialak
Industria litikoa:

- Uharria, ertzetan kolpeen arrastoak dituena. J. Blotek perkutore gisa sailkatu zuen (1979).

Kultura sekuentzia
Monumentu mota hau, J. Blotek indusketa memoriaren argitalpenean dioen bezala (1979), Burdin Aroari dagokio.

Bibliografia
Blot, J. (1979e)
Blot, J. (1985b)

194.- BIXUSTIA

Kokalekua
San Ignazioko lepoaren iparraldean, Askain eta Sara artean, Suhamendi mendiaren iparraldean, Senpereko udalerriaren barruan.

Koordenatuak:
Orria 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 614.500 Y. 4.799.520 Z. 236

Deskribapena
12 m-ko diametroko eta 0,50 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua (indusketa lanekin hasi aurretik); lekuko horien artean 0,30 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da.
E eta M-an ez du lekuko agerikorik. Behin indusketa lanak amaitu zirenean, bloke eta lauza formako 58 lekuko aurkitu ziren. Hareharria.



23.irud. Bixustiako harrespila. (J. Blot, 1976b).

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1971n, eta ikertzaile horrek berak egin zituen indusketa lanak 1975ean. Souhamendi II ere esaten zaio.

Egiturak eta estratigrafia
J. Blotek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Lekuko guztiak buztin geruza baten gainean daude bermaturik, paleolurrera iritsi gabe betiere. 50 lekuko baino gehiago dira eta oso ondo ixten dute zirkulu formako eremua, nahiz eta aldeak dauden harrien antolamenduari dagokionez. I-eko erdialdean, lekukoetako batzuk gizakiak jarriak dira, erregulartasun handiz, forma angeluzuzen luzeak, 0,40 eta 1-m bitarteko luzerakoak, lortzeko helburuarekin. Horrez gainera, peristalitoaren alderdi horretan lekukoen dentsitate maila handia da; antolamendua erregularra dute eta nahiko bertikal daude jarrita edo eremuaren barrualderantz makurturik bestela. Dena dela, H-an lekukoak txikiagoak dira, tarte handiagoa dago lekuko batetik bestera eta edo erabat etzanda edo kanpoalderantz makurtuta daude.
Bestalde, peristalitoaren HE-ko aldea etena dago, zirkulu eran dauden harri txikiz osatutako pila batekin, eta horien artean egur ikatz ugari aurkitu da; errausketa baten aztarna itxuraz.

- Kanpoaldea.

I-tik harrespilaren erdialdera doan lubakian lortutako estratigrafia honako hau da erdialdean, behetik gora:
1.- Humus maila, 0,02 eta 0,03 m bitarteko lodierakoa.
2.- Lur begetal marroi argiko maila. 0,30 m-ko lodiera du, itxura homogeneoa eta ez du egur ikatzik.
3.- 0,10 m-ko lodiera duen maila, goialdeko maila ezkutaturik dagoen lohian barrura sartzearen ondorioz sortua. Ikatz zatiki batzuk ditu.
4.- Buztin horizko maila, 0,35 m-tik ekarria, hare, kare zati eta harri koxkor ugariz osatua. Alderdi marroiak ikusten dira, sustrai eta ikatz partikulak izan daitezkeenak mailan barrura sartzearen ondoriozkoak. Maila honetan aurkitu ziren zeramika aztarnak.
5.- Jatorrizko lurraren maila. Goiko aldean hori eta gorri koloreko orbanak ikusten dira, suak edo gorabehera naturalek eraginak. Gainaldean egur ikatz zati ugari dago.

Materialak
Industria litikoa:

- Erabilpen ukiera duen suharrizko ijelkia.
- Ijelki baten mutul proximala.
- Printza lodia, beharbada marruska gisa erabilia.

Zeramika:

- Oin hutseko arrautza formako urna baten zatiak, apaindurarik gabea.
- Hondoa ia erabat laua duen platera, hormak lerro zuzenak eta ertza biribildua duena.
- Ontzi txikien zati asko.

Askotarikoak:
- Ikatz zatiak.

Kultura sekuentzia.
Burdin Aroa. C14 datazioa (Gif zbkia. 3.743) 2.600 ± 100 B.P izan da. Coffyn irakaslearen iritziz zeramika hondarren tipologiak K.a. 620 eta 600. urteen bitarteko erreferentzia kronologikoa emango luke.

Bibliografia
Blot, J. (1976a)
Blot, J. (1976b)
Blot, J. (1979c)

195.- EZURRETA

Kokalekua
Mondarrain mendiaren hegoaldean, Itsasuko eta Ezpeletako udalerrien lurretan.

Koordenatuak:
Orria 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 627.300 Y. 4.795.450 Z. 660

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Kuartzoa eta hareharria.

1.- Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,30 m-ko garaierakoa. Lauza formako 32 lekuko agerikoz osatua.
2.- Tumuludun harrespila, 4 m-ko diametrokoa eta 0,30 m-ko garaierakoa. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 6,40 m-ko diametrokoa. Lur azaletik apenas goititzen diren lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua.
5.- Tumuludun harrespila, 3 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duena. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua.
6.- Tumuludun harrespila, 5,40 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duena. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua.

84. argazkia. Ezurretako harrespil multzoa.

Historia
1. harrespila J. M de Barandiaranek aurkitu zuen 1941ean, 2.a, 3.a, 4.a, 5.a eta 6.a, berriz, L. Millán-ek 1984an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

196.- GOROSTIARRIA

Kokalekua
Gorostiarria mendiaren iparraldean, Askaingo udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 611.640 Y. 4.797.140 Z. 565

Deskribapena
9 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa I-H-an eta 6 m-koa E-M-an. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua.

85. argazkia. Gorostiarriko harrespil multzoa.

2.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. 3. harrespilaren ukitzailea da H-ko muturrean.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,50 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. 2. harrespilaren ukitzailea da I-ko muturrean.
4.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 13 lekuko agerikoz osatua. 6. harrespilaren ukitzailea da E-an.
6.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua; horien artean metro bateko garaiera duen bat nabarmentzen da. 5. harrespilaren ukitzailea da M-an.
7.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,80 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da.
8.- Harrespila. 7,50 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua.
9.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., eta 8. harrespilak P. Dopek aurkitu zituen 1940an.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Blot, J. (1980)

197.- IGUZKI I - II (IGUZKI MENDEBAL)

Kokalekua
1. harrespila Eguzki mendiaren IM-an dago, Itsasuko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 627.660 Y. 4.792.420 Z. 540

2. harrespila Iguzki mendiaren IM-an dago, ordeka batean, Itsasuko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 627.800 Y. 4.792.400 Z. 600

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Harrespil batetik bestera 100 m-ko tartea dago. Hareharria.

1.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik M-an. Lurrean sartuta dauden 4 lauza goititzen dira multzoaren erdialdean, zista bat osatzen dutela. Zista horren ardatz nagusiak E-HE norabidea du, 0,80 m-ko luzera eta 0,25 metroko zabalera.
2.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua. 0,80 m eta 0,01 m bitarteko garaiera dute lur azalaren gainetik. HE-an 2 harri daude bere lekutik pixka bat mugituta.

Historia
1970ean aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972a)

198.- IUSKADI (IGUZKI IPAR)

Kokalekua
Matzeko Lepoaren HM-an, Artzamendi eta Iguzki mendien artean, Itsasuko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 628.500 Y. 4.792.500 Z. 720

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 25 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 4,40 m-ko diametroa. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua.

Historia
J. M. de Barandiaranek aurkitu zituen 1943an, eta Iuskadi izena eman zien. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

199.- LA PLANA

Kokalekua
La Plana tumuluetatik hurbil, Azkaineko harrobien mendebaldean, Azkaineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 611.600 Y. 4.799.000 Z. 160

Deskribapena
Tumuludun harrespila, 7 m-ko diametrokoa eta 0,50 m-ko garaierakoa. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean 3,50 x 3 m-ko sakonunea du. Hareharria.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1971n eta La Plana III izena eman zion. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1973a)

200.- MANDALE

Kokalekua
Mandale mendiaren iparraldeko isurialdeko goi-ordoki batean, mugako 11. mugarritik hurbil, Urruñako udalerriaren lurretan.

86. argazkia. Mandaleko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 65 (25-5). Vera de Bidasoa. (1:50.000)
X. 605.300 Y. 4.796.150 Z. 500

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Kuartzita eta hareharria.

1.- Harrespila. 6,20 m-ko diametroa. Bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,70 m-ko garaiera duten 2 nabarmentzen dira.

2.- Harrespila. 4,60 m-ko diametrokoa I-H-an eta 4,20 m-koa E-M-an. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua da.
3.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Bloke formako 21 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,60 m-ko garaiera duten 2 nabarmentzen dira.
4.- Harrespila. 6,80 m-ko diametroa I-H-an eta 7,40 m-koa E-M-an. Bloke eta lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,60 m-ko garaiera duten 2 lekuko nabarmentzen dira.
5.- Harrespila. 8,50 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,60 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Lekukoak I-ko arkuan daude bakarrik.

Historia
1952. urtean aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)
Barandiaran, J. M. de (1962a)

201.- MEATZEKO LEPOA

Kokalekua
Meatzeko lepoan, hegoaldean Iguzkimendi (844 m) gailurra eta iparraldean Artzamendi (926 m) gailurra dituela, Itsasuko eta Baztango udalerrien lurretan.

87. argazkia. Meatzeko Lepoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 628.650 Y. 4.792.700 Z. 720

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- 6 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako hainbat lekuko ageriko ditu (Cl. Chauchatek E izena eman zion).
2.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Lauza formako hainbat lekuko agerikoz osatua. (Cl. Chauchatek A izena eman zion).
3.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Ez da ia lekukorik gorde. (Cl. Chauchatek B izena eman zion).



24.irud. Meatzeko Lepoko harrespilak. (Cl. Chauchat, 1977).

4.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza formako hainbat lekuko agerikoz osatua. (Cl. Chauchatek F izena eman zion).



25.irud. Meatzeko Lepoko 1. harrespila. (Cl. Chauchat, 1977).



26.irud. Meatzeko Lepoko 2. eta 3. harrespilak. (Cl. Chauchat, 1977).

5.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Peristalitoaren I-ko 6 lekuko besterik ez dira gorde. (Cl. Chauchatek G izena eman zion).

Historia
1943an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Indusketa lanak J. Blotek, 1970ean, eta Cl. Chauchatek, 1973an, egin zituzten.

Egiturak eta estratigrafia
1. harrespila (Cl. Chauchatek E izena eman ziona).
1973an eta 1979an egin ziren indusketa lanak. Cl. Chauchatek (1977) eta J. Blotek (1979) argitaratu zituzten zenbait datu biltzen ditugu hemen:



27.irud. Meatzeko Lepoko 4. eta 5. harrespilak. (Cl. Chauchat, 1977).

- Periferia.

Lauza pila batek osatua zen; itxuraz ordenarik gabe jarriak zeuden, batzuetan elkarren gainka eta beste batzuetan pilatuak, eta metro bateko zabalera eta 0,70 m inguruko garaiera zuen harresi biribil bat eratzen zuten. Kanpoaldean, harlauza handi batzuk zeuden lurrean etzanda, gaur egun monumentuaren I-IE koadrantean zutik daudenen antzekoak. Peristalitoaren eta erdiguneko zistaren bitarteko eremua lauza erregularrek estaltzen zuten erabat.

- Erdialdea.

0,04 eta 0,08 lodiera bitarteko 5 lauzek osatzen zuten zista. Batzuk besteen gainean bermatzen ziren eta barrualdera makurturik zeuden. Egitura horrek gehienera 0,65 m-ko luzera zuen E-M norabidean eta 0,55 m-koa I-H norabidean, 0,60 m-ko sakonerarekin. Estalkia pentagono formako lauza batek osatzen zuen, I-H-an 0,90 m zituena eta E-M-an, berriz, 0,90 m. Gehieneko lodiera 0,13 m-koa zen.

Zistaren barrualdeko estratigrafiak honako ezaugarri hauek zituen:

- Lur marroiz osatutako maila, azalean eraldatua eta 0,10 m-ko lodierakoa.
- Lur argiagoko maila, buztintsua, morexka, ikatz zati txikiekin.
- Gris-more koloreko lur buztintsuz osatutako maila, 0,10 eta 0,15 m bitarteko lodierakoa.
- Aurrekoaren antzeko maila, ikatz txikiekin.
- Gris-more koloreko maila, ikatzik gabea; hainbat neurritako harri koskorrak ditu, ordenarik gabe jarriak.

2. harrespila (Cl. Chauchat-ek A izena eman ziona).

1970ean J. Blotek harrespilaren zati bat induskatu zuen (salbatzeko); Cl. Chauchat-ek 1971n beste zati batean egin zituen lanak eta 1973an gainerakoa amaitu zuen.
Cl. Chauchaten datuen arabera:

- Peristalitoa.

Kanpoaldeko diametroa 5.50 m-koa du eta barrualdekoa 4,50 m-koa. M-an peristalitoa ez da gainerakoan bezain garbi ikusten. I-an era nahiko erregularrean txandakatzen dira lauza pilatuak eta muturretik lurrean sartuak direnak; azken horiek erradio forman jarrita daude. Etzanda eta pilatuta dauden lauzek lauza bertikalei eusten diete. Hala ere, peristalitoaren antolamendua ez da oso garbia HM-ko erdian, nahiz eta zirkulua ez den eteten.
Peristalitoaren kanpoaldean, baina peristalitoa ukitzen zutela ia, ikatz arrastoak aurkitu ziren 0,15 m-ko sakoneran, bai IM-an bai IE-an.

- Erdialdean.

Oinarrian zista batek osatzen du, lauki antzeko forma duena eta IM-HE norabidekoa. Barrualdeko neurriak 1,10 m x 1 m dira eta IM-eko muturrean lau angeluko epaia duen harri handi batek mugatzen du. Gainerako hiru aldeak 0,04 eta 0,08 m bitarteko lodierako lauzek ixten dituzte. Estalkia gutxi gorabehera lau angeluko harlauza handi bat da, gehienera 0,20 m-ko lodiera duena.
Monumentu hau induskatu zeneko memoriaren argitalpenean ez da estratigrafiaren aipamenik egiten.

3. harrespila (Cl. Chauchatek B izena eman ziona).

1973an Cl. Chauchatek egin zituen indusketa lanak. Ikertzaile horrek berak 1977an emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Monumentuaren atal hori lurpean dago ia erabat eta indusketa lanak egin zirenean, 2. egituraren (dagoeneko deskribatua) guztiz mendekoa zela ikusi zen. 4,50 m-ko diametroa du gutxi gorabehera. Ez zuen batere lekukorik zutik eta elkarren gainka jarrita zeuden lauzez eratua zen harresi moduko batek osatzen zuen.

- Erdialdea.

Lau angeluko zista batek osatzen zuen. Zista horren alde handienak, elkarren paraleloak, M.IM-E.HE norabidea zuen. Egitura estaltzen zuen harlauzak 1,40 m-ko luzera eta 0,90 m-ko zabalera zuen, eta gehienera 0,20 m-ko lodiera eta gutxienera 0,02 eta 0,03 m bitartekoa. Zistako lauza bertikalei egonkortasuna emateko harri txiki batzuk erabili ziren altxagarri modura.

Indusketa lanei esker estratigrafia hau lortu da:

- Goiko maila, estalki harlauzaren azpikoa, ikertzailearen ustez monumentua eraiki ondoren eraman zutena kanpotik.
- Lurra eta ikatz puskak nahasirik zituen maila, goiko aldean estalkiko altxagarrietatik hartutako bi harri zituena. Maila honen datazioa C14 bidez egin da.
– Lur maila buztintsuagoa, gris more koloreko aldeak dituena, sedimentuaren gainerako puska baino argiagoa. Itxuraz aldatu egin da goiko mailatik etorritako osagai finen ondorioz; osagai horiek ehorzketaren errautsak bide ziren.
- Lur gorrixkako maila, bertako harkaitza desegitearen ondorioz sortua.

4. harrespila (Cl. Chauchatek F izena eman zion).

1971n aztertu zuen Cl. Chauchatek eta 1973an induskatu zuen erabat. Cl. Chauchatek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Kanpoaldeko zirkulua, indusketa lanekin hasi aurretik lurpean zegoena erabat, eta 4 m-ko diametroa zuena, hareharrizko lauzek osatzen zuten. Lauza horiek elkarren gainka jarrita batez beste 0,50 m-ko zabalera zuen hesi moduko bat eratzen zuten. Peristalitoa ez zen erabat ixten HM-ko koadrantean eta G egiturarekin nahasten zen. Gune horretan bi harri zeuden, lurrean sarturik eta alderik alde erradio moduan jarrita; hesia baino pixka bat txikiagoak ziren eta bi egiturak lotzen zituzten.

- Erdialdea.

Monumentuaren zati hau hartzen zuen egitura 1,20 m-ko diametroko harri zirkulu batek osatzen zuen eta harri horiek zeharka zeuden jarrita, harlauzari eusteko helburuarekin. Gainetik lauza txiki batzuk jarri ziren, batzuk estalki harlauza gisa eta beste batzuk zeharkako harrien gainean. Harri sail batek, elkarren gainka jarrita hesitxo bat osatzen zuela, eremu lauki zuzen baten irudia egiten zuen, 0,55 m-ko luzera, 0,30 m-ko zabalera eta 0,30 m-ko sakontasuna zuena. Egitura horren ardatz nagusiaren norabidea IM-HE zen. Estalkiko harlauzak, lau angeluko irudia zuena gutxi gorabehera, 1,05 m neurtzen zuen E-M norabidean eta 0,90 m I-H-an. Gehieneko lodiera 0,15 m-koa zuen.
Zistan indusketa lanak egin ondoren, deskribatu zen estratigrafia ondoko hau da:

- Landare lurreko maila.
- Maila buztintsuagoa, ikatz hondar gutxirekin.
- Gris more koloreko maila buztintsua, zistaren oinarriaren azpian dagoena.

5. harrespila (Cl. Chauchatek G izena eman ziona).

1970ean J. Blotek indusketa lanak egin zituen alderdi batean. J. Blotek eta Cl. Chauchatek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Indusketa lanetan peristalitoaren zati bat HM koadrantean aurkitu zen, osagaiak nahiko nahasturik zituena. Zistaren norabidean zegoen harri makurtu handi bat zirkuluarena izan zitekeen, eta baita nabarmentzen ziren 5 harri ere. Horren arabera, peristalitoak 3 m-ko diametroa zuen.

- Erdialdea.

Egitura honen barrualdean zegoen zista 4 lauza bertikalek osatzen zuten, 1,10 m-ko luzera eta 0,50 m-ko zabalera zuen lauki zuzen bat eratzen zuten, eta ardatz nagusiak IE-HM norabidea zuen. Estalkiko harlauza indusketa lanetan aurkitu zen, baina berehala lapurtu egin zuten bertatik.

Materialak

1. harrespila.
Askotarikoak:
- Ikatz hondarrak.

2. harrespila.
Industria litikoa:
- Suharrizko tresna, txikia neurriz.
Askotarikoak:
- Egur ikatz hondarrak.

3. harrespila.
Askotarikoak:
- Egur ikatz hondarrak.

4. harrespila.
Askotarikoak:
- Ikatz hondar gutxi.

Kultura sekuentzia

3. harrespila.
C14 (Ly-881 zbkia.) datazioa 2.380 ± 130 B.P. izan da eta K.a. 800-165 urte tartea ematen du Tucson kalibrazioarekin.

Bibliografia

Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Blot, J. (1970)
Blot, J. (1979c)
Chauchat, Cl. (1977)

202.- MENDITTIPI (ZELAIAKO BIZKAR)

Kokalekua
Bidarraitik IM-ra, Menditipikobizkarra gailurretik hurbil, Bidarraiko udalerriaren lurretan.

88. argazkia. Mendittipiko harrespil multzoa (Zelaiako Bizkar).

Koordenatuak:
Orria 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 629.650 Y. 4.793.100 Z. 740

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 7,50 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,70 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da.
2.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean lauza bat du lurrean sartuta, beharbada zista baten aztarna.
3.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua.
4.- 7 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako hainbat lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,60 eta 0,40 garaiera bitarteko 2 nabarmentzen dira.
6.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1943an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek eta horrek berak egin zituen indusketa lanak 1957an 4., 5. eta 6. harrespiletan.

Egiturak eta estratigrafia
4. harrespila (Zelai W. J. M. de Barandiaranen arabera)
J. M. de Barandiaranek emandako datuen arabera (1962):

- Peristalitoa.

Egitura 20 lekukok osatzen zuten. Lekukoak bertikalean jarrita zeuden, eta horien artean 0,80 m-ko garaiera zuen bat nabarmentzen zen.

- Erdialdea.

Gaur egungo lur mailatik 0,70 m behera hareharrizko harlauza bat aurkitu zen, era horizontalean jarrita. 1,50 m-ko luzera, 1 m-ko zabalera eta 0,15 m-ko lodiera zuen. Deskribatutako estratigrafia ondoko hau da:
- Humus maila, azalekoa.
- "Ordena jakinik gabe jarriak dauden harrizko xaflatxoen", maila; "xafla horiek mendi hura osatzen duten hareharrizko geruzetan dute jatorria".
- Erdialdean deskribatutako harlauza, lur mailatik 0,70 m behera. Lauza horren goiko aldean egur ikatz hondarrak aurkitu ziren.
- 0,20 m-ko lodiera duen lur iluneko maila, ikatz hondarrekin.

5. harrespila (J. M. de Barandiaranen Zelaiko Gaina).
J. M. de Barandiaranek emandako datuen arabera (1962):
Harrespilak material gutxi zuen.

6. harrespila (Zelai E. J. M. de Barandiaranen arabera).
J. M. de Barandiaranek emandako datuen arabera (1962):

- Peristalitoa.

4 lekukok osatzen zuten, eta horien artean 0,90 m-ko garaiera zuen bat nabarmentzen zen.

- Erdialdea.

Bertan 0,56 m-ko luzera, 0,55 m-ko zabalera, eta 0,45 m-ko garaiera zuen zista txiki bat aurkitu zen. H-an ez zuen ez harlauzarik ez estalkirik. Bai barrualdean bai kanpoaldean egur ikatzak aurkitu ziren.

Materialak

4. harrespila.
Industria litikoa:
- Suharrizko gezi-punta, mihi eta koxkarekin.
- Harri kristala.
- 2 suharrizko ijelki.
- Zulagailu bat.
- Marruska bat.
- Kuartzitazko perkutore bat.
- Suharrizko hainbat printza.
- Kuartzitazko harri koskorrak.
Hezur industria:
- Zaldi hortz bat zulatua (nahiko berria ikertzailearen arabera).
Askotarikoak:
- Egur ikatz hondarrak.

5. harrespila.
Industria litikoa:
- Suharrizko marruska bat.
Askotarikoak:
- Ikatz hondarrak.

6. harrespila:
Industria litikoa:
- Suharrizko printza bat.
Askotarikoak:
- Egur ikatz hondarrak.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Barandiaran, J. M. de (1962a)
Blot, J. (1979c)

203.- ONEGA

Kokalekua
Xoldokogaña aintziratik hurbil, Onega mendiaren inguruan, Urruñako udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 605.600 Y. 4.797.720 Z. 330

Deskribapena
4 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1971n. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972a)

204.- PITTARE

Kokalekua
Pittareko lepoan, lepo hori zeharkatzen duten mendi bideen alde batera eta bestera, Biriatuko udalerriaren lurretan.

89. argazkia. Pittareko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 604.240 Y. 4.797.040 Z. 320



28.irud. Pittareko harrespila. (J. Blot, 1978d).

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Hareharria eta kuartzoa.

1.- 9 m-ko diametroa eta 0,90 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua. 1977an egin ziren indusketa lanak.
2.- 11 m-ko diametroa eta 0,90 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Monumentuaren I-ko erdialdean peristalitoa eratzen duten eta agerian dauden lauza formako hainbat harriz osatua.
3.- 9 m-ko diametroa eta 0,70 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean 3 harri ditu.
4.- 7 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. IE-an, peristalitoan, harrizko bloke handi bat du.
5.- 4 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Erdialdea eta I-a erabat suntsiturik dago, eta H-ko muturrean peristalitoaren zati txiki bat du.
6.- 5 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. H eta HE hondaturik daude; harrizko blokeak ditu I-ko eta M-ko peristalitoaren inguruan eta baita barrualdean ere.

Historia
1., 2., 3. eta 4. monumentuak P. Dopek eta H. Dopek aurkitu zituzten eta 1947an J. M. de Barandiaranek argitaratu zituen. 1969an J. Blotek 5.a eta 6.a aurkitu zituen. 5. harrespila eta 6.a makina batek desegin zituen, eta ondorioz, 1977an J. Blotek erabaki zuen indusketa lanei ekitea 1. harrespilean.

Egiturak eta estratigrafia
J. Blotek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

1 x 1 m-ko neurria eta 0,30 m-ko lodiera duten lauza handiek osatua da. Lur azalean barrura 0,80 m inguru sartzen dira eta kanpoaldetik eta lauzen oinarrian jarrita dituzten bloke txikiak dituzte euskarri. Lauza horiek kanpoaldera daude makurtuta gaur egun, inguratzen duten barruti barruko lurraren eta harrien presioak bultzatuta beharbada. Lauza batetik bestera 0,30 eta 0,40 m bitarteko tartea dago.

- Tumuluaren ingurua.

Harri pila handi baten itxura du, 64 Tm-koa kalkuluen arabera. Harriak daude ordena jakin baten arabera jarriak. Gune hori hobeto aztertzeko asmoz, ipar-hego epaian AB, BC eta CD letrekin adierazten diren 3 zatitan banatu da barruko egitura. Zati bakoitzak 3 m-ko luzera du.

• AB eta CD epaiak edo periferikoak.
Estratigrafia hau du, goitik behera:
- Lur begetaleko geruza fina, 0,10 m-ko lodiera duena gutxi gorabehera eta epai guztiak osorik hartzen dituena.
- Bertako hareharrizko blokeak, bolumen handikoak askotan (30 eta 40 kg bitartekoak batzuk), ordena jakinik gabe jarriak, eta, monumentuaren gunearen arabera, gaur egungo lurraren mailatik behera 0,10 m-raino iristen direnak.
- Hareharri hori plastikoko maila, lodiera txikikoa, inguruko mazeletatik herrestan ekarritako harri koxkor txikiekin.
- Blokeen zabalgunearen beheko aldean egur ikatz puskak daude sakabanaturik. Indusketa lanetako ikertzaileburuaren arabera, tumuluaren eraikitzaileek ez zituzten horiek gainditu, beraz, oinarrizko mailatzat har daiteke maila hori.

• BC epaia edo erdialdekoa.
Estratigrafia hau du goitik behera:
- Lur begetaleko maila fina.
- Hareharrizko lauza lauen estalkia.
- Harri txikien maila, lauki zuzen formako planta duena; 2m inguru ditu I-H norabidean eta 1,50 m E-M ardatzean. Lur azaletik 0,40 m-ra dago.
- Geruza horren gainean hareharri horizko maila bat zegoen, 0,15 eta 0,20 m bitartekoa; egur ikatz zatiak zituen.
- Harri bloke handiak, ordena jakinik gabe jarriak, tartekaturik egur ikatzak dituztela.

Monumentuaren zentro geometrikotik 0,20 m I-ra, eta harri pilaren oinarrian, 0,30 x 0,20 m-ko eremu bat aurkitu zen, blokeez inguratua eta hareharriz betea.
- Egur ikatz maila, blokeen oinarrian dagoena, periferiako eremua baino dentsitate handiagokoa. Maila honek tumuluaren erdialdean 2 m-ko diametroa eta 0,02 eta 0,03 m-ko lodiera zuen zirkulu formako eremu bat hartzen zuen. Aldi berean, lur gorrituko zatiak zituen. Gainalde hori guztia harriez mugaturik zegoen, eta haiez haraindi ikatz zati gutxi batzuk ageri ziren.

Materialak
Askotarikoak:

- Haritzaren ikatz hondarrak, INRA laborategien azterketatik ateratako ondorioen arabera.

Kultura sekuentzia
Burdin Aroa. C14 (4.469 Gif zbkia) datazioaren emaitza 2.240 ± 90 B.P. izan da, eta K.a. 565 eta 30 urte bitartea ateratzen da Tucson kalibrazioarekin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1947)
Blot, J. (1978d)
Blot, J. (1979c)
Blot, J. (1984a)

205.- SUALAR

Kokalekua
Sualarreko zabaldian, Altsaan haitzartearen IE-tik 600 m-ra, Sarako udalerriaren lurretan.

90. argazkia. Sualarko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1245 OT. Hendaye-St.-Jean-de-Luz. (1:25.000)
X. 612.420 Y. 4.797.260 Z. 530

Deskribapena
6 m-ko diametroa duen harrespila. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. 2 lekuko besterik ez dira ikusten, H-ko erdialdean. Hareharria.

Historia
J. Blot-ek aurkitu zuen 1970ean. Bide bat igarotzen da monumentutik, H-ko muturraren ukitzailea.

Bibliografia
Blot, J. (1971)

206.- URTZUIA

Kokalekua
Ursuia mendian, mendi horretan dauden antenetatik gailurrera doan bidearen erdialdean, Kanboko udalerriaren lurretan.

91. argazkia. Urtzuiako harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 635.140 Y. 4.800.820 Z. 650

Deskribapena
Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua. Hareharria eta kuartzoa.

Historia
L. Millán eta J. J. Ochoak aurkitu zuten 1990ean. Ez da indusketa lanik egin.

207.- URTZUIAKO LEPOA (URSUBEHERE)

Kokalekua
Ursuia mendiaren I-an dauden antenetatik 200 m-ra, Kanboko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 634.960 Y. 4.801.160 Z. 570

Deskribapena
Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 4 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,60 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Kuartzoa.

Historia
1936an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

NAFARROA BEHEREA

208.- AINTZIAGA

Kokalekua
Aintziagako gailurraren oinean, tontor horren H-HE-an eta Izpegiko lepoaren I-IM-an, Baztango eta Baigorriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 631.520 Y. 4.783.120 Z. 812

Deskribapena
Harrespila. 5,60 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,25 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Hareharria eta kuartzoa.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1973b)

209.- APATESARO HEGO

Kokalekua
Ilarritako harrespilaren mendebaldean, Irautik Okabera igotzen den mendilerroan bertan, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

92. argazkia. Apatesaro Hegoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 652.720 Y. 4.767.720 Z. 1.135

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kuartzita.

1.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua.
2.- 3 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua.

3.- 5,20 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 21 lekuko agerikoz osatua.



29.irud. Apatesaro Hegoko harrespila. (J. Blot, 1984c).

Historia
1971n J. Blotek aurkitu zuen eta berak induskatu zituen 1981ean 2.a eta 3.a.

Egiturak eta estratigrafia
J. Blotek indusketa lanak egin ondoren emandako datuak:

1. harrespila.

- Peristalitoa.

• Kanpoaldeko zirkulua.
Metro beteko garaiera iristen duten hareharrizko lauza handiek osatzen dute. Lauza horiek 0,30 m inguru sartzen dira lurrean eta paleolurrean ere sartzen dira pixka bat (0,10 m, gutxi gorabehera). Lekukoen oinarrian, eta kanpoaldean, harri batzuk jarri dira horiei eusteko. Hala eta guztiz ere, barrutiaren barrualderantz mugitu dira. Bestalde, H-ko lauzetan batzuen eta besteen arteko tartea handiagoa da I-koen artean baino.

• Barrualdeko zirkulua.
Bloke formako 2 edo 3 harri ilarek osatzen dute; galtzadako harrien neurrikoak dira, hareharrizkoak, era irregularrean jarriak, kanpoaldeko zirkulua amaitu eta gero. Bigarren zirkulu horren eta paleolurraren artean 0,07 m-ko lodierako lur geruza bat dagoela eta lehenengo zirkulua, berriz, paleolurraren beraren gainean dagoela kontuan harturik atera da ondorio hori.

- Erdialdea.

Barrutiaren erdialdean, aurretik azaldu den barruko zirkuluaren antzeko blokeez osatutako 2 m-ko eraztun bat ikusten da, eta zirkulu hartan bezala era irregularrean daude jarrita eta 0,07 m paleolurraren gainetik. Bai HE-an bai IM-an neurri txikiko harriz osatutako pilak ikusten dira.

Estratigrafiaren deskribapena egiteko, eta aztertzailearen bideari jarraituz, banaketa bikoitza egingo dugu:
- Erdiko zirkuluaren barrualdea.
Goitik behera:
1.- Humus maila, 0,19 m-ko lodiera duena.
2.- 0,05 m-ko lur marroi iluneko maila, buztintsua, 0,03 eta 0,04 m bitarteko harrixka ugariz osatua. Harrixka horiek azpiko mailaren gainean geruza bakar bat osatzen dutela daude jarrita.
3.- Lur beltzeko eta egur ikatz zati ugariko maila, 0,02 m-koa).
4.- 0,04 m-ko lur marroi iluneko maila, 2. mailaren antzekoa.
5.- Paleolurraren maila.

Aipatzekoa da 3. mailak, ikatz ugariz osatuak, erdialdeko zirkulua osorik hartzen duela, baina hari gainka egin gabe. Ikatz gehiena I eta H-ko alderdietan dago.
- Erdiko zirkuluaren eta kanpoko zirkuluaren arteko tartea.

Goitik behera:
1.- 0,23 m-ko lodiera duen humus maila.
2.- 0,07 m-ko lodiera duen lur marroi iluneko maila; lur horren gainean bermatuta daude barrualdeko eraztuna osatzen duten blokeak.
H-an eta E-an egur ikatz pila txikiak daude 2. geruzaren gaineko aldean.

2. harrespila. (I bis, J. Bloten arabera).

- Periferia.

Galtzadako harri baten neurriko hareharrizko bloke txikiez osatua da, eta ardura handiz daude jarrita harri batzuek besteen ondoan irudi obal bat osatzen dutela. Bloke horien eta paleolurraren artean 0,07 m-ko lodiera duen lur marroi argiko maila dago. Lur geruza hori, bestalde, kanpoaldeko eraztunaren eta erdialdean dauden harri pilaren arteko tartean dagoenaren berdina da. IE-an eta IM-an egur ikatz pilak daude.
Maila horren gainetik lur begetaleko beste maila bat dago, 0,15 m-ko lodiera duena.
- Erdialdeko harri pila.
Zirkulu forma du gutxi gorabehera (1,50 x 1,80 m-ko diametroa), eta paleolurretik gora 0,35 m-ko garaiera hartzen du.

Estratigrafiak maila hauek ditu goitik behera:
1.- Harriz osatutako estalkia; periferian bloke ilara bakarra du eta barrualdean 2 edo 3 bloke geruza, ordena jakinik gabe jarriak. Harrietako bat, I-H norabideduna hain zuzen, harri pilaren gainean zegoen eta neurriz besteak baino handiagoa zen nabarmen.
2.- Oso lur iluneko maila, 0,12 m lodia, eta egur ikatz ugarikoa. Ikatz zati batzuk nahiko handiak ziren eta han bertan hiru zeramika puska aurkitu ziren.
3.- Lur marroi iluneko maila, 0,06 m lodia eta buztintsua.
4.- Lur buztintsu beige argiko maila, 0,07 m lodia.
5.- Paleolurra.

Materialak
1. harrespila.
Askotarikoak:
- Egur ikatza.

2. harrespila.
Zeramika:
- 3 zati; elkarri lotuz gero ontzi bat osatzen da, 105 mm-ko diametrokoa, azal porotsukoa eta eskuz egina.

Askotarikoa:
- Egur ikatza.

Kultura sekuentzia
Burdin Aroa. C14 datazioek ondoko data hauek eman dituzte:
Apatesaro 1: (Gif zbkia. 5.728): 2.780 ± 90 B.P.
Apatesaro 2: (Ibis): (Gif zbkia. 5.729): 2.590 ± 90 B.P.
Coffyn irakaslearen arabera, 2. harrespilean aurkitutako zeramikak Bigarren Burdin Aroko ezaugarriak ditu.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)
Blot, J. (1983a)
Blot, J. (1984c)
Blot, J. (1985-86)
Blot, J. (1986a)

210.- APATESARO EKIALDE

Kokalekua
Irautik Okabera igotzen den bizkarretik ekialdera dagoen ordeka txiki batean, 1.125 m-ko garaieran, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 652.840 Y. 4.767.920 Z. 1.125



30. irud. Apatesaro Ekialdeko 1. harrespila. (J. Blot, 1988c).

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria eta kuartzita.

1.- 6 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 17 lekuko agerikoz osatua.

2.- 4 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua. Monumentuaren erdialdean hainbat harri goititzen dira lur azaletik.

3.- 6 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua; horien artean I-an dagoen bat nabarmentzen da, gaur egun etzanda dagoena eta bloke forma duena, 1,60 m-ko luzera eta 0,70 m-ko zabalerakoa. Monumentuaren barrualdean hainbat harri ikusten dira.

Historia
1968an J. Blotek aurkitu zituen, eta 1.a (J. Bloten V.a) ikertzaile horrek berak induskatu zuen 1985ean.

Egiturak eta estratigrafia
1. harrespila.
J. Blotek emandako datuen arabera:
Monumentu guztia induskatu zen.
Ez du peristalito garbirik, H eta HE-an izan ezik. Azken bi alde horietan erradio eran jarritako bloke sail periferikoak daude.
Monumentuaren gainerako alderdiak ordena jakinik gabe jarrita dauden hainbat blokeek osatzen dituzte, E eta M koadranteetan baino gutxiago badira ere, eta erdialdean, 0,50 m-ko lodiera dute. Erdialdean ez dago zista moduko egitura garbirik, ezta kontuan hartzeko moduko harri pilaketarik ere. Erdialdearen H-HM-an bertako lurreko bloke handi bat aurkitu zen eta monumentua eraiki zen unean jatorriz zuen lekuan utzi zen.
Estratigrafia era honetakoa da behetik gora:

- Lur begetaleko maila, 0,10 eta 0,15 m-ko lodiera duena.
- Egitura osatzen duten harrien maila. Harri horiek tumuluaren erdialdean dute lodiera handien, bertan 0,50 m-ko garaiera ere hartzen baitute.
- Lur buztintsu eta grisaxkako maila, nahiko trinkoa eta homogeneoa, 0,06 eta 0,07 m bitarteko lodiera duena.
- Paleolur harkaiztsua.

Materialak
Askotarikoak:
- Egur ikatz zatiak.

Kultura sekuentzia
1. harrespila:
C14-ko datazioa (6988 Gif zbkia.) 2.740 ± 60 B.P. izan da, eta K.a. 1225 eta 645 tartea eman du Tucsonen kalibrazioarekin.

Bibliografia
Blot, J. (1985-86)
Blot, J. (1988b)
Blot, J. (1988c)

211.- APATESARO IPAR

Kokalekua
Irautik Okabera igotzen den bizkarreko ordeka batean, Apatesaro Hego harrespilaren ondoren, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

93. argazkia. Apatesaro Iparreko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 652.720 Y. 4.767.960 Z. 1.135

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- 4,80 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke txiki formako hainbat lekuko ageriko ditu. Barrualdean bloke batzuk ditu.
2.- 4,60 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 40 lekuko ageriko ditu. Erdialdean sakonune bat du.



31.irud. Apatesaro Iparreko 1. harrespila. (J. Blot, 1984d).

Historia
1971n aurkitu zituen J. Blotek eta ikertzaile horrek berak induskatu zuen 1.a 1981ean.

Egiturak eta estratigrafia
(J. Blotek, indusketa lanen ondoren, eman zituen datuen arabera):

1. harrespila (J. Bloten Apatesaroko multzo orokorreko IV.a)
Harrespil osoa induskatu zuten, eta hiru alderdi elkarren desberdin aurkitu ziren: peristalito periferikoa, barrualdeko zirkulua eta erdialdeko zista.

- Peristalitoa.

Bloke eta lauza luzaxkek edo paralelepipedoek osatzen zuten; metro bete luze, 0,40 eta 0,60 m bitarte zabal eta 0,30 lodi ziren, oro har. Lurraren gainean etzanda egon bide ziren, erradio eran jarrita.

- Barrualdeko zirkulua.

Forma irregularragokoak eta neurriz txikiagoak ziren blokeek osatua zen, eta ordena jakinik gabe zeuden jarrita, batzuk besteen gainean batzuetan eta beste batzuetan elkarren ondoan. HM-an metro koadro bateko lauza handi bat aurkitu zen, paleolurrean erabat sartuta eta indusketa lanen zuzendariaren arabera, ez zen handik mugitu eta barrualdeko zirkulua osatzeko erabili zen.

- Erdialdea.

Bertan, barrualdeko zirkulutik 0,20 eta 0,30 m bitarteko tarteaz bereizita, zista bat nabarmentzen da.

Egitura lauki zuzen horren neurriak 0,70 m luze eta 0,40 m zabal dira eta ardatz nagusiaren norabidea IE-HM da. Paleolurrean oso sarturik zeuden hareharrizko 4 lauzek mugatzen zuten eta kanpoaldetik jarrita zeuden bloke sail batek egiten zuen kontrahormaren lana; hala ere, ez ziren paleolurrera iristen.
Monumentu honen estratigrafia ondoko hau da behetik gora:
- Lur begetaleko maila, 0,10 eta 0,15 m bitarteko lodiera duena.
- Forma irregularrak estaltzen dituzten harri koskorren maila, monumentu osoan ikus daitekeena eta lodiera aldakorra duena; lodiera handiagoa du erdialdean peristalitoaren inguruan baino.
- Peristalitoaren, barrualdeko zirkuluaren eta erdialdeko zistaren neurriko bloke handien egiturak.
- Lur gris iluneko maila, lodiera txikikoa.
- Paleolur harkaiztsua. Maila horretan sartu dira zista osatzen duten lau lauzak.

Materialak
1. harrespila.
Askotarikoak:
- Egur ikatz zatiak.

Kultura sekuentzia
C14 (Gif zbkia. 6.031) datazioa 2.670 ± 90 BP. izan da, eta K.a. 1085-610 tartea ematen du Tucson kalibrazioarekin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)
Blot, J. (1984d)
Blot, J. (1986a)

212.- ARGAIKO-HARRIA

Kokalekua
Argaiko-Arria harkaitzaren oinarrian, HM-an, Urepeleko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorri. (1:25.000)
X. 633.100 Y. 4.766.320 Z. 1.110

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Kareharria eta kuartzoa.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 16 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1948an aukitu zituen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin. Ez dugu aurkitu.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949b)

213.- ARNOZTEGI

Kokalekua
Arnoztegiko lepoan, Urkulu mendiaren mendebaldean, 205. mugarritik 15 m-ra, Arnegiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 642.840 Y. 4.767.260 Z. 1.236

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kareharria.

1.- 10 m-ko diametroa eta 0,70 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke eta lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua; erdialdean sakonune bat du.
2.- 7 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. 3. harrespilaren ukitzailea da.
3.- 6 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna; ez du ageriko lekukorik. 2. harrespilaren ukitzailea da.

Historia
3. harrespila T. Lopez Sellések aurkitu zuen 1967an; 1. eta 2.a P. Boucher eta Cl. Chauchatek 1968an. Gaur egun 2. eta 3. harrespilak desagertuta daude, aparkaleku bat eraiki baita.

Bibliografia
Boucher, P.; Chauchat, Cl. (1968)
Lopez Sellés, T. (1973)

214.- ARRILUXE

Kokalekua
Alba mendiaren HE-an, nazioarteko 128. eta 129. mugarrien artean, Aldudeseko udalerriaren lurretan dagoen ordeka batean.

Koordenatuak:
Orria 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 624.500 Y. 4.771.500 Z. 950

Deskribapena
5 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. Hareharria eta kuartzoa.

Historia
1950ean aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1950)

215.- ARTHE

Kokalekua
Iparraldean Hegieder-eko tontorra eta hegoaldean Arthaburukoa dituela, Ezterenzubitik datorren errepidetik eta Artheko gainetik oso hurbil, Ezterenzubiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 649.820 Y. 4.769.260 Z. 1.010

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Pudinga.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren 8 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da IM-ko muturrean. (Aurkitzaileak Arthe II. izena eman zion).
2.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. 1. harrespilaren ukitzailea da HE-ko muturrean eta 3. harrespilarena M-an. (Aurkitzaileak Arthe III.a izena eman zion).
3.- Harrespila. 2 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren 6 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da E-an eta 4.arena I-an. (Aurkitzaileak Arthe 4.a izena eman zion).
4.- Harrespila. 2,80 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua. 3. harrespilaren ukitzailea da H-an eta 5.arena I-an. (Arkitzaileak Arthe V.a izena eman zion).

5.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Neurri txikiko 5 lekuko agerikoz osatua. 4. harrespilaren ukitzailea da IM-ko muturrean. (Aurkitzaileak Arthe VI. a izena eman zion).

Historia
1971n aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin. Gaur egun erabat suntsiturik daude, errepide bat eraiki baita monumentutik hurbil.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

216.- ARTHEKO TONTORRA

Kokalekua
Iparraldean Hegieder gailurra eta hegoaldean Arthaburu gailurra dituela, Artheko muinoan, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 649.960 Y. 4.769.160 Z. 1.010

Deskribapena
Tumulu txikiko harrespila. 4,80 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua. Horietako batzuek 0,20 m-ko garaiera dute. Monumentuaren erdialdean sakonune txiki bat dago. Konglomeratua.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek eta Arthe I.a izena eman zion. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

217.- ARTXILONDO IPAR ETA HEGO

Kokalekua
Etxaate Bizkarra mendiaren hegoaldean, Artxilondo ibaitik hurbil dagoen bizkar baten gainean, Artxilondoko belardi eta txaboletatik mendebaldera, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

94. argazkia. Artxilondo Ipar eta Hegoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 651.500 Y. 4.766.360 Z. 961

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Batetik bestera 80 m-ko tartea dago. Hareharria.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 10 lekuko agerikoz osatua. (Aurkitzaileak Artxilondo II izena eman zion).
2.- Harrespila. 8 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. E-an soilik ageri da lekuko bat lur azaletik goititua. (Aurkitzaileak Artxilondo III izena eman zion).

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

218.- ARTXILONDO MENDEBAL

Kokalekua
Artxilondoko txaboletatik mendebaldera eta Okabetik mendebaldera, ibaitik hurbil dagoen goragune batean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 652.120 Y. 4.766.380 Z. 908

Deskribapena
6 m-ko diametroa duen harrespila. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,50 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Iparraldean, barrutiaren kanpoaldean, barrutikoa bide zen bloke bat dago. (Aurkitzaileak Artxilondo izena eman zion). Hareharria.

Historia
1971n J. Blotek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

219.- ASKONOBI

Kokalekua
Behorlegi mendiaren mendebaldera, Behorlegiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 656.000 Y. 4.777.140 Z. 1.055

Deskribapena
7 harrespileko multzoa.
Oraindik ezin aurkitu izan dira.

Historia
1945ean J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin. Ez ditugu aurkitu.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1946)
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

220.- AXIXTOI

Kokalekua
Axixtoi mendiaren gailurraren HM-an, Bankako eta Luzaideko udalerrien lurretan. (Multzo honen parte bat Nafarroako lurraldean dago).

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 634.500 Y. 4.766.540 Z. 1.200

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Kuartzoa.

1.- Harrespila. 3,80 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua.
2.- 3,25 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

221.- BEHORLEGI

Kokalekua
Behorlegiko gailurretik 50 m hegoaldera, Mendibeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 657.000 Y. 4.774.440 Z. 1.220

Deskribapena
Harrespila. 15 m-ko diametroa. Lauza formako 8 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1945ean J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin. Orain arte ez da non dagoen jakiterik izan.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1950)

222.- BILGOTZA

Kokalekua
IE-ra Bilgotzako lepoa duen muinotik hurbil, lepo horretatik Buluntzakora doan bidearen hegoaldean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

95. argazkia. Bilgotzako harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 649.780 Y. 4.775.620 Z. 710

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza formako 20 lekuko agerikoz osatua; horietako batzuk 0,50 m goititzen dira lur azaletik. Barrutiaren erdialdean sakonune bat dago.
2.- Harrespila. 6,50 m-ko diametroa. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua; horietako batzuk 0,30 m goititzen dira lur azaletik. Ez du lekukorik E-an eta IE-an.

Historia
1971n aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik ezagutzen, hala ere, 1. harrespilak erdialdean lanak egin diren arrastoak ditu.

Bibliografia
Blot, J. (1972a)

223.- CABAÑAS DE URKULU

Kokalekua
Urkuluko txabolen ondoan, Urkulu mendiaren iparraldean, Eiheralarre udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 643.440 Y. 4.768.520 Z. 1.300

Deskribapena
Harrespila. 8 m-ko diametroa. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua. Kareharria.

96. argazkia. Cabañas de Urkuluko harrespila.

Historia
1973an aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)

224.- ERREGELU

Kokalekua
Erregeluko gailurretik 30 m HM-ra, Luhuso udalerriaren lurretan.

97. argazkia. Erregeluko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 638.840 Y. 4.795.100 Z. 850

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Kuartzoa.

1.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 19 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 2,50 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1937an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek, eta Mendizabale eta Orgeletegiko multzoekin batera Baigura izena eman zien. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)

225.- ERROZATE

Kokalekua
Errozate mendiaren gailurretik (1.345 m) hurbil dagoen lepo batean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

98. argazkia. Errozateko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 649.380 Y. 4.767.520 Z. 1.273

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Pudinga.



32.irud. Errozateko harrespilak. (J. Blot, 1977e).

1.- 9 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza erako 12 lekuko ageriko ditu.
2.- 4 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua (J. Bloten 5.a).
3.- 5,50 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 30 lekuko agerikoz osatua (J. Bloten 2.a).
4.- 3 m-ko diametroa eta garaiera txikiko harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. 5. harrespilaren ukitzailea da M-ko muturrean. (J. Bloten 3.a).
5.- 3 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua. 4. harrespilaren ukitzailea da E-ko muturrean. (J. Bloten 4.a).

Historia

1970ean aurkitu zituen J. Blotek. 3., 4. eta 5. harrespilak 1976an induskatu zituen aurkitzaileak berak. 1.a erabat suntsitu zuten harrespiletatik hurbil errepide bat eraiki zutenean.

Egiturak eta estratigrafia

3. harrespila (II.a J. Bloten arabera).
J. Blotek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Elkarren nahiko hurbil jarrita dauden lauza handiek osatzen dute, eta horietako batzuk metroko garaiera ere iristen dute. Hainbat gunetan, I-an esate baterako, harri handiak eta txikiak txandaka jarrita daude; lur azalean daude, lurrean sartu gabe.
Barrualdean dagoen beste zirkulua, aurrekoaren zentrokidea eta ukitzailea, gaur egungo lur azalaren mailatik 0,55 m dago behera sartua. Aurrekoak baino lauza askoz ere txikiagoak ditu, eta lurraren gainean etzanda eta era irregularrean jarrita daude lauzak.

- Erdialdean.

Lur azaletik 0,55 m-ko sakonerara kuartzita bloke bat aurkitu zen, muturrean zizelatua eta hiruki formakoa eta 0,23 m-ko luzera, 0,12 m-ko zabalera eta 0,07 m-ko lodiera zuena, M-IM norabidean jarria. Bloke horren azpian, 0,25 m sakonago oraindik, 0,04 m-ko lodierako mailan, egur ikatz eta hezur kiskalduen hondarrak zeuden. Aldeko 0,20 m zuen bloke lauki zuzen bat zegoen berezko lurraren gainean, eta baita ikatz hondarrak ere, hezur erraustuetatik 0,31 m behera.

Indusketa lanen ondoren lortutako estratigrafia ondoko hau da:
- Azaleko maila, marroi iluna eta lur begetalekoa, 0,12 m-ko lodiera duena.
- Lur azaletik 0,55 m-ra dagoen ehorzketa maila, 0,04 m-ko lodiera duena.
- Oinarri lurraren maila, uharriz osatua, aldaketa handiak izan dituena. Gainazalean, sakabanaturik, egur ikatz hondarrak aurkitu ziren.

4. harrespila. (III.a J. Bloten arabera).
J. Blotek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Batzuetatik besteetara tarte handia duten lauzez osatua, lurrean oinarri lurraren mailara iritsi arte sartuak. Peristalitoaren barrualdean neurri txikiko lauza batzuk daude, lur azalean era horizontalean jarriak. I-an dira ugarien.

- Erdialdea.

Gaur egungo lur azaletik 0,33 m behera kuartzita bloke bat dago, 0,13 m-ko luzera, 0,07 m-ko zabalera eta 0,06 m-ko lodiera dituena. Zirkuluaren erdigune geometrikotik M-ra dago bloke hori mugituta.
Beheko mailan, bloke horretatik 0,13 m-ra, erdialdean, egur ikatz hondarrak zeuden. Azkenik, oinarrian, berezko lurra ukitzen duela, gaur egungo lur azaletik 0,78 m-ra bloke txiki bat eta ikatz hondarrak zeuden.

Estratigrafia ondoko hau da:
- Lur begetaleko azaleko maila, 0,12 m-ko lodierakoa.
- Lur marroiko maila, buztintsu-kareduna, aurrekoaren azpitik dagoena, 0,78 m-ko sakoneran.
- Ehorzketa maila, gaur egungo lur azaletik 0,46 m-ra.
- Harri koskorrak ikatz arrastoekin nahasturik dituen oinarri lur maila.

5. harrespila. (IV.a J. Bloten arabera).
J. Blotek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Paleolurraren mailaraino iltzaturik dauden eta elkarren artean distantzia berara dauden 12 lauzek osatzen dute harrespil honen kanpoaldeko eraztuna. Eraztun horrek harri txiki ugariz osatua da; horitako asko horizontalean osaturiko zirkulu bat du barrualdean.

- Erdialdea.

Gaur egungo lur azaletik 0,35 m-ra 0,03 eta 0,07 m bitarteko lodiera duten egur ikatz eta errauts ugari dago. Multzo horretatik 1,10 m-ra, eta oinarri lurraren maila ukitzen duela kubo formako harri bat dago, 0,10 m-ko aldea duena.

Monumentu honen estratigrafia ondoko hau da:
- Lur begetalez osaturiko azaleko maila, 0,12 m-ko lodiera duena.
- Lur marroiko maila, buztintsu-kareduna, gaur egungo lur azaletik 0,52 m-ko sakoneran.
- Ehorzketa maila, gaur egungo lur azaletik 0,35 eta 0,42 m bitarteko sakoneran.
- Oinarri lur maila, harri koskor eraldatuek osatua.

Materialak

3. harrespila.
Industria litikoa:
- 0,05 m-ko 10 harri koskor.
Askotarikoak:
- Egur ikatz zatiak.

Giza aztarnak:
- Hezur erraustuen puskak.
4. harrespila.
Industria litikoa:
- 2 harri koskor.
Askotarikoak:
- Egur ikatz zatiak.

5. harrespila.
Industria litikoa:
- Erabili izanaren seinaleak dituen harri koskor bat.
Metala:
- 3 burdin zati. Horietako bat punta batena izan zitekeen.
Askotarikoak:
- Egur ikatz zatiak.

Kultura sekuentzia
3. harrespila.
C14 datazioa (Gif 3.741 zbkia.) 2.680±100 B.P. izan da, eta K.a 1.095 eta 615 tartea ematen du Tucson kalibrazioarekin.

4. harrespila.
C14 datazioa (Gif 4.184 zbkia.) 2.330±100 B.P. izan da, eta K.a 765 eta K.a 175 tartea ematen du Tucson kalibrazioarekin.

5. harrespila.
C14 datazioa (Gif 4.185 zbkia.) 2.640±100 B.P. izan da, eta K.a. 1035 eta K.a 590 tartea ematen du Tucson kalibrazioarekin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)
Blot, J. (1977c)
Blot, J. (1977e)
Blot, J. (1979c)

226.- ETXAATEKO BIZKARRA

Kokalekua
Etxaate Bizkarreko gailur sailaren hegoaldean, Errozate mendiaren eta Aranohegi gailurraren hegoaldean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 650.780 Y. 4.766.860 Z. 1.190

Deskribapena
1,90 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik IM-an. Erdialdean sakunune txiki bat du. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek, eta Etxaateko Lepoari bezala, Etxaate Bizkarra izena eman zion. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

227.- ETXAATEKO LEPOA

Kokalekua
Etxaate Bizkarreko gailur saileko lepo batean, Errozate mendiaren eta Aranohegiko gailurraren HE-an, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 650.780 Y. 4.766.980 Z. 1.180

Deskribapena
Harrespila. 8 m-ko diametroa. Bloke eta lauza formako 25 lekuko agerikoz osatua; horien arten 4 eta 0,40 m bitarteko garaierakoak nabarmentzen dira. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek, eta Etxaateko Bizkarra monumentuari bezala, Etxaate Lepoa izena eman zion. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

228.- GAHALARBE

Kokalekua
Mendibetik Burdinkurutxetako lepora doan bidetik hurbil, Salbatoreko ermita igaro eta 1.200 m-ra, Mendibeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 655.660 Y. 4.771.060 Z. 970

Deskribapena
3 m-ko diametroko harrespila. Lur azaletik apenas goititzen diren 6 lekuko agerikoz osatua. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972a)

229.- GARRALDA

Kokalekua
Garralda mendiaren HE-an dagoen mazelatik 200 m I-IM-ra, mendi lepo batean, Heletako udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1345 Est. Iholdy. (1:25.000)
X. 642.700 Y. 4.799.840 Z. 335

Deskribapena
4 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,30 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Kuartzita.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1973b)

230.- GURUTZEKO IPARLA

Kokalekua
Iparla tontorraren I-an dagoen harrizko gurutzetik hurbileko mendi bizkarrean, Bidarraiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 632.140 Y. 4.789.300 Z. 820

Deskribapena
6 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,50 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Hareharria.

Historia
1972an aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1980)

231.- HARLUZE

Kokalekua
Arthaburuko tontorra eta Artxilondoko bordak lotzen dituen mendi bidetik metro batzuk mendebaldera, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 651.420 Y. 4.767.400 Z. 1.050

Deskribapena
4,50 m-ko diametroa duen harrespila. 0,30 m-ko garaierako bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean bi harri txiki ditu. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

232.- HASKETA

Kokalekua
Aribe mendiaren hegoaldean, errepidearen ondoan, Ezterenzubiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-de-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 650.060 Y. 4.768.980 Z. 986

Deskribapena
1,80 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik H-an, eta monumentuaren parte bat suntsitu egin zuten ehizaleku bat egin zutenean. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

233.- HAUZAI

Kokalekua
Hauzaiko lepoaren eta Hortz-Zorrotzeko harkaitzen artean, lepo horretatik 150 m hegoaldera, Bankako udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry (1: 25.000)
X. 632.700 Y. 4.767.400 Z. 975

Deskribapena
Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua. Kareharria eta kuartzoa.

Historia
L. Millán eta J. J. Ochoak aurkitu zuten 1989an. Ez da indusketa lanik egin.

234.- HEGIEDER

Kokalekua
Hegiederreko gailurrean, Ezterenzubiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 649.940 Y. 4.770.760 Z. 896

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Hareharria eta pudinga.

1.- 3 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua da. Ez du lekukorik HE-ko muturrean.

2.- 2,50 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-ko muturrean.
3.- 4 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua; lekuko horietako batzuek 0,30 m-ko garaiera dute. Monumentuaren gainean ehizaleku bat eraiki zuten eta suntsiturik gelditu zen erabat.
4.- 3,50 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua.
5.- 3,30 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua.
6.- 4,50 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1971n J. Blotek aurkitu zituen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

235.- HEGIEDER IPAR

Kokalekua
Hegieder-eko gailurraren oinean eta gailur horren I-IE-ra dagoen zelaian, Ezterenzubiko udalerriaren lurretan.

99. argazkia. Hegieder Iparreko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 650.100 Y. 4.771.300 Z. 820

Deskribapena
5 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua; horien arten 0,25 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Harrespil honi Hegieder 7.a izena eman zion aurkitzaileak.



33.irud. Hegieder Iparreko harrespila. (J. Blot, 1994a).

Egiturak eta estratigrafia
(J. Blotek indusketa lana egin ondoren eman zituen datuen arabera):

- Peristalitoa.

Lekukoak bertako uharrizko lurraren gainean daude. Neurri askotakoak badira ere, iparraldekoak dira handienak, metro bateko garaiera eta 0,80 m-ko lodiera ingurukoak. Horrez gainera, bloke handiak eta txikiagoak txandakatu egiten direla ikusten da.
Hegoaldean, berriz, blokeak neurri ertainekoak dira. Ordena jakinik gabe daude jarrita, itxuraz, eta gutxi dira lur azaletik gora ageri direnak.

- Barrualdea.

Monumentuaren erdialdean kuartzita eta uharrizko hainbat bloke txikiak daude pilatuta. Bloke horiek zirkulu bat osatzen dutela daude jarrita, baina iparraldean hegoaldean baino egokiago daude antolatuta. Erdialdean ez dago harririk ia. Harri pila haren garaiera 0,30 m-koa da I-an eta metro bateko diametroa du E-M ardatzean. I-an blokeak bi edo hiru geruzetan antolatzen dira, eta geruza baten eta bestearen artean lur geruzak eta egur ikatz puska txikiak daude.
Monumentu honen estratigrafia ondoko hau da:
- Humus maila, 0,15 m-ko lodierakoa eta kolorez marroia.
- Lur homogeneoko maila, aurreko maila baino argiagoa, 0,30 eta 0,40 m bitarteko lodiera duena. Erdialdean harri pila bat du.
- Uharri eta lur horiko maila, 0,50 m-ko lodiera duena.
- Bertako pudingen maila.

Materialak
Industria litikoa.
- Suharrizko ijelkia, hortz formako “racloir” modura landua.

Kultura sekuentzia
C.14 (Gif 9.371) datazioa 2.650±50 B.P. izan da.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)
Blot, J. (1994a)
Blot, J. (1994d)
Blot, J. (1994e)
Marambat, L. (1994)

236.- HORTZ-ZORROTZ

Kokalekua
Auzaiko lepotik 500 m H-HE-ra, Hortz-Zorrotz harkaitzetako zirku naturalaren barruan, Urepeleko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 632.800 Y. 4.767.040 Z. 1.025

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua. Harrespil horren barruan 3,90 m-ko beste harrespil bat dago, lehengoaren ukitzailea I-an eta bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua. Barruti horren barruan 1,15 m-ko luzera eta 0,25 m-ko zabalera duen harri lauki zuzen bat dago, E-M norabidea duena.
2.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 13 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean neurri ertaineko harri bat du.

Historia
Bi aldi jarraitutan aurkitu ziren: Hortz-Zorrotz I-eko barruko harrespila 1948an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek; Hortz-Zorrotz I eta Hortz-Zorrotz II-ko kanpoaldeko harrespilak 1970ean aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949b)
Blot, J. (1972c)

237.- HORZA

Kokalekua
Baigura mendiaren (897 m) hegoaldeko mendi-adarrean, Orzaizeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 637.540 Y. 4.791.340 Z. 500

Deskribapena
6 harrespileko multzoa. Eskistoa eta hareharria.

1.- 5 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna. Ez du ageriko lekukorik I-an eta HE-an.
2.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua.
3.- 6 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren 7 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-an.
5.- Harrespila. 2 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren 5 lekuko agerikoz osatua.
6.- 7 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua.

Historia
Lehenengo 5 harrespilak 1952an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. 6.a J. Blotek aurkitu zuen 1970ean. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1962a)
Blot, J. (1972a)

238.- ILARRITA (OKABE)

Kokalekua
Okabeko gailurraren IM-ko zelaigune zabal batean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

100. argazkia. Ilarritako harrespil multzoa (Okabe).

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 654.100 Y. 4.767.440 Z. 1.380
X. 654.160 Y. 4.767.280 Z. 1.387
X. 654.200 Y. 4.767.100 Z. 1.403

Deskribapena
26 harrespileko multzoa. Kuartzoa.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean harri bat du.
2.- Harrespila. 7,20 m-ko diametroa I-H eta 7,60 m-koa E-M. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua.



34.irud. Ilarritako harrespila (Okabe). (J. Blot, 1977e).

3.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa. Bloke formako 33 lekuko agerikoz osatua; horien artean 1,40 m-ko luzera duen eta lurrean etzanda dagoen bat nabarmentzen da.
4.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke formako 43 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke formako 52 lekuko agerikoz osatua.
7.- Harrespila. 4,40 m-ko diametroa. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua.
8.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 6,60 m-koa E-M-an. Bloke formako 45 lekuko agerikoz osatua.
9.- Harrespila. 5,40 m-ko diametroa. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua.
10.- Harrespila. 4,80 m-ko diametroa. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua.
11.- Harrespila. 6 m-ko diametroa I-H-an eta 6,40 m-koa E-M-an. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua.
12.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke formako 46 lekuko agerikoz osatua.
13.- Harrespila. 6,60 m-ko diametroa I-H-an eta 6,80 m-koa E-M-an. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua.
14.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 50 lekuko agerikoz osatua.
15.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua.
16.- Harrespila. 5,40 m-ko diametroa. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua.
17.- Harrespila. 4,40 m-ko diametroa. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua.
18.- 5 m-ko diametroa eta 0,80 eta 0,10 m bitarteko garaiera duen harrespil tumuluduna. Orain dela gutxi desagertu diren hainbat lekuko ezezagunez osatua. Barrualdean hainbat harri ditu agerian.
19.- 3 m-ko diametroa eta zentimetro gutxiko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua. Sakonune txiki bat du erdialdean.
20.- Harrespila. 2 m-ko diametroa. Bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua. Lekuko gehienak IM-an daude.
21.- 5 m-ko diametroa duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 26 lekuko agerikoz osatua; gehieneko garaiera ez da 0,35 m-tik gorakoa.
22.- 3 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua.
23.- Harrespila. 1,80 m-ko diametroa. Bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua. Lekuko gehienak H-an daude.
24.- 6 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua; lekuko horiek H-an dira ugarien.
25.- 6 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. IE-an dauden bloke formako 4 lekuko agerikoz osatua.
26.- 5 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako hainbat lekuko ageriko ditu, gehienbat HE-an. Hainbat harri ditu barrualdean.

101. argazkia. Okabeko multzoaren ikuspegia.

Historia

1914an, R. Gombaultek guztira 17 harrespil aurkitu zituen (1.tik 17.ra), baina Roch (1935) komandantearen arabera 19 ziren; 1947an, J. M. de Barandiaran bertara joan eta 13 monumentu aurkitu zituen, seguruak, eta 4 dudakoak. 1972an, J. Blotek 9 harrespil berri aurkitu zituen. (18.etik 26.ra).

102. argazkia. Okabeko multzoko harrespiletako baten irudia.

Monumentu horietako bi R. Gombault-ek induskatu zituen 1914an, eta J. Blotek induskatu zituenaren oso antzekoak ziren. Azken horrek 6.a induskatu zuen 1976an, baina aurretik, 1968an eta 1976an, hainbatetan hautsi zituzten monumentuaren zenbait atal. J. M. de Barandiaranek (1950) argitaratu zuenaren arabera, M. Duperier-ek hainbat lan egin zituen monumentu horietako batzuetan 1940ko hamarraldian, eta "Burdin Arokoaren motako zeramika" aurkitu zuen bertan.

Egiturak eta estratigrafia
6. harrespila.
J. Blotek emandako datuen arabera:
Monumentu hau osorik induskatu zen. Era horretako beste monumentu batzuek baino estratigrafia konplexuagoa du. Horregatik deskribatzen da bai peristalitoan bai erdialdean, baina bi leku desberdinetan erdialdearen kasuan: indusketa lanak egin zituenak D izena eman zion epaian eta harrespilaren erdialdeari eta egiturari dagokionean eta B epaian, aipatutako erdialdearen eta peristalitoaren artean. Aldi berean epai estratigrafiko berri bat egin da B epaiaren eta peristalitoaren artean (A epaia).

- Peristalitoa.

Lekuko handiek osatzen dute, zenbaitetan 1,50 m-ko garaierara ere iristen direnak; horietako batzuk 0,80 m sartzen dira lurrean. Estratigrafia hau du behetik gora:
A epaia:
- 1 maila: lur begetal marroixka, 0,20 m-ko lodierakoa; hareharrizko hainbat bloke ditu, lekukoarekin elkar ukitzen.
- 2 maila: lur marroia, ikatz zatiki txikiak ditu eta lekukoetatik hurbil loditasun handiagoa du. Lekukoen oinarrira ere iristen da; bertan harri altxagarriak daude.
- 6 maila: hareharri plastiko horia, laranja koloreko orbanekin eta zenbait uharrirekin.

- Erdialdea.

D epaia monumentuaren erdialdeari dagokio, eta ondoko estratigrafia hau du.
- 1 maila: 0,20 m-ko lodiera duen lur begetala. Bertan erdialdeko pilako hainbat harri sartzen dira.
- Bloke formako harri pila, 2 eta 3 mailak hartzen dituena. Forma hemisferikoa du, eta metro inguruko diametroa; 0,30 eta 0,40 m bitarteko garaiera du. Harri handienak (0,20 m-ko diametroa) harri pilaren oinarria egiteko erabili dira, koroa forman jarrita, eta baita kanpoaldea estaltzeko ere. Barrualdeko harriak txikiagoak dira (0,10 eta 0,20 m bitartekoak). Egituraren behealdean txingar arrastoak daude; egur ikatz arrastoak ere aurkitu dira.
- 4 maila: errauts asko ditu, 0,30 eta 0,04 bitarteko lodiera hartzen dutenak.
- 4' maila: beroaren eragina nabari zaion hareharria, 0,02 eta 0,03 m bitarteko lodiera duena.
- 3' maila: hareharri grisa, egur ikatz zatikiekin, eta suaren eragina izan duen lur zatiak. 0,20 eta 0,25 m bitarteko lodiera du.
- 5 maila: higadurak nabarmen eraldatutako hareharrizko bloke txiki ertz ugarikoez osatua. 0,25 m-ko lodiera du, eta berezko lurrari dagokio.
- 6 maila: bertako hareharri plastiko horixka.
Monumentuaren erdialdetik metro batera dagoen B epaiak ondoko estratigrafia hau du:
- 1 maila: aurretik deskribatua, nahiz eta azken honek 0,10 eta 0,20 m bitarteko diametroko hareharrizko bloke batzuk dituen.
- 2 maila: aurretik azaldua. 0,10 eta 0,15 m bitarteko lodiera du.
- 3 maila: aurretik deskribatutako 3' mailaren oso antzekoa. Puntu honetan 0,20 eta 0,25 m bitarteko lodiera hartzen du.
- 4 maila: aurretik azaldua. 3 eta 4 mm bitarteko lodiera hartzen du.
- 3' maila: aurretik azaldua, 0,20 m-ko lodiera hartzen du.
- 5 maila: aurretik azaldua. 0,25 m-ko lodiera du.
- 6 maila: aurretik azaldua.
C epaia B eta A epaien artean dago:
- 1 maila: aurretik azaldua. Puntu honetan 0,20 m-ko lodiera hartzen du.
- 2 maila: aurretik azaldua. 0,15 eta 0,20 m bitarteko lodiera.
- 5' maila: aurretik azaldu den 5 mailaren oso antzekoa.
- 3' maila: aurretik azaldua, 0,15 eta 0,20 m bitarteko lodierakoa.
- 5 maila: aurretik azaldua.
- 6 maila: aurretik azaldua.

Materialak
6. harrespila.
Askotarikoak:
- Egur ikatz zatiak.

Kultura sekuentzia
6. harrespila.
C14 datazioa (Gif zbkia 4.186) 2.370±100 B.P-koa izan da, eta K.a. 780-190 tartea ematen du Tucson kalibrazioarekin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1950)
Barandiaran, J. M. de (1953)
Blot, J. (1972b)
Blot, J. (1977e)
Blot, J. (1978a)
Blot, J. (1979c)
Gombault, R. (1935)
Roch, C. (1935)

239.- IPARLA

Kokalekua
Iparla (727 m) mendiaren mailatik hurbil dagoen ordeka batean, Bourouzumeko bordaren hegoaldean, Bidarraiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 66 (26-5). Maya del Baztán. (1:50.000)
X. 632.100 Y. 4.789.100 Z. 820

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria.

103. argazkia. Iparlako harrespil multzoa.

1.- 5 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,60 eta 0,30 m bitarteko garaiera duten 2 nabarmentzen dira. M-an lekuko gutxi ditu.
2.- 8,50 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,60 eta 0,20 m bitarteko 4 nabarmentzen dira. Hiru lekuko erradio eran jarrita daude. Lekuko gutxi daude eremuaren IE eta HM-an.
3.- 3 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua.
4.- 3 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,20 m-ko garaiera duen lekuko bat nabarmentzen da. 5 lekuko erradio eran jarrita daude. Monumentuaren M-an lekuko gutxi dago.
5.- 4,40 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 2 lekuko agerikoz osatua; hala ere, erdi lurperaturik dauden lekuko gehiago ikusten dira.

Historia
1970ean J. Blotek 3. eta 5. monumentuak aurkitu zituen; 1973an F. Ondarrak 1.a, 2.a eta 4.a aurkitu zituen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1980)
Ondarra, F. (1975a)

240.- IRATI-SORO HEGO

Kokalekua
Iratisoroko zabaldian, Mendibetik Iratiko oihanera doan bidearen eskuinaldean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 656.920 Y. 4.767.340 Z. 1.000

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik I-ko muturrean.
2.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-ko muturrean.
3.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua. I-ko muturrean ez du lekukorik.

Historia
1953an J. M. de Barandiaranek aurkitu zituen. Ez da indusketa lanik egin. Suntsitu egin zituzten Iratiko aparkalekua eraikitzean.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1962a)

241.- IRATI-SORO ERDI

Kokalekua
Iratisoroko zabaldian, Iratiko zabalditik izen bereko txaletera doan bidearen ezkerraldean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

104. argazkia. Irati-Soro Erdiko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 657.020 Y. 4.767.540 Z. 1.000

Deskribapena
Harrespila. 5 m-ko diametroa. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,90 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da. Erdialdean sakonune bat dago eta barruan harlauza bat. Hareharria.

Historia
1952an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin, nahiz eta lanen bat egin den arrastoak dauden barrualdean.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)
Barandiaran, J. M. de (1962a)

242.- IRATI-SORO IPAR

Kokalekua
Iratisoroko zabaldian, Mendibetik Iratiko oihanera doan bidearen eskuinaldean, Irati Soro Hego harrespilen iparraldean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 656.900 Y. 4.767.680 Z. 1.000

Deskribapena
Gaur egun arte ezin aurkitu izan da. Baliteke mendi bide bat gainetik igarotzea eta erabat hondaturik egotea.

Historia
1952an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)
Barandiaran, J. M. de (1962a)

243.- IRAUBAZTER

Kokalekua
Irauko haranaren mendebaldean, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 651.200 Y. 4.768.460 Z. 1.000

Deskribapena
Harrespila. 1,80 m-ko diametroa I-IM-an eta 1,60 m-koa H-HM-an. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua; horien artean gehienera 0,20 m-ko garaiera duten batzuk nabarmentzen dira. Pundinga.

Historia
1971n J. Blotek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

244.- IRAUKO LEPOA

Kokalekua
Irauko lepoan, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 652.660 Y. 4.768.660 Z. 1.008

Deskribapena
Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lurretik apenas goititzen diren bloke formako 9 lekuko ditu agerian. Ez du lekukorik IE-ko eta IM-ko muturretan. Pundinga.

Historia
1971n J. Blotek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

245.- IRAUNABAKO ERREKA HEGO

Kokalekua
Irauko haranaren I-an, ibaiaren ondoan, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 651.940 Y. 4.767.440 Z. 935

Deskribapena
Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua. Horien artean nabarmentzen da lurrean etzanda dagoen harri bat, metro bat luze eta 0,60 m zabal dena. Pudinga.

Historia
1968an aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

246.- IRAUNABAKO ERREKA IPAR

Kokalekua
Irauko haranaren I-an, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

105. argazkia. Iraunabako Erreka Iparreko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 652.300 Y. 4.768.540 Z. 966

Deskribapena
Tumuludun harrespila, I-H-an 7 m-ko diametroa duena eta E-M-an 6,50 m-koa. Lauza eta bloke formako 60 lekuko agerikoz osatua. Pudinga.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

247.- IROPILE IPAR (IDOPIL IPAR)

Kokalekua
Organbideko lepoan, 212. mugarriaren 130 m iparraldera, Ezterenzubiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 645.700 Y. 4.768.280 Z. 988

Deskribapena
10 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza eta bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua. Kareharria.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

248.- ITSASEGI

Kokalekua
Itsasegiko gailurraren E-HEan dagoen ordeka batean, hegoaldean Hostategi mendia eta iparraldean Orison mendia dituela, Eiheralarre udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 643.000 Y. 4.771.800 Z. 1.102

Deskribapena
8 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua. Barrualdean 3 harri nabarmentzen dira. Kareharria.

Historia
1972an aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)

249.- JATSAGUNE

Kokalekua
Leizar-Ateka gailurraren oinean eta iparraldean, antzinako artzain bide bat bitan banatzen den lekuan; bideetako bat Arnostegiko lepora doa eta Bentarteko lepora bestea.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 641.220 Y. 4.768.840 Z. 1.230

Deskribapena
Harrespila. 17 m-ko diametroa. Bloke eta lauza fromako 21 lekuko agerikoz osatua. Kareharriak.

Historia
1970ean aurkitu zuen J. Blotek. 1978an induskatu zuen



35.irud. Jatsaguneko harrespila. (J. Blot, 1979d).

aurkitzaileak berak. Ehizaleku bat zela-eta, hondaturik zegoen monumentuaren laurdena IEan.

Egiturak eta Estratigrafia
(J. Blotek indusketa lanak egin ondoren emandako datuen arabera).

- Peristalitoa.

0,30 eta 0,40 m bitarteko aldeak dituzten bloke eta lauzek osatzen dute, nahiz eta batzuk askoz ere handiagoak diren. Hala, IM-an lekukoak handiak badira ere, 2 m luzerainokoak, H-an txikiagoak dira. Hala eta guztiz ere, leku guztietan agertzen dira lekuko nabarmenez, batetik, eta lekuko txikiagoez, bestetik, osaturiko guneak, peristalitoaren 3 m inguruko tartea hartzen dutela kasu batzuetan. Arkuaren I-a hondaturik dago ehizaleku baten ondorioz.
Lekuko gehienak, eta batez ere handienak, kanpoalderantz makurturik daude. Lekuko guztiak 0,40 m-ko sakoneraraino sartuta daude, baina paleolurrera iritsi gabe.

- Barrualdea.

Ez dago inolako egituraren hondarrik, eta inguru honetan lortu den estratigrafia monumentuaren kanpoaldean lortutakoaren oso antzekoa da:
Goitik behera:
1.- Lur begetaleko maila, marroi iluna, sustrai askorekin, 0,18 m-ko lodiera duena.
2.- Lur marroi argiko maila, buztintsu-kareduna, 0,17 m-ko lodiera duena.
3.- Ertz askoko harriez eta inguruko hareharrizko bloke txikiez osatutako maila, oso homogeneoa.

Harrespilaren erdialdean ez zen ikatz hondarrik aurkitu ezta beste inolako egiturarik ere, barrutiaren barrualdean induskatu ziren lubakietan gertatu zen bezalaxe.

Materialak
Industria litikoa:
- Ertz landua.

Askotarikoak:
- Beirazko perla zatiak.

Kultura sekuentzia
Beira zatiaren ikerketatik abiatuta eta J. Roussot-Larroqueren arabera, La Tèneko garaikoa, eta zehazki La Tène IIIkoa dela ondoriozta daiteke.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)
Blot, J. (1979d)
Blot, J. (1981a)

250.- LAURIÑA

Kokalekua
Lauriña mendiaren I-IE-ko lepoan, 162. mugarritik 150 m HM-ra, eta mugaren banaketa lerroan bertan, Bankako udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 634.920 Y. 4.769.140 Z. 1.153

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Pudinga.

1.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 7,60 m-ko diametroa. Bloke formako 40 lekuko agerikoz osatua.
3.- 7 m-ko diametroa I-H-an eta 7,60 m-koa E-M-an eta 0,60 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean 0,20 m-ko sakonera duen sakonune bat du, HE-IM norabidea duena.

Historia
Lopez Sellések aurkitu zituen 1961ean. Ez da indusketa lanik egin, nahiz eta 1. harrespilak barrualdean lanak egin diren arrastoak dituen.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)
Lopez Sellés, T. (1963)

251.- LEIZAR-ATHEKA

Kokalekua
Leizar-Atheko gailurrean, mugarri geodesiko batetik 50 m HM-ra, Eiheralarreko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 641.440 Y. 4.768.140 Z. 1.409

Deskribapena
5,50 m-ko diametroko harrespila. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik IE eta HE muturretan. Kuartzita.

Historia
1971n J. Blotek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

252.- MATARIA

Kokalekua
Mataria izeneko tontor batean, Arnegi mendiaren ekialdetik irteten den gailur sail luzearen barruan, Uharte-Garazi udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 638.440 Y. 4.775.560 Z. 812

Deskribapena
2,80 m-ko diametroa duen harrespila. Bloke formako 13 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

253.- MENDIZABALE

Kokalekua
Mendizabaleko zelaian, Erreelu eta Piketa gailurren artean, Luhusoko udalerriaren lurretan.

106. argazkia. Mendizabaleko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 638.700 Y. 4.794.840 Z. 865

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kuartzoa.

1.- Harrespila. 5 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 33 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean metro koadro bateko esparru bat osatzen duten 3 harriko zista bat ikusten da.
2.- Harrespila. 5,70 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 7,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 38 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1937an J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

254.- MUNHOGAIN

Kokalekua
Munhogain mendiaren IM-ko mazelan dagoen ordeka txiki batean, Baigorriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 635.400 Y. 4.778.040 Z. 860

Deskribapena
15 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua. M-an ez du lekukorik. Kuartzita.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

255.- NEGUSARO

Kokalekua
Beillurti mendiaren I-an, bizkar luzearen bukaeran, Arnegiko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 641.600 Y. 4.773.040 Z. 945

Deskribapena
7 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza eta bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1972an aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)

256.- OIHANBELTZ HEGO

Kokalekua
Oihanbeltzeko lepoaren H-ra dagoen tontor batean, Ezterenzubiko eta Lekunberriko udalerrien lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 650.060 Y. 4.770.080 Z. 934

Deskribapena
5,70 m-ko diametroa eta garaiera txikia duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 30 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,50 m-ko garaierako lekuko bat nabarmentzen da. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

257.- OIHANBELTZ IPAR

Kokalekua
Oihanbeltzeko lepoaren iparraldeko tontorrean, Ezterenzubiko udalerriaren lurretan.

107. argazkia. Oihanbeltz Iparreko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 650.040 Y. 4.770.500 Z. 912

Deskribapena
6,20 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,30 m-ko garaierako batzuk nabarmentzen dira. Barrutiaren erdialdean sakonune bat ikusten da, E-M norabidean, ezagutzen ez den indusketa lanen batek eragina ziur asko. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Harrespil honetan indusketa lanik egin den berririk ez badago ere, barrualdean lurra mugituta dagoela ikusten da.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

258.- ORGELETEGI

Kokalekua
Baigura mendiaren hegoaldean eta Haltzamendi mendiaren mendebaldean, Orgeletegiko (Orgeletei) bizkarrean, Orzaizeko udalerriaren lurretan.

108. argazkia. Orgeletegiko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1345 Ouest. Cambo-les-Bains. (1:25.000)
X. 637.480 Y. 4.792.780 Z. 710

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Kuartzoa.

1.- 5 m-ko diametroko eta 0,40 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Lauza eta bloke formako 28 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,50 m-ko garaierako 4 nabarmentzen dira.
2.- 6 m-ko diametroko eta 0,20 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Lauza eta bloke formako 35 lekuko agerikoz osatua; horien artean 3 lekuko nabarmentzen dira E, M eta H-an, 1,40, 1,40 eta 1,95 m-ko garaierakoak, hurrenez hurren.

Historia
1937an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949a)
Barandiaran, J. M. de (1953)

259.- SOHANDI

Kokalekua
Sohandi mendiaren mendebaldean eta Orissoneko Andre Maria dagoen muinoaren ekialdean, Eiheralarreko udalerriaren lurretan.
4. harrespila lehenengo 3etatik 100 m E-ra dago. Azken 6ak 4. harrespilatik 300 m E-ra daude.

109. argazkia. Sohandiko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 644.780 Y. 4.771.180 Z. 900
X. 645.100 Y. 4.771.180 Z. 877



36.irud. Sohandiko 1. harrespila. (J. Blot, 1984b)

Deskribapena
10 harrespileko multzoa. Pudinga, kuartzoa, hareharria eta kareharria.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 3,50 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua.
3.- Harrespila. 5,80 m-ko diametroa. Lauza eta bloke formako 23 lekuko agerikoz osatua. Barrualdean, 3 m-ko diametroa duen beste zirkulu zentrokide bat du, 14 lekuko agerikoz osatua.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 12 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean beste zirkulu zentrokide bat du, I-H 1,80 m-ko diametroa eta E-M 2 m-ko diametroa duten 4 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 7,80 m-ko diametroa. Lauza formako 19 lekuko agerikoz osatua.
6.- Harrespila. 6,20 m-ko diametroa. Lauza formako 7 lekuko agerikoz osatua.

7.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua.
8.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua.
9.- Harrespila. 7 m-ko diametroa. Bloke formako 7 lekuko agerikoz osatua.
10.- Harrespila. 4,50 m-ko diametroa. Bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1., 2., 3., 4. eta 5. harrespilak J. Blotek aurkitu zituen 1971n; 6., 7., 8., 9. eta 10.a ikertzaile horrek berak aurkitu zituen 1973an. 1., 2. eta 3. harrespilak (J. Bloten V.a, VI.a eta IV.a) 1980an induskatu ziren; 4.a (J. Bloten II.a), berriz, 1984an.

Egiturak eta Estratigrafia
1. harrespila (V.a J. Bloten arabera).
J. Blotek emandako datuen arabera:
Harrespila osorik induskatu zuten.

- Peristalitoa.

Pudingazko 8 blokek osatzen dute; I-an blokeak batzuk besteetatik oso hurbil daude, eta oso urrun edo batere ez H-an. Bloke horietako batek 1,25 m-ko luzera, 0,80 m-ko lodiera eta 0,60 m-ko garaiera du. Bloke horien artean harri txikiagoak daude.

- Erdialdea.

0,60 x 0,50 m-ko harri batek hartzen du monumentuaren eremu hau, baina baita beste txikiago batzuk ere.
Lortutako estratigrafia ondoko hau da, goitik behera:
- Humus maila, 0,08 eta 0,10 m bitarteko lodiera duena, harri koskor txikiekin eta sustraitxoekin.
- Lokatz buztintsuko maila, batez beste 0,20 m-ko lodiera duena.
- Paleolur maila, eskisto plakek osatua. Maila honen gainean daude peristalitoko blokeak.

2. harrespila (VI.a J. Bloten arabera).
J. Blotek emandako datuen arabera:
Harrespila osorik induskatu zen.

- Peristalitoa.

10 bloke nahiko handiez osatua. Batzuk besteetatik oso hurbil daude blokeak.

- Erdialdea.

0,20 eta 0,40 m bitarteko blokeez osatutako zirkulu bat ikusten da barrualdean, eta erdialdean, harririk gabeko eremu bat gelditzen da, 0,90 x 0,50 eta 0,22 m-ko lodierako harri bat izan ezik, erdiko puntutik 0,40 m dagoena E-ra.

Estratigrafia aurreko harrespilean deskribatutakoaren oso antzekoa da. Honetan bloke guztiak paleolurrean daude etzanda.

3. harespila (IV.a J. Bloten arabera).
J. Blotek emandako datuen arabera:
Harrespila osorik induskatu zuten.

- Peristalitoa.

Bloke formako 17 lekukoz osatua. Blokeak 0,80 m ingurukoak dira, batzuk besteetatik oso hurbil daude eta koroa ia osoa osatzen dute, I-an 1,40 m luzeko tarte bat uzten dutela hutsik.

- Erdialdea.

Erdialdea hutsik badago ere, 0,80 x 0,60 eta 0,30 m-ko lodiera duen bloke bat izan ezik, gune horren eta peristalitoaren artean bigarren eraztun bat dago kanpoko blokeak baino bloke txikiagoez osatua. Dena dela, monumentuaren barrualdea ia erabat estaltzen duten harri txiki ugari egotea da alderdi honetako ezaugarri nagusia. Estratigrafiari dagokionez, aurreko harrespiletan deskribatutakoaren antzekoa da.

4. harrespila (II.a, J. Bloten arabera).
J. Blotek emandako datuen arabera:
Harrespila osorik induskatu zuten.

- Peristalitoa.

Bloke formako eta zenbaitetan neurri handiko 14 lekukoz osatua; bloke horien arteko guneak bloke horiek baino askoz ere txikiagoez beteak dira askotan. Harri txiki horiek, bestalde, zenbait lekukoren barrualdean daude, eta baita peristalitoaren eta erdiko egituraren arteko eremuan ere. Harri txiki ugari dago monumentuaren IE-an.

- Erdialdea.

Erdialdeko egitura, forma biribil oso irregularrekoa, peristalitoko blokeak baino bloke txikiagoez osatua da. Irekiune bat du H-HM-an. Leku horretan forma bitxiko hiru harri aurkitu dira. Horietakoren batek estalki funtzioa bete bide zuen.

Materialak
1. harrespila.
Industria litikoa:
- Harri koskorra.
Zeramika:
- 3 zeramika zati.
Askotarikoak:
- Ikatz hondar gutxi.

2. harrespila.
Zeramika:
- Neurri txikiko zatiak.
Metala:
- Burdinezko sega ahoa.

3. harrespila.
Industria litikoa:
- Kuartzitazko 2 harri koskor.
- Hareharri plaka zatia.
- Chopping-tool bat.
Zeramika:
- Zeramika bernizatuko zatiak.

4. harrespila.
Industria litikoa:
- Harri koskor txikia.
- Hareharrizko blokea.
Zeramika:
- 2 zeramika zati.
Metala:
- 2 lantza mutur.
- Ferra zati bat.
Askotarikoak:
- Egur ikatz zatiak.

Kultura sekuentzia
1. harrespila.
Termoluminiszentzia bidezko datazioa (Bdx 475 TL) 800±210 B.P. da, eta K.a. 1150 - K.o. 210 ematen du Tucson kalibrazioarekin.

4. harrespila.
C14 (Gif 6.640 zbkia.) datazioa 2.680±80 B.P. izan da. J. Blotek, ordea, ez du ontzat hartzen datazio hori, eta aurkitutako materialen tipologiaren arabera, monumentua K.o. X. eta XIV. mende tartekoa dela adierazten du.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)
Blot, J. (1978b)
Blot, J. (1983a)
Blot, J. (1984b)
Blot, J. (1985c)
Blot, J. (1987a)
Blot, J. (1989b)

260.- TURAORKO BIZKARRA

Kokalekua
Turaor mendiaren oinean, hegoaldeko muturrean, Bankako eta Luzaideko udalerrien lurretan

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X.634.940 Y. 4.769.800 Z. 1.162

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kareharria eta kuartzoa.

1.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 2 m-ko diametroa. Bloke formako 11 lekuko agerikoz osatua.
3.- 4,50 m-ko diametroko eta 0,20 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Bloke formako 15 lekuko agerikoz osatua.

Historia
1971n aurkitu zituen J. Blotek, eta hark eman zien Turaor izena. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

261.- TURAORKO EGIA

Kokalekua
Turaor mendiaren hegoaldean, mugan bertan, Bankako eta Luzaideko udalerrien lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry (1: 25.000)
X. 634.940 Y. 4.770.140 Z. 1.155

Deskribapena
5 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua. Monumentuaren barrualdean hainbat bloke daude. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zituen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

262.- TURAORKO LEPOA

Kokalekua
Linduxetik Memotzera doan mendi bizkarrean, Bankako eta Luzaideko udalerriak banatzen dituen burdin hesia igarotzen den lekuan bertan.

110. argazkia. Turaorko Lepoko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1: 25.000)
X. 634.940 Y. 4.769.920 Z. 1.050

Deskribapena
3 m-ko diametroko eta 0,15 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua. Pudinga.

Historia
1971n aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

263.- UNTXIDE

Kokalekua
Izpegiko lepoaren ipar-ekialdean eta Aintziaga mendiaren mendebaldean, Baigorriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 631.020 Y. 4.783.020 Z. 780

Deskribapena
Harrespila. 10 m-ko diametroa. Bloke formako 4 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean krater sakon bat du. Hareharria.

Historia
1948an aurkitu zuen J. M. de Barandiaranek. Ez da indusketa lanik ezagutzen. Ez dugu aurkitu.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949c)

264.- URDANARRE

Kokalekua
Urdanasburu eta Leizar Atheka mendien artean, Eiheralarreko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 641.220 Y. 4.769.100 Z. 1.240

111. argazkia. Urdanarreko harrespil multzoa.

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Kuartzoa.

1.- Harrespila. 4,40 m-ko diametroa. Bloke formako 27 lekuko agerikoz osatua.
2.- Harrespila. 7,50 m-ko diametroa. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua.
3.- 12,50 m-ko diametroa eta 0,80 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako hainbat lekuko agerikoz osatua. Lekukoetako batek, HE-an lurrean etzanda, 3,20 m-ko luzera du, eta beste batek, IM-an, 1,80 m.



37.irud. Urdanarreko harrespila. (J. Blot, 1978b).

Historia
J. Blotek aurkitu zituen 1971n. 3.a aurkitzaileak induskatu zuen 1989an, eta Urdanarre Sud 1 izena eman zion.

Egiturak eta Estratigrafia
3 harrespila.
J. Blotek emandako datuen arabera:
Osorik induskatu zen.

- Peristalitoa.

Kuartzitazko 38 blokez osaturiko koroa bat da; bloke horietako batzuk neurri handikoak dira (metro beteko luzera, 0,20 m-ko zabalera eta 0,30 m-ko lodiera). Zirkuluaren I-an eta IE-an desagertu egiten dira bloke horiek. E-an daudenak nahiko tente zeuden, baina M-koak lurrera eroriak zeuden.

- Erdialdea.

Monumentuaren erdia, barrutiaren gainerako alderdietan gertatzen den bezala, flysch maila batek hartzen du, eta maila horretako zainak HE-IM norabideari jarraituz banatzen dira geruzetan. Monumentuaren erdialdean, H-rantz mugituta, sakonune txiki bat aurkitu zen harkaitzean, forma biribilekoa eta 0,40 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko sakonera zuena. Segur asko naturala den sakonune horretan buztin-kareharrizko lur fin, marroi argian, ikatz zati batzuk, gutxi, aurkitu ziren eta lur errea izan zitekeenaren hondarrak.
Harrizko zirkulu ohiz kanpoko honen estratigrafia ondoko hau da, goitik behera:
- Lur begetaleko maila, kolorez marroi iluna, eta 0,04 m-ko lodiera duena.
- Buztin-kareharrizko maila, marroi argia, eta 0,20 eta 0,30 m bitarteko lodiera duena.
- Maila harkaiztsua, flysch geruzez osatua.

Materialak
3. harrespila.
Askotarikoak:
- Ikatz hondar gutxi.

Kultura sekuentzia
Aurkitutako ikatz hondarrak ez dira nahikoak izan C14 datazioa lortzeko.

J. Blotek, monumentu honen indusketa lanetako zuzendariak, T. Dorotek Pirinio Garaietan induskatu zuen antzeko ezaugarriekiko monumentuarekin lotu du. Hark C14 3.280±110 B.P. datazioa eman zuen, eta horren kalibrazioak K. a. 1.860 eta 1.385 bitarteko data emango luke.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)
Blot, J. (1978b)
Blot, J. (1981c)
Blot, J. (1990c)
Blot, J. (1991b)

265.- URDANARRE IPAR

Kokalekua
Urdanarre gailurraren oinean, gailurretik iparraldera dagoen ordoki batean, Arnegiko eta Eiheralarreko udalerrien lurretan.

112. argazkia. Urdanarre Iparreko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 641.420 Y. 4.769.320 Z. 1.200

Deskribapena
Harrespila. 4,50 m-ko diametroa I-H-an eta 5 m-koa E-M-an. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. Kareharria.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1972an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1978b)
Blot, J. (1993)

266.- URDIAKOHARRIA I

Kokalekua
Ardanza (1.250) m eta Munhoa (1.027 m) mendien artean dagoen bizkarrean, Baikorriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Ouest. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 636.000 Y. 4.766.860 Z. 950

Deskribapena
7 m-ko diametroko harrespila. Lauza formako 19 lekuko agerikoz osatua, 0,10 eta 0,20 m bitarteko garaierakoak. Ez du lekukorik IE-ko eta IM-ko muturretan. Hareharria.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1971n. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

267.- URDIAKOHARRIA II

Kokalekua
Ardanza (1.250) m eta Munhoa (1.027 m) mendien artean dagoen bizkarrean, Anhauzeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 636.000 Y. 4.776.840 Z. 950

Deskribapena
5,30 m-ko diametroko eta 0,50 eta 0,40 m bitarteko garaierako harrespil tumuluduna. Bloke formako 19 lekuko agerikoz osatua. Barrualdean zenbait harri agertzen dira. Erdialdean sakonune txiki bat du. Kareharria.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1971n. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972c)

268.- ZAHO

Kokalekua
Alba mendiaren E-an eta Argibel mendiaren H-an, Aldude udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 624.500 Y. 4.772.000 Z. 985

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria eta kuartzoa.

1.- 7 m-ko diametroa eta 1 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 30 lekuko agerikoz osatua. I-

113. argazkia. Zahoko harrespil multzoa.

IE-an lurrean etzanda dagoen harri bat nabarmentzen da.
2.- 9 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 45 lekuko agerikoz osatua; horien artean, I-an, 0,50 eta 0,80 m bitarteko garaiera duten batzuk nabarmentzen dira.
3.- 13,50 m-ko diametroa eta 0,80 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako eta neurri txikiko 30 lekuko agerikoz osatua.



38.irud. Zahoko harrespila. (J. Blot, 1986b).

Historia
1948an aurkitu zituen J. M. de Barandiaranek. 2. monumentua J. Blotek induskatu zuen 1983an.

Egiturak eta Estratigrafia
J. Blotek emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Peristalitoaren lerroari jarraituz metro bat eta bi metro bitarteko zabalerako eta 0,30 eta 0,50 m bitarteko sakonerako lubaki bat zulatu zen, eta lan hori esker, bi zirkulu aurkitu ziren, lauza handiz osatua bat, eta bestea, aurrekoaren ukitzaile eta zentrokide, blokeez osatua.

Kanpoaldeko zirkuluaren I-aren eta H-aren artean alde handiak daude egiturari dagokionez. H-an lauzak neurri apalekoak dira (0,50 eta 0,80 m bitarteko luzerakoak eta inoiz ez 0,30 m-tik gorakoak) eta bertikal daude, eta batzuk besteen alboan daude jarrita, ia tarterik gabe; I-an, berriz, lauzak handiagoak dira, kanpoalderantz makurtuta daude eta batzuen eta besteen artean tarte handia dago. Lekukoak lurrean sartuta daude beti, 0,50 eta 0,60 m bitarteko sakoneran, eta ez dago harri altxagarririk. Lauza guztiak gizakiak landuak dira: batzuetan hiruki forma eman zaie eta beste batzuetan, berriz, lauki zuzenaren forma.

Barruko zirkuluan, aurrekoan bezalaxe, alde handiak daude gune batetik bestera. Hala, H-an bloke trinkoek hesi erregular bat osatzen dute, eta zenbaitetan, periferiako lauzen gunerik garaienaren garaiera berdina hartzen dute. I-an eta E-an, berriz, osagaiak sakabanaturik daude eta oso gutxi dira, gainera.

- Erdialdea.

Bi alde elkarren desberdin daude:
• Blokeez osatutako zirkulu bat, aipatutako barruko eraztunetik metro batera. I-an hobeto mantendu da E-an baino, eta barruko eraztunarekin harrizko korridore baten bidez lotzen da.
• Erdialdeko zista, lauki zuzen formakoa, gutxi gorabehera; metro beteko luzera du ardatz nagusian (E-M norabideduna) eta 0,60 m-ko zabalera barrualdean. 0,30 m-ko garaiera duten 6 blokek osatzen dute, eta garaiera horren araberakoa da zistaren garaiera ere. Ikatz biltegiak egituraren M-an daude bakarrik eta zistaren beraren antzeko lodiera dute. Zistaren beste erdia ikatz zatiekiko buztin horiak hartzen du, ikatz zatiak dituena.
Estratigrafiak ondoko ezaugarri hauek ditu:
- Humus maila, marroi iluna eta 0,25 m-ko lodiera duena.
- Lur begetaleko maila, marroi argiagokoa, homogeneoa, eta 0,15 m-ko lodiera duena.
- Egur ikatzeko maila oso fina, monumentuaren gainalde guztian zabaltzen dena, kanpoko peristalitoa eta bitarteko zirkulua banatzen dituen zerrendan izan ezik.
- Buztin hori plastikoko maila, ikatz zatiekin, harearekin eta harri koskor txikiekin. Maila honen gehieneko lodierak 0, 45 m-ko garaiera iristen du da monumentuaren erdialdean.
- Gogortasun handiko maila, bertako osagaien oxidazioaren ondorioz sortua. Aurretik deskribatutako eraikuntza egiturak paleolurraren zein mailatan dauden bermatuta adierazten du, peristalitoko lekukoena izan ezik, azken horiek zenbait zentimetro beherago iristen baitira.
- Buztin horiko maila, 0,10 m-ko lodiera duena.
- Flysch maila gogorra, hori-beige kolorekoa, 0,02 eta 0,03 m bitarteko lodierakoa.
- Buztin maila homogeneoa, marroi-gorrixka.

Materialak
Industria metalikoa:
- lantza muturra.
Askotarikoak:
- egur ikatzak.

Kultura sekuentzia
Burdin Aroa. C.14 (Gif 6343 zbkia.) datazioa 2640±90 B.P. izan da, eta K.a. 1035 eta 590 tartea ematen du Tucson kalibrazioarekin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1949b)
Barandiaran, J. M. de (1949c)
Blot, J. (1980)
Blot, J. (1986b)
Blot, J. (1989a)

269.- ZAHO HEGOA

Kokalekua
Alba mendiaren ekialdean eta Zahoko harrespilen hegoaldean, Zahoko monolitoaren ondoan, Aldudeko udalerriaren lurretan.

114. argazkia. Zaho Hegoko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 91 (26-6). Valcarlos. (1:50.000)
X. 624.400 Y. 4.771.800 Z. 990

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Kuartzoa eta hareharria.

1.- 7 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 13 lekukoz osatua.
2.- 4 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 4 lekuko agerikoz osatua.

Historia
J. Blotek aurkitu zituen 1974an.

Bibliografia
Blot, J. (1980)

270.- ZEINEGI

Kokalekua
Zeinegiko gailurraren mendebaldeko tontorreko ordeka batean, Ahatseko udalerriko lurretan (Baskazane).

115. argazkia. Zeinegiko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St.-Etienne-de-Baïgorry. (1:25.000)
X. 648.780 Y. 4.777.200 Z. 495

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Bertako pudinga.

1.- Harrespila. 6,80 m-ko diametroa. Lauza formako 6 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik ez I-an ez HM-an.
2.- Harrespila. Lauza formako 15 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik HE-an. Bide bat igarotzen da monumentu honen gainetik.
3.- Harrespila. 9 m-ko diametroa. Lauza formako 14 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik HM-an.
4.- Harrespila. 6 m-ko diametroa. Lauza formako 16 lekuko agerikoz osatua.
5.- Harrespila. 5,80 m-ko diametroa. Lauza formako 9 lekuko agerikoz osatua.

Historia
Cl. Chauchatek eta P. Boucher-ek aurkitu zituzten 1968an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Boucher, P.; Chauchat, Cl. (1968)

271.- ZURZAI HEGO

Kokalekua
Zurzaiko lepotik 200 m HM-ra, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 654.860 Y. 4.768.120 Z. 1.153

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Hareharria eta pundinga.

1.- Harrespila. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik E-ko muturrean. A harrespila izena jarri zion aurkitzaileak.
2.- Harrespila. 3 m-ko diametroa. Bloke formako 28 lekuko agerikoz osatua. 3. harrespilaren ukitzailea da E-ko muturrean. B harrespila izena eman zion aurkitzaileak monumentu honi.
3.- Harrespila. 2,40 m-ko diametroa. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da M-ko muturrean. C harrespila izena eman zion aurkitzaileak monumentu honi.
4.- Harrespila. 2,50 m-ko diametroa. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. D harrespila izena eman zion aurkitzaileak monumentu honi.
5.- Harrespila. 1,90 m-ko diametroa. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua. E harrespila izena eman zion aurkitzaileak monumentu honi.

Historia
J. Blotek aurkitu zituen 1971n. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

272.- ZURZAI IPAR

Kokalekua
Zurzaiko lepotik 200 m IE-ra, Lekunberriko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1346 Est. St-Jean-Pied-de-Port. (1:25.000)
X. 655.180 Y. 4.768.480 Z. 1.160

Deskribapena
3 harrespileko multzoa. Hareharria eta konglomeratua.

1.- Harrespila. 3,20 m-ko diametroa. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,20 m-ko garaierako bat nabarmentzen da.
2.- Harrespila. Bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,80 m-ko garaierako bat nabarmentzen da. Ez du lekukorik ez E-an ez IM-an.
3.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua; horien artean 0,40 m-ko garaierako bat nabarmentzen da.

Historia
J. Blotek aurkitu zituen 1971n. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1972b)

ZUBEROA

273.- AHARGO

Kokalekua
Barkoxetik ipar-ekialdera eta Ahargo gailurraren mendebaldera, Barkoxeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1445 Est. Mauléon-Licharre. (1:25.000)
X. 679.900 Y. 4.785.780 Z. 600

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Hareharria.

1.- 7 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 12 lekuko agerikoz osatua.
2.- 8 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1973an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

274.- ALBINZE

Kokalekua
Eskalierra mendiaren ekialdean (1.472 m), Ugatzeko lepotik hurbil, Altzai-Altzabeheti-Zunharretako udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 661.280 Y. 4.770.380 Z. 1.156

Deskribapena
Harrespil tumuluduna, 4 m-ko diametroa eta 0,35 m-ko garaiera duena. Bloke formako 6 lekuko ditu agerian. Hareharriak.

Historia
L. Millánek aurkitu zuen 1989an. Ez da indusketa lanik egin.

275.- ARHANOLATZE

Kokalekua
Arhanolatzeko lepoan, Erroimendi gailurraren inguruan, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1447 Nord. Larrau. (1:25.000)
X. 664.480 Y. 4.762.520 Z. 1.150

Deskribapena
5 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua. Ez du lekukorik H-an. Hareharria.

Historia
J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen 1956an. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1962a)

276.- BAGURDINETA

Kokalekua
Odeizugañe mendiaren IM-ko ordeka batean, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1447 Nord. Larrau. (1:25.000)
X. 658.260 Y. 4.764.960 Z. 1.469

Deskribapena
5 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua; horien artean, 0,95 m-ko garaiera duen bat nabarmentzen da E-an. Monumentuaren erdialdean indusketa lanak egin izanaren arrastoak daude. Pudinga.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1971n. Erdialdean indusketa lanak egin izanaren arrastoak daude.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

277.- ERROIMENDI

Kokalekua
Larraineko mendatearen eta herriaren artean, 1.363ko mailan, Erroimendiko gurutzetik mendebaldera, handik metro gutxira, Erroimendiko lepoaren ipar-ekialdean, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1447 Nord. Larrau. (1:25.000)
X. 664.240 Y. 4.762.760 Z. 1.363

Deskribapena
3 m-ko diametroko eta garaiera txikiko harrespila. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua. Eskistoa.

Historia
L. Millán eta J. J. Ochoak aurkitu zuten 1988an. Ez da indusketa lanik egin.

278.- HARTSUDURRA (ESKALIERRA)

Kokalekua
Ordoki batean, 1.212 m-ko garaieran, Lepo-Xipiarako igoera baino lehen, Altzai-Altzabeheti-Zunharretako udalerriaren lurretan.

116. argazkia. Hartsudurrako harrespila (Eskalierra).

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 661.380 Y. 4.769.620 Z. 1.212

Deskribapena
10,50 m-ko diametroa eta tumulu txiki bat duen harrespila. Lauza formako 22 lekuko agerikoz osatua. Antzina indusketa lanak egin izanaren arrastoak daude erdialdean. Pudinga.

Historia
J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen 1952an. Itxuraz ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1953)
Blot, J. (1979b)

279.- HEZELEKUA

Kokalekua
Hezelekuan, Argaiñe gailurraren M-IM-an, Urdiñarbeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 661.940 Y. 4.778.660 Z. 851

Deskribapena
6 m-ko diametroa eta 0,70 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 6 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean sakonune handi bat du. Kareharria.

Historia
J. M. de Barandiaranek aurkitu zuen 1958an. Ez da indusketa lanen berririk, nahiz eta erdialdean duen zuloak adierazten duen lanik egin dela barrualdean.

Bibliografia
Barandiaran, J. M. de (1962a)

280.- ILHARREKO ORDOKIA

Kokalekua
Organbideska lepoaren HM-ra dagoen ordoki batean, Pelusa mendiaren I-ko isurialdean, Larraineko udalerriaren lurretan.

117. argazkia. Ilharreko Ordokiko harrespil multzoa.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 659.640 Y. 4.765.960 Z. 1.460

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako kuartzita.

1.- Harrespila. 4 m-ko diametroa. Bloke formako 18 lekuko agerikoz osatua. 2. harrespilaren ukitzailea da IM-eko muturrean.
2.- Harrespila. 5,50 m-ko diametroa. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua.1. harrespilaren ukitzailea da HE-ko muturrean.

Historia
1. harrespila J. Blotek aurkitu zuen 1971n eta 2.a Cl. Chauchat eta P. Boucher-ek aurkitu zuten 1968an. Ez da indusketa lanik egin ez batean ez bestean.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)
Boucher, P.; Chauchat, Cl. (1968)

281.- LAPATIÑEGAÑE

Kokalekua
Iratiko txaleten hegoaldean, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 659.960 Y. 4.765.740 Z. 1.430

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Bertako kuartzita.

1.- 4 m-ko diametroko harrespila. Lur azaletik apenas goititzen diren 6 lekuko agerikoz osatua.

2.- 5 m-ko diametroko eta 0,30 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 5 lekuko agerikoz osatua.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1970ean. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

282.- LEPO XIPIA (ESKALEAK)

Kokalekua
Eskaleak mendiaren gailurraren mendebaldean, gailurretik oso hurbil, Larraineko udalerriaren barruan.

118. argazkia. Lepo Xipiako harrespil multzoa (Eskaleak).

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 660.780 Y. 4.768.880 Z. 1.460

Deskribapena
2 harrespileko multzoa. Konglomeratua.

1.- 8 m-ko diametroa eta 0,80 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 17 lekuko agerikoz osatua.
2.- 6 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua. Gehienera 4 m-ko luzera duen indusketa zulo baten arrastoak ditu erdialdean.

Historia
J. Blotek aurkitu zituen 1970ean. Indusketa lan kontrolaturik egin den berririk ez dago.
J. Blotek tumulu gisa aipatzen ditu.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

283.- MEATZE

Kokalekua
Iratiko txaleten hegoaldean, Mehatzeko lepoan, errepidearen bihurgunearen ezkerraldera, Larraineko udalerriaren lurretan.

119. argazkia. Meatzeko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 660.880 Y. 4.766.040 Z. 1.383

Deskribapena
6 m-ko diametroa eta 0,80 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke formako 9 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean sakonune handi bat du usoak ehizaleku bat eraikitzean egina. Pudinga.

Historia
J. Blotek aurkitu zuen 1970ean. Ez da indusketa lanen berririk.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

284.- MILLAGATE

Kokalekua
Iratiko txaleten hegoaldean, Millagate mendiaren gailurreko zelaigune handi batean, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1447 Nord. Larrau. (1:25.000)
X. 660.640 Y. 4.764.020 Z. 1.444

Deskribapena
5 harrespileko multzoa. Kareharria.

120. argazkia. Millagateko harrespil multzoa.

1.- 7 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 17 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean zista bat du, oso hondatua.
2.- 12,50 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 31 lekuko agerikoz osatua.
3.- 8 m-ko diametroa eta 0,20 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lur azaletik apenas goititzen diren 15 bloke eta lauza agerikoz osatua.
4.- 11,50 m-ko diametroa eta 0,40 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 18 lekuko agerikoz osatua.
5.- 12 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. 29 lekuko agerikoz osatua; horien artean I eta IE-an dauden batzuk nabarmentzen dira, lur azaletik 0,40 eta 0,50 m goititzen direnak.



39.irud. Millagateko harrespila. (J. Blot, 1991a).

Historia
Cl. Chauchat eta P. Boucherek aurkitu zituzten 1967an. 1. harrespila 1968an induskatu zuten aurkitzaileek, baina ez osorik. 3. eta 5. monumentuak J. Blotek induskatu zituen 1986 eta 1987an, eta 5. eta 4. izena eman zien, hurrenez hurren.

Egiturak eta Estratigrafia
• 3. harrespil tumuluduna (V.a J. Bloten arabera).

J. Blotek emandako datuen arabera:
Induskatu ziren monumentuaren peristalitoa IM-a eta H-HE izan ezik, azken hori erabat suntsiturik baitzegoen antzinako indusketa lan batzuen ondorioz– eta erdialdea. Gune horrek 3 m-ko aldeko koadrikula bat hartu zuen. Bestalde, erdialdeko eremu hori eta peristalitoaren IE-a lotzen zituen korridorea ere aztertu zen.

- Peristalitoa.

Ordenarik gabe jarritako lauzez eta kareharri zuriko blokez osatua; lurraren gainean 0,20 m-ko sakoneran jarrita zeuden osagaiak. HM-ko blokeak IE-ko blokeak baino handiagoak ziren.

- Erdialdea.

0,30 m-ko sakoneran harrizko egitura bat aurkitu zen; forma biribila zuen eta hesi txiki batek osatzen zuen. Dena dela, harri horietako asko zirkuluaren kanpoaldean zeuden batez ere, eta oso leku gutxitan jarraitzen zuten jatorrizko beren lekuan. Gune horietan, elkarren gainka jarritako bi bloke ilarak osatzen zuen hesia; guztira, 0,20 m-ko garaiera hartzen zuten eta 0,30 eta 0,40 m bitarteko lodiera oinarrian.

Zirkulu horren erdialdean ez zegoen ez ikatz zatirik ez beste materialen hondarrik; hala eta guztiz ere, hesia osatzen zuten harrien azpian hainbat errauts eta egur ikatz hondar zeuden, eta baita hezur erreen aztarnak ere. Aurkikuntza horien azpian, lurra erreta zegoen 2 mm-ko geruza batean.

Monumentu honen estratigrafia erdialdearen eta peristalitoaren IE-ren artean egin zen lubakiaren bidez deskribatzen da:
- Humus geruza, 0,03 eta 0,04 m bitartekoa, soropilaren azpian dagoena.
- Gris koloreko buztin kareduna eta harri koskor txiki-txikiak nahasturik dituen maila; mailaren goiko zentimetroetan sustraitxoak sartzen dira. Maila honen lodiera aldatu egiten da gune batetik bestera; hala, lodiera handiena erdialdean dago, non 0,30 m-ko lodierara ere iristen den.
- Paleolurrekoak bide ziren harri eta hareharrizko harri koskorrez osaturiko geruza erregularra. Bai erdialdea bai peristalitoa 0,10 m daude maila honen gainetik.
- Buztin plastiko horiko maila, harri koskor finekin nahastua.

• 5. harrespil tumuluduna (IV.a J. Bloten arabera).
J. Bloten datuen arabera:

Peristalitoaren I-a induskatu zen gutxi gorabehera, 2 m-ko zabalera eta 0,70 eta 0,80 m bitarteko sakonera zuen lubaki baten bidez. Horrez gainera, 2 m-ko zabalera zuten bi lubaki egin ziren, elkarzutak eta monumentuaren erdialdean bat egiten zutenak; erdialdean zabaldu egiten zen induskatutako eremua.

- Peristalitoa.

Peristalitoan indusketa lanak egin ondoren, lauza handiz osatutako lerro bat ikusten da kanpoaldean, eta baita harri txikiagoez osatutako hesi txiki bat ere, aurrekoaren ukitzailea barrualdeko aldetik.

Lehenengo zirkulua kareharri zuriko lauza handiek osatzen zuten; lauza horiek 0,80 m sartzen ziren gaur egungo lur azalean barrura. Harri horiek era erregularrean banatzen ziren perimetroan, batzuetatik besteetara batez beste 0,50 m-ko distantzia zegoela. Oinarrian ez zuten altxagarririk kanpoaldean. Barruko zirkulua forma eta neurri askotako blokeez zegoen osatuta, nahiz eta kanpoko zirkuluko harriak baino askoz ere txikiagoak ziren. Ordena jakinik gabe zeuden jarrita eta 3 eta 4 ilara bitarteko hesi bat osatzen zuten.

- Erdialdea.

0,75 m-ko sakoneran, lauza horizontal handi bat aurkitu zen eta haren gainean kareharri zuriko 14 bloke aurkitu ziren itxuraz ordena jakinik gabe jarriak. 1,60 m-ko luzera, gehienera metro bateko zabalera eta 0,10 m-ko lodiera zuten, maskorrak zituen triasikoko eskistozkoa; material hori, ordea, ez zen monumentuaren inguruan aurkitu. E-ko eta I-ko aldeak zuzen-zuzenak ziren eta bat egiten zuten 90°-ko angelu batean. Bloke batzuk lauza handi horretatik distantzia gutxira zeuden.

Aipatutako lauza hori kutxa baten estalkia zen; 1,10 m-ko luzera, I-H orientazioarekin, eta 0,50 m-ko zabalera zuen kutxa lauki zuzen baten estalkia zen. Paretak triasikoko eskistozkoak dira.

Neurriak hauek dira:
- Ekialdeko horma. 1,30 m-ko luzera, 0,30 m-ko garaiera eta 0,10 m-ko lodiera duen lauza batez osatua. Bertikala.
- Iparraldeko horma. 0,50 m-ko luzera, 0,45 m-ko garaiera eta 0,06 m-ko lodiera duen lauza batez osatua. Pixka bat barrualderantz makurtua.
- Hegoaldeko horma. 0,48 m-ko luzera, 0,45 m-ko garaiera eta 0,07 m-ko lodiera duen lauza batez osatua. Pixka bat barrualderantz makurtua.
- Mendebaldeko horma. Bi lauzaz osatua. I-ra dagoenak 0,76 m-ko luzera, 0,35 m-ko garaiera eta 0,08 m-ko lodiera du eta pixka bat makurtuta dago kanpoalderantz. H-ra dagoenak, berriz, 0,55 m-ko luzera eta 0,07 m-ko lodiera du eta barrualderantz dago makurtuta.

Bi harri altxagarri daude, lehenengoa I eta E-ko harrien lotura da eta bigarrena, kutxaren IM angeluan, goiko harlauza kutxaren hormen gainean era horizontalean egon dadin dago jarrita.
Indusketa arkeologikoak estratigrafia hau eman zuen kutxaren barrualdean, goitik behera:

• Hezur erreen biltegia.
• Barrura sartutako lurra.
• Lur beltzaxkako geruza, errautsekin eta egur ikatzekin.
• Berotasunak gorritutako buztin geruza fina.
• Buztin plastiko antzua.

Harrespil tumuludunaren barrualdean, peristalitoaren eta erdiguneko kutxaren artean, lortutako estratigrafia ondoko hau da goitik behera:
- Humus marroiko maila, 0,04 m-ko lodierakoa.
- Buztin karedun maila, oso harri koskor txikiekin. Maila honen lodiera aldatu egiten da gune batetik bestera: alderik lodiena monumentuaren erdialdean dago eta lodiera gutxienekoa, berriz, peristalitoaren ingurukoa da.
- Paleolurtzat har daitezkeen hareharrizko uharrien maila erregularra. Maila hau ez dago ez harrespilaren erdialdean, kutxa dagoen lekuan alegia, ez peristalitoaren inguruan. Bai batean bai bestean monumentuaren eraikitzaileek geruza natural horretan barrura sartu dituzte egiturak.
- Buztin plastikoa eta harri koskor txikiak nahasturik dituen maila. Maila honetan dago sartuta aurretik aipatu den kutxaren parterik handiena.

Materialak
3. harrespil tumuluduna.
Askotarikoak:
- Hezur erraustuen zatiak.
- Egur ikatz zatiak.

5. harrespil tumuluduna.
- Hezur erraustuen zatiak.
- Egur ikatz zatiak.

Kultura sekuentzia
- 3. harrespil tumuluduna.
Burdin Aroa. C14 datazioa (Gif zbkia. 7559) 2730±60 B.P. izan da eta K.a. 1085-790 tartea eman du Tucson kalibrazioarekin.

- 5. harrespil tumuluduna.
Burdin Aroa. C14 datazioa (Gif zbkia. 7306) 2120±60 B.P. izan da eta K.a. 400-K.o. 40 tartea eman du Tucson kalibrazioarekin.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)
Blot, J. (1988d)
Blot, J. (1990a)
Blot, J. (1991a)
Blot, J. (1991c)
Blot, J. (1992)
Boucher, P.; Chauchat, Cl. (1968)

285.- MURKHUILLAKO LEPOA

Kokalekua
Iratiko txaleten hegoaldean, Murkhuillako mendi lepoan, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1447 Nord. Larrau. (1:25.000)
X. 659.100 Y. 4.764.180 Z. 1.528

Deskribapena
9 m-ko diametroa eta 0,30 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Lauza formako 5 lekuko agerikoz osatua. Hareharria.

Historia
1970ean aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

286.- ORGANBIDESKA

Kokalekua
Iratiko txaleten hegoaldean, lehenengo mendi lepoan, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 660.200 Y. 4.766.440 Z. 1.402

Deskribapena
Harrespila. 3 m-ko diametroa. Lur azaletik apenas goititzen diren bloke formako 8 lekuko agerikoz osatua. Ia osorik induskatu da. Pudinga.

Historia
1970ean aurkitu zuen J. Blotek. Indusketa lanak egin direnaren aztarnak daude.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

287.- PELUSAINE

Kokalekua
Iratiko txaleten HM-ra, Pelusaine mendiaren gailurrean, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 659.100 Y. 4.765.480 Z. 1.594

Deskribapena
8 m-ko diametroko eta 0,60 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Bloke formako 8 lekuko ditu agerian, lur azaletik apenas goititzen direnak. Pudinga.

Historia
1970ean aurkitu zuen J. Blotek. Aurkitzaileak tumulutzat hartu zuen. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

288.- UGATZE

Kokalekua
Ahusqui eta Bagargiko lepoa lotzen dituen gailur lerroan, Arbaillen eta Irati ibaiaren artean, Altzai-Altzabeheti-Zunharretako udalerrien lurretan.

121. argazkia. Ugatzeko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 661.220 Y. 4.770.320 Z. 1.167



40.irud. Ugatzeko harrespila. (J. Blot, 1975c).

Deskribapena
6,80 m-ko diametroa eta 0,50 m-ko garaiera duen harrespil tumuluduna. Bloke eta lauza formako 11 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean neurri ertaineko 3 harri ditu. Monumentuaren HE-ko muturrean, zundatzeko makina batek 5ena desegin zuen. Hareharria.

Historia
1970ean aurkitu zuen J. Blotek eta berak egin zituen indusketa lanak 1974an eta 1975ean.

Egiturak eta Estratigrafia
J. Blotek indusketa arkeologikoa egin ondoren emandako datuen arabera:

- Peristalitoa.

Bi alde elkarren desberdin ditu:
Galtzada harri baten neurria duten harriez osatua bata. Harriak harrespileko errauts geruza sakonenaren gainean daude jarrita, baina bertako harkaitzean zulatu gabe.
Bigarren partea, zeinetan harriak itxuraz ordena jakinik gabe jarrita dauden, errauts maila azalenekoaren gainetik dago, aurretik aipatutako harrizko eraztuna estaliz, hartan bermaturik.

- Periferia.

Ez du egituraren hondarrik, eta bere estratigrafia ondoko hau da, goitik behera:

1.- Lur begetal marroi iluneko maila, 0,05 eta 0,07 m bitarteko lodiera duena.
2.- Elkarren gainka dauden bi errauts geruza elkarren desberdinak hartzen ditu. Lehenengo geruza errauts beltza, trinkoa eta egur ikatz zatiekin nahasturik dago, 0,10 eta 0,12 m bitarteko lodiera du, eta bigarrena, aurrekoaren azpitik, errauts grisaxkakoa da, aurrekoak baino finagoa eta homogeneoagoa, 0,05 eta 0,07 m bitartekoa. Bi geruza horien lodiera handiagoa izango da harrespilaren erdialdean periferian baino.
3.- Hori-beige koloreko lur buztintsu maila. Maila horren gainaldeak azpiko suaren eragina ageri du. Barrualdean buztin erreko zatikiak eta errauts zatikiak ditu. Lodiera 0,09 m, periferian, eta 0,19 m, erdialdean, bitartekoa da. Maila honen goiko aldean hareharri triasikoko bertako hareharrizko bloke batzuk aurkitu ziren, 0,35 x 0,20 m neurri ingurukoak.
4.- 2. mailako errautsen antzeko errautsez osaturiko maila. Bi geruza daude, beltza eta grisa, eta maila honetan batzuen eta besteen lodiera antzekoa da eta batez besteko lodiera 0,09 m eta 0,10 m bitartekoa da monumentu osoan.
5.- Berezko lur maila, hori grisaxka, eta gainaldeko suaren eraginez hondaturik 5 eta 6 mm bitarteko lodiera hartzen duen eremuan.

Aipagarria da azkenik, peristalitoaren harri batzuk zuzenean errauts geruza beherenekoan bermaturik daudela eta hortaz, buztinezko geruzaren (3. maila) eta goiko errautsen (2. maila) aurretik daudela jarrita.

- Erdialdea.

Periferiako eremuaren antzeko estratigrafia du, baina lur buztintsuari dagokion 3. mailan, hareharrizko 37 bloke aurkitu ziren itxuraz ordena jakinik gabe jarriak, bolumen gutxi gorabehera koniko bat osatzen zutela, eta 1,50 m-ko gainaldea hartzen zuela I-H ardatzaren arabera eta 1,30 m-koa E-M ardatzaren arabera. Harri bolumen horrek erdialdeko zista bat estaltzen zuen, 4. mailaren gainean finkatzen zena.

Zistaren neurriak 0,90 x 0,50 m ziren eta koroa erdi baten forma zuen, irekia E-an, eta hareharrizko 10 bloke txikiek osatzen zuten, horietako batzuk landuak. Erdialdean, lauza erronboide antzeko bat zegoen, itxuraz zistaren estalkitzat erabili bide zena.
Ezin bereizi izan ziren zistako errautsak eta egitura horri eusten dion 4. mailako errautsak.

Materialak
Industria litikoa:
- 0,05 eta 0,06 m-ko diametroa bitarteko 3 harri koskor.
- Suharri plaka.

Askotarikoak:
- Egur ikatzak.

Kultura sekuentzia
Ez da dataziorik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1974b)
Blot, J. (1975a)
Blot, J. (1975c)
Blot, J. (1979b)
Blot, J. (1979c)

289.- UTHUNARRIA

Kokalekua
Hauze herriaren hegoaldean, Uthunarria (725) mendiaren M-ra, Hauzeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Est. Tardets-Sorholus. (1:25.000)
X. 676.080 Y. 4.769.960 Z. 700

Deskribapena
4 m-ko diametroko harrespila. Bloke formako 10 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean bloke formako 4 harri ditu, itxuraz hilobi ganbera bat osatzen dutenak. Kareharria.

Historia
1972an aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

290.- XARDEKA

Kokalekua
Xardeka mendiaren (1.556 m) eta IE-an, 1.538 m-ko garaieran, haren simetriko den mailaren arteko lepo txiki batean, Larraineko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Ouest. Ordiarp. (1:25.000)
X. 658.540 Y. 4.765.820 Z. 1.520

122. argazkia. Xardekako harrespila.

Deskribapena
8 m-ko diametroko eta 0,40 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Lauza eta bloke formako 20 lekuko agerikoz osatua. I-an sakonune txiki bat du. Kuartzita.

Historia
1970ean aurkitu zuen J. Blotek. Ez da indusketa lanik egin.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

291.- ZERA

Kokalekua
Zera mendiaren gailurrean, goiko plataformaren inguruan, Zalgize-Doneztebeko udalerriaren lurretan.

Koordenatuak:
Orria 1446 Est. Tardets-Sorholus. (1:25.000)
X. 675.180 Y. 4.780.740 Z. 720

Deskribapena
4 harrespileko multzoa. Kareharria.

1.- 12,50 m-ko diametroko eta 0,80 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Bloke formako 14 lekuko agerikoz osatua. Erdialdean 4 m-ko diametroko eta 0,20 m-ko sakonerako zulo baten arrastoak ditu.
2.- 9 m-ko diametroko eta 0,40 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Bloke formako 2 lekuko agerikoz osatua. Indusketa baten arrastoak ditu erdialdean.
3.- 14 m-ko diametroko eta 0,40 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. Bloke formako 4 lekuko agerikoz osatua; lekuko horiek harrespilaren M-an dauden. Erdialdean, E-M ardatzean, 10 m-ko luzerako sakonune handi bat du. 4. tumulua izena eman zion aurkitzaileak.
4.- 8 m-ko diametroko eta 0,20 m-ko garaierako harrespil tumuluduna. IM-ko koadrantean dauden bloke formako 4 lekukoz osatua. Erdialdean sakonune bat du, HE-IM ardatzaren norabidean. Aurkitzaileak 5 tumulua izena jarri zion.

Historia
1972an aurkitu zituen J. Blotek eta tumulu gisa sailkatu zituen. 4 monumentuan egindako indusketa lanaren daturik ez da ezagutzen.

Bibliografia
Blot, J. (1979b)

(Oharra: 4. monumentuaren barruan [Bloten 5. tumulua] harkaitz kristal bat aurkitu zen, sator zulo batean).

HUESCA

292.- AGUAS TUERTAS

Kokalekua
Ansóko udalerriaren lurretan, Hecho-Aguas Tuertas inguruan.

Koordenatuak:
Orria 144 (28-8). Ansó. (1:50.000)
X. 694.450 Y. 4.743.850 Z. 1.620

Deskribapena
Harrespil bakarreko multzoa.

293.- BARRANCO BARCAL ALTO

Kokalekua
Hechoko udalerriaren lurretan, Hecho-Aguas Tuertas inguruan.

123. argazkia. Barranco Barcal Altoko harrespila.

Koordenatuak:
Orria 144 (28-8). Ansó. (1:50.000)
X. 691.600 Y. 4.743.650 Z. 1.950

Deskribapena
Harrespil bakarreko multzoa.

Bibliografia
Beltrán, A. (1954)
Navarro, F. J. (1989)

Monumentuak kokatzeko hautatu diren gune motak era askotakoak dira, eta ondorioz elkarren oso desberdinak diren sei erliebe mota bereizi ditugu: mendi lepoak, mendi bizkarrak, mazeletako zelaiguneak, zelaiak, mazelak eta sakanak.

163. argazkia. Harrespilen banaketak adierazten duenez, kokagune batzuek lehentasuna zuten beste batzuen aldean. Argazkian Errengako harrespil multzoa.

Sailkapen horrekin aurrera jarraitu aurretik, ordea, ezinbestean aipatu behar da mendi bizkar izenpean bildu ditugula gailurrak, gainak, tontorrak, etab., nahiz eta badakigun erliebe mota horien artean desberdintasun handiak daudela. Hala ere, zenbait erliebe mota zati gehiegitan ez banatzearren, sailkapen horren arabera biltzea erabaki dugu.

Euskal Herrian katalogatu diren 291 multzoetatik, 104 mendi lepoetan daude, beraz, erliebe mota hori da gehien hautatu dena era honetako eraikuntzak eraikitzeko.



56. irud. Harrespilen kokalekuei harrespil kopuruaren arabera dagozkien ehunekoak.

Ondoren, mendi bizkarrak edo toki garaiak eta nabarmenak hautatu dira; 70 multzo dira guztira halako erliebeetan eraikitakoak.

Kopuruz gutxiago, 58 alegia, mazela zelaiguneetan daude, eta askoz ere gutxiago dira ordokietan (34), mazeletan (24) edo sakanetan (1) eraikiak.

Datu horiek aztertu ondoren, begi bistakoa da eraikuntza horien eraikitzaileek zein erliebe mota izan zituzten gustukoen hautaketa egiteko orduan. Hala, nahiago izan zituzten gune garaiak, inguruan nabarmentzen zirenak, eta mendi lepoak, eta aldi berean, gehienetan oso ondo ikusten diren guneak.

Hala ere, eta hainbatetan aipatu badira ere kokaleku mota horiek, ez dira monumentu mota horietarako bakarrik erabili. Hala, J. Blotek (1979f) Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Behereko tumuluak tontor inguruetan kokatzen ditu batez ere, eta gutxiagotan mendi lepoetan.

A. Armendarizek (1988), bestalde, Euskal Herriko trikuharriei buruz egiten duen azterketa batean, kokalekuari buruz ari dela, behin eta berriz aipatzen du ehorzketa mota horiek mendi lepoetan kokatzen direla gehienetan.

Ondoren, sintesi moduan, aztarnategi kopuruak eta horien ehunekoak biltzen dira erliebe mota desberdinak banatu ditugun sei kokaleku moten arabera.

KOKALEKUA	MULTZO KOPURUA	EHUNEKOA
Mendi lepoak	104	(%35,73)
Mendi bizkarrak	70	(%24,05)
Hegaletako zabalguneak	58	(%19,93)
Zelaiak	34	(%11,68)
Mazelak	24	(%8,24)
Sakanak	1	(%0,34)

GUZTIRA 291 multzo

4.2.1.3.- Larreekiko eta artzain bideekiko lotura.

Egile askok aztertu dute, batzuk besteek baino sakontasun handiagoz, monumentu megalitiko mota desberdinen eta urteko sasoi jakinetan eta denboraren joanean abereak batetik bestera mugitzeko erabili diren bide ezagunen artean dagoen lotura.

J. M. de Barandiaranek 1953 eta 1957. urteen bitartean honela idatzi zuen: “Pirinioetan larrez larre ibiltzen direnek hartzen duten lur eremua, bai goraldietan bai beheraldietan, bat dator, azaletik bada ere, Pirinioetako kultura megalitikoarekin edo eneolitikoko eta Burdin Aroko artzainen kulturarekin. Hala, Pirinioetako artzainek historian zehar egin duten transhumantzia Eneolito Arotik ondaretzat jaso duten lurra hartzeko moduetako bat da, lurralde hartako artaldeen beharrei erantzun emanez”.

Lan horretan bertan, trikuharri multzoei buruz ari dela, honela jarraitzen du: “Bestalde, udako artzaintzaren ardatzaren inguru berean daude monumentu hauek eta inoiz ez, mota horretako bizimodua aurrera ezin eraman den lekuetan. Horregatik uste osoa dugu artzainak zirela espil eraikitzaileak eta artzainen bizimodua historian zehar eta gaur egun gure herrialdeko historiaurreko artzainek Burdin Aroan egiten zuten bizimoduaren berdina dela”.

J. Blotek, bestalde, J. L. Tobiek (1971) bezalaxe, garrantzi handia ematen dio harreman horri Lapurdi, Zuberoa eta



57. irud. Pirinioetako transhumantzia (1953-1957). (J. M. de Barandiaran).

Nafarroa Behereko eta baita ere lurralde horietatik ekialderako lurraldeetako harrespil eta tumuluei buruz egin dituen lanetan

Orain dela gutxi M. Estebanek (1990) Hego Euskal Herriko erromatarrei buruzko bere doktore tesian artzaintzaren gertakariak eta artaldeen mugimenduak megalitoen fenomenoarekiko duen garrantzia aipatzen du, eta transhumantzia ibilbide nagusiak deskribatu zituen.

Lan honen aztergai den lurraldea gune ezin hobea da artzainen ibilbide mota hauentzat. Antzinatik eta gaur egun arte, leku horietako artzainek, "sasoien" arabera, batetik bestera joan behar izaten dute bere abereekin, larreei etekin handiena ateratzeko. Dena dela, lekualdatze horiek ez dira beti mota berekoak izaten, ibili behar dituzten distantzien artean dago alde handien.

Ildo horretatik, F. Leizaolak (1978) hiru artzaintza mota bereizten ditu:

- "Transhumantzia luzeko" artzaintza, Nafarroa ipar-ekialdeko Pirinioetako haranetan biltzen dena (Erronkari, Salazar, Romanzado eta Urraul Goiti eta Beiti). Inguru horietan "nafar rasa" arrazako artalde handiak Pirinioetako (Larra, Abodi eta Orhi) edo Pirinioaurreko (Aretako mendiak, Illón eta Errando) larreetatik Nafarroako Bardeetara edo nafar eta aragoar Erribera ingurura aldatzen dira, abelbideetan edo Cabañeras delakoetan barrena; 140 kilometro

164. argazkia. Artaldea La Glère de Pombie harrespil multzoan, Biarnoko Val d'Osseaun.



58.irud. Transhumantzia bideak eta monumentu megalitikoak. (M. Esteban, 1990).

inguruko distantziak egiten dituzte bai jaisteko bai igotzeko, eta hainbat egun ematen dituzte bide hori egiteko.

- "Transumantzia ertaineko" artzaintza, Bizkaian, Araba iparraldean, Gipuzkoan, Nafarroa ipar-mendebaldean, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan izaten dena batez ere. Artzaintza mota honetan artaldeak mendietako larreetatik eta kosta inguruko edo lur beheko larreetara joaten dira eta artaldeak aurreko motakoak baino txikiagoak dira. Mota honetako ardiak "latxa" edo "manexa" arrazetakoak izaten dira oro har.

- Artzaintza "mistoa" edo "borda"-koa, ipar-ekialdeko Nafarroa hezeko lurraldeetan (Baztango haranak, Basaburua, Ultzama, Atez, Bidasoaren ubidea eta Ezkurrako harana, besteak beste) eta baita "latxa" arraza bizi den beste gune batzuetan ere izaten dena. Hirurogei buruz osatutako taldeak izaten dira, herri mendietan edo baserri baten lurretan uzten direnak. Artzaintza lanak, jeztea, etab. baserriko beste lan batzuekin batera egiten dira, beraz, ez da erabateko ardura hartu behar zeregin horretan.
Pirinioetan eta inguruko eremuan megalitoak aurkitzeko egin diren prospekzio lanetan zehar ikusi ahal izan da gaur egun erabiltzen diren artzain bideetan monumentu megalitiko ugari daudela, eta hori bera gertatzen dela sasoi baterako erabiltzen dituzten larreetan ere.

Artzaintza guneetako gailur sailetan, mendi lepoetan eta zelaiguneetan, eta garaiera handian dauden ordokietan aztarna ugari aurkitu dira eta horrexegatik lotu dira, antzinatik, artzaintzaren munduarekin.

Dena dela, gertaera horiek frogatu egin badira ere uste dugu ez dela komeni soilik harreman horretara mugatzea; eta bestalde, uste osoa dugu komeni dela baieztatzea beste lekuetatik etorri eta sasoi batez eremu horietan bizi ziren artzainei bakarrik dagokiela gertaera hori. Gai hori, hala ere, ondorio orokorrei dagokien atalean aztertuko da zabalago.

4.2.2.- Ezaugarriak.

Multzoak osatzen dituzten monumentu kopuruari eta horien neurriei eta beste ezaugarri batzuei dagozkien gaiak aztertuko ditugu atal honetan.

4.2.2.1.- Multzo bakoitzaren harrespil kopurua.

Pirinioetako harrespil multzoetako katalogo orokorretik abiatuta, multzo bakoitzak duen monumentu kopuruaren arabera sailkatu dira.

Aztertu diren lurraldeetako zenbaketatik ondorio gisa ateratzen da harrespil bakarreko multzoek osatzen dutela multzo handiena, eta bi harrespileko multzoak distantzia nahiko handira egoten direla gehienetan; bi harrespileko multzoetatik 26 harrespil dituztenetara (Ilarritako multzoa, Okabe) multzoen harrespil kopurua handitu ahala gutxitu egiten da multzo kopurua.



59.irud. Euskal Herriko harrespil multzoetako harrespil kopurua.



60.irud. Euskal Herriko Ekialdeko lurraldeetako harrespil multzoetako harrespil kopurua.

Harrespil bakarreko multzoen kopurua eta bi monumentuz osatutako multzo kopurua soilik Gipuzkoan da antzekoa; aldiz, Nafarroan, harrespil bakarreko multzoak 70 dira, eta 2 harrespilekoak, berriz, 18 soilik.

Euskal Herri osoari dagokionez, aurretik azaldu den guztia berretsi egiten da; bestalde, monumentu bakarreko multzo



61.irud. Pirinioetako harrespil multzoetako harrespil kopurua.

kopurua nabarmentzen da. Bi harrespileko multzoetatik gorako kopuruak behera egiten du, eta oso gutxi dira 6 harrespil baino gehiagoko multzoak (291 multzotik 28 multzo). 10 harrespil baino gehiago dituzten 7 multzo besterik ez dira aurkitu Euskal Herrian.

Ondoren Euskal Herriari dagozkion kopuruak biltzen dira:

Harrespil 1eko multzoak:			139
2 harrespileko multzoak:			41
3 harrespileko	“	:	30
4 harrespileko	“	:	19
5 harrespileko	“	:	22
6 harrespileko	“	:	11
7 harrespileko	“	:	7
8 harrespileko	“	:	5
9 harrespileko	“	:	3
10 harrespileko	“	:	6
11 harrespileko	“	:	1
12 harrespileko	“	:	1
13 harrespileko	“	:	1
14 harrespileko	“	:	1
15 harrespileko	“	:	0
16 harrespileko	“	:	1
17 harrespileko	“	:	0
18 harrespileko	“	:	0
19 harrespileko	“	:	0
20 harrespileko	“	:	1
26 harrespileko	“	:	1

Antzeko zenbaketa egin dugu Euskal Herriaren ekialdera dauden Pirinioetako harrespilen multzoarekin, eta aurrekoen oso antzeko emaitzak lortu dira.

Huesca, Biarno eta Pirinio Garaiak lurraldeei dagozkien datuak ondoko hauek dira:

Harrespil 1eko multzoak:			84
2 harrespileko multzoak:			15
3 harrespileko	“	:	7
4 harrespileko	“	:	4
5 harrespileko	“	:	3
6 harrespileko	“	:	2
7 harrespileko	“	:	2
8 harrespileko	“	:	1
9 harrespileko	“	:	0
10 harrespileko	“	:	1
11 harrespileko	“	:	0
12 harrespileko	“	:	0
13 harrespileko	“	:	1
14 harrespileko	“	:	1
15 harrespileko	“	:	0
16 harrespileko	“	:	1

Euskal Herriko harrespilen zenbaketan lortutako datuak eta gainerako lurraldeetako datuak bateratuz gero, argi eta garbi ikusten da egitura bakarreko multzoak direla nagusi eta zenbat eta monumentu gehiago orduan eta multzo kopuru gu-txiago dagoela. Zenbaketa orokorra ondoko hau da:

Harrespil 1eko multzoak:			223
2 harrespileko multzoak:			56
3 harrespileko	“	:	37
4 harrespileko	“	:	23
5 harrespileko	“	:	25
6 harrespileko	“	:	13
7 harrespileko	“	:	9
8 harrespileko	“	:	6
9 harrespileko	“	:	3
10 harrespileko	“	:	7
11 harrespileko	“	:	1
12 harrespileko	“	:	1
13 harrespileko	“	:	2
14 harrespileko	“	:	2
15 harrespileko	“	:	0
16 harrespileko	“	:	2
17 harrespileko	“	:	0
18 harrespileko	“	:	0
19 harrespileko	“	:	0
20 harrespileko	“	:	1
26 harrespileko	“	:	1

Zerrenda horretan 412 multzo bildu dira, katalogatuei dagozkienak, Luruko Atekak izan ezik, hori ez baita aurkitu.

Zerrenda horretan 6 harrespil baino gehiagoko multzoak 35 besterik ez dira eta 10 besterik ez 10 harrespil baino gehiagokoak.

Harrespil gehien dituen multzoa Nafarroa Beherean dagoen Ilarritakoa da (Okabe), 26 osagai dituena.

165. argazkia. Okabeko multzoko –orain arte ezagutzen den ugariena– harrespiletako bat.

4.2.2.2.- Harrespilen neurriak.

Euskal Herrian katalogatu diren 851 harrespiletatik 832 neurtu dira; gainerako 19ak ez dira aurkitu edo suntsitu egin dituzte bertako neurriak hartzeko aukera eduki baino lehen (3 harrespil Bizkaian, 5 Gipuzkoan, 3 Nafarroan eta 8 Nafarroa Beherean).

Hemen aurkezten dugun katalogo honetan horien guztien diametroak azaltzen dira; gehienetan, I-H diametroa eta E-M diametroa oso antzekoak dira. Katalogoan bi diametroak azaldu badira ere, elkarren desberdinak direnean, monumentu hauen neurrien azterketa egiteko bi zenbakien batez bestekoa atera da.

Lortu diren batez bestekoak, lurraldez lurralde banatuta, ondoko hauek dira:



62.irud. Euskal Herriko harrespilen diametroak.



63.irud. Euskal Herriko harrespilen diametroak, lurraldez lurralde.

Bizkaia (4 harrespila):	5,700 m-ko diametroa batez beste.
Gipuzkoa (125 harrespila):	5,913 m-ko diametroa batez beste.
Nafarroa (457 harrespila):	5,568 m-ko diametroa batez beste.
Lapurdi (58 harrespila):	5,742 m-ko diametroa batez beste.
Nafarroa Beherea (158 harrespila):	5,438 m-ko diametroa batez beste.
Zuberoa (30 harrespila):	7,343 m-ko diametroa batez beste.

Euskal Herri guztiari dagokion batez besteko diametroa 5,672 m-koa da.

Zuberoako lurraldea alde batera utzita, bertako batez bestekoa 7 m-tik gorakoa baita, gainerako lurraldeetan 5 eta 6 m bitartean dago beti batez bestekoa.

Diametroen batez besteko orokorrak baino interesgarriagoa da aztertzea nola biltzen diren monumentuak lurralde bakoitzean eta Euskal Herri osoan, diametroen arabera. Horretarako ondoko taula hau osatu da.

Datu horietatik ondorio gisa ateratzen da 5 eta 6 m bitarteko diametroa dutela egitura gehienek, nahiz eta 4 eta 5 m bitartekoak eta 3 eta 4 m bitartekoak ere haiek bezain ugariak diren.

Neurtu diren 832 aztarnategietatik, 3 eta 7 m bitartekoak dira 595, eta oso gutxi dira, aldiz, 2 m-tik beherakoak eta 8 m-tik gorakoak.

Harrespil txikienak, Zotaletako Erdi izenekoak (Nafarroa), 1,20 m-ko diametroa du. Aldiz, lurralde horretan bertan dago neurri handieneko harrespila, 21 m-ko diametrokoa hain zuzen. Azken hori Azpegiko Lepoa multzoan dago.

Ondoren azaltzen diren grafikoetan harrespilak beren diametroen neurrien arabera nola banatzen diren adierazten da, bai sei lurraldeetan bai Euskal Herri osoan.

Euskal Herriaren ekialdean dauden lurraldeei dagokionez, katalogaturik dauden 253 harrespiletatik 241 harrespilen neurriak hartu dira (7 multzoko 12 monumentu, Huescako 3

	Biz.	Gip.	Naf.	Lap.	Naf.Beh.	Zub.	GUZTIRA
1 m-tik 2 m-ra:	-	2	3	-	9	-	14
2 m-tik a 3 m-ra:	1	2	37	6	19	2	67
3 m-tik 4 m-ra:	1	20	106	5	23	4	159
4 m-tik 5 m-ra:	-	29	86	15	30	3	163
5 m-tik 6 m-ra:	-	33	88	12	34	4	171
6 m-tik 7 m-ra:	1	13	53	11	21	3	102
7 m-tik 8 m-ra:	-	9	38	3	10	6	66
8 m-tik 9 m-ra:	1	8	18	3	4	2	36
9 m-tik 10 m-ra:	-	1	11	1	3	-	16
10 m-tik 11 m-ra:	-	3	7	1	-	1	12
11 m-tik 12 m-ra:	-	4	2	1	-	2	9
12 m-tik 13 m-ra:	-	1	3	-	1	2	7
13 m-tik 14 m-ra:	-	-	2	-	1	1	4
14 m-tik 15 m-ra:	-	-	2	-	2	-	4
15 m-tik 16 m-ra:	-	-	-	-	-	-	-
16 m-tik 17 m-ra:	-	-	-	-	1	-	1
17 m-tik 18 m-ra:	-	-	-	-	-	-	-
18 m-tik 19 m-ra:	-	-	-	-	-	-	-
19 m-tik 20 m-ra:	-	-	-	-	-	-	-
20 m-tik 21 m-ra:	-	-	1	-	-	-	1
Guztira:	4	125	457	58	158	30	832



64.irud. Euskal Herriko Ekialdeko harrespilen diametroak, lurraldez lurralde.

eta Biarnoko 4 ezin neurtu izan dira hainbat arrazoi direla-eta), eta datu hauek lortu dira:

Huesca (90 harrespila): 5,558 m-ko diametroa batez beste.
Biarno (147 harrespila): 5,068 m-ko diametroa batez beste.
Pirinio Garaiak (16 harrespila): 3,987 m-ko diametroa batez beste.

Hala, hiru lurralde horietako monumentuen batez besteko diametroa 5,169 m-koa da.

Honela banatzen dira metro eta lurraldeen arabera:

	Huesca	Biarno	Pirinio Garaiak	Guztira
1 m-tik 2 m-ra:	1	3	4	-
2 m-tik 3 m-ra:	3	12	5	20
3 m-tik 4 m-ra:	25	35	4	64
4 m-tik 5 m-ra:	22	45	7	74
5 m-tik 6 m-ra:	11	18	-	29
6 m-tik 7 m-ra:	8	13	-	21
7 m-tik 8 m-ra:	2	5	-	7
8 m-tik 9 m-ra:	9	3	-	12
9 m-tik 10 m-ra:	-	4	-	4
10 m-tik 11 m-ra:	2	1	-	3
11 m-tik12 m-ra:	1	1	2	-
12 m-tik 13 m-ra:	-	-	-	-
13 m-tik 14 m-ra:	-	-	-	-
14 m-tik 15 m-ra:	-	-	-	-
15 m-tik 16 m-ra:	-	-	-	-
16 m-tik 17 m-ra:	-	-	-	-
17 m-tik 18 m-ra:	-	-	-	-
18 m-tik 19 m-ra:	-	-	-	-
19 m-tik 20 m-ra:	1	-	1	-
Guztira:	85	140	16	241

Taula horretan ikusten da 4 eta 5 m bitarteko diametroak eta 3 eta 4 m bitartekoak direla ugarienak, eta 5 eta 6 m bitartekoak eta 6 eta 7 bitartekoak ere oso ugariak dira.

Talde horretan katalogatu diren monumentu gutxik duten 1,2 m-ko diametroa (Arri), eta gehieneko diametroa 20 m-ko da (enborren Zubia).



65.irud. Euskal Herriko Ekialdeko harrespilen diametroak.

Ondoren lurraldez lurralde (Huesca, Biarno eta Pirinio Garaiak) egingo da harrespilen banaketa, beren diametroa kontuan hartuta, eta baita Euskal Herritik ekialdera dauden aztarnategi guztiei dagokiena ere:

Aurreko orrialdeetan azaldutako datuetatik hainbat balio orokor lortzen dira gaur egun arte katalogatu diren Pirinioetako harrespilen fenomenoaren inguruan.

Hala, monumentu horien guztien batez besteko diametroa neurtu diren 1.073 harrespiletatik 5,559 m-koa da.

Tauletan ikusten den bezala, arruntenak 4 eta 5 m bitarteko diametroak dira, eta gehienak 3 eta 6 m bitartean daude (1.073tik 660 guztira). Horrez gainera, ohikoak dira 2 eta 3 m eta 7 eta 8 m bitarteko diametroak.

Gaur egun arte diametroen neurrien inguruan egin diren kalkuluetan katalogaturik dauden harrespil guztiak era oroko-

rrean aztertu badira ere, ondoko taulan bi taldetan banatuko dira harrespilak: tumulurik gabeko harrespilak batetik, eta bestetik, tumulua duten harrespilak.

	Harrespil tumuludunen kopurua	Harrespil tumulugabeen kopurua	GUZTIRA
Bizkaia	2	2	4
Gipuzkoa	31	94	125
Nafarroa	175	282	457
Lapurdi	16	42	58
Nafarroa Beherea	60	98	158
Zuberoa	22	8	30
GUZTIRA	306	526	832



66. irud. Pirinioetako harrespilen diametroak.

Kalkulu hori bera egin da Euskal Herrian neurtu ahal izan diren 832 harrespilen gainean (307 tumuludunak eta 526 tumulugabeak), eta emaitza hauek lortu dira:

	Harrespil tumuludunak (batez besteko diametroa)	Harrespil tumulugabeak (batez besteko diametroa)
Bizkaia	6,500 m	4,750 m
Gipuzkoa	7,551 m	5,359 m
Nafarroa	5,708 m	5,455 m
Lapurdi	6,775 m	5,340 m
Nafarroa Beherea	5,450 m	5,430 m
Zuberoa	8,490 m	4,187 m
BATEZ BESTE OROKORRA E. HERRIAN	6,105 m	5,402 m

Bai taula horretatik bai grafikotik garrantzi handiko datuak ateratzen dira.

Aztertu diren sei lurraldeetan harrespil tumuludunek tumulurik gabeek baino handiagoa izaten dute diametroa; hala



67.irud. Harrespilen eta harrespil tumuludunen diametroak, lurraldez lurralde.

ere, Nafarroa Beherean talde baten eta bestearen arteko aldea oso txikia da eta Nafarroan ere ez da oso nabarmena; gainerako kasuetan desberdintasun handiak daude, eta nabarmentzekoa da Zuberoako kasua, izan ere, lurralde horretan harrespil tumuluduneko monumentuak tumulurik gabeen bikoitza baitira.

166. argazkia. Harrespil guztiek ez dute denek neurri bera.

Bizkaiko lurraldea kontuan hartzekoa ez bada ere azterketa horri dagokionez, kalkulua 4 aztarnategitan egin baita soilik, kontuan hartzekoa da Gipuzkoa, Lapurdi eta Zuberoa aipatzen direnean, hiruen artean 213 monumentu neurgarri baitituzte guztira.

Dena dela, kontuan hartu behar da Nafarroaren eta Nafarroa Beherearen artean 615 harrespil neurtu direla, eta bai batean bai bestean talde baten eta bestearen arteko aldeak oso txikiak direla.

Hala eta guztiz ere, komenigarria da, gure iritzirako, datu hori gogoan izatea era horretako aztarnategiei buruzko azterketak egiteko garaian.

4.2.2.3. Harrespilen lekuko kopurua.

Harrespilen motako hileta monumentuen katalogoa egitean, izan tumuludun zein tumulugabe, agerian dituzten lekukoen kopurua adierazi da, kontuan hartu gabe aztarnategian indusketa lanak egin diren ala ez.

Euskal Herrian Protohistorian zeuden errausketa errituei buruz J. Blotek 1979an argitaratu zuen lanaren barruan atal bat zegoen indusketa lanak egin aurretik peristalitoetan zeuden ortostato agerikoen kopuruari buruz.

Ondoren, J.I. Vegasek (1988), gai horri berari dagokiola, harrespil sail baten lekukoak zenbatu zituen.

Aztarnategi mota desberdin ugaritan indusketa lanak egin ondoren, ikusi ahal izan da lekukoen kopuruaz baliatzea ez dela balio handikoa harik eta lekuko guztiak agerira atera diren arte.

Lekukoak neurri desberdinetakoak eta, batzuetan, oso txikiak izaten dira, gainera, horregatik behin baino gehiagotan bakar batzuk baino ez dira lur azaletik goititzen. Beste batzuetan, eta horren adibide garbia da Hegieder Ipar (235) aztarnategia, monumentua eraiki zutenek bi alde desberdin egin zituzten monumentuaren barruan; hala, lekuko garaienak iparraldeko erdialdean jartzen zituzten, eta beste batzuk, lur azaletik apenas goititzen direnak, berriz, hegoaldeko erdialdean.

Beraz, gure ustez ezin baliatuko gara lekuko kopuruaren datuaz informazioren bat edo beste lortzeko helburuarekin harik eta monumentuko indusketa lanak erabat amaitu diren arte. Oraingoz, gaur egun esku artean dugun datu kopurua ez da nahikoa alor horretan aurrera egin ahal izateko.

4.3.- Egiturak.

Edozein arkeologia lanarekin hasi aurretik egiten den harrespilen zuzeneko behaketaren bidez hainbat datu lortzen dira; aurreko orrialdeetan azaldu ditugu, hain zuzen ere, horietako batzuk.

Baina datu horiek gabe (egitura tumuluduna den ala ez, peristalitoen neurriak edo lekuko agerikoen kopurua), oso ausarta da lur azaletik apenas goititzen diren egiturak edo lurrak erabat estaltzen dituenak sakontasunez aztertzea.

Alor horretan egin izan dira, behin edo behin, hainbat lan, induskatu ez diren monumentuetatik abiatuta. Guk aztarnategietan bertan jaso dugun esprientziaren arabera, eta monumentu mota horiek berak induskatu dituzten beste kideen esperientziaren arabera, ez dugu uste komenigarria denik ildo horretan sakontzea, akats handiak eragin baititzake, baita itxuraz garbiagoak diren harrespilaren guneetara, esate baterako peristalitora, mugatuta ere.

Horregatik, harrespil hauen egiturak aztertzeko garaian induskatu diren 35 multzori dagozkien 59 monumentuak hartu dira soilik kontuan.

4.3.1.- Oinarrizko fitxa.

KANPAZAULO (2).

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Zirkulu zentrokidea.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

SORBITZUAGA (5).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Ez dago informaziorik.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

EGIAR (14).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.



167. argazkia. Egiarko harrespil multzoko lekuko agerikoak.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Granitozko blokeak eta lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Neurri ertaineko harriek jasotzen dituzte.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

ERRENGA (17).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Granitozko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

MULISKO GAINA (31).
X. Peñalverrek Mulisko Gaina 1 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Triasikoko hareharrizko lauzak. 1,47 m-ko garaie ra duen bat nabarmentzen da.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Paleolurraren gainean daude, neurri ertaineko harriak dituztela altxagarri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Harrespil osoan zehar sakabanaturik.

MULISKO GAINA (31).
X. Peñalverrek Mulisko Gaina 2 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

168. argazkia. Mulisko Gaineko megalito multzoaren indusketa.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Triasikoko hareharrizko lauzak. 1,75 eta 1,45 m-ko garaiera duten bi nabarmentzen dira.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Paleolurraren gainean daude.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Harrespil osoan zehar sakabanatuak.

MULISKO GAINA (31).
X. Peñalverrek Mulisko Gaina 3 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Triasikoko hareharrizko lauzak. 1,40 eta 1,45 m-ko garaiera duten bi nabarmentzen dira.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
0,22 m sartzen dira paleolurrean behera, lubaki estu baten bidez.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
1,80 m I-H eta 1,10 m E-M dituen egitura obala. Lurrean iltzaturik dauden blokeez eta lauzez osa tua. I-ko muturrean dago, monumentuaren lekuko garaienari itsatsia.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Harrespil guztian zehar sakabanatuak.

OIANLEKU IPAR (34).
J. Altunak eta P. Aresok Oianleko Norte (zirkulu txikia) izenarekin argitaratu zuten.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Granitozko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, ez dira paleolurrera iristen.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik. Lur harritsuko harriak kendu dira hezur erraustuak monumentuaren erdian jartzeko, 0,50 m-ko diametroa duen zirkulu batean.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harriak kendu diren leku batean.

OIANLEKU IPAR (34).
J. Altunak eta P. Aresok Oianleku Norte (zirkulu txikia) izenarekin argitaratu zuten.

169. argazkia. Oianleku Iparreko harrespil multzoa.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.
2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Granitozko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, ez dira paleolurrera iristen.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik. Monumentuaren barrualdean zeuden blokeak desagertu egiten dira. Erdialdean hezur erraustuak daude paleolurrera iritsi gabe.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdigunean.

AZPEGIKO LEPOA (75).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

EZKAIN'KO LEPOA (106).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.

3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

MEHATZE (158).
J. Blotek Mehatz V izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko blokea.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Monumentuak hartzen duen eremu osoan era ber dinean eragiten duen indusketa lan baten kanpoal dean bermatuak; lurrak ia erabat ezkutaturik daude.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
U edo ferra formako egitura, bloke errenkada batez osatua, IM norabidea duena; barrualdeko neurriei dagokienez, metro bateko luzera eta 0,60 m-ko zabalera du. 0,10 m-ko geruza batek bereizten du paleolurretik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, egituraren barrualdean.

OLEGI EKIALDE (163).
J. M. de Barandiaranek Ezkain izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

OLEGI MENDEBAL (164).
J. M. de Barandiaranek Ezkain izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

XANTXOTEN HARRIA (183).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez dago informaziorik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago informaziorik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago informaziorik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago informaziorik.

BEHEITAKO-ERREKA (193).

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko blokeak, pudingak, kuartzoak eta eskistoak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Paleolurraren gainean, ez zeuden agerian.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Hondatua.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez da egiturarik ikusten (hondaturik).

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean.

BIXUSTIA (194).

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkaturik, ez dira paleolurrera iristen.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Zeramikazko ontzia, estalkiarekin.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Harrespil guztian zehar sakabanatuak.

MEATZEKO LEPOA (201).
Cl. Chauchatek Meatse (E) izenarekin argitaratu zuen

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Itxuraz ordena jakinik gabe pilatuak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Zista lauki zuzen antzekoa, 0,65 m-ko luzera (E-M) eta 0,55 m-ko zabalera duena (I-H). Batzuk besteak eusten dituzten hareharrizko 5 lauzek mugatua. Barrutiaren sakontasuna 0,60 m-koa da. Estalkia pentagono formako lauza bat da eta 0,90m ditu I-H eta E-M ardatzetan eta 0,13 m-ko lodiera.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Lauza erregular batek erabat estalia.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, zistaren barrualdean.

MEATZEKO LEPOA (201).
Cl. Chauchatek Meatse (A) izenarekin argitaratu zuen.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Lau angeluko irudiaren formako zista, IM-HE norabidea duena. 1,10 m-ko luzera du eta 1 m-ko zabalera. Alde batean lau angeluko harri handi batek mugatzen du eta beste hiru aldeetan lauzek. Estalkia harlauza bat da, 1,35x1x0,20 m-ko neurriduna.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Harrespilaren kanpoaldean, peristalitotik oso hurbil, I-an dauden bi piletan.

MEATZEKO LEPOA (201).
Cl. Chauchatek Meatse (B) izenarekin argitaratu zuen.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Pilatuak, baina lurrean finkatu gabe. Zistako lau zak finkaturik daude eta harri txikiak ditu altxaga rri gisa.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Lau angeluko zista, MIM-EHE norabidea duena. 1 m-ko luzera eta 0,60 m-ko zabalera du, eta 5 lauzek mugatzen dute. Estalkia 1,40 m-ko luzera eta 0,90 m-ko zabalera eta lodiera txikia (0,02 eta 0,20 m bitartekoa) duen lauza bat da.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, zistaren barrualdean.

MEATZEKO LEPOA (201).
Cl. Chauchatek Meatse (F) izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Batzuk besteen gainean, baina lurrean finkatu gabe, harrespil hau bere ukitzailearekin lotzen dituen lauzak izan ezik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Egitura biribila, 1,20 m-ko diametroa duena. Barrualdean harrizko harresitxo bat du, eremu lauki zuzen bat mugatzen duena. Eremu horrek 0,55 m-ko luzera, 0,30 m-ko zabalera eta 0,30 m-ko sakontasuna du. 1,05 m E-M, 0,90 m I-H eta 0,15 m-ko lodiera zuen harlauza batek estaltzen zuen egitura.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdian, zirkuluaren barrualdean.

MEATZEKO LEPOA (201).
Cl. Chauchatek Meatse (G) izenarekin argitaratu zuena.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuta batzuk eta pilatuta besteak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Zista lauki zuzena, IE-HM norabidea duena, eta 1,10 m-ko luzera eta 0,50 m-ko zabalera. Harauza batek estaltzen zuen, baina desagertu egin zen neurketa egin baino lehen.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da ikatz hondakinik aurkitu.

MENDITTIPI (ZELAIAKO BIZKAR) (202).
J. M. de Barandiaranek Zelai W izenarekin argitaratu zuen.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Paleolurrean sartzen dira.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harrespilaren erdigune geometrikoan dagoen 1,50 m-ko luzera, 1 m-ko zabalera eta 0,15 m-ko lodiera rako harlauza.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Tumulu osoa osatzen zuten harri xaflatxoak.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harlauza baten gainean, eta harrespilaren barrualdeko beste gune batzuetan.

MENDITTIPI (ZELAIAKO BIZKAR) (202).
J. M. de Barandiaranek Zelaiko Gaina izenarekin argitaratu zuena.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuta.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez da aipamenik egiten.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez da aipamenik egiten.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ikatz hondarrak, lekua zehaztu gabe.

MENDITTIPI (ZELAIAKO BIZKAR) (202).
J. M. de Barandiaranek Zelai E izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.

2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da aipamenik egiten.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Zista lauki zuzena, 0,65 m-ko luzera, 0,55 m-ko zabalera eta 0,45 m-ko sakontasuna duena. 3 lauzek mugatzen dute (H-ko lauza eta estalkia falta dira).
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez da aipamenik egiten.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ikatzak zistaren barrualdean eta kanpoaldean.

PITTARE (204).
J. Blotek Pittare I izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak. Zenbaitetan 1 m-ko garaiera ere iristen dute.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean sakontasun handira finkatuta (0,80 m), oinarrian blokeak dituztela altxagarri, kanpoaldean.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harri, lauza eta harri koskor pila, sakontasun desberdinetara txandakatzen direnak; forma lauki zuzena du, eta I-H 2 m eta E-M 1,50 m eta 2 m inguruko diametroa duen ikatz gune bat estaltzen du.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Bolumen handiko hareharrizko blokeak, ordena jakinik gabe pilatuak, gaur egungo lur mailatik 0,10 m behera; bloke horiek ematen diote forma tumuluari.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, lur pilaren azpian.

APATESARO HEGO (209).
J. Blotek Apatesaro I izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak. Zenbaitetan metro bateko garaiera iristen dute.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
0,10 m sartzen dira paleolurrean. Harriak dituzte altxagarri behealdean eta kanpoaldean. Lauzei itsatsita dagoen harresia lur mailaren gainean eusten da, paleolurraren gainetik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Forma biribila duen egitura, monumentuaren erdialdean, 2 m-ko diametroa duena eta era irregularrean jarrita dauden galtzada harriaren neurriko blokeez osatua. Lur gainean daude, paleolurretik 0,70 m gora. Ikatz hondarrak ditu.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harrizko zirkuluaren barrualdean.

APATESARO HEGO (209).
J. Blotek Apatesaro I bis izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kuartzitazko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean bermatuak, ez dira paleolurrera iristen.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harri pila bat dago erdian, ikatz gordailu bat eta zeramika hondarren biltegi bat estaltzen dituela; 1,80 eta 1,50 m bitarteko diametroa du, eta 0,35 m-ko garaiera paleolurretik gora.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harri pilaren azpian.

APATESARO EKIALDE (210).
J. Blotek Apatesaro V izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.

2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Tumulua osatzen duten blokeak.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean.

APATESARO IPAR (211).
J. Blotek Apatesaro IV izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko blokeak eta lauzak edo eskistoak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
0,15 eta 0,20 m bitarteko lodiera duen lur geruza baten gainean; geruza horrek bereizten du paleolurretik.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Zista lauki zuzena, 0,70 m-ko luzera (IE-HM ardatza) eta 0,40 m-ko zabalera duena. Lauzek mugatzen duten, kanpoko blokeek sendotzen dituztenak. Lauzak lurrean finkatzen dira paleolurrera iritsi arte. Estalkia du eta 0,20 eta 0,30 m bitarte bereizten du barruko zirkulutik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Barrualdeko zirkulua, peristalitoarekiko paraleloa eta handik zentimetro gutxira, era irregularrean eta batzuk besteen gainean edo elkarren ondoan jarrita dauden blokeez osatua; ez da paleolurrera iristen.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, zistaren barrualdean eta bertatik kanpora.

ERROZATE (225).
J. Blotek Errozate II izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Pudinga lauzak. Batzuek 1,30 m-ko garaiera iristen dute.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean ia erabat iltzatuak (0,90 m), paleozoruaren muga arte.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Hezur erraustuen eta ikatzen kontzentrazioa 0,55 m-ko sakoneran, 0,80 m-ko diametroa eta 0,040 m-ko lodiera duen gune batean. 0,25 m gainetik kuartzita bloke landu bat aurkitu zen hiruki forma zuena; 0,31 m azpitik, erdialdean hau ere, 0,40 m-ko bloke lauki zuzena.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean.

ERROZATE (225).
J. Blotek Errozate III izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Pudinga lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean ia erabat finkatuak, paleolurraren mugaraino.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ikatz kontzentrazioa 0,46 m-ko sakoneran, 0,01 m-ko lodiera duen gainalde nahiko handi batean. 0,13 m gainetik, ia erdigune geometrikoan, kuartzitazko bloke txiki bat aurkitu zen; 0,32 m azpitik, erdialdean, beste bloke txiki bat eta ikatz hondarrak aurkitu ziren.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean.

ERROZATE (225).
J. Blotek Errozate IV izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.

2.2.- Lekukoen forma.
Pudinga lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean ia erabat finkatuak, paleolurraren mugaraino.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ikatz kontzentrazioa 0,42 m-ko sakoneran, 1x1,40 m-ko gainalde batean eta 0,03 eta 0,07 m bitarteko lodiera duela. 0,10 m azpitik, erdialdean baita ere, kubo formako harri bat aurkitu zen, neurriz txikia.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean.

HEGIEDER IPAR (235).
J. Blotek Hegieder 7 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Pudinga blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, paleolurraren gainean daude etzanda.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harri pila, errauts hondarrekin.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harri pilaren azpian eta harrespilaren barrualdearen beste gune batzuetan.

ILARRITA (OKABE) (238).
R. Gombaultek Okabe izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Kuartzozko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean sakon iltzatuak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harri pila, errauts gordailu bat estaltzen duela.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harri pilaren azpian.

ILARRITA (OKABE) (238).
R. Gombaultek Okabe izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez dago informaziorik.
2.2.- Lekukoen forma.
Kuartzozko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean sakon finkatuak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harri pila, gehienera 0,80 m-ko neurria duen biltegi baten estalki modura jarria.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harri pilaren azpian.

ILARRITA (OKABE) (238).
J. Blotek Okabe 6 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kuartzozko lauzak. 1,70 eta 1,50 m-ko garaiera duten bi nabarmentzen dira.

170. argazkia. Okabeko harrespil multzoa.

2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean sakon finkatuak; barrualdean eta kanpoaldean neurri ertaineko harriak dituzte altxagarri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harri pila, metro beteko diametroa duen eta 0,03 eta 0,04 m bitarteko lodiera duen metro bateko errauts biltegi bat estaltzen.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, harri pilaren azpian.

JATSAGUNE (249).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kaltzita blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean iltzatuak; ez dira paleolurrera iristen.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da aztarnarik aurkitu.

SOHANDI (259).
J. Blotek Sohandi II izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Pudinga blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurraren gainean, ez dira paleolurrera iristen.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Forma biribileko egitura, oso irregularra, gutxi gorabehera metro beteko diametroa duena. Peristalitoko lekukoak baino neurri txikiagoko blokeez osatua.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Neurri ertaineko harri multzoa, harrespilaren E-ko muturrean, 2x1 m-ko gainalde batean.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Harrespil guztian zehar sakabanatuak.

SOHANDI (259).
J. Blotek Sohandi IV izenarekin argitaratu zuena.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Pudinga, kuartzo, hareharri eta kareharri blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, paleolurraren gainean etzanda.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
2 m inguruko eremu bat harririk gabea, 0,80x0,60x0,30 m-ko bloke bat izan ezik, monumentuaren erdigune geometrikotik I-ra 0,30 m mugitua.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Neurri ertaineko blokeez estalitako eremua; horien artean handiagoak diren batzuk nabarmentzen dira peristalitoaren paralelo den eraztun bat osatzen dutela, handik distantzia txikira.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da aztarnarik aurkitu.

SOHANDI (259).
J. Blotek Sohandi V izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Pudinga blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, paleolurraren gainean etzanda.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez dago egiturarik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Peristalitoaren inguruan.

SOHANDI (259).
J. Blotek Sohandi VI izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, paleolurraren gainean etzanda.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harririk gabeko eremua, monumentuaren erdigune geometrikotik 0,40 m E-ra mugitu den 0,90x0,50x0,22 m-ko bloke bat izan ezik.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez dago hondarrik.

URDANARRE (264).
J. Blotek Urdanarre Sud 1 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kuartzita blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean iltzatuak paleozoruaren mailaraino.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Esfera erdiaren forma duen kubeta, 0,40 m-ko diametroa eta 0,15 m-ko sakonera duena, bertako harkaitzean zulatua (baliteke naturala izatea).
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, kubetaren barruan.

ZAHO (268).
J. Blotek Zaho II izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 eta 3 motakoak.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko lauzak. 1,50 m-ko garaieran duen bat nabarmentzen da.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Paleolurrean sartzen dira. Hala ere, ez dira ez harresiko harrietara ez barrualdeko zirkulu paraleloko harrietara iristen.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Gutxi gorabehera lauki zuzen forma duen zista, metro bateko luzera (E-M ardatza) eta 0,60 m-ko zabalera duena. Errenkadan jarrita dauden hareharrizko 6 blokek mugatzen dute, eta bloke horien garaierak 0,30 m-ko sakontasuna ematen dio barrutiari; egitura ez da paleolurrean sartzen. Ikatzek zistaren M-ko erdialdea hartzen dute.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Barrualdeko zirkulua, peristalitoaren paralelo eta handik metro batera. Hareharrizko bloke errenkada batek edo bik osatzen dute; ez da paleolurrera iristen.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, zistaren barrualdean eta zikuluaren barrualdean.

MILLAGATE (284).
J. Blotek Millagate IV izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
3 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kareharrizko blokeak eta lauzak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Hareharri plastikoan sakon (0,80 m) finkatuak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Lauki zuzen formako zista, 1,10 m-ko luzera (I-H ardatza) eta 0,50 m-ko zabalera duena. 6 lauzek mugatzen dute eta 1,60 m-ko luzera, 1 m-ko zabalera eta 0,10 m-ko lodiera duen harlauza batek estaltzen du. Horren gainean, kareharrizko 14 bloke daude ordena jakinik gabe jarriak. Barrualdean gizaki hezurrak daude erraustuta, eta baita ikatzak ere, baina elkar nahastu gabe.
3.2.- Peristalitoaren eta erdialdearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdialdean, zistaren barrualdean.

MILLAGATE (284).
J. Blotek Millagate V izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Tumuludun harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kareharrizko lauzak eta blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, paleolurra iritsi gabe.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Zirkulu formako egitura, 2 m-ko diametrokoa, bloke txikizko harresitxo batek osatua, blokeek bi maila iristen dituztela batzuetan, 0,20 m garaia gehienera eta 0,30 eta 0,40 m bitarteko zabalerako oinarria duena.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Erdiko egitura zirkularrak osatzen duen harresitxoaren azpian.

UGATZE (288).

1.- Monumentu mota.
Harrespil tumuluduna.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 mota.
2.2.- Lekukoen forma.
Hareharrizko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean sakon sartuak, paleolurra iritsi gabe.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
U formako egitura, E-ra irekia, hareharrizko 10 bloke txikik osatua, 0,90 m luzea eta 0,50 m zabala barnealdean. Erdialdean lauza erronboide itxurako bat ageri da, egituraren estalki izan bide zena.

3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez dago egiturarik.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Harrespil guztian zehar sakabanatuak.

BARRANCO MAYO BLANCO (301).
T. Andrések Grupo 6 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, paleolurreraino, neurri txikiagoko harri altxagarriek eutsiak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Gainerako alderdietakoak baino osagai handiagoekiko harzola.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Harri koskor biribildu eta harri angelutsuez osaturiko harzola eta lur begetala.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Induskaturiko eremu guztian zehar barreiaturik agertu dira ikatz zati txikiak.

CUARTEL DE CARABINEROS (308).

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Lurrean finkatuak, azalean.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Neurri desberdinetako harriez estalia, gainerako aldeetatik bereizten ez dela.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Neurri desberdinetako harriez estalia.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
"b" mailan, harri artean, egur ikatz aztarnak aurkitu dira.

ACCAUS (332).
Cl. Blanc-ek Couraüs d'Accaüs-eko
2. zirkulu gisa argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kareharrizko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez da erreferentziarik ageri.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da erreferentziarik ageri.

ACCAUS (332).
Cl. Blanc-ek Couraüs d'Accaüs-eko
9. zirkulu gisa argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kareharrizko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez da erreferentziarik ageri.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da erreferentziarik ageri.

ACCAUS (332).
Cl. Blanc-ek Couraüs d'Accaüs-eko
10. zirkulu gisa argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Kareharrizko blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez da erreferentziarik ageri.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da erreferentziarik ageri.

BIOUS OUMETTES (342).
Cl. Blanc-ek Bious-Oumettes izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
2 mota.
2.2.- Lekukoen forma.
Blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Harri altxagarriez eutsiak.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ezin izan zen induskatu.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Neurri desberdinetako lauza horizontalak, eta haien azpian harkaitz zatiekiko buztin geruza bat, 0,40 m-ko batez besteko lodiera duena.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez zen gordailurik aurkitu, erdigunea hondatuta zegoelako. Monumentuaren gainerako alderdietan ere ez zen hondakinik aurkitu.

LAC ROUMASSOT (370).
Cl. Blanc-ek Lac Roumassot izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
1 motakoa.
2.2.- Lekukoen forma.
Blokeak.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez da erreferentziarik ageri.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da erreferentziarik ageri.

BIOUS-ARTIGUES.
Cl. Blanc-ek Bious-Artigues 1 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.2.- Lekukoen forma.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Ez da erreferentziarik ageri.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Monumentuaren erdian, harri elkartuen gainean.

BIOUS-ARTIGUES.
Cl. Blanc-ek Bious-Artigues 3 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.2.- Lekukoen forma.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.
3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Soropil azpiko lauza. 0,20 m azpitik blokez osaturiko lurra dago; horietako bloke batzuetan suaren arrastoak ageri dira. Azaleko lauzaren azpian "3 lauzako errenkada bat" aurkitu zen.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da erreferentziarik ageri.

BIOUS-ARTIGUES.
Cl. Blanc-ek Bious-Artigues 4 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.2.- Lekukoen forma.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Harriz osaturiko lurra; harri horietako batzuk belztuta daude.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Harriz osaturiko lurra; harri horietako batzuk belztuta daude.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da erreferentziarik ageri.

BIOUS-ARTIGUES.
Cl. Blanc-ek Bious-Artigues 6 izenaz argitaratua.

1.- Monumentu mota.
Harrespila.

2.- Egitura periferikoa.
2.1.- Lekukoen antolamendua.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.2.- Lekukoen forma.
Ez da erreferentziarik ageri.
2.3.- Lekukoak nola eusten diren.
Ez da erreferentziarik ageri.

3.- Barne egitura.
3.1.- Erdigunea.
Bi lauza handi aurkitu dira.
3.2.- Peristalitoaren eta erdigunearen arteko eremua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.- Errausketa hondarren gordailua.
Ez da erreferentziarik ageri.

4.3.2.- Egituren balorazioa.

Egiturari buruz aurreko fitxetan aditzera eman diren datuak oinarri harturik, haien balorazio laburra egingo dugu datozen orrialdeetan, goiko fitxetako atalen ordena berari jarraituz.

• Monumentu mota.
Induskatu diren 59 harrespiletatik, tumulurik gabekoak dira 46 eta tumuludunak, berriz, 13.

• Egitura periferikoa.
Aztertu diren monumentu guztiek dute peristalitoa; elkarren artean desberdintasun nabarmenak ageri dira peristalitoan, baina kasu guztietan zedarritzen du espazio gutxiasko zirkular bat.

Atal periferiko hau aztertzerakoan, oso kontuan hartu dira bai peristalitoko lekukoen antolamendua, bai forma eta bai lurrean bermaturik dauden era.

• Lekukoen antolamendua.
Baliagarritzat jo ditugun lehenagoko beste sailkapen batzuei jarraituz (J. Blot, 1979c), hiru sailetan banatu dira orain arte induskaturiko harrespil ezagun guztiak.

Horrela, 1. mota izendaturiko sailean sartu dira, oro har, lauza edo bloke bertikal handiez osaturiko lekukoak zirkunferentziaren tangente, eta kasu bakan batzuetan erradio eran, antolatuta dauden egiturei.

2. motakoak dira, aldiz, harresitxo zirkular baten eran antolatutako peristalitoak; neurri ertaineko eta gutxi-asko elkarren gainean pilaturiko lauzez osatuak dira. Kasu batzuetan blokeak ere izan daitezke, bizpahiru ilaratan jarrian.

Azkenik, 3. motakoetan bietariko ezaugarriak dituzten egiturak sartu ditugu, hau da, espazio erregularrak osatuz kokaturiko lauzak eta haien inguruan 2. motan aipatzen den motako barne zirkulu bat dutenak, harresitxo moduko bigarren zirkulu bat ere badutenak alegia, nahiz eta batzuetan ez den oso nabarmen antzematen zirkulu hau.

Induskatu diren monumentuak sailkatzeko antolatu ditugun hiru multzo hauen arabera, honela banatzen dira monumentuak:

1. mota: 23 monumentu.
2. mota: 8 monumentu.
3. mota: 13 monumentu.

Era berean, ikerturiko harrespiletako bat 1. eta 3. motakoa da aldi berean, bere peristalitoan bereizketa nabarmena ageri baita M-ko alderdiaren eta gainerakoaren artean.

Azkenik, badira 14 harrespil sail hauetako bakar batean ere sartu ezin izan direnak, datu falta dela-eta, izan indusketaren egilearen deskribapenaren zehaztasun faltagatik, izan indusketa egindakoan monumentuaren parte hori ez zelako behar bezain egoera onean aurkitu.

• Lekukoen forma.
Lekukoak egiteko erabili zen materialak zehazten du, hein handi batean, monumentuaren azken itxura nolakoa izango den eta, batez ere, ortostatoek zein forma izango duten, baina azpimarratu beharra dago monumentua eraikitzen zen eremuko eta inguruetako lehengaiaren arabera erabakitzen zutela material bat ala bestea erabiltzea.

Horrela, triasikoko hareharriak lauza bikainak eraikitzeko aukera eskaintzen zien monumentu hauen eraikitzaileei, eta aldiz, granitoa nagusi zen eremuetan bloke trinkoak baliatzen zituzten, oro har.

Orain arte induskatu diren harrespiletatik, lauza formako lekukoez eraikiak dira 25 monumentu, eta beste hainbeste dira bloke formako lekukoak dituztenak; 4 kasutan bietarikoak, lauza eta bloke formakoak, erabili ziren, eta beste 5 kasutan, berriz, ez dago datu hau zehazteko adina informaziorik, desagertua delako peristalitoa.

Euskal Herrian katalogaturik dauden harrespilen %32,97 lauza formako lekukoez osatua da; bloke formako lekukoak ditu %41,57k, eta bietarikoak, berriz, %25,44k.

Kasu batzuetan ortostato bereziak aurkitu dira, monumentuaren gainerako lekukoen aldean oso garaiera handia dutenak, baina ezin esan dezakegu zehatz-mehatz horiek zein funtzio zuten edo halakorik zergatik gertatzen den. Itxuraz, multzoaren beraren edo eremuaren seinale moduan jarrita daude harriok.

Dena dela, lekuko nabarmen horiek aurkitzea ez da beti lan erraza izaten. Izan ere, sarritan gertatu ohi da indusketa lanetan zehar neurri handiko ortostatoak aurkitzea, baina ezkutaturik, harri handi hautsiak, ondoren sedimentaturiko lur geruza batek estalita; izan ere, ez da harritzekoa hala gertatzea, garaiera handiko eta epai txikiko lauzak izaki, eta lurrean tinko bermaturik ez egonik, oso erraz hausteko arriskua baitute.

• Lekukoak nola eusten diren.
Lekukoak lurrean finkatzeko moduari dagokionez, sistema jakin bat erabiltzen da, oro har, monumentua eraikitzeko aukeratutako material mota bakoitzarentzat. Horrela, lauza formako ortostatoak lurrean sakonago sartzen dira, egonkortasun gehiago izan dezaten; bloke formako lekukoak, aitzitik, ez dira askotan paleolurraren mailaraino ere iristen, eta goi mailetan, azaleko mailetan, bermaturik gelditzen dira soilik.

Baina lauza formako lekukoak ere, gutxitan finkatzen dira paleolurraren barnean; horrela ageri diren kasuetan, lubaki bat ageri da paleolurrean, 0,10 eta 0,22 m arteko sakoneran.
Induskatu diren harrespilen ikerketatik ateratako datuen arabera, 19 monumentu dira lekukoak paleolurraren baino azalerago finkaturik dituztenak, eta 13, berriz, paleolurraren mailara iristen direnak; 4 bakarrik daude, azkenik, paleolurrean hondora zentimetro batzuk sartuta.

Aurreko kasuetan bezala, 23 monumentu dira gai honi buruzko informazio aski eskaini ez dutenak, horietako gehienak antzina induskatuak.

Lekukoen altxagarriei dagokienez, eta indusketen memorietan argitara emandakoari jarraituz, 5 kasutan bakarrik ikusi dira lekukoak eusteko zeregina betetzen duten altxagarri edo euskarri gisa jarritako harri txikiak, lekuko gehienak lauza formakoak izan arren. Dena dela, indusketa lanen ondorioen arabera, lauzak txikiak dira monumentu hauetan erabiltzen direnak, oro har, eta hortaz, beren garaiera adinako sakoneran egoten direnez lurrean sartuta, eta ez da altxagarri edo euskarri beharrik.

• Barne egitura.
Atal honetan monumentuaren erdigunea aztertuko da, eta orobat aztertuko da gune horren eta peristalitoaren artean dagoen espazioa.

• Erdigunea.
Indusketa lanei esker harrespilen barneko egituren berri ezagutu da, harrespilen erdiguneko egituren berri, batez ere. Hala ere bada sail garrantzitsu bat, 13 monumentuz osaturiko sail bat zeinetan ez baita inongo egiturarik antzeman. Bestalde, informazio falta dago 18 kasutan, eta aurretik beste ezaugarri batzuei buruzko aipamenean esan bezala, gune horietan egindako arkeologia ikerketen antzinatasunak eragina da datu gabezia hori; beste 2 kasutan, azkenik, azalpenak aski nahasiak eta ilunak dira.

171. argazkia. Meatzeko harrespilaren barne egitura, 1996ko indusketa egiten ari zen garaian.

Tipologia desberdin askotako egiturak aurkitu dira, eta ugaritasun horren eraginez, 8 talde desberdin hauek bereizi behar izan ditugu:

1.-Zista erregularra edo lau angelukoa duen egitura.
Lau lauzak eta estalki moduko batek itxuraturiko kutxa txiki baten formakoak izan daitezke era honetako egiturak, edo lauza edo harrizko bloke txiki elkarri lotuez –trebetasun handiz sarritan– osatuak bestela. Multzo honetakoak dira induskatutako harrespiletatik 8.

2.- Zirkulu formako egitura.
4 monumentu aurkitu dira horrelakoak, neurri desberdineko diametrokoak.

3.- U formako egitura.
Zista erabat ixtera iristen ez diren lauzez osatua; 2 harrespil daude horrelakoak.

4.- Harri pilaketakoa.
Lauki zuzen edo zirkulu formakoak, kasuaren arabera; 6 agertu dira.

5.- Erdigunea harririk gabea.
Ezaugarri hori du induskatutako harrespiletatik 3k.

6.- Harkaitzean zulaturiko kubeta.
Kasu bakarra aurkitu da.

7.- Ontzia.
Ez da berez egitura bat, baina errausketaren hondakinak gortzeko zeregina betetzen du, egiturek bezalaxe. Era honetako monumentu bakarra aurkitu da.

8.- Estalki zeregina betetzen duen lauza.
Harrespil bakar batean aurkitu da ikatz hondakinen estalki modura erabilitako lauza bat.

• Peristalitoaren eta erdigunearen arteko espazioa.
Harrespil gehienetan, izan tumuludun zein tumulugabe, egiturarik gabekoa izan ohi da gune hau. Hain zuzen ere, horrela gertatu da induskaturiko 59 harrespiletik 38tan.

Dena dela, 9 kasutan harri txiki edo ertainez beteta ageri da, erabat edo parte batean, espazio hau, era erregularrean antolaturiko lauzez betea kasu batzuetan, antolaketa irregularra nagusi dela, berriz, besteetan.

Eremu honetan 4 kasutan aurkitu da peristalitoari buruz zentrokidea den harrizko zirkulu bat, eta kasu bakar batean agertu da egitura obal bat, lauzez osatua, harrespilaren lekukoetako bati atxikia. Informaziorik ezin bildu izan da 19 kasutan.

• Errausketaren hondakinen biltegia.
Gai hau beste atal batean ere aztertuko da, hileta errituei buruzko atalean hain zuzen, baina hondakinen biltegien ikerketatik, hezur erraustuen zein ikatzen ikerketatik, atera ditugun zenbait datu aurreratuko ditugu orain.

Biltegi gehienak monumentuaren erdian daude kokatuak, dena delakoa biltegiari eman zitzaion tankera. Hain zuzen ere, induskatu diren 59 harrespiletatik 37tan bildu da ezaugarri honi buruzko berri, eta 26 kasutan ikusi da biltegia esparruaren erdian dagoela kokatua; beste 8 kasutan hondakinak barnealdean sakabanaturik agertu dira, kontzentrazio handiagoko gunerik bereizten ez dela. Eta 18 kasutan ez da, esan bezala, inongo informaziorik bildu.

Erdian kokaturiko 26 gordailuetatik inolako egitura berezirik gabekoak dira 9. Gainerakoetan, 7 dira zista edo U formako egitura batez osatuak; forma zirkularreko egitura dute beste 2k; 6k dauzkate harriak pilaturik, eta gelditzen den bakarrean aldez aurretik harriez zedarrituriko gune batean edo kubeta batean gorderik agertu dira hondakinak.

Nabarmentzekoa da, halaber, egitura zentral batean zein handik kanpo barreiatuta aurkitu direla hondakinak 4 harrespiletan.

Azkenik, monumentu batean egitura zentralak osatzen duen harresitxoaren azpian daude hondakinak, eta beste 2 monumentutan agertu dira kanpoko peristalitoaren azpian; bi kasu horietako batean, gainera, monumentuaren kanpoaldeko eremuan daude ikatzak.

Hezur edo ikatz hondakinik batere gabeko 4 harrespil bakarrik aipatu dira orain arte induskatu diren guztien artean.

• Zenbait ondorio orokor.
Aurretik adierazia dugun bezala, desberdintasunak daude

harrespil tumuludunen eta tumulurik gabeen artean, eta monumentu horietako bakoitzak ezaugarri espezifiko batzuk ditu.



68.irud. Harrespilen egitura motak. (J. Blot; Ch. Raballand,1995).



69. irud. Harrespiletako biltegi motak. (J. Blot; Ch. Raballand, 1995).

Egiturei dagokien atal honetan zenbait erreferentzia osagarri erantsiko ditugu, ordea.

Oro har tumulu egitura lurrezkoa dela esan daiteke, eta gutxitan harrizkoa, hala ikusi baita orain arte ezagutzen diren tumuluetan, nahiz eta gutxi batzuk bakarrik dauden induskatuta.

Erdiko egiturak, bestalde, oso antzekoak dira harrespil tumuluduna izan ala tumulurik gabea.

Azpimarratzeko ezaugarria da, bestalde, induskaturiko 59 aztarnategietako barne egituren ikerketen ondorioetan bakar bat ere ez agertzea hilobi mota hau erabili den ehunka urteetan zehar inongo bilakaera tipologikorik izandakorik.

4.4.- Atuak.

Orain arte ezagutzen diren harrespil motako hilobietako atu gisa, hezur erraustu eta ikatz hondakin apur batzuk ez ezik, beste zenbait material ere agertu dira hileta atutzat har daitezkeenak, nahiz eta ezin esan daitekeen ziurtasunez hondakin horietako bakar bat ere nahita utzia izan ote zen hileta monumentuan.

Jakin badakigu, ordea, gauzaki horietako batzuk atu moduan hartuak izan daitezkeela, eta hortaz, nahiz eta ez izan material aberatsak, balio handikoak dira, era honetako monumentuen eraikitzaileek bereziki han gordetzeko hautatuak baitira.

4.4.1.- Ezaugarri orokorrak.

Era honetako hondakinak gutxi dira, bai orokorrean mintzatuz (induskaturiko 59 harrespiletatik 30etan bakarrik aurkitu da materialik) eta bai banakako azterketari dagokionez ere. Harrespil bakoitzean hildako bakarra ehortziko zuten seguru asko, baina oso hondakin gutxi aurkitu dira industriei dagozkienak. Era berean, hain balio gutxikoak eta urriak izaki, ezin izan dugu informazio askorik eskuratu gai honetaz.

Horri erantsi behar zaio, gainera, hilotza errausteko erritua bera hondamenezko erritu bat dela, hau da, hilotzak aldean izan zitzakeen gauzakiak ere hondatu egingo zirela suaren eraginez, aurretiko eta ondorengo garaietan gertatu ez den bezala.

Atu gisa hartu diren materialez hornituriko 18 multzoetako 30 harrespiletan harrizko gauzakiak besterik ez dira aurkitu; bi kasutan metal edo zeramika hutsezko gauzakiak aurkitu dira, eta gainerako 10etan, azkenik, zenbait industria mota desberdin aurkitu dira batera (suharria eta metala edo zeramika).

Nabarmentzekoa da biltegi batzuk gauzaki zatikatuez osatuak direla. Horrela gertatu da, hain zuzen ere, zeramika hondakinak aurkitu diren bi kasuetan, non ontziaren zati batzuk bakarrik ehortzi diren, eta ez ontzia osorik. Era berean, harrigarria da suharrizko harri zizelatuen aztarnak edo printzak aurkitu izana leku askotan, nahiz eta agian hondakin horiek ez ziren izango aztarnategian berariaz gordeak izan. Gertaera hau, dena den, ez da garai honi eta monumentu mota honi soilik dagokion zerbait, izan ere, aurretiko eta ondorengo garaietan ere antzekorik gertatu baitzen. Horrela, hilobi gisako trikuharri eta haitzuloetan ere sarritan aurkitu dira material zatiak, zeramikazkoak bereziki, eta



70. irud. Pirinioetako harrespil multzo atuadunen banaketa.

gertaera horren azterketa egin duten aditu batzuen ustez zeregin errituala edo sinbolikoa bide zuten (J.M. Apellaniz, 1975a); kasu horietan osotasunaren sinbolo litzateke puska. Orain arte induskaturiko harrespil gehienetan ez da aurkitu aturik eta horren ondorioz pentsa zitekeen gizabanako batzuk (atuekin ehortzitakoak) besteetatik nolabait bereizteko halako borondaterik bazegoela. Dena dela, hondakinak aurkitu diren harrespilen kasuetan, haien neurriak eta gainerako beste ezaugarriek ez dute hipotesi hori baieztatzeko arrazoirik ematen.

Ildo honetatik, hondakinen ikerketatik ezin zehatz daiteke gauza handirik, salbu, kasu bakar batzuetan, hildakoen adina edo sexua, oso hondaturik baitaude aztarnak.

C.14 datazioei esker, bestalde, atua duten monumentuak eta aturik gabeak garai berekoak direla finkatu ahal izan da, eta horrenbestez, ezin esan daiteke bilakaera kronologikoaren ondorioa denik hileta esparru hauetan gauzakiak sartzeko ohitura zabaldu izana.

4.4.2. Industria litikoa.

Harrizko materialak dira, zalantzarik gabe, induskaturiko harrespiletan aurkitu diren material ugarienak. Arkeologia lanak egin diren 59 harrespiletatik 25ean aurkitu dira harrizko gauzakien aztarnak, eta baita induskatu gabe dagoen beste batean ere. Kontuan hartzen badugu 30 soilik izan direla atua dutenak, garbi ikusten da era honetako hondakinen nagusitasuna.

Industria hauen urritasuna dela-eta, ordea, bi sail bakarrik osatu dira: tresnak eta harri landuen hondakinak. Tresnei dagokienez, berriz, harri koskorretan egindakoak edo printza edo ijelkitan egindakoak bereizi ditugu.
Hona hemen material urri horien zerrenda:

• Tresnak.

- Harri koskorretan landuak:

- Muturretan ukitu arrastoak dituen uharria, perkutore gisa sailkatua. (Beheitako-Erreka).
- Kuartzitazko perkutorea. (Mendittipi 4.a).
- Kuartzitazko harri puska, 12 cm luzea, 6 cm zabala eta 4 cm-ko gehieneko lodierakoa. Berez biribildutako mutur bat du, kolpeen ondorioz sortuak bide diren markak ageri dituena. Harriaren ahoa muturretan erabili da erdialdean baino gehiago. (Jatsagune).
- Hartxintxarra, bai bi muturretan eta bai bere gainalde lauetako batean leundua izan dela adierazten duten marka oso garbiak ageri dituena, eta kolpeen aztarnak dituena, 7 cm luzea, 6 cm zabala eta 4 cm lodia. (Sohandi 1.a).
- Kuartzitazko hartxintxarra, mutur bat giza erabileraren ondorioz apalduta duena eta kolpeen markak dituena, berriz, bestean. (Sohandi 3.a).
- Kuartzitazko hartxintxar laua, mutur batean oso erabilia, 10 cm luzea, 8 cm zabala eta 2,5 cm lodia. Chopping tool bat da, J. Bloten arabera (1984b). (Sohandi 3.a).
- Forma paralelepipedoko uharria, 10 cm luzea, 45 cm zabala eta 2 cm lodia. Alde biak leunduak ditu. (Sohandi 4.a).
- Kuartzitazko harri hautsia, lan arrastorik gabea. (Sohandi 3.a).
- Hareharrizko plaketa zatia, lauki zuzen antzekoa, 22 cm x 10 cm x 3 cm, luzetara erditik hautsia. Bizkarraldea bikain leunduta dago. Zorroztarri etzana, J. Bloten arabera (1984b). (Sohandi 3.a).
- Hareharri gorrizko plaketa, lauki zuzen paralelepipedo baten formakoa, erpin leunduak dituena, 10 cm luzea, 6,5 cm zabala eta 3,5 cm lodia, haustura zaharra ageri duena mutur bietan; bi gainaldeak leunduak ditu, bata apur bat ganbila da, eta bestea ahurra; bi gainalde txikiak ere erabileraren ondorioz leunduta daude. (Sohandi 4.a).
- Ofitazko harri koskorra, ehotzaile gisa erabilia. (Accaüs 2.a).
- Hareharrizko harri koskorra, forma luzanga duena, 17 cm luzea, 6,6 cm zabala eta 5 cm lodia. (Bious Oumettes).

- Harri printza edo ijelki gainean.

Gezi muturrak.

- Gezi mutur mihi eta ziriduna. (Mendittipi 4.a).
- Mutur horzduna, aurpegi bietan ukitua duena. (Bious-Artigues 3.a).

Armadura geometrikoak.

- Zehar-ahoko armadura, 19x27 mm eta 2,5 mm-ko lodiera duena. (Bious Oumettes).

Marruskak.

- Ijelki zati baten mutur distaleko marruska karenatua. (Mulisko Gaina 1.a).
- Hatzazal erako marruska. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).
- Printza gaineko marruska, aurrealde gainezkakoa duena. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).
- Mikromarruska karenatu azpizirkularra, bizkar gainalde guztian. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).
- Printza zati lodia, zuzeneko ukitu gorairtena duena. Marruska izan daiteke. (Mulisko Gaina 1.a).
- Printza: ukiera bakuna, alderantzizkoa, zati distalean muxarradura laburre jarraitua, aho ganbilaz osatua. Marruska izan daiteke. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).
- Ijelki lodi baten alboan eginiko marruska. Bi bulbo ageri ditu. (Oianleku Ipar 1.a).
- Ijelki zati baten mutur distaleko marruska karenatua. (Oianleku Ipar 2.a).
- Printza lodia, zati proximalean trunkadura duena; alderdi distala beheratua dago, ukituen ondorioz. Marruska txikitzat hartua da. (Bixustia).
- Marruska. (Mendittipi 4.a).
- Marruska. (Mendittipi 5.a).
- Marruska, zulakaitz triedroa, 4,6 cm luzeko, 2,2 cm zabaleko eta 0,9 cm lodiko printza batean. (Bious Oumettes).

Zulakaitzak.

- Zulakaitz diedroa, dekortikapen-printza gainean egina eta ukiera erdimalkartsua alboko ertzetako batean duena. (Mulisko Gaina 1.a).

Zulagailuak.

- Printza gaineko zulagailua. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).
- Zulagailua. (Mendittipi 4.a).

Punta bizkardunak.

- Ezkerretara bizkar kurbadun punta, oinaldean hautsia, zati distalean ukiera malkartsu osagarria du, eta erabilpenagatik sortutako horzkadura irregularrak azaltzen dira eskuineko ertzean. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).

Ezpalduak.

- Pieza ezpaldua. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).

Ijelkiak eta ijelki zatiak.

- Ijelki zati proximala, ezker alboko haustura duena. (Bixustia).
- Erabilera ukieradun ijelkia. Aiztoa. (Hegieder Ipar).
- 2 ijelki. (Mendittipi 4.a).
- Ijelki zati proximala, bi aldeetan ukiera alternoak dituena. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).
- Ijelkitxo zati proximala, erabilpen ukierakin. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).
- Ijelki zati proximala, erabilpen ukiera aldebikoak izan daitezkeenak ageri dituena. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).
- Erabilpen ukiera duen ijelki zatia. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).
- Eskuin ertzaren muturrean ukituak dituen ijelkia. (Ugatze).
- 2 ijelki zati medial ukitugabeak. (Mulisko Gaina. Zistaren inguruko tumulua).
- Albo bietan ukitu fina duen ijelki muturra. (Bious Oumettes).
- Tresna txikia, zehaztu gabea. (Meatzeko Lepoa 2.a).
- Lau dronda motako fusil harri zatia. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).

• Guneak eta printzak.

- Neurri txikiko gunea. (Sorbitzuaga).
- Gunea. (Accaüs 2.a).
- Harri printza ukitua, akats txiki batekin. (Kanpazaulo).
- Harri printza sinplea. (Kanpazaulo).
- 2 harri printza sinple. (Sorbitzuaga).
- Dekortikapen-printza: alderantzizko ukiera laua ezkerreko ertzean, sinplearekin kontrajarria, alderantzizkoa, partziala. (Mulisko Gaina 1.a).



71. irud. Kanpazauloko harrespileko suharrizko printza. (J. M. Apellaniz, 1965a).

- Eskuin alboko ertzean ukitu sinplea eta haustura distala duen printza. (Mulisko Gaina 1.a).
- Ukitu lau, alderantziko, aldebikoa duen printza. (Mulisko Gaina 2.a).
- Dekortikapen printza: ertza horzkatua, ustez igitai hortza. (Mulisko Gaina 1.a).
- Printza zatia: ukiera sinplea, sakona, zuzena eskuinaldeko zati distalean. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).



72. irud. Mulisko Gaineko harrespil multzoko industria litikoa. (X. Peñalver, 1987a).

- Printza zatia: ertz batean ukiera sinple eta zuzena duena. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).
- Printza alboko zatia: ukiera goraitena zuzena, hedatzailea eta ukiera ezpaldua alderantzizkoa haustura-erpin bizkarrean. (Mulisko Gaina. Monumentuen kanpoaldeko eremua).
- Printza baten puska proximala, eskuineko aldean ukitu sinple, ertzekoa, horzkatua, alderantzizkoa duena. (Mulisko Gaina 1.a).
- Printza-zatia: ukiera goraitena. Bi ezpaldura bipolar alderantzizkoak ditu. (Mulisko Gaina. Tumulua zistaren inguruan).
- Printza zatia, muxarraduraduna. (Mulisko Gaina. Tumulua zistaren inguruan).
- 116 printza sinple. (Mulisko Gaina).



73. irud. Mulisko Gaineko harrespil multzoko industria litikoa. (X. Peñalver, 1987a).

- Zeharreko trunkadura duen printza zati distala. Erabilpen ukiera du eta azpialdean aleki-distira ukieraren jarraian. (Oianleku Ipar 1.a).
- Printza lodia: ukiera gorairtena zuzena eta ezpaldura alderantzizkoak dituena. (Oianleku Ipar 1.a).



74. irud. Oianleku Iparreko harrespiletako industria litikoa (J. Altuna; P. Areso, 1977).

- 3 printza, ustezko erabilpen ukierakin. (Oianleku Ipar 1.a).
- 3 printza sinple. (Oianleku Ipar 1.a).
- Zenbait printza, kopuru zehazgabea. (Mendittipi 4.a).
- Printza. (Mendittipi 6.a).
- Zenbait printza, kopuru zehazgabea. (Accaüs 2.a).
- Printza. (Accaüs 9.a).
- 3 printza txiki, horietako bat errea. (Accaüs 10.a).
- Printza hirukia, albo batean ukitua duena. (Bious Oumettes).
- 5 printza txiki. (Bious Oumettes).
- Suharrizko zehaztugabeko 6 gauzaki. (Bious Artigues 3.a).

• Uharri esferikoak.

Salbuespenak salbuespen, landugabeak dira gehienak, baina zenbait hartxintxar txiki aurkitu dira, peristalitoaren eremuan betiere, eta hemen aipatuko dira jarraian haien zerrenda eta ezaugarriak.



75. irud. Bixustiako harrespileko industria litikoa. (J. Blot, 1976a).

- Zenbait uharri, kopuru zehazgabean, esferikoak edo arrautza formakoak, haran baten neurritsukoak. (Oianleku Ipar 1.a)
- Zenbait uharri arrautza formakoak, haran baten neurritsukoak, kopuru zehazgabean. (Bixustia).



76. irud. Mendittipi edo Zelai Oeste eta Zelai-Gaineko industriak. (J.M. de Barandiaran, 1962a).

- Kuartzitazko zenbait uharri. (Mendittipi 4.a).
- 10 harri koskor esferiko oilo arrautzaren eta uso arrautzaren arteko neurrikoak. (Errozate 3.a).
- 2 uharri esferiko txiki. (Errozate 4.a).
- Haranaren neurritsuko uharri esferiko bat. (Errozate 5.a).
- Udarearen neurritsuko uharri biribildu bat, mutur bateko marken arabera perkutore gisa erabili bide zena. (Errozate 5.a).
- Haranaren neurritsuko 3 uharri esferiko. (Ugatze).



77. irud. Mendittipiko harrespileko suharrizko muturra. (Cl. Chauchat, 1977).

Azpimarratzekoa da era honetako monumentuetan hainbat gainalderen kontra igurzteko edo kolpeak jotzeko erabiliak izandako itxura duten harri koskor, hartxintxar edo plaketen ugaritasuna.

Hartxintxar edo ijelki gaineko tresnetan, marruskak eta ijelkiak dira gainerako pieza guztien artean nagusitzen direnak, ahaztu gabe, betiere, tipologia oso zabala dela eta oso gutxi direla kopuruz.



78. irud. Hegieder Iparreko harrespileko suharrizko ijelkia, erabilera arrastoak dituena. (J. Blot, 1994a).

Askoz ere ugariagoak dira zizelatuen aztarnak, neurriz oso txikiak izan arren, oro har.

Dena dela, azpimarratu beharra dago industria hauetako asko, eta batez ere, harrizkoak edo litikoak, ez direla monumentuaren erdian agertu, hau da, oro har errausketaren biltegia kokatuta egon ohi den gunetik at agertu direla. Harrespilaren eremu desberdinetan barreiatuta aurkitu izan dira, peristalitoaren alboan kasu askotan, eta hori kontuan harturik, ezin esan daiteke ziur biltegiak edo hildakoari



79. irud. Jatsaguneko harrespileko errekarri zatia. (J. Blot, 1979d).

egindako eskaintzak direnik; izan ere, beste hainbat arrazoi izan daitezke aurkikuntza hauek eragin dituztenak, adibidez, monumentua eraikitzeko garaian eraikitzaileek han galdu izana gauzaki horiek edo ospakizun erritualean erabili izanak kasu batzuetan.



80. irud. Sohandiko harrespileko errekarri zatietan landutako industria. (J. Blot, 1987a).

Horrenbestez, eta gai honetan ahal den neurrian ekarpenen bat egitearren, Mulisko Gaina megalito multzoa induskatzerakoan beste monumentuez gainera lau harrespilak zeuden eremu guztia ikertzea erabaki zen. Eremu hartan aurkituriko materialak, suharrizkoak, proportzio berean ziren monumentu barnekoak zein kanpokoak. Ezin ahantz daiteke, halere, kasu bakarturen batean izan ezik, gainerako monumentuen inguruan egindako arkeologia lanak monumentuari berari soilik, eta are monumentuaren parte jakin bati, zegozkiola.



81. irud. Sohandiko harrespileko errekarri zatietan landutako industria. (J. Blot, 1984b).

Bada, aitzitik, giza aztarnekin loturiko beste gauzaki sail bat. Era honetakoak dira, hain zuzen ere, Oianleku Ipar 1.a harrespilean hezur zatien artean aurkituriko brontzezko botoia eta eraztuna.



82. irud. Ugatzeko harrespileko suharrizko ijelkia. (J. Blot, 1975c).

Bestalde, zalantza dago agertu den kasu guztietan monumentuaren ingurune periferikoan aurkitu izan den 4 cm inguruko diametroko uharri sail baten lokalizazioari dagokionez.

Sarritan inguruko pudingazko blokeen zatiak dira harri koskor horiek, baina kontuan harturik zein puntutan zeuden kokatuta, harrespil batzuetan kokagune jakin batean nahita jarrita daudela atera daiteke ondorio. Uste horrekin bat etorri zen J. Blot ikertzailea (1976a), eta esan zuen nahita jarri-



83. irud. Bious Oumetteseko industria litikoa. (Cl. Blanc, 1994).

takoak izan daitezkeela, eta horrez gainera "harri koskor erritualak" izango zirela.

Mendittipi 4.eko indusketan topatu zen gezi mutur pedunkulu eta hegaldunak zalantzan jartzen du, gure ustez, monumentu horren izaera tipologikoa eta kronologikoa.

4.4.3.- Zeramika.

Bost aztarnategitan soilik aurkitu dira zeramika hondakinak, Oianleku Ipar 1.a, Bixustia, Apatesaro Hego 2.a, Sohandi 4.a eta Accaüs 2.a hain zuzen, baina kasu horietan ere oso zati txikiak dira, nahiz eta lehenengo aztarnategian urna bat eta estalki gisako plater bat osatu ahal izan diren bertan bildutako zatitxoekin.

Gutxi dira, hortaz, zeramikazko hondakinak, eta horren eraginez ezin erabili izan dira tipologia ezagunak haiek sailkatzeko; hondakinen formari eta ezaugarriei buruzko datuak besterik ezin ditugu bildu.

Zeramika zati guztiak eskuz eginikoak dira, eta ez dute inongo apaingarririk.

Oianleku Ipar 1. zirkuluan zeramikazko 12 zati bildu ziren, eskuz eginiko lanenak, apaindu gabeak, eta horien artean bakar bat ere ez zen ontzi ertz edo hondoari zegokiona.

Bixustia harrespileko hondakinei dagokienez, urna bat (zatiak), estalki gisako plater bat eta edalontzi txiki osagarrien zati ugari aurkitu dira bertan.

Urnak 74/76 mm-koa du diametroa oinarrian, 220 mm-koa sabelean eta ahoan, eta orotara 200 mm-ko garaiera kalkulatu zaio. J. Bloten iritzian (1976a) ontzi oboide edo arrautza itxurako bat bide zen, eta haren atalak bide ziren oin barne-huts txiki bat, sabel puztu bat eta inbutu gisako lepo



84. irud. Bixustiako harrespileko zeramikak. (J. Blot, 1976a).

txiki bat, ertz biribildukoa eta kanpoaldean ondulazio txiki batekin.

Indusketaren arduradunaren ustez, aztarna horren oinarrian dagoen forma urna sabel-karenatuko, oin barne-huts txikiko, lepo goratu edo zabalduko ontzi batena da. Lepoaren behealdean kanal erako ildoz apaindua Arcachongo kasuan, edo Languedoc, Toulousain, Tarn edo Agenaisko adibideetan inkrustazio zuriz apaindua.

Zeramika hauek, eta aipatu den egilearen iritzian betiere, Akitanian eta Languedocen Burdin Aroaren lehen erdian –K.a. 725-625 bitartean– egin ohi zirenen tankerakoak dira, eta K.a. 625-600 artekoa bide da Bixustiako urna bera.

Urna estaltzen zuen plateraren ezaugarriak hauek dira: hondoa ia laua eta hormak lerro-zuzenak ditu, ertz biribildua eta apur bat loditua, ez dago erregulartasunez egosia, eta bere diametroa 84 mm-koa da hondoan eta 248 mm-koa irekiunean.

Ontzi osagarriek, zeinak aurkitu baitira oso zatikatuta, urnen formak irudikatzen dituzte neurri txikiagoan. Litekeena da aztarnetako bat bigarren estalki platera batena izatea.



85. irud. Apatesaro Hegoko harrespileko zeramikazko oinarria. (J. Blot, 1984c).

Apatesaro Hego aztarnategiko zeramika (Apatesaro I bis J. Bloten arabera), hiru zatiz osatua da, eta hiru zati horiez ontzi baten hondoa osa daiteke: hondo lauko edalontzi bat, 105 mm-ko diametrokoa, oso mehea erdian, eta periferian, berriz, sendotua, sabelaren abiapuntua oso zabaldua duena. Eskuz eginiko zeramika bat da, azala porotsukoa, eta ez dirudi leundua izan denik. Kolore beltza du barnealdean, eta kanpoaldean, berriz, marroia. Coffyn irakasleak, zeinak ikertu baitzituen aztarna hauek, Bigarren Burdin Aroko aztarnatzat hartu ditu.

Sohandi 4ko (II, J. Bloten arabera) bi zatiak, elkarretatik oso hurbilekoak, txikiak dira oso. Lehenengoa lauki zuzen itxuratsukoa da, 3x4 cm-koa eta 0,5 cm lodia, eta bigarrena, berriz, hiruki formakoa, 3x2 cm-koa eta zentimetroko lodiera duena. Gaur egun oso porotsu ageri den buztinez eginikoak dira biak, eta oso zaila da zati horiek osagai zituzten ontzien forma nolakoa zen asmatzea; dena dela, zati horiek aurkitu zituen ikertzaileak, J. Blotek, horietako batek forma zilindriko-konikoa zuela pentsatzen du.

Accaüs 2. harrespilean zeramika zati bakarra topatu zen.

Bestalde, nahiz eta Sohandi 1. eta 2.ean (V eta VI, J.Bloten arabera) zeramika hondakinak bildu diren, termoluminiszentzia bidezko datazioetan Erdi Aroko datak (XII m.) lortu dira kasu biotan.

4.4.4.- Metala.

Harrespiletan bildutako gauzaki metalikoez mintzo garenean brontzezko hondakinak zein burdinezkoak hartzen ditugu kontuan. Oianleku Ipar 1.a monumentuan soilik aurkitu dira brontzezko aztarnak, eta Errozate 5, Sohandi 2 eta 4 eta Zaho 2ren ikerketek eman dituzte burdinezko gauzakiak.

4.4.4.1.- Brontzea.

Aurkitu diren brontzezko bi aztarna bakarrak apaingarrizko gauzakien atalak dira, garai hartan ohi zenari jarraituz.

Oianleku Ipar 1eko eraztunak epai fusiforme/ganbilbikoa du, erronboidala ia, barnealdetik 13,5 mm-ko diametrokoa eta 3x2 mm-ko epaiduna. Bost puskatan hautsita zegoen aurkikuntza egin zenean.



86. irud. Oianleku Iparreko harrespiletako brontzezko industria. (J. Altuna; P. Areso, 1977).

Botoi zatia, monumentu berean aurkitua hau ere, oso hondatuta dago, korrosioaren eraginez, eta eraztunaren material berekoa da. Diametroak 9 mm du, forma hemisferikokoa da eta zehar-ziriduna, beste aztarnategi batzuetan aurkitutakoen antzekoa, hala nola Peñas de Oron (Zuiako harana, Araba) IIa, IIb eta I mailetan hurrenez hurren (Ugartechea, J.M.; Llanos, A.; Fariña, J.; Agorreta, J.A.; 1965) eta Alto de la Cruzen (Kortes, Nafarroa) PIIa mailan (Maluquer de Motes, J.; 1958).

4.4.4.2.- Burdina.

Brontzezkoak baino burdinazko aztarna gehiago aurkitu diren arren, ez dira oso ugariak hauek ere, eta oro har, egoera nahiko kaskarrean zeuden aurkikuntza egin zen garaian.



87. irud. Errozateko harrespileko burdinazko piezak. (J. Blot, 1977e).

Errozate 5.a (IV de J.Blot) eta 2.a (II de J.Blot) harrespiletan aurkitu dira honetako hondakin hauek: horietako lehenengo harrespilean hiru puska zeuden, konkrezionatuak. Puskarik handiena lantza mutur bati zegokion, baina 7 cm bakarrik gorde ziren eta punta falta zuen; diametroan, berriz, 17 eta 7 mm zituen parte proximalean eta distalean, hurrenez hurren. Bigarren gauzakiak forma laua du, eta 2 cm-ko luzera eta 4 mm-ko lodiera, baina ezin zehaztu izan da zeri dagokion; litekeena da sastakai baten ijelki zatia izatea. Hirugarren zatiaren ikerketatik ez da ondorio esanguratsurik atera.

R. Coquerelen ustez (J. Blot, 1977e) –berak egin zuen materialen erradiografia– Tène I edo II garaikoak dira materialok.

Zaho 2 harrespilean lantza mutur bat topatu zen, R. Coquerelek deskribatua hau ere (J. Blot, 1986b).

Erramu hostoaren formakoa, ardatz nerbio markatugabeekin, ez du helduleku hodirik, baina enbor konikoko erakoa bide zen jatorriz; pedunkuluak estutze txiki bat ageri du. Kronologiari dagokionez, Lehenengo Burdin Aroaren amaiera eta Bigarrenaren hasiera artekoa izan daiteke.

Bi monumentu horiez gainera, burdinazko gauzakien hondakinak bildu dira beste hainbatetan ere, baina horien aipamen laburra baino ez dugu egingo hemen, zalantza asko baitago haien inguruan.



88. irud. Sohandi 4ko harrespileko burdinazko piezak. (J. Blot, 1987a).

Horrela, Sohandi 4.ean (II de J. Blot), C14 datazioz 2.680±80 B.P. data egokitu zaionean, lantza mutur bat topatu zen sekzio laukikoa eta beste bat, txikiagoa, sekzio hirukikoa, zaldi ferra baten puska batez gainera.



89. irud. Sohandi 2ko harrespileko burdinazko igitai ahoa. (J. Blot, 1984b).

Material horiek Erdi Arokoak dira R. Coquerelen aburuz (J.Blot, 1987a), eta horren ondorioz monumentu hau induskatu zuen ikertzaileak, J. Blotek, dio bai monumentua bera eta bai bertan agertu diren burdinazko gauzakiak aurretik gune hartan egon bide zen su bateko ikatz biltegi posible bat dena baino berriagoak direla, eta baztertuta gelditu da harrespila Erdi Aroan berriro erabili zela zioen ideia.



90. irud. Zaho IIko harrespileko burdinazko lantza muturra (J. Blot, 1986b).

Sohandi 2.aren kasuan (VI, J. Bloten arabera), C14 datazioaren arabera Erdi Arokoa denez, zalantza asko sortu dira bertan aurkituriko 950 gr-ko sega aho baten inguruan. Izan ere, J. P. Mohen eta F. Vallet adituen arabera, 480 mm-ko luzera eta 45 mm-ko zabalera duen pieza honek itxura arkaikoa du, baina R. Guadagninen iritzian litekeena da Erdi Aroa arte erabilia izana (J. Blot, 1984b).

4.4.5.- Askotarikoak.

Atal honetan hezur industria eta beira industria tresna bana aipatuko da, biak ere apaingarri gisa sailkatuak, eta era horretako erakusgarri bakarrak, lehen aipatu diren brontzezko gauzakiekin batera.

Mendittipi edo Zelaiko Bizkar harrespileko (Zelai W) zaldi hortzez egindako zintzilikaria elementu bitxia da orain arte induskaturiko harrespiletan era honetako aztarna oso gutxi aurkitu delako, baina elementu nahiko ugaria zen aurreko garaietan, Paleolitoaz gero, nahiz eta Kakolitikoan ez zen halako asko erabili, agian beste lehengaiak erabiltzen hasi zirelako, A. Armendarizek bere Doktorego Tesian azaldu zuen ideiaren arabera (p.637).



91. irud. Mendittipiko harrespileko zaldi hortz batez eginiko zintzilikaria. (J.M. de Barandiaran, 1962a).

Jatsagune harrespileko beirazko eraztun zatia, 0,03 m-ko diametroa duena, lepoko bateko ale gisa zein zintzilikari gisa erabilia izan zitekeen, berdin-berdin. J. Bloten deskribapenaren arabera (1981a), kobalto koloreko beira urdinezko geruza elkarren gainkatu eta zentrokideez osaturiko ore batez egina da beira zati hori; kanpoaldetik apainduta dago, txandaka ezarriz banda erradial urdinak eta horiak, zeharkako irudiz eta lerro marroi argiez zeharkatuak.



92. irud. Jatsaguneko harrespileko beirazko eraztun zatia. (J. Blot, 1979d).

Bordele I Unibertsitateko Laugarren Aroaren Institutuko kide den J. Roussot-Larroqueren iritzian (J. Blot, 1981a), era onetako bitxiak Europa Erdialdean egiten ziren; adibidez Stradonitz zentro handian (Bohêmeko oppiduma), nahiz eta Euskal Herritik hurbilago bigarren mailako zentroak ere izan daitezkeen. Egile horren arabera, bitxi hauek Aro Halsstatikorako ezagunak ziren arren, molde honek La Tène aldiari egiten dio erreferentzia inguru honetan, La Tène III.ari hain zuzen ere.

4.5.- Giza aztarnak.

Ikergai dugun eremuko gune jakin batean hileta gune gisa harrespilak edo harrespil tumuludunak bakarrik ezagutzen direnez, eta kontuan harturik gune horietan aurkitutako giza hezurren aztarnak oso gutxi direla, ezin esan dezakegu gauza handirik gai honi buruz, nahiz eta era honetako aztarnek informazio ugari eman ohi duten orokorrean.

Monumentu dezente induskatu dira hileta tankerakoak, baina horietako bost monumentutan bakarrik aurkitu dira giza aztarnak, erraustuak kasu guztietan, eta egur ikatzezko zatikiekin nahasturik oro har.

Ez dugu sakonean aztertuko hileta monumentutzat hartuak diren gune horietako aztarnen urritasuna edo gabezia; hileta errituei eskainitako atalean landuko da, hain zuzen, luze eta zabal gai hori. Dena dela, kontuan izan behar da beti ezingo dugula gauza handirik zehaztu oraingoz, izan ere, J. Altuna eta P. Aresok induskaturiko Oianleku Ipar 1. eta 2. harrespilen informazioak eta J. Blotek induskaturiko Millagate IV (5.a gure katalogoan) multzoko informazioak bakarrik baititugu eskura, eta J. Blotek berak induskaturiko Errozate 3.a eta Millagate 3.a monumentuen ekarpena, aurrekoak baino are garrantzi gutxiagokoa.

Oianleku Ipar 1.a harrespilean 460 hezur aztarna aurkitu ziren eta Donostiako Aranzadi Zientzia Elkarteko Antropologia Saileko kide F. Etxeberriak aztertu zituen, ondoren aditzera ematen diren emaitzekin:

Zati gehienak giza aztarnak dira, eta horien artean nabarmentzen dira 4 hortz eta burezur, saihetsezur eta orno zatiak, humero eta erradio diafisien aztarnak, eta kotilo edo hezur-lotune eta femur diafisi zatiak.

Gizabanako heldu bakar bati dagozkio horiek guztiak, baina ez dago gizaki horren zehaztasun gehiago ematerik; ez da animalia aztarnarik batere topatu.

Hezurrak erraustuta daude, eta karearen kolore zuri berezia hartu dute; pitzatuta eta uzkurtuta daude eta pisua galdu dute jatorriz zeukatenaren aldean.

Bero gehiegiaren ondorioz sorturiko pitzadurengatik hautsita daude; zati hautsiek 1 cm-ko neurria dute, 3 cm luzeko bakarren batek izan ezik.

Egur ikatz zati oso txikiak ere aurkitu dira (errausketa sua).

Ondorio gisa, gizabanako heldu baten hezur aztarnak dira, burezur, bizkarrezur eta beso eta hanka zati txiki erraustuak hain zuzen, erabateko errausketa prozesu baten ondorioz.

Aurrekoaren alboko harrespilean, Oianleku Ipar 2.ean, 429 hondakin topatu ziren indusketa lanetan, eta aipatu ikertzaileak aztertu zituelarik, datu hauek bildu ahal izan dira horiei buruz:

Giza aztarnak dira, zalantzarik gabe, horien artean 11 hortz, oso hautsiak, eta izter-hezur eta berna-hezur zatiak dira aipatzekoak. Gizabanako bakarrarenak dira hondakin guztiok, gizabanako heldu batenak zehazkiago esateko, baina ez dago bestelako zehaztasunik ematerik; ez da inongo animalia aztarnarik aurkitu.

Hezurrak erraustuta daude eta karearen kolore zuria dute nagusi, diafisi zatietako barnealdean edo muinean kolore urdin-grisaxka dutela; pitzaturik eta uzkurturik daude, pisu gutxiago dute orain jatorriz zutena baino, eta erabateko errausketa prozesua jasan dute.

Pitzadura ugarien ondorioz oso zatikatuta daude; batez beste cm bateko neurria dute zatiok, 2 cm-ko luzera iristen duen bakarren batek izan ezik.

Egur ikatz zati oso txikiak ere topatu dira.

Gizabanako heldu baten hezurren aztarnak dira, erabateko errausketa prozesua jasan duten zati txiki moduan agertuak.

Millagate IV (5.a gure katalogoan) harrespil tumuludunak giza hezur erraustuen zatien biltegi bat zuen, 1.500 gr hezur biltzen zituena, zistaren erdian ongi-ongi pilaturik, 0,40 m x 0,20 m-ko gainalde batean eta 9 eta 10 cm-ko lodiera hartzen zuela. Aztarna horiek ez zeuden lur erre edo egur ikatz zatiekin nahasturik.

Bordele I Unibertsitateko Vandermeersch maisuaren Antropologia laborategiko H. Duday irakasleak aztertu zituelarik (1988), honako informazio hau eskuratu ahal izan zen:

Orotara 1.470 zatiz osaturiko multzoa da, eta horietatik 740 zati zehaztu ahal izan dira; gainerako 730 zatiez, zeinak baitira 2 mm-ko luzera baino gutxiagokoak, ezin zehaztu izan da ezer.

Zati zehaztuei dagokienez, hondakin hauek aurkitu dira: 182 burezur zati, 16 masailezur zati, 19 hortz, 83 orno zati, sakro zati bakarra, 98 saihetsezur zati, bularrezur zati bakarra, 13 eskapula zati, 5 lepauztai zati, 37 humero zati, 11 radio zati, 17 kubitu zati, 7 karpo zati, 13 metakarpo zati, eskuetako 20 falange zati, 32 koxal zati, 68 izterhezur zati, 2 belaunburu zati, 37 berna-hezur zati, 23 perone zati, 24 tartso zati, 18 metatartso zati eta oinetako 14 falange zati.

Hezurrak egoera bikainean aurkitu ziren, eta horri esker gizabanakoaren zein haren gorputzak jasandako errausketa prozesuaren identifikazio txukuna egin ahal izan da.

Gizabanako bakar baten hondakin erraustuak dira, heldua seguru asko, eta gizonezkoa, nahiko zaharturik hildakoa.

Soinaren hezurduraren askoz ere aztarna gutxiago daude buruarekin eta beso zein hankekin alderatuz gero; horrez gainera, errausketa nabarmenagoa da gorputzaren goialdean, eta horren arabera esan daiteke saihetsezur eta orno asko desagertu izana suak eragindako hondamen diferentzialaren ondorioz gertatu zela.

Ez dirudi inongo animalia biltegirik izan zenik hilobiari loturik.

Giza hezurren aztarnak agertu diren beste bi monumentuek apenas eskaini duten informaziorik, aztarna horiek dituztela besterik.

Horrela, Errozate 3.ean hezur erraustuen zatiak bildu ziren; horien artean saihetsezur eta hezur diafisien zatiak identifikatu dira, egur ikatzarekin nahasian (J. Blot, 1977e).

Millagate 3.ean, bestalde, hezur erraustuen zati batzuk aurkitu ziren, baina oso gutxi, eta identifikaezinak, egur ikatzekin nahasturik. (J. Blot, 1991a).

Arestian aipatu diren ikerketetatik ateratako datuak monumentu kopuru oso txikian daude oinarrituak, baina ezin uka daiteke garrantzi handiko datuak direnik, kasu gehienetan ezaugarri berberak errepikatzen direnez.

Aztarna hauek gizabanako erraustuari buruz eskaintzen duten informazio bakarra gizabanako heldua dela da, eta hori ere, ez kasu guzti-guztietan, baina gauza gehiago eta garrantzitsuagoak adierazten dituzte hildako haiei aplikaturiko hileta errituaren inguruan.

Ikertu diren kasuetan oinarriturik, garbi ikusten da banabanako hileta monumentuak direla hauek guztiak, behin baino gehiagotan erabilia izan zen Oianleku Ipar 1.a (Altuna, J.; Areso, P.; 1977) salbuespena alde batera utzita, eta horietan guztietan hilotzak erabat erraustu zirela, eta ez dela monumentuan bertan haien aztarnarik gelditu.

Era berean, aztarnategiotan aurkituriko hondakinek erakusten dutenez, gorputzeko atal guztietako hezurrak gordetzen ziren, inolako bereizketarik egin gabe atalen artean, itxuraz behintzat.

Espero izatekoa da hemendik aurrera egiten diren induskeeta lanetan informazio gehiago bilduko dela gizabanakoen adinari eta sexuari buruz, monumentu hauen eraikitzaileen inguruko ezaguerak aberasteko ezinbestekotzat jotzen ditugun eta aurrerago aipatuko ditugun oinarrizko zenbait puntu argitzearren.

4.6.- Hileta errituak.

Behin hileta monumentua eraikitzeko gunerik aproposena aukeratuta zutenean, zenbait ekintza eramaten zituzten aurrera, ondoren aipatzen den moduan.

4.6.1.- Gorpuaren errausketa.

Atal honi buru-belarri ekin aurretik beharrezkoa ikusi dugu F. Etxeberriak (1994) hezur aztarnak erretzen diren kasuetan erabiltzen den terminologiari buruz egindako zenbait zehaztapen gogora ekartzea.

Horrela, kontuan hartu behar da erreketaz mintzo garenean hilotza edo haren hondakinak erretze soilaz mintzo garela, eta ez eragiketa horren emaitzaz. Erreketa prozesu horretan, bada, hondakinak erabat edo parte batean geldituko dira kiskalita, eta ondoren errausketa etorriko da, hondakinen multzoa erabat edo parte batean erraustea. Bestalde, erreketa ez denean homogeneoa izan, bai kiskaltzea eta bai errausketa aldi berean gerta daitezke.

Goian aipatu den ikertzaile horren arabera, Euskal Herriko harrespiletan aurkitu diren adibide urrien artean emaitza askotarikoak bildu dira. Adibidez, Oianlekun, gero deskribatuko denez, atal guztien materia organikoaren endekatzea erabatekoa izan da, errausterainokoa, eta aldiz, Millagate IV harrespil tumuludunaren kasuan, esaterako, badira zati batzuk ez oso erreak (erabat kiskali gabe) gorputzeko atal batzuk sutik urrunago edo babestuago egon bide zirelako.

Hezur erreen koloreari dagokionez, ondoren azaltzen den taula hau osatu zuen F. Etxeberriak (1994), zenbait esperientzia egin ondoren:

Tenperatura, ºC-tan	Kolorea
< 200	bere horretan
200-250	okrea
250-300	marroia
300-350	beltza - IKAZTUA
550-600	grisa
> 650	zuria - ERRAUSTUA

Hondakinek kolore zuri uniformea izatea erabateko erreketaren adierazlea da, erabateko erreketa aireztatua izan zela adierazten du zehazki.

Atal honetan azaltzen ari garen erreketa prozesu hau hileta monumentutik hurbil eraman behar zuten aurrera, orain arteko datuek erakusten dutenez. Begi bistakoa da errausketa ez dela egin, orain arte ezagutu diren kasuetatik bakar batean ere, monumentuaren beraren barruan, horrela eginez gero askoz ere aztarna gehiago aurkitu izango baitziren lurrean, bai ikatzak eta bai hezur erraustuak, eta baita errausketa prozesuan sorturiko tenperatura garaien ondorioz lurrean eratzen diren arrastoak ere.

Gai honi buruz, R. Gombault ikertzaileak (1935), 1914. urtean Okabe multzoko bi harrespil ikertu ondoren hilotza halako esparru txiki batean erraustea ezinezkoa zela eman zuen aditzera.

Okabe 6.ean aurkitu diren beroaren poderioz egositako buztinezko eremu txikiek, esate baterako, su erritual bat egiten zuten erakusgarri izan daitezke, haiek induskatu zituen J. Blot ikertzailearen iritzian; hala ere, eremu txikietan beroaren eragina ageri duten buztin hondar horiek era berean pentsarazten digute errausketa egiten zen gunea ere monumentutik nahiko hurbil kokatu bide zutela, halako eran non egituraren barnean ez oso kopuru handitan gordetako egur ikatzak sugarren azpian egon bide baitziren eta horregatik baitute monumentuaren oinarrian dagoen buztin horretan halako gorritasun marka txikiak, Millagate 4 eta 5 eta Okabe 6 monumentuetan gertatzen den bezala, adibidez.

Hildakoa errausteko egiten zuten suari dagokionez, ez dago gai honi buruzko informazio handirik, ez baita orain arte aurkitu honelako lekurik batere.

Lau lekutan aurkitu dira buztin errearen hondarrak egur ikatzezko zatitxoekin nahasturik, eta horren ondorioz pentsatu dugu sua egindako alderdian lur begetala kendu bide zutela sua egin aurretik, baina dena den, horrela ote zen ala ez, ezin da gaur egun frogatu.

J. Blot ikertzaileak jasotako datuen arabera (1994b), sua egiteko aukeratutako gunetik hurbil bildutako egurrak erabiltzen ziren. Izan ere, orain arte egindako zortzi ikerketa antrakologikotatik, horietako batean agertu da lizarra erabili zela sua egiteko, beste batean pagoa erabili zela, eta gainerako seietan, berriz, haritza erabili zen.

Sua egiteko egurra aukeratzeko moduaz berriz, eta aukeraketa horren inguruko erritualik izan ote zenaren inguruan, A. Muller-ek dio (1987), Arihouateko nekropoliaz mintzo dela (Garona Garaia), aukeraketa ez zela halabeharrez egiten, berariaz baizik, eta horrela, pinua erabili zutela hilobi aberatsenetan eta haritza gainerako guztietan, hain garrantzitsu ez zirenetan.

Ezin zehaztu daiteke, bestalde, su horrek zein forma zuen, ez baita horrelako surik ezagutu sekula. J. Blot-ek (1994b), ordea, munduko beste leku batzuetan egiten direnetan oinarrituriko zenbait su mota bereizi ditu, eta esaten du monumentu hauetakoak zentzu desberdinetan jarritako zortzi egur kapaz osaturiko suak bide zirela, hau da, Nepalen egiten direnen motakoak; ildo honetatik, L. Bernot-ek esaten du (1967) Pakistanen etxeko sutarako erabiltzen duten egurraz bestelako egur desberdin batzuekin egiten dituztela hileta suak.

Arestian aipaturiko artikuluan J. Blot-ek aditzera ematen duenez, litekeena da ustrinum delakoa bana-banakoa izatea batzuetan eta kolektiboa beste batzuetan. Horrela, gorpu bakarrerako sua egingo zuten batzuetan, monumentua bakarturik ageri den kasuetan hain zuzen ere, eta kolektiboa, berriz, nekropolien kasuan. Dena dela, hileta monumentuak elkarretatik hurbil eraikitzeko ohitura honek mendeetan zehar iraun izana batetik bestera denbora tarte zabala hartzen duten hilotzak erretzeko su desberdinak erabili ziren seinale izan daiteke.

Gaur egun, J. Blot eta X. Peñalver ikerketa lanak egiten ari dira Meatzeko Lepoa multzoan, eremu zabala hartzen duen indusketa baten baitan, beren lanaren helburuetako bat da zehaztea errausketak egiten ziren gunea edo guneak.

Ustrinum-eko hezurrak nola bildu ziren, ustrinum-a kolektiboa edo taldekoa izatekotan, galdera hori oinarri harturik H. Dudayk atera duen ondorioa da (1988) azaleko hondakin bilketa egingo zutela soilik, hondakin apur batzuk bakarrik bilduko zituztela, aurretik erraustutako beste hondakin batzuekin ez "nahasteko" edo "kutsatzeko".

Hildakoaren gorpua errausketarako behar bezala prestatzeko eginbeharrekoei dagokienez, J. Blotek (1994b) hainbat kasuren berri jaso du bere lanetan, hasi Iliadatik eta Asiako gaur egungo eskualdeetara, hilotzak purifikatzeko ohitura ageri dutenak.

Lan honetan ikergai dugun Pirinioetako eskualdeko monumentuak, oro har, gailur edo altitude handi samarreko guneetan daude kokatuta, eta ura dagoen guneetatik urrun. Ezaugarri hori kontuan harturik, M. Duvertek dio litekeena dela hemen ere hildakoen gorpua purifikatzeko ohitura izatea, baina sinbolikoki egin bide zutela garbiketa hori, ur tanta bakar batzuen bidez.

Ezin esan daiteke, bestalde, zehaztasunez, gorpua jantzita ala biluzik errausten zuten, ez baita orain arte egindako indusketa lanetan horri buruzko informazio esanguratsurik jaso. Dena dela, hainbat garaitan bizi izan diren beste kultura batzuetatik iritsi zaizkigun informazioak hartuko bagenitu oinarri, gorpua jantzita errausten zutela esango genuke seguru asko.

4.6.2.- Monumentuaren eta hondakin gordailuaren eraikuntza.

Monumentuaren eraikuntza aldiko bigarren fase desberdindua monumentuaren beraren eraikuntza litzateke, eta gai horri dagokionez errausketa aurretik edo ondoren eraikia ote zen litzateke aztergai nagusia.

Zirkulua –zirkulu perfektua kasu gehienetan– nola eraiki zen argitzen duen informaziorik eskuratu ez den arren, garbi ikusi da esparru zirkular zedarrituaren barnean, kasu gehienetan behintzat, landare geruza kendu ohi zutela, lurraren geruza erresistentea (trinkoa) iritsi arte, oro har. Gertaera hori egiaztatu ahal izan da hainbat kasutan, sakonagoko maila honetan egur ikatzezko zatiki batzuk aurkitu baitira (0,30 edo 0,40 m lur azaletik behera, gehienera jota ere), J. Blot-en iritzian (1994b) esparru sakratu bat zehazteko erdierritu bati bide dagozkionak, adibidez Bixustia, Errozate eta Zuhamendi III monumentuetan.

Barnealdean lurra kentzeko ohitura horri jarraituz, kasu batzuetan kanpotik ekarritako buztinezko lur geruza bat jarriko zen, inguruetatik bildua, zena zelakoa eraiki nahi zen monumentuaren izaera, hau da, tumulua, harrespila edo harrespil tumuluduna izan. Horren erakusgarritzat har daitezke, esate

batera, Zuhamendi III tumulua, Apatesaro I bis harrespila eta Bixustia tumuludun harrespila.

Erdiguneko egiturei dagokienez, berriz, forma desberdinetako egiturak aurkitu dira, gai honi buruzko atalean aztertu dugunez.

Ikatz gordailua, bestalde, ikatz kopuru txikiaz osatua, forma desberdinetakoa izan daiteke, era berean, eta hauek ere egiturei buruzko atalean deskribatu ditugu.

Azpimarratzekoa da, hala ere, gordailuan bildutako hondarrak hezur hondakinak diren kasuetan, beti ageri direla monumentuaren erdigunean bilduta, eta horrek desberdintasun bat ematen duela aditzera egur ikatzezko hondakinen kokaerari buruz, hondakin hauentzat kokagune desberdinak aukeratzen baitzituzten, ez beti erdigunea alegia.

4.6.3.- Monumentu barneko hezur erraustuen eta ikatzen gordailua.

Aurretik jakitera eman den bezala, hezurrak badira monumentuaren barruan gorderiko hondakinak, beti agertzen dira, orain arte ikertu diren aztarnategietan, bederen, erdigunean. Dena dela, kasu gehienetan, hondakin hauek, edo ez dira inon ageri edo galduak dira behintzat gaur egun, eta dirudienez haiek gorde ezean egur ikatzak gorde bide zituzten, era sinbolikoan jarriak monumentuan (eskukada bat edo bi).

Hondakin apur horiek, lurrean bertan utziak kasu gehienetan, harri pila batez estaltzen zituzten, kasu batzuetan, edo zista batez edo zista moduko egitura batez zedarrituak, gai honi buruzko atalean azaldu dugun moduan.

H. Dudayren iritzian, eta J. Blotek bere lanean jaso duen bezala (1994b), litekeena da hildakoaren garrantzia eta ospearen arabera nolabaiteko desberdintasunak egitea haien hondarrak biltzeko garaian. Horrela, Millagate IV monumentuaren kasuan esaterako (5.a, gure katalogoan), hildako ospetsua bide da bertan ehortzitakoa, haren hezur gehienen hondarrak gorde baitira; horrez gainera, eta J. Blotek aditzera eman duenari jarraituz (1988d), kasu horretan kokaera ere berezia da, Orhi mendi tontorraren parean baitago kokatua.

Beste hainbat kasutan, ordea, esaterako Oianleku Ipar 1. eta 2.aren kasuetan, nahikoa zen hezur multzo txiki bat, nahiz eta litekeena den, era berean, hasieran hondakin gehiago gorde izana eta lurraren beraren ezaugarrien eraginez denboraren joanean hondakin pila hura degradatzea eta horregatik gelditzea gaur egun bakan batzuk soilik. Alde honetatik, eragin handia izan dezake lurraren azidotasunak, hondakin organiko asko edo guztiak desagerraraz ditzakeelako eta litekeena delako kasu hauetan horixe bera gertatu izana. J. Blot ikertzaileak induskatu dituen era honetako monumentuetako lurraren batez besteko pHa 5,2 mailakoa da, hau da portzentaia azido samarrekoa. Hala ere, egile hark dioen bezala, azidotasun horren eragina neurri batean behintzat galarazi ahal izan dute beste zenbait eragilek; eragin hori lortuko zen, seguru asko, hezur erraustuak egur ikatzen alboan jarriz, Errozate edo Millagate IV (5.a, gure katalogoan) aztarnategietan bezala, edo hondakinen gainean harlauza lau bat jarriz gero, ez baitzen urik iragaziko hondakinak zeuden guneraino, Millagate IV (5.a. gure katalogoan) monumentuan bezala.

Hala ere, Zaho II, Apatesaro I eta Ibis (2.a, gure katalogoan) monumentuetan, besteak beste, egur ikatz ugari eta hezur aztarnarik batere bildu ez izanak, zalantzan jartzen du hori guztia, neurri batean.

Gaur egun, Asiako zenbait herrialdetan errausketaren ondoren gelditzen diren hezur hondakinak ez dira monumentu jakin batean gordetzen; eta gertaera horretan oinarriturik esaten du J. Blotek litekeena dela garai protohistorikoko euskal artzainek era bietara erabili izana gorpuen errausketan lorturiko hezurren hondakinak, eta ikatz eskukada bat soilik gorde izana, era sinbolikoan, horretarako bereziki eraikitako monumentuetan. Hori dela eta, egokiagoa deritzo era honetako monumentuei zenotafio deitzea, eta ez hilobi. Horrenbestez, Millagate IV (5.a, gure katalogoan) soilik litzateke hilobitzat hartzeko modukoa, hor bakarrik aurkitu baitira hildako baten gorpuari dagozkion hezur gehientsuenak gorderik.

Lehen aipatu ditugun errausketaren hondakinekin batera, gordailuan berariaz jarritako zenbait gauzaki aurkitu izan dira kasu batzuetan, adibidez zeramikazko gauzaki hautsi eta zatituak, gauzaki metalikoak eta litikoak, oso tarteka izan bada ere.

Material horien urritasuna aski esanguratsua da, eta aurrez aurre topo egiten du hurbileko guneetako ehorzlekuetan hainbat eta hainbat gauzaki aurkitu izanarekin; hori bi gauzaren seinale izan daiteke, inguru honetan jendea pobrea zela, batetik, edo bestela, eta J. Blotek dioen bezala, erritu honetan berez, edo hildakoak gizartean zuen lekuaren eraginez, ez zela halako eskaintzaren beharrik.

Orain arte ez da aurkitu, bestalde, animalien inolako aztarnarik monumentu hauetan. Dena dela, litekeena da okela eskaintzak egin izana, era askotako okela eskaini izana, hezurrik gabe ordea, eta horregatik ez bide da hondakinik edo aztarnarik jaso. Bide honetatik, gogora ekarri nahi genuke Euskal Herrian garrantzi handia izan dutela animaliek hileta errituetan, J. M. de Barandiaran-ek (1972) nabarmendu zuen moduan.

Bestalde, zenbait zirkulu aurkitu dira, adibidez Urdanarre Hego 1 eta Jatsagune, inongo egitura zentralik edo gordailurik gabekoak, ikerketen arabera. Hala ere, ezin esan daiteke hileta funtzioetan erabiltzen ziren monumentuak izan arren sinbolismoa muturreraino eramaten zenik bertan. Hau da, H. Dudayk (1988) gai honi buruz esandakoaren arabera, monumentuaren zeregina oroigarrizkoa litzateke kasu horietan, eta ez hainbeste hileta gunearena edo gordailuarena, eta hortaz, gizakiaren materiala bertan gordetzeak helburu erabat osagarria edo bigarren mailakoa bide luke.

4.6.4.- Hileta monumentuen eraikuntzaren amaiera.

Monumentua erabat estali aurretik lurrean behar bezala kokatuta behar zuten monumentuaren peristalitoa osatzen duten lauza zein bloke formako harriek, bai paleolurrean zuzenean bermatuta edo bai lubaki estu baten bidez paleolurreraino, edo batzuetan, maila hori iritsi gabe, sartuz.

Monumentua azken buruan estaltzeko modu desberdinak erabili bide ziren, baina orain arteko indusketetatik ondorioz atera denez, kasu gehienetan aurretik kendutako lurra erabiltzen zuten soilik, eta kasu batzuetan harri batzuk ezartzen ziren gainaldean.

Tumuluen kasuan, inguruetatik bildutako harriak erabiliko zituzten, seguru asko, monumentua estaltzeko.

J. Blotek iradoki zuenari jarraituz (1994b), eraikuntza lan hauei buru emateko zenbait eguneko jarduera beharko zuten monumenturik handienen kasuan bederen, eta egun horietan zehar, ospakizunaren amaieran, kantuak, dantzak edo errituak egitea ere oso litekeena zen. Une horretan sartu bide ziren zenbait harri, humus geruzaren azpiazpian aurkiturikoak gerora, Okabe 6 eta Ugatze aztarnategietan gertatu den bezala esaterako, nahita hara botatakoak edo han jarritakoak.

A. Muller ikertzailearen aburuz (1987) ospakizun guztiguztiak ez ziren amaituko arestian aipatutako jarduerekin nahi eta nahi ez; aitzitik, lan horien ondoren ere egingo ziren zenbait erritu, gaur egun ezezagunak, eta hipotesi horri indar ematen dio, hain zuzen ere, monumentu horiek bazkalekuetan eraiki izanak, transhumantzia bideetatik hurbil, hau da eraikitzaileek erabili ohi zituzten guneetatik hurbil, monumentu haiek hurbil izateko halako borondate bat bazutela erakusten baitu horrek. Nekropoli batzuk mendea joan mendea etorri erabiltzen jarraitu izanak, bestalde, gune horiek memoria kolektiboaren parte zirela erakusten du. Egile hark berak dioenez, litekeena da zenbait eraikin osatu izana, eraikin aldi baterakoak edo iragankorrak, izan ere, halakorik gorde ez den arren, badira era horretako egituren erreferentziak beste eremu batzuetan, Garona Garaian esaterako.

4.7. Kronologia.

Azken urteetan, indusketa ugari egin dira harrespil tumuludun nahiz tumulugabeetan, eta indusketekin batera C14 datazioak ere egin dira, ez beti halere; izan ere, monumentu batzuetan ez da aurkitu egur ikatzezko aztarnarik edo hezurrik, eta ezin izan da analisi hori egin.

Gaur egun, hogei datazio absolutu ditugu, beste hainbeste harrespili dagozkionak (horietako 8 tumuludunak dira, eta beste 12ak tumulugabeak), Lapurdikoak, Nafarroa Beherekoak eta Zuberokoak gehienak; Gipuzkoako monumentu bakar batean zehaztu ahal izan da data. Gertaera horren arrazoia, hiru lurralde haietan egin direla indusketa arkeologiko gehienak. Analisi horien emaitza orokorrak hainbat egileren lanetan agertzen dira (Cl. Blanc 1982; J. Blot, 1987b; J. Blot, Ch. Raballand, 1995; C. Mariezkurrena, 1990; K. Mariezkurrena, 1979 eta X. Peñalver, 1989a).

Honako hauek dira, zaharrenetik berrienera ordenatuta:

Aztarnategia	B.P. datazioa	Kalibratutako data (K.a.)	Laborat.
Meatse 8	2.960±50 B.P.	1.313-1.004	(Gif.9573)
Apatesaro 1	2.780±90 B.P.	1.224-815	(Gif.5728)
Apatesaro 5	2.740±60 B.P.	1.032-815	(Gif.6988)
Mehatze 5	2.730±100 B.P.	1.192-627	(Gif.4470)
Millagate 5	2.730±60 B.P.	1.118-812	(Gif.7559)
Meatse 11	2.705±75 B.P.	1.041-605	(Gif.10284)
Errozate 2	2.680±100 B.P.	1.101-539	(Gif.3741)
Apatesaro 4	2.670±90 B.P.	1.041-550	(Gif.6031)
Hegieder 7	2.650±50 B.P.	901-781	(Gif.9371)
Errozate 4	2.640±100 B.P.	1.024-467	(Gif.4185)
Zaho 2	2.640±90 B.P.	995-497	(Gif.6343)
Mulisko Gaina	2.630±90 B.P.	-	(I.14.100)
Bixustia	2.600±1.000 B.P.	969-433	(Gif.3743)
Apatesaro 1bis	2.590±90 B.P.	920-436	(Gif.5729)
Meatse 2	2.380±130 B.P.	800-165	(Ly.881)
Okabe 6	2.370±100 B.P.	767-216	(Gif.4186)
Errozate 3	2.330±100 B.P.	755-172	(Gif.4184)
Pittare	2.240±90 B.P.	635-85	(Gif.4469)
Millagate 4	2.120±60 B.P.	354-12	(Gif.7306)
Sohandi 5	800±210 B.P.	K.o. 1.154±210	(Bx475T.L.)

Sohandi 5ekoa kenduta, gainerako datazioak Aro aldaketaren aurreko lehen milurtekoari dagozkio; 2.960±50 B.P. eta 2.120±60 B.P. bitartekoak dira, 840 urteko gehieneko aldea dutela zaharrenetik berrienera, eta kalibrazioz lortutako datetan milurteko bat ingurura zabal daiteke tarte hori. Bestalde, kontzentrazio nabarmenena 2.780 eta 2.590 artean dago, 13 datazio hain zuzen ere.

Hileta monumentuen egitura horien tipologian nabari den batasuna, espazioan duten banaketa eta aurkitu diren atu urriak data horien nolabaiteko uniformetasunarekin bat datoz, eta gure Aroaren aurreko lehen milurtekoari dagokion fenomeno erituala dela pentsarazten digu horrek, zalantzarik gabe.

Hala ere, lagin batzuek oso bestelako datuak eman dituzte, eta, asko ez diren arren, ezin utz daitezke aipatu gabe, gure ustez.

Garai historikoari dagozkion datazioak edo, gutxienez, materialak eman dituen harrespil eta tumulu sail txiki bat bada, Erdi Arokoa hain zuzen ere. Sail horretakoak dira Sohandi 2 eta 5 harrespilak, J. Blotek induskatuak, eta Bizkartxuko eta Ahigako tumuluak. Erdi Aroari lotutako datazioak edo aztarnak dituzte, baina ezin esan daiteke data horietan berriro erabili ziren edo ez, aurretik eraikiak izan arren. Nolanahi ere, sail txiki horretan kontuan hartzeko desberdintasun batzuk ere badira.

Adibidez, Sohandi 5 harrespilean (J. Blot, 1987b), zortzi lekukok zedarritutako egitura duenean, hiru zeramika zatiko aztarna bat aurkitu da, pasta beltz “zabarrez” egina eta gutxi egosia, termoluminiszentziaz datatu dena.

Sohandi 2 harrespila (J. Blot 1987a) hamahiru lekukoz osatuta dago eta ferra formako egitura bat dago barruan, "egikeraz oso zarpaila", induskatzailearen arabera. Lan horien egileak bi harrespilen eraikuntzari buruz adierazi zuenez, "arkitektura zabarra" dute biek. Bigarren aztarnategian ez dago dataziorako ikatzik, baina aztarna metalikoak aurkitu ziren (lantza eta azkona), gure Aroko XI. eta XIV. mendeen artean erabilitakoak. Ferra zati bat ere aurkitu zen.

Bestalde, lehen aipatu diren bi tumuluetan egur ikatzak aurkitu dira, datazioa egiteko aukera eman dutenak, eta Erdi Aroko data eman dute bi datazioek.

Urdanarre N.1 tumuluan (J. Blot, 1984c) aipatutako gainerako monumentuetan agertu ez den ezaugarri bat dago, erdialdean hileta kutxa bat baitzegoen, laukizuzena, Brontze Zahar edo Ertainekotzat sailkatutako erre gabeko giza hezurrak eta zeramika bat zituena barnean, Erdi Aroan errauskeeta batean berrerabilia.

Ahigako tumuluaren C14 datazioa 1.000±80 B.P da, eta J. Blotek egindako kalibrazioaren arabera gure Aroko 870 eta 1230 bitartekoa litzateke.

J. Bloten arabera, azken urteetan lortutako garai historikoko datazio horiek adierazten dute mendialdean hileta errituak bizirik iraun zuela, paganismoarekin batera, erromatartze prozesuaren onespenarekin, prozesu hori arinagoa izango bide zelako mendialdean.

Gure ustez, eta garrantzi handiko gaia den arren, datu gehiago behar dira, eta ez soilik arkeologiaren esparrukoak, gertaera horri buruzko iritzia emateko.

5. ONDORIO OROKORRAK

Orain arteko ezaguerak

Euskal Herriko Atlantiko aldeko isurialdean, Brontze Aroaren azken aldiaren eta Burdin Aroaren inguruan azkeneko hemezortzi urteotan egin diren landa-lan eta laborategiko lanei esker, ehunka aztarnategi katalogatu eta ikertu ahal izan dira, bai habitat edo bizilekuak bai hilobi edo hileta monumentuak. Hilobiak eta haien ezaugarriak aurreko ataletan aztertu ditugun arren, haiei buruzko alderdi batzuk, orokorragoak direlako edo, erabat sakondu gabe geratu dira gure ustez, eta alderdi horiei buruzko gogoeta egitea izango da gure zeregina azterketa lan honetan.

Baina habitatarekin, bizitzeko moduekin eta teknologiarekin zerikusirik duten alderdiak aztertzen hasi baino lehen, hileta fenomenoa eta haren aldaerak aztertuko ditugu, eta bi mundu horiek elkarren ondoan jartzean burura etorri zaizkigun zenbait galdera egingo ditugu, galdera horietako gehienek erabateko erantzun garbirik ez dutela ongi jakin arren, baina horiei esker ikerketa bide berriak urratzeko aukera eskainiko den uste osoan.

Halaber, beste zenbait puntu bakarturik aztertuko dira, batzuk berezitasun nabarmenak dituztelako, eta beste batzuk, berriz, zalantzak sortzen dituztelako aztertzen ari garen aldi honetako arazo orokorrekin harremanetan jartzeko orduan.

XX. mendean zehar Euskal Herriko Atlantiko aldeko isurialdean egin diren arkeologia ikerketa gehienak Paleolito aroko aldiak eta megalitoak –eta batez ere trikuharriak– aztertzeko egin dira. Historiaurreko beste aldi batzuei buruzko aztarnak –habitaten aztarnak gehienbat– hain ziren urriak ezen denbora bitarte batzuetan biztanleriak behera egin izango zuela edota erabat desagertu izango zela ere uste izan baitzen luzaroan.

Lan honetan aztertzen den aldiari gagozkiola, egia da mendialdean harrizko zirkulu batzuk bakarrik aurkitu izanak ez zela aski biztanlerik ezaren teoria erabat baztertzeko. Eta egia da, baita ere, teoria horri eusteko arrazoi batzuk bazirela: lurraldearen beraren ezaugarriak, besterik ez bada ere. Izan ere, Euskal Herriko isurialde atlantikoa, ordeka zabalik gabe, ez baitzen nekazaritzarako egokia. Euskal Herriko Mediterraneoko isurialdean, berriz, alderantziz gertatu bide zen, bere ibai bazter eta lur eremu zabalekin ezin egokiagoa zelako garai hartan Europa osoan zabaltzen ari zen nekazaritzarako. Araban eta Nafarroan protohistoriaren aldi hartako aztarnategiak –nekazaritza jardun handia izan zela frogatzen duten aztarnak eta guzti– aurkitu izanak teoria sendotzen zuela ematen zuen. Baina Atlantiko aldeko garai hartako lehen bizilekuen aurkikuntzekin (Marueleza eta Intxur), aurkitzaileek Burdin Arokotzat hartu zituztenak, garai eta alderdi hartako aztarnarik ezaren eta, beraz, giza jardunik ezaren hutsunea betetzen hasi zen nolabait.

Esparru harresitu eta zabal horietan egin ziren lehenengo arkeologia lanetan, baina, ez zen, zoritxarrez, eraikinen edo materialen aztarnarik azaleratu, defentsa sistemak berak izan ezik, zein baino zein gotorragoak. Hori dela eta, ikertzaileek leku horiek ezin hobeki babestuak baina "hutsik" egon ote ziren pentsatzen hasi ziren, eta hori da, gaur egun, adituen artean iritzi zabalduena. Hala, teoria horren arabera, inguruetan bizi ziren biztanleek arriskualdietan bakarrik erabiltzen zituzten babeslekuok, norbaiten edo zerbaiten arriskua zegoen bitartean beren burua babesteko, alegia.

Hala, B. Taracena eta A. Fernandez de Avilés ikertzaileen ustez ere (1945), Maruelezako aztarnategian material arkeologikorik batere ez agertzeak artzain eta baserritarren babesleku besterik ez zela izan pentsarazten zuen.

Jose Miguel de Barandiaranek (1961), bestalde, honela zioen Intxurko kastroari buruzko idazkian: "defentsa sistema bat da, K.a. IV eta III. mendeetako zelten kastroak bezalakoa, bertako biztanleek egina. Aturik ez izateak, Nabarnizko Maruelezak bezala, aldi baterako babesleku izan zela erakusten du ziur aski, inguruetako biztanleek inbasio arriskua zenean beren burua babesteko erabiltzen zutena".

F. Gaudeul (1985) ere iritzi berekoa da; Zerkupeko esparruaz ari dela, esparruaren kokalekua eta aztarnen bakantasuna kontuan harturik, inguruko biztanleek ez zutela bizileku iraunkorrik eraiki pentsatzen du, aldi baterako babeslekuak baizik, mehatxu edo erasoren baten aurrean beren burua babesteko erabiliko zituztenak. Beraz, gaztelu feudalen antzeko betekizuna izango zuten. Eraiki ere, Erdi Aroko gaztelu horietako batzuk habitat protohistorikoen gainean eraiki ziren. 1987an honela zioen ikertzaile honek berak: "Litekeena da, baina, esparru horietako batzuk ardi biltegi gisa erabili izana urteko garai batzuetan, edota biltegi izateko eraiki izana defentsa antolakuntza apalekin (Ahiga, Letxeguita, Gastelepo), eta eraiki zirenez geroztik inoiz okupatu ez izana".

Beraz, ikusmolde bat bera azaltzen da kasu guztietan, orduko hura abere hazkuntzan oinarritutako habitat sakabanatua ote zen pentsarazten duena nolabait.

M. Unzueta eta L. Valdések Berreaga eta Maruelezan azken urteotan egindako ikerkuntzek eta aurkikuntzek, eta guk geuk Basagain, Buruntza, Intxur eta Munoaundin egindakoek ere, Euskal Herri hezeko habitatari buruzko alderdi asko argitu dituzte. Horrelako beste esparru asko aurkitu eta induskatu izanak, eta haitzuloetako aztarnategietan egindako lanak berak ere, hainbat eta hainbat informazio eskuratu digu, eta informazio horretan oinarriturik ideia berriak plazaratzeko egokieran aurkitzen gara egun, kasu batzuetan oraindik kontu handiz eta zuhur ibili beharra baldin badago ere.

Bestalde, eta aurreko lan horien osagarri edo, herri gotortuetako hilobi edo nekropoliak eta mairu baratze edo harrespil eraikitzaileen habitatak –goialdeetan aldi baterako eraikitzen zituztenak zein beherago altxatzen zituzten bizileku egonkorrak– aurkitzeko lanak egiten hasiak gara, aspaldi ez bada ere.

Hileta munduaren ezaugarri orokorrak

Azterketa honetako laugarren puntuan luze eta zabal jorratu denez, Euskal Herriko Atlantiko aldeko isurialdeko hilobien munduak erabat argitu gabeko alderdiak ditu oraindik ere, ez baita aurkitu Brontze Aroaren azken aldiko eta Burdin Aroko hilobi aztarnarik, Pirinio aldean lurrean gune biribilak mugatzen dituzten oroitarri edo harrizko zirkuluak izan ezik, mairu baratze edo harrespil deituak.

Atlantiko aldean ez da aurkitu hobian egindako ehorzketarik edo errauts ontzien nekropolirik. Mediterraneo aldean, berriz, bai: La Hoya (Araba), La Torraza eta La Atalaya (Nafarroa). Euskal Herriko Atlantiko aldean lurrean gune biribil bat mugatzen duten oroitarriak baizik ez dira aurkitu (harrespilak), mota jakin batekoak denak, eta eremu jakin batean bakarrik. Oroitarri horien kokaleku murritza da, hain zuzen, herri horietako hileta erituak argitzeko eragozpen nagusia azterlan honek hartzen duen eremuaren alderdi askotan, bizileku gotortuak dauden lekuetan batez ere.

Bestalde, ez dirudi leize eta haitzuloak hildakoak hilobiratzeko erabili izan zirenik, ez behintzat ezagutzen diren aurkikuntzetan oinarritzen bagara. A. Armendarizen arabera (1960), ez dago arrazoirik hilotzak haitzuloetan erretzen edo errausten zirela pentsatzeko, salbuespenak salbu betiere.

Azterlan honen xedea den aroko ehunka harrespil edo mairu baratze izanik, gure ikerlana hileta monumentu horien azterketa egitera bideratu da neurri handi batean. Aditu batzuek harrespilekin lotzen dituzten tumuluak berak ere azterketa lan honetatik kanpo geratu dira, xehetasun handiz aztertuta dagoen kasu baten salbuespenarekin: Zuhamendi III. Kontuan hartzekoa da harrespil tumuludunak ere badirela –sarritan induskatu dira, eta tumulurik gabeko harrespilen garai berekotzat hartu izan dira–, baina ezin sar ditzakegu tumulu guztiak lehen mila urtean, kasurik gehienetan antzinakoagoak direla uste izateko moduko datuak eskaini baitituzte indusketa egin denean. Nolanahi dela ere, ez da ahaztu behar harrespilak eta tumuluak batera diren aztarnategietan, kasurik gehienetan behintzat, bi monumentuak ez direla nahasirik agertzen, zenbait metroko tarteaz bereizirik baizik.

Jose Miguel de Barandiaran (1952) eta Juan Maria Apellaniz (1975) ikertzaileek trikuharriak harrespil –tumuludunak edo tumulurik gabeak– bilakatu izan ote ziren defendatu dute. Ikusmolde horren arabera, hilotza errausteak, eta, beraz, gorpuzkinek hartzen zuten bolumena txikitzeak, ganberaren luze-zabalera murriztea -eta are, zenbait kasutan, desagertzea ere– ekarri zuen. Tumuluarekin gauza bera gertatu izango zen. Hipotesi hau babesten du, gainera, zenbait trikuharritan, ez askotan, peristalitoa agertu izanak; trikuharri horien artean nabarmentzekoa da Gorramakilekoa (Baztan, Nafarroa). Hala ere, oraingoz ez dugu datu askirik hori hala izan zenik ondorioztatzeko. Nolanahi dela ere, hala gertatu izan balitz ere, bilakaera hura eremu jakin eta oso mugatu batean (harrespilak dauden tokian bakarrik), eta beste inon ez, gertatu izan zela onartu beharko litzateke.

Harrespil hauek agertzen diren eremua erabat zehaztua eta mugatua dago, lan honi dagozkion mapetan ikus daitekeen bezala. Gure iritziz, egin diren prospekzio lanen ezaugarriak kontuan harturik, muga horiek ez dira askorik aldatuko, ez behintzat mendebaldekoa, iparraldekoa edo hegoaldekoa. Ekialdekoak, ordea, berritasunak ekar litzake, landa azterlan sistematikoak egingo balira. Hau guzti hau Pirinioetan gertatzen dela kontuan harturik, geografiaren batasunak gertaera bere osoan hartzera eta aztertzera bultzatu gaitu, harrespil guztiak batera ikertu ahal izateko. Hala, Pirinioetako mendikateetan zehar, gure azterketa Andorra inguruetaraino heldu da, hura baita, guk dakigularik behintzat, era honetako aztarnategien ekialdeko muga.

Bi isurialdeen uren banalerroa eratzen duen Aralarko mendilerroko bi aztarnategi sailkatzeko daude oraindik. Harrespil gisa sailkatu ziren garai batean, baina gure ustez ez dago batere garbi hori hala denik, zirkulu horien tipologia ez baita gainerako monumentuena bezalakoa. Gainera, Aralarko mendian, beste mendialde askotan bezala, hileta esparruekin zerikusirik ez duten zirkulu itxurako egitura ugari dago: artzain esparru horietan milaka urteetan zehar eraiki diren egiturak dira, erabilera askotarikoa izan dutenak. Aralarko mendebaldean, Supitaitzeko monolitoaren ondoan, 1982an aztertutako harri zirkulua da horren adibide bat; harrespila zela uste izan zen, baina azienda gordetzeko itxitura txiki bat besterik ez zela ikusi zen gero (X. Peñalver, 1983b, 1984). Urbian eta Urbasan aurkitu diren aztarnek ere zalantzak sortzen dizkigute, eta Bizkaian katalogatu diren bost aztarnategien kasuan, haien aurkitzaile edo aztertzaileek berek ez dute garbi harrespil diren ala ez, katalogoari dagokion atalean azaltzen den bezala.

Harrespilen ezaugarriak

Monumentu hauei dagokienez, bi gauza dira deigarriak: harrespilak dauden lurraldearen batasuna –250 kilometrotan zehar, ekialdetik mendebaldera, eta 5 eta 40 kilometro bitarteko zabaleran, 413 multzo daude: 1.104 harrespil guztira– eta batez ere dituzten ezaugarrien batasuna: maila garaietan agertzen dira gehienetan –zenbat eta ekialderago orduan eta garaiago, Pirinioetako mendikateen garaiera bezala–, eta urrutitik ikusten diren lekuetan (mendi lepoak eta muinoak batez ere).

172. argazkia. Millagateko harrespila.

Monumentu multzo bakoitzeko zirkulu kopurua, baina, ez da berdina leku guztietan: gehien-gehienak zirkulu bakarraz osatuak daude, eta zirkulu kopurua handitzen den hein berean gutxitzen da monumentu kopurua. Hori horrela izateak zalantza bat sortzen digu: hilobiok monumentu bakartuak dira ala denbora bitarte luzean erabilitako talde nekropoliak?

Hilobi gune horietako batzuetan egin diren azterketen eta datazioen arabera, monumentu horietako batzuk banako hilobiak dira eta beste batzuk (Errozatekoak, adibidez) denbora bitarte luzean erabilitako zirkulu multzoak. Banako monumentuak izatea –hau da gizabanako bakarrarentzat eraikiak– azpimarratu beharreko gauza da. Hala erakusten dute behintzat aztertzeko adina gorpuzkin atera diren aztarnategietan egindako indusketek. Salbuespen bat Oianlekuko harrespiletako bat da: Oianleku Ipar 1. Harrespil hori berriro erabili izan zen, aurrekoaren antzeko hilobiratze erritu bat eginez, baina azalagoko biltegi batean betiere.

Monumentu horien luze-zabalerak berdinak ez badira ere, 3 eta 7 metro bitarteko luzera izan baitezakete, antzeko samarrak dira, eta eskualdeka hartuta oso antzeko diametroak dituzte. Nolanahi ere, harrespil tumuludunak tumulurik gabeak baino handixeagoak dira. Tumulurik gabeak, berriz, ugariagoak.

Harrespilak tumuludunak edo tumulurik gabeak diren aztertzeaz gainera, barneko biribilgunea zedarritzen duten lekuko edo ortostatoen banaketa aztertu beharra dago. Harriak kokatzeko modua erabili den materialaren ezaugarrien araberakoa izan daiteke batzuetan, baina beste batzuetan barneko espazioa erabat itxita-edo ez egotea eragingo duten aldaerak ager daitezke, eta monumentu multzo batzuetan gorabeherak izan daitezke harrespil batzuen eta besteen artean: batzuetan lauzek hesi txiki moduko bat eratzen dute eta beste batzuetan erradioak balira bezala jarrita daude. Baina monumentuan sakondu ahala azaletik begiratuta ikusten errazak ez diren aldaera eta gorabehera gehiago suma daitezke. Hamaika aztarnategi aztertu ondoren, aurkitutako hondakinen behin-behineko tipologia bat egin ahal izan dugu. Zortzi hondakin mota desberdin bereizi ahal izan ditugu, 4.3. puntuan jasota dagoen bezala.

Aztertu diren harrespil gehienek batera duten ezaugarrietako bat da industriarik ia batere ez izatea. Landa lanak egitean harri, zeramika eta metalezko gai batzuk azaldu dira, baina oso gutxi. Aditu batzuen arabera material urritasun horrek leku horietako biztanleak gai horietan oso behartsuak zirela erakusten du, baina hilobi errituaren ezaugarri bereizgarri bat ere izan daiteke. Nolanahi dela ere, material urritasun hori dela eta, Pirinioen inguruan menderik mende hildakoentzat horrelako egiturak eraiki zituzten gizatalde horien azterketa egitea askoz zailagoa izango da. Baina errauts artean materiala uzteaz edo ez uzteaz gainera, badakigu gauza gehiago egiten zituztela eta erabaki gehiago hartzen zirela monumentu horien inguruko hilobiratze erritu horietan.

Hilobia egiteko lekua hautatu eta hilotza gaur egun ezezaguna zaigun lekuren batean erraustu ondoren, monumentua

173. argazkia. Okabeko harrespila.

eraikiko zen, arestian aipatu ditugun ezaugarri horietakoren batzuekin. Hilobia prestatu ondoren errausketaren ikatz puskak eta hilotzaren hezur kiskaliak bertan utziko ziren. Dena dela, oso hezur gutxi aurkitu dira, eta zalantzak daude horren inguruan. Gai hau lan honetako 4.6 puntuan aztertu bada ere, J. Blotek (1984c) azaldu zuen gai bat ekar daiteke orain gogora, azterketarako bide berriak zabaltzeko aukera eman baitezake: alegia, J. Bloten ustez, egur ikatz puska eta hezur erraustu hain gutxi dituzten monumentuak "zenotafioak" dira hilobiak baino gehiago. Hau da, Bloten arabera, errausketa errituekin zerikusirik duten keinu sinbolikoak dira monumentu horiek.

Gai horiei dagokienez, gauza batzuk aspaldidanik argi zeudela ematen zuen. Batetik, argi zegoen hilotza ez zela harriek mugatutako biribilgune horretan bertan errausten, errausketaren hondarrik inon ageri ez delako. Bestetik, errausketaren hondarrak –edo haien parte bat behintzat– bertan utzi baino lehen lurra "erritu" jakin batzuen arabera prestatzen zelako aztarnak ageri ziren, eta errausketa inguruetan egiten zela uste zen.

Egia da hondakinen urritasunak –salbuespenak salbu: J. Bloten Millagate IV aztarnategian, 5.a gure katalogoan, 1.500 gramo hezur inguru aurkitu baitziren– monumentua hilotzaren errautsak gordetzeko baino gehiago hildakoaren zati sinboliko bat edukitzeko eraiki izango zela dioen teoria babesten duela. Dena dela, ez da ahaztu behar lurraren azidotasunak hondakinak suntsi ditzakeela. Nolanahi ere, eta oraingoz errausketa txondorren aztarnarik aurkitu ez dela kontuan harturik, hilotzak uste zen baino urrutiago errausten ote zituzten eta gero eskukada batzuk errauts hilobiraino eramaten ote zituzten pentsaraz diezaguke horrek guztiak.

Askotan aipatu den gauza da aztertzen ari garen monumentu horiek abelbide eta larreetan egoten direla. Hori begien bistako gauza da, eta, gainera, ez da harritzekoa loturaren bat egotea artzainak antzinatik erabili dituen eta oraindik ere bere azienda ibiltaria larrez aldatzeko erabiltzen dituen bide horien eta hileta monumentuen artean, baina hala ere ez zaigu bidezkoa iruditzen harrespilen eta bide luzeko

transhumantziaren artean halako lotura erabateko eta orokorrik dagoenik baieztatzea.

Harrespilen kronologia

Dagoeneko hogei bat monumentu daude osotara azterturik Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurraldeetan, eta gogoeta jakingarri askoak egin daitezke haietatik ateratako informazioa baliaturik.

Azterketa horien arabera harrespil gehienak aro aldaketa gertatu aurreko lehen mila urtekoak direla ziurta daiteke, nahiz eta urte bitarte zabala dagoen batzuetatik besteetara. Datak gorabehera, fenomeno uniforme baten aurrean gaudela esan daiteke, bai hartzen duen eremu geografikoarengatik, bai tipologiarengatik, bai kronologiarengatik ere.

174. argazkia. Adiko Soroko harrespila.

Lehen mila urtean garrantzi handiko aldaketak gertatu ziren habitatean, eta bien bitartean garrantzi handiko aldaketak gertatu ziren, halaber, ordu arte ezagutzen ziren hilobiratzeko sistemetan, eremu geografiko jakin eta ongi zehaztu batean, lehenago ere aipatu dugun bezala. Ez dago dudarik denbora bitarte horretan, hileta errituak mairu baratze edo harrespilen inguruan egin zirela. Bestalde, duela gutxi mairu baratze edo tumulu gisako monumentu megalitiko batzuk bere industriarengatik edo datazio absolutuengatik Erdi Arora atxiki izana guztiz interesgarria iruditzen zaigu, eta datu berriak sortuko balira kontuan hartu beharrekoak izango direla uste dugu. Dena dela, eta monumentuak behin eta berriro erabiltzen zirela bazterturik errituak denboran luzatu ote ziren esatera menturatu aurretik, hobeto ezagutu beharra dago gaia, arkeologiaz gainera beste alor batzuk ere aztertuz.

Hilobietako aztarnen eta habitataren arteko harremana aro aldaketa aurreko lehen mila urtekoan

Brontze Aroaren azken aldiko eta Burdin Aroko habitataren eta garai hartako hileta munduaren arteko harremanetik ondorio interesgarri askoak sortzen dira gure ustean.

Bi gertaera garaikide eta osagarri ditugu aurrean. Nolanahi ere, gure kasuan muga geografiko garbiek bereizten dituzte bata eta bestea. Prospekzio lan askoren ondoren, 81 bat aztarnategi ezagutzen ditugu gaur egun: bizilekuak dira, bailara baino askoz gorago eraikitako bizileku gotorlekuak gehien-gehienak. Azterketari esker, eraikinen ezaugarriak eta eraikitzaileen ohiturak eta jarduna ezagutzeko datu asko atera dira argitara. Ingurune fisiko hurbilenaren ezaugarriak, landaredia eta laborantza berregin ahal izan ditugu batzuetan. Eta hala ere ez dugu han bizi zen jendearen hilobirik batere topatu, ez banakorik ez taldekorik. Berreagako nekropolia, izen bereko herritik metro gutxira dagoena, aztertzea komeniko litzateke, denboraren arabera sailkatu eta herriarekin duen harremana zehaztu ahal izateko.

Bestalde, 413 harrespil gune ditugu katalogaturik, 1.104 monumenturekin, Pirinioetako mendikateetako leku garaietan gehienak, Leizaran ibaiaren eta Andorra inguruen (Baqueira Beret) bitartean oraingoz. Kasu honetan ere ez da hilobiekin zerikusirik duten bizitokien aztarnarik batere aurkitu, ez behin-behineko bizitokienik ez finkoenik, bilaketan gogor saiatuagatik.

Beraz, argitalpen honetako mapetako batzuetan ongi ikus

175. argazkia. Sohandiko harrespila.

daitekeen bezala, bi alderdi bereiz daitezke: batetik, aztertu den eremuaren luze-zabalera ia osoa hartzen duen herri multzo handi bat, non ez baita hileta aztarnarik aurkitu, eta bestetik, mendialde handi bat, hileta aztarna ugari dituena baina habitatik batere ez.

Gaur egun oso ongi ezagutzen dugu aztertzen ari garen inguruetako megalitismoa, bai lan honetan aztergai dugun aldiari dagokiona bai aurreko aldietakoa ere (trikuharriak eta tumuluak). Ezagutza horretan oinarriturik, pentsaezina da herrixkak aurkitu diren lekuetan harrespilik izatea, are gutxiago Leizaran ibaiaz mendebaldera, Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeetan. Hala, herrixkak izan zirela dakigun inguruetan hileta hondakinak bilatzeko ahaleginean mairu baratzeak aurkitzeko aukera baztertu egin beharra dagoela iruditzen zaigu.

Mairu baratzeak dauden eremuari dagokienez, bizitokirik izanez gero, habitat egonkorrak izan edo ez, litekeena da habitat horiek ezagutzen ditugun herri gotortuak ez bezala-

koak izatea. Dena dela, habitatak egonda ere, ez dira erraz aurkituko, lurralde zati hori estaltzen duen landarediaren ugaritasuna kontuan harturik.

Ingurune fisikoari dagokion atalean zehaztu dugun bezala, mairu baratzeak dauden ingurunea oso ingurune menditsua da: mendi gailurren lerroak E-M norabidea du eta ibarrenak I-H norabidea batez ere. Horregatik, mendiotako malda handia eta tontorren eta ibarren artean dagoen tarte txikia dela eta, garaiera gorabehera handiak izango dira. Erdialdeko Pirinioetan, adibidez, harrespilak 1.800 metroko garaieran daude batez beste, eta ibarrak 500 bat metroko garaieran, eta batzuen eta besteen artean 15 eta 20 kilometroko tartea dago lerro zuzenean.

Mendebaldeko Pirinioetan, Nafarroa Beherean, tontorren eta ibarren arteko aldea txikiagoa da. Beraz, distantzia/garaiera erlazioa ere bai: hau da, harrespilak 1.000 metroko garaieran daude batez beste, ibarrak 280 metroko garaieran, eta batzuen eta besteen arteko tartea 7 bat kilometrokoa da lerro zuzenean.

Bestalde, mendialde horietako klima baldintzek erakusten dutenez (ikus ingurune fisikoari dagokion atala), G. Viersen arabera (1973) negualdiko (azaro-maiatza) elur maila 1.500 metroko garaieran dago. Maila horretatik behera egin ahala elurrak lurra estaltzen duen egun kopurua asko murrizten da, eta 400 metrotik behera, klima baldintzak homogeneoak eta kostaldekoaren antzekoak dira.

Erliebea eta klimatologia faktoreak elkarrekin parekatzean ikusten dugunez, Euskal Herriko mendietan eta Pirinioetako mendebaldeko muturrean (Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi), 625 metrotik behera (harrespilak dauden ingurunean beraz) egun gutxitan estaltzen du elurrak lurra. Inguru horietako bizi baldintzak eta ibarrekoak antzekoak dira oso. Mendebaldeko Pirinioetan (Nafarroa Beherea, Nafarroa eta Zuberoa), mairu baratzeak gorago daude: batez beste, 865 metroko garaieran Nafarroan eta 1.229 metroko garaieran Zuberoan, negualdiko elur mailaz beherago betiere. Kasu honetan, mendiaren eta ibarraren arteko erlazio horretan, harrespil inguruneak oso gertu daude gizakiari habitat iraunkorrak sortzeko aukera eskaintzen dieten klima baldintza egokiko lekuetatik, 700 metroetatik behera. Erdialdeko Pirinioetan klima baldintzak askoz gogorragoak dira (Pirinioen zati horretako ezaugarriek berek, alegia, mendi masa handiagoa izateak, mendebaldeko Pirinioetan garaiera bereko inguruetan baino klimatologia gogorragoa eragiten du) eta harrespilak 1.610 eta 1.933 metro bitartean daude, 1.500 metroko mailatik gora behinik behin.

Nolanahi dela ere, harrespilak dauden lekuen eta ibarraren arteko erlazioak erakusten duenez, itsas mailaz gaineko 700 metroko altitudera 10-15 kilometroko tartean iritsi daiteke harrespiletatik abiatuta lerro zuzenean, eta 511 metroko altitudera 15 eta 20 kilometroko tartean, Pirinioetako iparraldeko isurialdean betiere, desnibelak handiagoak baitira han. Garrantzi handiko beste faktore bat ere bada: bioklimatologia. Altitudea handitu ahala izozterik gabeko denbora bitartea txikiagoa da. Hala, 700 metroko altitudean, urriaren bukaeratik maiatzaren bukaeraraino dago izozteak izateko arriskua. 400 metrotik behera, berriz, izozte arriskua azaro erditsutik apirila erditsura mugatzen da. Izozteek eragin handia dute landareen hazkuntzan; negualdiko larreak ahitzen dituzte eta artaldeak larre bila gora eta behera (orain mendira orain ibarrera) ibiltzera behartzen dituzte.

Monumentuok altitudearen arabera banatuz gero, honako hiru talde hauek bereiz daitezke: 0-600 metro bitartekoak, 600 eta 1.500 metro bitartekoak, eta 1.500 metrotik gorakoak, eta banaketa horren arabera honako emaitza hauek ditugu:

–Euskal Herrian katalogaturik dauden harrespiletatik berrogeita hamarren bat 600 metrotik behera daude, hau da, gizakia urte osoan bizi daitekeen inguruneetan. 238 harrespil daude 600 eta 1.500 metro bitarteko tartean, eta tarte horretako goren aldean, garai jakin batzuetan, elurra izaten da beti. 1.500 metrotik gora hiru harrespil besterik ez dago. Hala beraz, katalogaturik dauden 291 monumentu multzoetatik 288 zero eta 1.500 metroko bitartean daude, aro eta leku jakin batzuetan izan ezik gizakia urte osoan bizi daitekeen ingurunean, alegia.

–Euskal Herriko lurraldeaz ekialdera (Biarno, Pirinio Garaiak eta Huesca) dauden harrespilak aztertuz gero, baina, gauzak oso desberdinak dira. Han monumentu gune bakarra dago 0 eta 600 metro bitartean, eta 37, berriz, 600 eta 1.500 metro bitartean. Hau da, 38 monumentu multzo daude 0 eta 1.500 metroko tartean. 1.500 metrotik gora daudenak, berriz, 83 dira.

–Katalogaturik dauden aztarnategi guztiak (413) kontuan harturik honako emaitza hauek ditugu: 0 eta 600 metro bitartean 51 daude eta 600 eta 1.500 metro bitartean 276. Hau da, 0 eta 1.500 metro bitartean 327 monumentu gune daude guztira. Gainerako 86ak 1.500 metrotik gora daude.

Orain arte azaldutakoa kontuan harturik, bi hipotesi dauzkagu hileta-eremu eta bizitokiei buruz egun dakigun guztia azaltzeko.

Hipotesi horietako bat duela urte askotakoa da, transhumantzia bideetan oinarritua. Bide horietako asko historiaurrekoak dira eta batzuek duela gutxi arte eta are gaur egun arte ere iraun dute. Hipotesi horren arabera, harrespilek eta Pirinioetako mendiek zerikusi handia dutelako ideian oinarriturik, urtaro jakin batzuetan, klimatologiak hala agintzen zuenean, artzainak mendialdeko larreetara igotzen ziren (edo haietatik jaisten ziren) abelbideetan zehar. Hau da, hipotesi horren arabera, artzainek –udaldia mendian eman eta elurra eta hotza hastean ibarrera jaisten baitziren– eraikitzen zituzten harrizko gune biribilok, hileta monumentuok.

Duela urte gutxi arte harrespil horien garai bereko bizitokirik aurkitu ez izanak gauzak ez zituen guztiz argitzen: izan ere, ezin baitzen zehaztu jende hura, bere artaldeekin menditik behera jaistean, non geratzen zen bizitzen.

Baina altitude baxugoetan bizileku ugariren aztarnak aurkitu direlarik, elementu gehiago dauzkagu orain erlazioak

ezartzeko, nahiz eta ezin atera daitekeen behin betiko ondoriorik oraingoz. Gaur egun ezagutzen diren bizitokietakoak al ziren artzain haiek, jatorriz, eta hortaz, herri haietara jaisten al ziren urteko sasoi hotzetan? Hala baldin bada, garbi dago neguan hiltzen ziren artzainak ez zituztela udan hiltzen zirenak bezala lurperatzen, bazirela desberdintasunak alegia. Izan ere, guztiak era berean lurperatu izan balituzte aurkitu izango ziren harrespilak herri inguruetan ere, eta ikerketa asko egin den arren, oraindik ez da halakorik aurkitu. Era berean, bizitoki gotortuetara ordez bestelako bizileku batzuetara jaisten baziren, hau da han-hemenkako bizitokiak bazituzten, berdin-berdin aurkitu izango ziren zirkuluen aztarnak non edo han, eta ez da halakorik ere gertatu. Zaila da pentsatzea gizatalde haiek hildakoak ehorzteko sistema desberdinak erabiliko zituena urte sasoiaren eta hiltzen ziren gunearen arabera. Dena dela transhumantziako mugimendu haiek bi alderdi natural eta arkeologiko horien artean egiten bazituzten, zalantzarik gabe pentsatu beharra dago ehorzketa sisteman aldaketaren bat bazela (bizitoki eta hileta-eremu artean), formaren aldetik bederen.

Beste aukera bat ere bada. Artzain taldea, beren hileta erritu propioa izango zuena, bizitoki iraunkorretako gizataldearen talde txiki berezi izaki, litekeena da erritu aldaketa hura ez nabarmentzea, eta hala, mendialdera itzultzen zirenean, haiek betidanik erabili izan zuten ehorzketa sistema tradizionala berreskuratzea: hileta monumentu megalitikoa, alegia. Monumentu horiek, gainera, erritu funtzioaz gainera, beste funtzio bat ere beteko zuten: espazio zabalak zirenez, errautsak non zeuden adierazteko seinale izan zitezkeen. Herrien ondoko nekropoli kolektiboetan ez zegoen horren beharrik (gertutasunagatik).

Transhumantziari lotutako hipotesi horren barruan, litekeena da, era berean, artzain taldeok gaur egun ezagutzen diren herri horietakoak ez izatea, baizik eta Pirinioetatik iparraldera zein hegoaldera egon zitezkeen beste bizitoki batzuetakoak. Izan ere, herri horietan bai baitaude hileta monumentu zirkular tumuludunak. Nolanahi ere, lan honetan aztertzen ari garenen oso bestelakoak dira horiek, bai beren tipologiari dagokionez, eta bai bertan agertu diren materialen balioagatik ere. Era honetako aztarnategiak aurkitu dira Esan (Nafarroa), Lleida hegoaldean, Serós eta Gerp udalerrietan (L. Diez-Coronel, 1962, 1964/65) eta Loten eta Garonnen (J. Blot; Ch. Raballand, 1995), eta litekeena da loturaren bat izatea Pirinioetako harrespilen eraikitzaileen eta herri horietako aztarnategien artean.

176. argazkia. Esako urtegiko egitura multzoa.

F. Gaudeulek (1978), Zerkupeko esparru gotortuaz ari dela –Pirinioetako iparraldean aztertutako bakarrenetako bat da, baina dena dela, emaitza ez da garrantzi handikoa izan, protohistoriako aldiari dagokionez behintzat–, artzaina eta artaldea arriskualdietan babesteko aterpea izan zitekeela uste du. Hortaz, babesgunearen kontzeptua agertzen da hemen ere, baina kasu honetan artzain babesgunea da, mendian kokatua dagoenez. Aztarnategi hau, ezagutzen diren gisa horretako besteen artean, harrespil eremutik hurbilen dagoena da, baina mendikate handien eremuan kokatuta egoteaz gainera, beste zenbait ezaugarri ere baditu Gipuzkoa eta Bizkaiako bizitokietatik bereizten dutenak, adibidez irispide oso zaileko harkaitza aukeratu izana kokaleku edo oso neurri txikikoa izatea.

Orain arte esandakoaren harira, ondoko galdera hauek sortu zaizkigu: Azken Brontzean eta Burdin Aroan Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako (Gorbeia, Aizkorri, Aralar edo Ernio, besteak beste) mendikateetan bizi ziren artzain transhumanteak non ehorzten zituzten uda aldean, inguru horietan harrespil arrastorik agertu ez dela kontuan harturik? Ez ote ziren mendialde horietara eta ingurukoetara igotzen udan Marueleza, Intxur edo Buruntzako bizilekuetako artzainak? Nabarmena da ingurune horretan guztian harrespilik aurkitu ez izana.

Bigarren hipotesi hau hemen plazaratzen dugu lehenengo aldiz, zalantza handirekin. Datozen urteetako lanek, landalanek batez ere, emango dizkigute aro aldaketa aurreko mila urtekoko herri horien interpretazio zehatzagoa egiteko giltzarriak.

Aurreko orrietan Pirinioetako erliebeaz eta harrespilak dauden inguruetatik, hau da mendi garaietatik, ibarretara dagoen garaiera aldeaz eta distantzia tarteaz hitz egin dugu. Alderdi eta ezaugarri horiek guztiak zehatzago definitzeko asmoz, ebaketa batzuk egin ditugu mendikate nagusietako ezaugarri desberdineko zenbait lekutan, harrespil dentsitate handiko inguruneetan. (Ikus hurrengo orrialdeetan).

Irudi horietan argi ikusten da lekurik garaienen eta urte osoko habitatak izan daitezkeen ibarren arteko tartea ez dela hain handia. Lehen ere aipatu ditugu mendialde horietako klimaren ezaugarriak, kilometro gutxiko tartean alde handiak daudela, itsas mailarekiko garaieraren arabera gehienbat.

Datu horiek guztiak kontuan harturik, eta harrespilak muga zehatzak dituen eremu batean daudela gogoan izanik, egun ezagutzen diren garai hartako bizileku ia guztietatik erabat bereizirik, honako hau da gure bigarren hipotesia: hileta monumentu horiek dauden lekuetan eta inguruko lurralde askoz beheragoetan gizatalde kohesionatuak bizi izan zirelako aukera. Hori horrela balitz, esan nahiko luke ezaugarri



93. irud. Pirinioetako harrespilen kokagunea eta 1, 2, 3 eta 4. epaiak.



94. irud. 1. epaia.



95. irud. 2. epaia.

bereziak zituen gizatalde bat bizi izan zela Pirinioen ardatzaren inguruan, eremu natural homogeneo batean, Euskal Herriko mendien ekialdetik Andorrara bitartean, ikerketaren egungo egoeraren arabera behintzat.

Mendebaldeko harrespilak (Igeldo, Jaizkibel, Onddi-Mandoegi eta Oiartzun Gipuzkoan) eta Lapurdiko behealdeetako beste batzuk alde batera utzita, 600 metroz behera egoteagatik urte osoan bizitzeko moduko lekuak direnak, beste harrespil gune batzuetan urteko zenbait hilabetetan bizitzea zailagoa litzateke, eta bakar batzuetan, ekialdeenekoetan batez ere, guztiz ezinezkoa litzateke bizileku egonkorrak sortzea. Baina, berez, larre eremuez ari gara, eta litekeena da leku horietan aldi baterako bizilekuak ere egotea, ez oso konplexuak –Urbia aldean (Aizkorri, Gipuzkoa) aurkitutako lehen mendi bizitokien hondakinak erreferentziatzat harturik beharbada–, baina horiez gainera beste bizileku egonkorrago batzuk ere izango zituzten –ez zuten gotorturik zertan izan– Pirinioetako ondoko ibarretan, bizi baldintzak guztiz egokiak ziren lekuetan.



96. irud. 3. epaia.



97. irud. 4. epaia.

Harrespil inguruetatik gertu gaur egun herri egonkorrak egoteak –Pirinioetako alderdi garaienen parean, baina harrespilak baino askoz beherago– antzina ere mendilerroan zehar bizileku egonkorrak izan zirela dioen hipotesia berresten du. Leku horiek ezagutu eta aztertu ahala gure hipotesiak aukeraren bat baduela pentsarazten digu.

Hileta monumentuok hain leku garaietan kokatzeko arrazoia lekuari aparteko garrantzia ematen zion sinesmen edo usteren bat izan daiteke, handik ikuspegi zabala zegoelako, lekua bera nabarmena zelako edota gizakiak ezaugarri bereziren bat zuela uste zuelako. Orografiako puntu jakin nabarmen batzuen funtzio sinbolikoa edo leku haien sakralizazioa

izan zitekeen hartarako hautatuak izateko beste arrazoi bat. Bestalde, harrespilok oroigarri gisako zenotafioak izan daitezkeela dioten teoriak (J. Blot, 1984c) kontuan hartuz gero, ez da baztertu behar harri zirkulu horiek artzainen errautsak gordetzeko bakarrik ez izateko aukera; litekeena da, garai hartako gizakiek, hilotzak erraustu ondoren, ikatz puska eta hezur kiskali apur batzuk hartu eta mendian gora harrespiletaraino eramatea errituren batzuk egiteko, eta litekeena da, baita ere, hilotzak errausten ziren lekuok harrespiletatik uste baino urrutiago izatea. Hori dela eta, oso interesgarria izango litzateke aztertzen diren harrespiletako aztarnak –antropologikoak eta bestelakoak– ezagutzea, gizataldeko kide jakin batzuenak bakarrik diren (gizonezko helduak) edo emakume eta haurrenak ere badiren jakiteko. Ez da ahaztu behar, oraingoz material gutxi eskuratu badugu ere, Oianleku Ipar (Oiartzun, Gipuzkoa) izeneko harrespilean brontzezko eraztun bat aurkitu zela sexua zehazterik izan ez zen gizaki baten hezur kiskalien artean.

Bizitokien eta hileta fenomenoen artean bada beste elementu bereizle bat ere. C. Olaetxeak, zeramiken xaflen analisi petrografiko batzuk egin ondoren, Gipuzkoan eta Nafarroa Beherean aztertutako harrespiletako –Oianleku Ipar, Gipuzkoan, eta Apatesaro Hego (J. Bloten I bis) eta Sohandi (J. Bloten V) Nafarroa Beherean– zeramika pastek, Intxur, Buruntza eta Basagain herrietakoek ez bezalako ezaugarriak ageri dituztela adierazi du. Hileta lekuetako aztarnek eta guk aztertu ditugun bizilekuetakoek egikera desberdina dute, eta dirudienez, Iruñeko arroko herri batzuetako zeramikekin dute zerikusi handiagoa.

Gure iritzian, harrespilak Leitzarango ibaiaz ekialdera ugari izateak, eta ibaiaz mendebaldera batere ez izateak, zerikusia izan dezake Baskoien mendeko lurraldearekin, haien lurraldearen mendebaldeko muga bat baitator harrespilenarekin. Muga horrek, bestalde, euskararen bi dialekto bereizten ditu.



98. irud. Euskal Herriko mapa, 1863ko euskalkien hedadura agertzen duena (L-L., Bonaparte, 1863).

OHARRA

Pirinioetako harrespilei buruz “Azken Brontzea eta Burdin Aroa Euskal Herriaren Atlantikoko isurialdean” izenburupean eta Doktorego Tesiaren parte gisa, aurkeztutako lana amaitu zenetik zuzenketak egin ditugunera, hau da azken probak zuzendu ditugunera, 14 multzo gehiago aurkitu dira, 22 monumentuz osatuak. Aurkikuntza berrien kopurua, nolanahi ere, oso txikia da, katalogatuta dauden aztarnategien kopuruarekin alderatuta, eta horien kokaleku geografikoak ez du aldatzen lan honen ondorioetan esandakoa.

Hauek dira aurkikuntza berriak, lurraldez lurralde:

IZENA	HARRESPIL / KOPURUA		KOORDENATUAK
GIPUZKOA			
AMUNOLA	1	64-56 orrialdea	X.585.170 Y.4.785.235 Z.482
ARREGINEA	2	64-31 orrialdea	X.586.655 Y.4.791.485 Z.235
ARRITXURIETAKO GAÑA	1	65-25 orrialdea	X.595.090 Y.4.791.580 Z.458
DESKARGA	1	89-6 orrialdea	X.586.160 Y.4.778.235 Z.715
ERMAÑALDE	2	64-31 orrialdea	X.587.020 Y.4.791.340 Z.260
TXIMISTA	5	64-54 orrialdea	X.584.490 Y.4.784.680 Z.740
HUESCA			
BARRANCO ELCAMPANIL 3 W.	1	118-IV orrialdea	X.691.090 Y.4.746.500 Z.1.325
REFUGIO CAMPANIL	4	118-IV orrialdea	X.690.240 Y.4.745.870 Z.1.665
BARRANCO ELCAMPANIL 4 S.	1	118-IV orrialdea	X.690.905 Y.4.746.575 Z.1.330
SABURCAL	1	118-IV orrialdea	X.687.860 Y.4.747.710 Z.1.335
BARRANCO DE BLANCAS N.	1	145-I orrialdea	X.709.390 Y.4.737.090 Z.1.915
ESPATA	1	145-III orrialdea	X.707.385 Y.4.729.350 Z.1.815
BARRANCO DE ASTUN	1	145-I orrialdea	X.705.280 Y.4.743.020 Z.1.025
BIARNO			
NIVOMETRO 2 W.	1	1547 OT 145-I orrialdea	X.709.860 Y.4.743.230 Z.1.825

BIBLIOGRAFIA

Gipuzkoarako:
Altuna, J.; et alli.
2002 “Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. Megalitoak. Aurkikuntza berriak 1990-2001”. *Munibe (Antropologia-Arkeologia)*. 15. eranskina. Donostia.

Huescarako:
Millan, L.
2002 “Nuevos monumentos megalíticos localizados en el Barranco Campanil y en las proximidades del Barranco del Puerto del Palo”. *Bisas de lo Subordán* 8, 10-13 Echo.
2002 “Monumentos megalíticos del Barranco de Acherito”. *Bisas de lo Subordán* 7, 10-13 Echo.
2002 “Nuevas localizaciones de monumentos megalíticos en el Valle de Canfranc (II). *El Pirineo Aragonés*, 6.095. zbkia. Jaca.

Biarnorako:
Millan, L.; Txintxurreta, I.
2001 “Nuevos monumentos protohistóricos en el Alto Valle de Ossau (Laruns, Pyrénées-Atlantiques)”. *Archeologie des Pyrénées Occidentales et des Landes* 20, 45-55 Paue.

6.- AURKIBIDEAK

1.- AURKIBIDE ALFABETIKOA

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
ABADE KURUTZ	Berastegi	6
ABARTAN (IZKOA)	Baztan	38
ABARTANGO-ZELAIA	Baztan	39
ACCAÜS	Bilheres	332
ADI´KO SOROA	Erro	40
AFFRON	Cauterets	405
AGATUNKO LEPOA	Erro	41
AGIÑA I (AGINA IPAR)	Lesaka	42
AGIÑA II (AGINA ERDI)	Lesaka	43
AGIÑA III (AGINA HEGO)	Lesaka	44
AGIÑA IV (AGINA SOROA)	Lesaka	45
AGUAS TUERTAS	Ansó	292
AHARGO	Barkoxe	273
AINONAKO GAINA (URGARATAKO GAINA)	Goizueta	46
AINONAKO LEPOA (URGARATAKO LEPOA)	Goizueta	47
AINTZIAGA	Baztan/Baigorri	208
AIRAGARRI	Sara	188
AITZAZATE I	Donostia	7
AIZALEGI	Baztan	48
ALBINZE	Altzai/Altzabeheti/Zunharreta	274
ALTSOROI	Etxalar	49
ALTUETAKO LEPOA	Goizueta	50
ALTXANGA	Sara	189
ALTXISTA (ANTXISTA)	Elduain	8
AMABIRJINEI-ARPEA	Baztan	51
AMARGUNGO ZEHARRA	Lesaka	52
ANSABÈRE ALTO	Lescun	333
ANSABÈRE BAJO	Lescun	334
ANSESTEGIKO LEPOA	Baztan	53
ANUSBIZKAR	Goizueta	54
APATESARO EKIALDE	Lekunberri	210
APATESARO HEGO	Lekunberri	209
APATESARO IPAR	Lekunberri	211
ARBILLETA	Erro	55
ARGAIKO-HARRIA	Urepele	212
ARGIBEL	Baztan	56
ARGINTZU EKIALDE	Kinto	57
ARGINTZUKO-LEPOA	Baztan/Kinto	58
ARGORRIETA	Lantz	59
ARHANOLATZE	Larraine	275
ARLEORKO ZABALA	Urnieta	9
ARLET (CAILLAOUS)	Borce	335
ARLET ESTE	Borce	336
ARLET OESTE	Borce	337
ARLUXETA	Itsasu	190
ARNOZTEGI	Arnegi/Eiheralarre	213
ARRATAKAKO ITURRI	Orbaitzeta	60
ARRATILLE	Cauterets	406
ARRI	Borce	338
ARRI I (BANASSE)	Borce	339
ARRI NORTE (CABAÑA DE LERBE)	Borce	340

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
ARRILUXE	Aldude	214
ARRITXULANGAINA	Oiartzun	10
ARRITXURRIETA	Oiartzun	11
ARRIURDIÑETA	Goizueta	61
ARRIURDIÑETA ERDI (EZKITURRITAKO GAINA)	Arano	62
ARRIURDIÑETA OCCIDENTAL (URKAMENDI HEGO)	Arano	63
ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU SORO)	Arano	64
ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU TXABALA)	Arano	65
ARRIURDIÑETA ORIENTAL (URKAMENDI IPAR)	Arano	66
ARRIURDIÑETAKO LEPOA	Arano	67
ARTHE	Ezterenzubi	215
ARTHEKO TONTORRA	Lekunberri	216
ARTXILONDO IPAR ETA HEGO	Lekunberri	217
ARTXILONDO MENDEBAL	Lekunberri	218
ASKONOBI	Behorlegi	219
ATEKALEUN	Sara	191
ATHARRI	Itsasu	192
AUNTZBIZKAR	Goizueta	68
AXIXTOI	Luzaide/Banka	220
AXPAGETA HEGO (ARRATAKA)	Orbaitzeta	71
AXPAGETA IPAR I (IDOPILKO SOROA)	Orbaitzeta	69
AXPAGETA IPAR II (AXPAGETA)	Orbaitzeta	70
AZALDEGIKO-LEPOA	Baztan	72
AZKENAZKO-LEPOA	Baztan	73
AZPEGI IPAR	Orbaitzeta	74
AZPEGIKO LEPOA	Orbaitzeta	75
BAGURDINETA	Larraine	276
BAIGT-DE SESCOUE	Etsaut	341
BALSA FRIA	Andiako larreak	76
BARAXAR PAGOXAR	Aranatz/Goizueta	77
BARDOIZA	Urbasa	78
BARRANCO BARCAL (REFUGIO)	Hecho	295
BARRANCO BARCAL ALTO	Hecho	293
BARRANCO BARCAL MEDIO	Hecho	294
BARRANCO DE BLANCAS (IZAS)	Canfranc	296
BARRANCO DE IP	Canfranc	297
BARRANCO DE LOS CAMPOS DE TROYA	Sallent de Gállego	298
BARRANCO DEL ARROYO	Ansó	299
BARRANCO EL CAMPANIL	Ansó	300
BARRANCO MAYO BLANCO	Ansó	301
BASATE	Oiartzun	12
BEARDEGIKO GAINA	Erro	79
BEASKIN I	Enirio-Aralar lotura	13
BEHEITAKO-ERREKA	Luhuso	193
BEHORLEGI	Mendibe	221
BELTZUNTZA	Goizueta (Artikutza)	80
BELTZUNTZAKO HARRIA	Goizueta	81
BERASKUAIN	Erro	82
BIAMENDIKO LEPOA	Labaien	83
BIDAKORRIKO LEPOA	Donamaria	84
BIDANGOKO GAINA	Lesaka	85
BILGOTZA	Lekunberri	222
BIOUS OUMETTES	Luhüntze	342
BIROLEO	Turtzioz/Rasines (Santander)	1
BISCACOU (NAPATCH)	Issor	343

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
BIXUSTIA	Senpere	194
BUNKER	Ansó	302
BURDIMOTX BIZKARRA	Baztan	86
BURGA	Baztan	87
BURNAIZTIETAKO LEPOA	Goizueta (Artikutza)	88
BUURDIKO-LEPOA	Baztan	89
CABANE DE CUJALATE	Luhüntze	344
CABANE DE SÉNESCAU	Luhüntze	345
CABANES DE MAGNABAITG	Luhüntze	346
CABANES LA GLÈRE	Luhüntze	347
CABAÑAS DE URKULU	Eiheralarre	223
CAMPO LARGO ESTE	Ansó	303
CAMPO LARGO PUENTE	Ansó	304
CANTAL ESCURETETS ESTE	Borce	348
CASA DE LA MINA	Ansó	305
CHARACOU	Accous	349
CHARACOU II	Accous	350
CIRCO CANAL ROYA	Canfranc	306
COL D'ARAN	Bielle	351
COL D'ASTUN	Urdos	352
COL D'AYOUS	Gabas	353
COL DE GOUETSOULE	Urdos	354
COL DE L'IOU	Luhüntze	355
COL DE MAGNABAIGT	Luhüntze	356
COL DE SOUPERET	Borce	357
COL D'ISEYE	Accous	358
COL LAVIGNE	Luhüntze	359
CORRAL (CASA DE LA MINA ALTO)	Canfranc	307
COURAÜS DE HONDAS	Bielle	360
CUARTEL DE CARABINEROS	Ansó	308
CULIVILLAS	Sallent de Gállego	309
DARRÉ SPLUMOUSE	Cauterets	407
DESKANTSUKO BIZKARRA	Goizueta	90
DESKARGAKO ARRIETA	Goizueta	91
EGIAR	Oiartzun	14
EGURTEGI	Baztan	92
EL PUENTE	Tramacastilla de Tena	310
EL SALERO I (NORTE)	Tramacastilla de Tena	311
EL SALERO II (SUR)	Tramacastilla de Tena	312
ELORREGIKO LEPOA	Baztan	93
ELORRIETA	Baigorri/Baztan	94
ELORRITAKO GAÑA (ELORRIETAKO GAINA)	Oiartzun	15
ELURZULO (LEIAKO ELURTZULO)	Urnieta	16
ELUTXO HARRIA (BIDANGOKO ZABALA)	Goizueta (Artikutza)	95
ENEKO ELORRITA I (ENEKO ELORRIETA EGIA)	Goizueta	96
ENEKO ELORRITA II (ENEKO ELORRIETA LEPOA)	Goizueta	97
ENOBIETA TXIKIA	Lesaka	98
ERMITAKO-LEPOA	Baztan	99
ERNAZABALGO SOROA	Kinto	100
ERREGELU	Luhuso	224
ERREKALKO (ERREKALEKU)	Arano/Goizueta	101
ERRENGA	Oiartzun	17
ERROIMENDI	Larraine	277
ERROLAN	Baztan	102
ERROZATE	Lekunberri	225
ETENE	Donamaria	103

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
ETENETA I (ETENETAKO LEPOA)	Urnieta	18
ETENETA II (ETENETAKO BIZKARRA)	Andoain	19
ETSAIN	Baztan	104
ETXAATEKO BIZKARRA	Lekunberri	226
ETXAATEKO LEPOA	Lekunberri	227
ETZELA	Elduain/Hernani	20
ETZELA MENDEBAL	Elduain	21
ETZELAKO ARRITXURIAK	Elduain	22
EXKAXPE	Goizueta (Artikutza)	105
EZIOKO SOROA	Hernani	23
EZIOKO TONTORRA	Hernani	24
EZKAIN´KO LEPOA	Ezkurra	106
EZURRETA	Ezpeleta/Itxasu	195
FORAU DE LA LLANA ESTE	Benasque	313
FORAU DE LA LLANA OESTE	Benasque	314
FOYAS DE AÑARON NORTE	Ansó	315
FOYAS DE AÑARON SUR	Ansó	316
FOYAS DE SANTA MARIA ESTE	Ansó	317
FOYAS DE SANTA MARIA OESTE	Ansó	318
GABEDAILLE I	Borce	361
GABEDAILLE II	Borce	362
GABEDAILLE III-IV	Borce	363
GAHALARBE	Mendibe	228
GARRALDA	Heleta	229
GARTZAGAKO-LEPOA	Baztan	107
GATZARRIETA I	Goizueta (Artikutza)	108
GATZARRIETA II	Goizueta (Artikutza)	109
GAZTANBIDE	Otxagabia	110
GAZTARROZKO BIZKARRA	Goizueta	111
GERASUNKO ATAKA	Aranatz/Goizueta (Artikutza)	112
GOIZAMENDI (MEATZETAKO KASKOA)	Baztan	113
GOROSPILGO-LEPOA	Baztan	114
GOROSTI	Baztan	115
GOROSTI BIZKAR	Erro	116
GOROSTIARRIA	Azkaine	196
GORRAMAKIL EKIALDE	Baztan	117
GORRAMAKIL MENDEBAL	Baztan	118
GORRAMENDI	Baztan	119
GURUTXE-MEAKA	Baztan	120
GURUTXE-MEAKA IPAR	Baztan	121
GURUTZEKO IPARLA	Bidarrai	230
HARLUZE	Lekunberri	231
HARTSUDURRA (ESKALIERRA)	Altzai/Altzabeheti/Zunharreta	278
HASKETA	Ezterenzubi	232
HAUZAI	Banka	233
HEGIEDER	Ezterenzubi	234
HEGIEDER IPAR	Ezterenzubi	235
HEZELEKUA	Urdiñarbe	279
HORTZ- ZORROTZ	Urepele	236
HORZA	Orzaize	237
HOUNDAS	Bielle	364
IBAÑETA EKIALDE	Baztan	122
IBAÑETA MENDEBAL	Baztan	123
IBINTZA	Aranatz/Goizueta (Artikutza)	124
IBON D'ASTANES	Ansó	365
IBON DE TRAMACASTILLA	Tramacastilla de Tena	319
IGARATZA II	Enirio-Aralar lotura	25
IGUZKI HEGO	Baztan	125
IGUZKI I-II (IGUZKI MENDEBAL)	Itsasu	197
ILARRITA (OKABE)	Lekunberri	238

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
ILHARREKO ORDOKIA	Larraine	280
ILHEOU	Cauterets	408
ILLARBITEKO SOROA (ARRAMALETA)	Goizueta	126
IPARLA	Bidarrai	239
IRAINGO ATAKA	Goizueta (Artikutza)	127
IRASKARDI	Andia	128
IRATI-SORO ERDI	Lekunberri	241
IRATI-SORO HEGO	Lekunberri	240
IRATI-SORO IPAR	Lekunberri	242
IRAUBAZTER	Lekunberri	243
IRAUKO LEPOA	Lekunberri	244
IRAUNABAKO ERREKA HEGO	Lekunberri	245
IRAUNABAKO ERREKA IPAR	Lekunberri	246
IRAURTZA	Goizueta	129
IROPILE HEGO (IDOPILKO LEPOA)	Orbaitzeta	130
IROPILE IPAR (IDOPIL IPAR)	Ezterenzubi	247
IRUMUGETA	Baztan/Lantz	131
ISERIAS (IZAS)	Canfranc	320
ISEYE	Accous	366
ISTAUZ	Baztan	132
ITSASEGI	Eiheralarre	248
IUSKADI (IGUZKI IPAR)	Itxassou	198
IZU (IZUKO GAINA)	Aranatz/Goizueta (Artikutza)	133
IZURRIZTI I (IZURRIZTIKO EGIA)	Goizueta (Artikutza)	134
IZURRIZTI II (IZURRIZTIKO LEPOA)	Goizueta (Artikutza)	135
JAIZKIBEL I (ISKULIN)	Hondarribia	26
JAIZKIBEL II (JAIZKIBEL)	Hondarribia	27
JATSAGUNE	Arnegi	249
KANPAZAULO	Barakaldo/Goeniz	2
KATILLEGIKO-LEPOA HEGO	Baztan	136
KATILLEGIKO-LEPOA IPAR	Baztan	137
KAUSO I (KAUSOKO LEPOA)	Oiartzun	28
KAUSO II (KAUSOKO GAINA)	Oiartzun	29
KORLETA	Orozko	3
LA COUD	Bilheres	368
LA GLERE DE POMBIE	Luhüntze	371
LA PLANA	Azkaine	199
LA RIBERA	Cornudella de Baliera	321
LAC D'ANGLUS	Borce	367
LAC GENTAU	Gabas	369
LAC ROUMASSOT	Luhüntze	370
LANOTEGIBEKOA	Erro	138
LAPATIÑEGAÑE	Larraine	281
LAPOURSIOUQUE (VALLEE D'ARAN)	Sarrance	372
LA RINCONADA (CANAL ROYA)	Canfranc	322
LARRAKAGAINA	Baztan	139
LARRY	Urdos	373
LAS FITAS NORTE	Ansó	323
LAS FITAS SUR	Ansó	324
LAS QUEBES	Luhüntze	374
LAS QUÉBOTTES DE BROUSSET	Luhüntze	375
LAURIÑA	Banka	250
LEIZAR-ATHEKA	Eiheralarre	251
LEKENDIKO GAINA	Arano	140
LEPAKAESTUA	Goizueta	141
LEPO XIPIA (ESKALEAK)	Larraine	282
LERATE (LEGATE)	Lekaroz	142
LINDUS	Erro	143
LIZARROZKO SOROA	Goizueta	144

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
LOITZATEKO SOROA	Labaien	145
LORDECI NORTE	Tramacastilla de Tena	325
LORDECI SUR	Tramacastilla de Tena	326
LURUKO-ATEKAK	Baztan	146
LUTOUR I	Cauterets	409
LUTOUR II	Cauterets	410
LUURZU HEGO I	Kinto	147
LUURZU HEGO II	Kinto	148
LUURZU HEGO III	Kinto	149
LUURZUKO LEPOA	Baztan	150
MAGNABAITG	Luhüntze	376
MAILARRETA (MAIRUILARRIETA HEGO)	Baztan	151
MAIRUILARRIETA	Baztan	152
MAISTRUGAIN	Baztan	153
MAISTRUGAIN EKIALDE	Baztan	154
MAISTRUGAIN MENDEBAL	Baztan	155
MANDALE	Urruña	200
MASPÊTRE	Borce	377
MASPÊTRE I	Borce	378
MASPÊTRE II	Borce	379
MATARIA	Uharte-Garazi	252
MEATSEKO BIZKARRA	Baztan/Itsasu	156
MEATZE	Larraine	283
MEATZEKO LEPOA	Baztan/Itsasu	201
MEATZU	Bera	157
MEHATZE	Luzaide/Banka	158
MENDITTIPI (ZELAIAKO BIZKAR)	Bidarrai	202
MENDIZABALE	Luhuso	253
MENDIZORROTZ I	Donostia	30
MILLAGATE	Larraine	284
MINAKO LEPOA	Orbaitzeta	159
MULISKO GAINA	Hernani/Urnieta	31
MUNERRE	Oiartzun	32
MUNHOGAIN	Baigorri	254
MURKHUILLAKO LEPOA	Larraine	285
NEGUSARO	Arnegi	255
NEKAITZ	Baztan	160
OIALEGIKO LEPOA	Baztan	161
OIANLEKU HEGO	Oiartzun	33
OIANLEKU IPAR	Oiartzun	34
OIHANBELTZ HEGO	Ezterenzubi/Lekunberri	256
OIHANBELTZ IPAR	Ezterenzubi	257
OLARIAGA	Baztan	162
OLEGI EKIALDE	Ezkurra	163
OLEGI MENDEBAL	Ezkurra	164
OLEGIKO LEPOA	Ezkurra	165
ONEGA	Urruña	203
ORGANBIDESKA	Larraine	286
ORGELETEGI	Orzaize	258
OTARRA-BIZKARRA	Kinto	166
OTSOARRISKO ZELAIA	Orbaitzeta	167
OURATOU	Cette/Eygun	380
OURDINSE I	Bedous	381
OURDINSE II	Bedous	382
OURDINSE III	Bedous	383
PAGOLLETA I (PAGOLLETAKO ZELAIA)	Goizueta (Artikutza)	168
PAGOLLETAKO GAINA	Aranatz/Goizueta (Artikutza)/Lesaka	169
PE DET MALH	Cauterets	411
PEDAING-DOUS-PLOUS	Sarrance	384
PELUSAINE	Larraine	287

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
PERUTXOTE	Turtzioz/Castro Urdiales (Santander)	4
PEYRECORE	Escout	385
PEYREGET	Luhüntze	386
PIC D'AROUGOS	Luhüntze	387
PIE BARRANCO BARCAL (LA ROYA)	Ansó	327
PILOTASORO	Erro	170
PITTARE	Biriatu	204
PLA DE LA GOLE I	Cauterets	412
PLA DE LA GOLE II	Cauterets	413
PLAA HOUNGAROUS	Luhüntze	388
PLAT DE LA GRADILLÈRE	Luhüntze	389
PLAT DE LA GRADILLÈRE ESTE	Luhüntze	390
PLAT DE LA GRADILLÈRE OESTE	Luhüntze	391
PLATEAU DE GOUETSOULE	Urdos	392
PLUVIÓMETRO (NIVÓMETRO)	Luhüntze	393
POZETAS DE LA CAMBRA	Tramacastilla de Tena	328
PUENTE DE LOS TRONCOS	Hecho	329
REMUÑE	Benasque	330
SAGARDEGI	Anue	171
SAOUBATHOU	Borce	397
SAOUBATHOU (IBOSQUE)	Borce	394
SAOUBATHOU (SPELUNGUETTE)	Borce	395
SARRAILLE (DE CAZAUX)	Loudios/Ichere	396
SÉNESCAU I	Luhüntze	398
SÉNESCAU II	Luhüntze	399
SÉNESCAU III	Luhüntze	400
SENTIER DE LOUSTRÉBÈS	Luhüntze	401
SOALAR	Baztan	172
SOHANDI	Eiheralarre	259
SOLDADUHARRIAK (ATALOSTI)	Kinto	173
SOQUES	Luhüntze	402
SORBITZUAGA	Busturia	5
SOROLUXE	Orbaitzeta 1	174
SOUPERET	Borce	403
SOUSSOUÉOU	Luhüntze	404
SUALAR	Sara	205
TELLETXEKO BIZKARRA	Baztan	175
TURAORKO BIZKARRA	Luzaide/Banka	260
TURAORKO EGIA	Luzaide/Banka	261
TURAORKO LEPOA	Luzaide/Banka	262
TXIMISTAKO EGIA	Urnieta	35
TXIPETA NORTE	Ansó	331
UGATZE	Altzai/Altzabeheti/Zunharreta	288
UNALBIDE	Goizueta (Artikutza)	176
UNALBIDEKO GAINA	Goizueta	177
UNAMENE	Arano/Hernani	36
UNTXIDE	Baigorri	263
URDANARRE	Eiheralarre	264
URDANARRE IPAR	Arnegi/Eiheralarre	265
URDIAKOHARRIA I	Baigorri	266
URDIAKOHARRIA II	Anhauze	267
URDOLA	Leitza	178
URKULLU TXIKI EGIA	Oiartzun	37
URLEGIKO BIZKARRA	Baztan	179
URLEGIKO LEPOA	Baztan	180
URRIZTI	Goizueta (Artikutza)	181
URTZUIA	Kanbo	206
URTZUIAKO LEPOA (URSUBEHERE)	Kanbo	207
UTHUNARRIA	Hauze	289
UZTANBORRO	Baztan/Kinto	182

Izena	Udalerria	Katalogo zbkia.
XANTXOTEN HARRIA	Erro	183
XARDEKA	Larraine	290
ZAGUA	Baztan	184
ZAHO	Aldude	268
ZAHO HEGOA	Aldude	269
ZEINEGI	Ahatsa (Baskazane)	270
ZERA	Zalgize/Doneztebe	291
ZOTALETA ERDI	Baztan	185
ZOTALETA IPAR	Baztan	186
ZOTALETAKO-KASKOA HEGO	Baztan	187
ZUHAMENDI III (TÚMULO)	Sara	1
ZURZAI HEGO	Lekunberri	271
ZURZAI IPAR	Lekunberri	272

2.- UDALERRIEN ETA KATALOGO ZENBAKIEN AURKIBIDEA

• BIZKAIA

BARAKALDO:

KANPAZAULO (2)

BUSTURIA:

SORBITZUAGA (5)

GOENIZ:

KANPAZAULO (2)

OROZKO:

KORLETA (3)

TURTZIOZ:

BIROLEO (1)
PERUTXOTE (4)

• GIPUZKOA

ANDOAIN:

ETENETA II (ETENETAKO BIZKARRA) (19)

BERASTEGI:

ABADE KURUTZ (6)

DONOSTIA:

AITZAZATE I (7)
MENDIZORROTZ I (30)

ELDUAIN:

ALTXISTA (ANTXISTA) (8)
ETZELA (20)
ETZELA MENDEBAL (21)
ETZELAKO ARRITXURIAK (22)

HERNANI:

ETZELA (20)
EZIOKO SOROA (23)
EZIOKO TONTORRA (24)
MULISKO GAINA (31)
UNAMENE (36)

HONDARRIBIA:

JAIZKIBEL I (ISKULIN) (26)
JAIZKIBEL II (JAIZKIBEL) (27)

OIARTZUN:

ARRITXULANGAINA (10)
ARRITXURRIETA (11)
BASATE (12)
EGIAR (14)
ELORRITAKO GAÑA (ELORRIETAKO GAINA) (15)
ERRENGA (17)
KAUSO I (KAUSOKO LEPOA) (28)
KAUSO II (KAUSOKO GAINA) (29)
MUNERRE (32)
OIANLEKU HEGO (33)
OIANLEKU IPAR (34)
URKULLU TXIKI EGIA (37)

ENIRIO-ARALAR LOTURA:

BEASKIN I (13)
IGARATZA II (25)

URNIETA:

ARLEORKO ZABALA (9)
ELURZULO (LEIAKO ELURTZULO) (16)
ETENETA I (ETENETAKO LEPOA) (18)
MULISKO GAINA (31)
TXIMISTAKO EGIA (35)

• NAFARROA

ANUE:

SAGARDEGI (171)

ARANATZ:

BARAXAR PAGOXAR (77)
GERASUNKO ATAKA (112)
IBINTZA (124)
IZU (IZUKO GAINA) (133)
PAGOLLETAKO GAINA (169)

ARANO:

ARRIURDIÑETA ERDI (EZKITURRITAKO GAINA) (62)
ARRIURDIÑETA OCCIDENTAL (URKAMENDI HEGO) (63)
ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU SORO) (64)
ARRIURDIÑETA ORIENTAL (BURNINBURU TXABALA) (65)

ARRIURDIÑETA ORIENTAL (URKAMENDI IPAR) (66)
ARRIURDIÑETAKO LEPOA (67)
ERREKALKO (ERREKALEKU) (101)
LEKENDIKO GAINA (140)
UNAMENE (36)

BAIGORRI:

ELORRIETA (94)

LUZAIDEA:

MEHATZE (158)

BANKA:

MEHATZE (158)

BAZTAN:

ABARTAN (IZKOA) (38)
ABARTANGO ZELAIA (39)
AINTZIAGA (208)
AIZALEGI (48)
AMABIRJINEI-ARPEA (51)
ANSESTEGIKO LEPOA (53)
ARGIBEL (56)
ARGINTZUKO-LEPOA (58)
AZALDEGIKO-LEPOA (72)
AZKENAZKO-LEPOA (73)
BURDIMOTX BIZKARRA (86)
BURGA (87)
BUURDIKO-LEPOA (89)
EGURTEGI (92)
ELORREGIKO LEPOA (93)
ELORRIETA (94)
ERMITAKO-LEPOA (99)
ERROLAN (102)
ETSAIN (104)
GARTZAGAKO-LEPOA (107)
GOIZAMENDI (MEATZETAKO KASKOA) (113)
GOROSPILGO-LEPOA (114)
GOROSTI (115)
GORRAMAKIL EKIALDE (117)
GORRAMAKIL MENDEBAL (118)
GORRAMENDI (119)
GURUTXE-MEAKA (120)
GURUTXE-MEAKA IPAR (121)
IBAÑETA EKIALDE (122)
IBAÑETA MENDEBAL (123)
IGUZKI HEGO (125)
IRUMUGETA (131)
ISTAUZ (132)
KATILLEGIKO-LEPOA HEGO (136)
KATILLEGIKO-LEPOA IPAR (137)
LARRAKAGAINA (139)
LERATE (LEGATE) (142)
LURUKO-ATEKAK (146)
LUURZUKO LEPOA (150)
MAILARRETA (MAIRUILARRIETA HEGO) (151)
MAIRUILARRIETA (152)
MAISTRUGAIN (153)
MAISTRUGAIN EKIALDE (154)
MAISTRUGAIN MENDEBAL (155)
MEATSEKO BIZKARRA (156)
MEATZEKO LEPOA (201)
NEKAITZ (160)
OIALEGIKO LEPOA (161)
OLARIAGA (162)
SOALAR (172)
TELLETXEKO BIZKARRA (175)
URLEGIKO BIZKARRA (179)
URLEGIKO LEPOA (180)
UZTANBORRO (182)
ZAGUA (184)
ZOTALETA ERDI (185)
ZOTALETA IPAR (186)
ZOTALETAKO-KASKOA HEGO (187)

BERA:

MEATZU (157)

DONAMARIA:

BIDAKORRIKO LEPOA (84)
ETENE (103)

ERRO:

ADI´KO SOROA (40)
AGATUNKO LEPOA (41)
ARBILLETA (55)
BEARDEGIKO GAINA (79)
BERASKUAIN (82)
GOROSTI BIZKAR (116)
LANOTEGIBEKOA (138)
LINDUS (143)
PILOTASORO (170)
XANTXOTEN HARRIA (183)

ETXALAR:

ALTSOROI (49)

EZKURRA:

EZKAIN´KO LEPOA (106)
OLEGI EKIALDE (163)
OLEGI MENDEBAL (164)
OLEGIKO LEPOA (165)

GOIZUETA:

AINONAKO GAINA (URGARATAKO GAINA) (46)
AINONAKO LEPOA (URGARATAKO LEPOA) (47)
ALTUETAKO LEPOA (50)

ANUSBIZKAR (54)
ARRIURDIÑETA (61)
AUNTZBIZKAR (68)
BARAXAR PAGOXAR (77)
BELTZUNTZA (80)
BELTZUNTZAKO HARRIA (81)
BURNAIZTIETAKO LEPOA (88)
DESKANTSUKO BIZKARRA (90)
DESKARGAKO ARRIETA (91)
ELUTXO HARRIA (BIDANGOKO ZABALA) (95)
ENEKO ELORRITA I (ENEKO ELORRIETA EGIA) (96)
ENEKO ELORRITA II (ENEKO ELORRIETA LEPOA) (97)
ERREKALKO (ERREKALEKU) (101)
EXKAXPE (105)
GATZARRIETA I (108)
GATZARRIETA II (109)
GAZTARROZKO BIZKARRA (111)
GERASUNKO ATAKA (112)
IBINTZA (124)
ILLARBITEKO SOROA (ARRAMALETA) (126)
IRAINGO ATAKA (127)
IRAURTZA (129)
IZU (IZUKO GAINA) (133)
IZURRIZTI I (IZURRIZTIKO EGIA) (134)
IZURRIZTI II (IZURRIZTIKO LEPOA) (135)
LEPAKAESTUA (141)
LIZARROZKO SOROA (144)
PAGOLLETA I (PAGOLLETAKO ZELAIA) (168)
PAGOLLETAKO GAINA (169)
UNALBIDE (176)
UNALBIDEKO GAINA (177)
URRIZTI (181)

ITSASU:

MEATSEKO BIZKARRA (156)

LABAIEN:

BIAMENDIKO LEPOA (83)
LOITZATEKO SOROA (145)

LANTZ:

ARGORRIETA (59)
IRUMUGETA (131)

LEITZA:

URDOLA (178)

LESAKA:

AGIÑA I (AGINA IPAR) (42)
AGIÑA II (AGINA ERDI) (43)
AGIÑA III (AGINA HEGO) (44)
AGIÑA IV (AGINA SOROA) (45)
AMARGUNGO ZEHARRA (52)
BIDANGOKO GAINA (85)
ENOBIETA TXIKIA (98)
PAGOLLETAKO GAINA (169)

ORBAITZETA:

ARRATAKAKO ITURRI (60)
AXPAGETA IPAR I (IDOPILKO SOROA) (69)
AXPAGETA IPAR II (AXPAGETA) (70)
AXPAGETA HEGO (ARRATAKA) (71)
AZPEGI IPAR (74)
AZPEGIKO LEPOA (75)
IROPILE HEGO (IDOPILKO LEPOA) (130)
MINAKO LEPOA (159)
OTSOARRISKO ZELAIA (167)
SOROLUXE (174)

OTSAGABIA:

GAZTANBIDE (110)

ANDIAKO LARREAK:

BALSA FRIA (76)
IRASKARDI (128)

KINTO:

ARGINTZU EKIALDE (57)
ARGINTZUKO-LEPOA (58)
ERNAZABALGO SOROA (100)
LUURZU HEGO I (147)
LUURZU HEGO II (148)
LUURZU HEGO III (149)
OTARRA-BIZKARRA (166)
SOLDADUHARRIAK (ATALOSTI) (173)
UZTANBORRO (182)

URBASA:

BARDOIZA (78)

ANUEKO HARANA:

ARGORRIETA (59)

• LAPURDI

AZKAINE:

GOROSTIARRIA (196)
LA PLANA (199)

BIDARRAI:

MENDITTIPI (ZELAIAKO BIZKAR) (202)

BIRIATU:

PITTARE (204)

KANBO:

URTZUIA (206)
URTZUIAKO LEPOA (URSUBEHERE) (207)

EZPELETA:

EZURRETA (195)

ITSASU:

ARLUXETA (190)
ATHARRI (192)
EZURRETA (195)
IGUZKI I-II (IGUZKI MENDEBAL) (197)
IUSKADI (IGUZKI IPAR) (198)
MEATZEKO LEPOA (201)

LUHUSO:

BEHEITAKO-ERREKA (193)

SARA:

AIRAGARRI (188)
ALTXANGA (189)
ATEKALEUN (191)
SUALAR (205)
ZUHAMENDI I (TÚMULO) (1)

SENPERE:

BIXUSTIA (194)

URRUÑA:

MANDALE (200)
ONEGA (203)

• NAFARROA BEHEREA

AHATSA (BASKAZANE):

ZEINEGI (270)

ALDUDE:

ARRILUXE (214)
ZAHO (268)
ZAHO HEGOA (269)

ANHAUZE:

URDIAKOHARRIA II (267)

ARNEGI:

ARNOZTEGI (213)
NEGUSARO (255)
URDANARRE IPAR (265)

LUZAIDE:

AXIXTOI (220)
TURAORKO BIZKARRA (260)
TURAORKO EGIA (261)
TURAORKO LEPOA (262)

BANKA:

AXIXTOI (220)
HAUZAI (233)
LAURIÑA (250)
TURAORKO BIZKARRA (260)
TURAORKO EGIA (261)
TURAORKO LEPOA (262)

BEHORLEGI:

ASKONOBI (219)

BIDARRAI:

GURUTZEKO IPARLA (230)
IPARLA (239)

GARAZI:

MATARIA (252)

EZTERENZUBI:

ARTHE (215)
HASKETA (232)
HEGIEDER (234)
HEGIEDER IPAR (235)
IROPILE IPAR (IDOPIL IPAR) (247)
OIHANBELTZ HEGO (256)
OIHANBELTZ IPAR (257)

HELETA:

GARRALDA (229)

UHARTE:

MATARIA (252)

LEKUNBERRI:

APATESARO HEGO (209)
APATESARO EKIALDE (210)
APATESARO IPAR (211)
ARTHEKO TONTORRA (216)
ARTXILONDO IPAR ETA HEGO (217)

ARTXILONDO MENDEBAL (218)
BILGOTZA (222)
ERROZATE (225)
ETXAATEKO BIZKARRA (226)
ETXAATEKO LEPOA (227)
HARLUZE (231)
ILARRITA (OKABE) (238)
IRATI-SORO HEGO (240)
IRATI-SORO ERDI (241)
IRATI-SORO IPAR (242)
IRAUBAZTER (243)
IRAUKO LEPOA (244)
IRAUNABAKO ERREKA HEGO (245)
IRAUNABAKO ERREKA IPAR (246)
OIHANBELTZ HEGO (256)
ZURZAI HEGO (271)
ZURZAI IPAR (272)

LUHUSO:

ERREGELU (224)
MENDIZABALE (253)

MENDIBE:

BEHORLEGI (221)
GAHALARBE (228)

ORZAIZE:

HORZA (237)
ORGELETEGI (258)

BAIGORRI:

AINTZIAGA (208)
MUNHOGAIN (254)
UNTXIDE (263)
URDIAKOHARRIA I (266)

EIHERALARRE:

ARNOZTEGI (213)
CABAÑAS DE URKULU (223)
ITSASEGI (248)
LEIZAR-ATHEKA (251)
SOHANDI (259)
URDANARRE (264)
URDANARRE IPAR (265)

UREPELE:

ARGAIKO-HARRIA (212)
HORTZ-ZORROTZ (236)

• ZUBEROA

ALTZABEHETI:

ALBINZE (274)
HARTSUDURRA (ESKALIERRA) (278)
UGATZE (288)

ALTZAI:

ALBINZE (274)
HARTSUDURRA (ESKALIERRA) (278)
UGATZE (288)

BARKOXE:

AHARGO (273)

DONEZTEBE:

ZERA (291)

HAUZE:

UTHUNARRIA (289)

LARRAINE:

ARHANOLATZE (275)
BAGURDINETA (276)
ERROIMENDI (277)
ILHARREKO ORDOKIA (280)
LAPATIÑEGAÑE (281)
LEPO XIPIA (ESKALEAK) (282)
MEATZE (283)
MILLAGATE (284)
MURKHUILLAKO LEPOA (285)
ORGANBIDESKA (286)
PELUSAINE (287)
XARDEKA (290)

URDIÑARBE:

HEZELEKUA (279)

ZALGIZE:

ZERA (291)

ZUNHARRETA:

ALBINZE (274)
HARTSUDURRA (ESKALIERRA) (278)
UGATZE (288)

• HUESCA

ANSÓ:

AGUAS TUERTAS (292)
BARRANCO DEL ARROYO (299)
BARRANCO EL CAMPANIL (300)
BARRANCO MAYO BLANCO (301)
BUNKER (302)

CAMPO LARGO ESTE (303)
CAMPO LARGO PUENTE (304)
CASA DE LA MINA (305)
CUARTEL DE CARABINEROS (308)
FOYAS DE AÑARON NORTE (315)
FOYAS DE AÑARON SUR (316)
FOYAS DE SANTA MARIA ESTE (317)
FOYAS DE SANTA MARIA OESTE (318)
LAS FITAS NORTE (323)
LAS FITAS SUR (324)
PIE BARRANCO BARCAL (LA ROYA) (327)
TXIPETA NORTE (331)

BENASQUE:

FORAU DE LA LLANA ESTE (313)
FORAU DE LA LLANA OESTE (314)
REMUÑE (330)

CANFRANC:

BARRANCO DE BLANCAS (IZAS) (296)
BARRANCO DE IP (297)
CIRCO CANAL ROYA (306)
CORRAL (CASA DE LA MINA ALTO) (307)
ISERIAS (IZAS) (320)
LARINCONADA (CANAL ROYA) (322)

CORNUDELLA DE BALIERA:

LA RIBERA (321)

HECHO:

BARRANCO BARCAL ALTO (293)
BARRANCO BARCAL MEDIO (294)
BARRANCO BARCAL (REFUGIO) (295)
PUENTE DE LOS TRONCOS (329)

SALLENT DE GÁLLEGO:

BARRANCO DE LOS CAMPOS DE TROYA (298)
CULIVILLAS (309)

TRAMACASTILLA DE TENA:

EL PUENTE (310)
EL SALERO I (NORTE) (311)
EL SALERO II (SUR) (312)
IBON DE TRAMACASTILLA (319)
LORDECI NORTE (325)
LORDECI SUR (326)
POCETAS DE LA CAMBRA (328)

• BIARNO

ACCOUS:

CHARACOU (349)
CHARACOU II (350)
COL D'ISEYE (358)
ISEYE (366)

ANSÓ:

IBON D'ASTANES (365)

BEDOUS:

OURDINSE I (381)
OURDINSE II (382)
OURDINSE III (383)

BIELLE:

COL D'ARAN (351)
COURAÜS DE HONDAS (360)
HOUNDAS (364)

BILHERES:

ACCAÜS (332)
LA COUD (368)

BORCE:

ARLET (CAILLAOUS) (335)
ARLET ESTE (336)
ARLET OESTE (337)
ARRI (338)
ARRI I (BANASSE) (339)
ARRI NORTE (CABAÑA DE LERBE) (340)
CANTAL ESCURETETS ESTE (348)
COL DE SOUPERET (357)
GABEDAILLE I (361)
GABEDAILLE II (362)
GABEDAILLE III-IV (363)
LAC D'ANGLUS (367)
MASPÊTRE (377)
MASPÊTRE I (378)
MASPÊTRE II (379)
SAOUBATHOU (IBOSQUE) (394)
SAOUBATHOU (SPELUNGUETTE) (395)
SAOUBATHOU (397)
SOUPERET (403)

CETTE-EYGUN:

OURATOU (380)

ESCOUT:

PEYRECORE (385)

ETSAUT:

BAIGT-DE SESCOUE (341)

GABAS:

COL D'AYOUS (353)
LAC GENTAU (369)

ISSOR:

BISCACOU (NAPATCH) (343)

LUHÜNTZE:

BIOUS OUMETTES (342)
CABANE DE CUJALATE (344)
CABANE DE SÉNESCAU (345)
CABANES DE MAGNABAITG (346)
CABANES LA GLÈRE (347)
COL DE L'IOU (355)
COL DE MAGNABAITG (356)
COL LAVIGNE (359)
LAC ROUMASSOT (370)
LA GLÈRE DE POMBIE (371)
LAS QUEBES (374)
LAS QUÉBOTTES DE BROUSSET (375)
MAGNABAITG (376)
PEYREGET (386)
PIC D'AROUGOS (387)
PLAA HOUNGAROUS (388)
PLAT DE LA GRADILLERE (389)
PLAT DE LA GRADILLERE ESTE (390)
PLAT DE LA GRADILLERE OESTE (391)
PLUVIÓMETRO (NIVÓMETRO) (393)
SÉNESCAU I (398)
SÉNESCAU II (399)
SÉNESCAU III (400)
SENTIER DE LOUSTRÉBÈS (401)
SOQUES (402)
SOUSSOUÉOU (404)

LESCUN:

ANSABÈRE ALTO (333)
ANSABÈRE BAJO (334)

LOURDIOS-ICHERE:

SARRAILLE (DE CAZAUX) (396)

SARRANCE:

LAPOURSIOUQUE (VALLEE D'ARAN) (372)
PEDAING-DOUS-PLOUS (384)

URDOS:

COL D'ASTUN (352)
COL DE GOUETSOULE (354)
LARRY (373)
PLATEAU DE GOUETSOULE (392)

• PIRINIO GARAIAK

CAUTERETS:

AFFRON (405)
ARRATILLE (406)
DARRE SPLUMOUSE (407)
ILHEOU (408)
LUTOUR I (409)
LUTOUR II (410)
PE DET MALH (411)
PLA DE LA GOLE I (412)
PLA DE LA GOLE II (413)

7. BIBLIOGRAFIA

ADRIAN DE CON, D. (1994): Hallazgo de un grupo de cromlechs en el alto valle del Ara, Pirineos Centrales, Huesca. *Munibe (Antropologia-Arkeologia)* 46,145-146. Donostia.

AGIRRE, I. DE. (1976): *Eusko Lurra. Geografía del País Vasco*. Etor arg. Donostia.

AGUIRRE, A. (1955): *Materiales arqueológicos de Vizcaya*. Bilbo.

ALMAGRO, M. (1942): La cultura megalítica en el Alto Aragón. *Ampurias* 4, 156-167. Bartzelona.

ALMAGRO, M. (1944): La cultura megalítica en el Alto Aragón. *Ampurias* 6, 311-316. Bartzelona.

ALTUNA, J. (1974): Nuevos monumentos megalíticos para el País Vasco. *Estudios de Arqueología Alavesa* 6, 79-81. Gasteiz.

ALTUNA, J.; APELLANIZ, J.M.; RODRIGUEZ DE ONDARRA, P. (1964): Excavación de la estación de "túmulos" de Satui-Arrolamendi (Guipúzcoa). *Munibe* 16, 60-71. Donostia.

ALTUNA, J.; ARESO, P. (1977): Excavaciones en los cromlechs de Oyanleku (Oyarzun, Guipúzcoa). *Munibe* 29, 65-76. Donostia.

ALTUNA, J.; ARMENDARIZ, A.; BARRIO, L. DEL; ETXEBERRIA, F.; MARIEZKURRENA, K.; PEÑALVER, J.; ZUMALABE, F.J. (1990): Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. I. Megalitoak. *Munibe (Antropologia-Arkeologia)*, 7. gehigarria. Donostia.

ALTUNA, J.; ARMENDARIZ, A.; ETXEBERRIA, F.; MARIEZKURRENA, K.; PEÑALVER, X.; ZUMALABE, F.J. (1995): Gipuzkoa. Karta Arkeologikoa. II. Haitzuloak. *Munibe (Antropologia-Arkeologia)*, 10. gehigarria. Donostia.

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A.; BARRIO, L. DEL; UGALDE, TX.; PEÑALVER, J. (1982): Carta Arqueológica de Guipúzcoa. *Munibe* 34, 5-242. Donostia.

ANDRES, T. (1975a): *Estación megalítica de Guarrinza (Huesca). Nuevas investigaciones. In: Miscelánea Arqueológica dedicada al profesor Beltrán,* 69-84. Zaragoza.

ANDRES, T. (1975b): La estación megalítica de Cornudella (Arén, Huesca). *Noticiario Arqueológico Hispánico*. Prehistoria 4, 41-73. Madril.

ANDRES, T. (1978): Los "cromlechs" pirenáicos. In: Els Pobles Pre-romans del Pirineu. *II Colloqui Internacional d'Arqueologia de Puigcerdà*, 109-117. Bartzelona.

ANDRES, T. (1988): La estación megalítica de Guarrinza (Echo-Ansó, Huesca). Campañas de 1973 y 1974 (1ª parte). *Bolskan* 5, 117-145. Huesca.

ANDRES, T. (1990): El fenómeno dolménico en el País Vasco. *Munibe (Antropologia-Arkeologia)* 42, 141-152. Donostia.

